

Aziti Bihia

Euskal filologia
eta hizkuntzalaritzaren
adarrak

Dorota Krajewska
Sergio Monforte
Eneko Zuloaga (arg.)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aziti Bihia

Euskal filologia eta hizkuntzalaritzaren adarrak

Dorota Krajewska, Sergio Monforte, Eneko Zuloaga (arg.)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

Aziti Bihia [Recurso electrónico]: euskal filologia eta hizkuntzalaritzaren adarrak / Dorota Krajewska, Sergio Monforte, Eneko Zuloaga (arg.). – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea: PDF (253 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-457-8.

1. Euskara (Lengua) – Congresos. I. Krajewska, Dorota, ed. II. Monforte, Sergio, ed. III. Zuloaga, Eneko, ed.

(0.034)809.169



© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-457-8

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	4
<i>Alexander Artzelus Muxika</i> Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin, lekukoen oharmenaren arabera.....	6
<i>Eukene Franco Landa</i> Zenbat dira asko? Euskal zenbatzaile zehaztugabeak aztergai.....	33
<i>Alaitz Imaz</i> Hikako adizki alokutiboetako <i>d- > z-</i> aldaketaren ibilbide historikoaz.....	68
<i>Gorka Lekaroz Mazizior</i> Benito Gil, euskal autore urraulgoitiarra.....	92
<i>Aitor Lizardi Ituarte</i> <i>Ahaletik alera</i> : partikula baten gramatikalizazio bidaia.....	123
<i>Ainhoa Pardina</i> D ereduan euskalduntutako gazte nafarren euskara gaitasunaren eta euskara transmisioaren bilakaera.....	147
<i>Mikel Pérez González</i> Barakaldoko 14-18 urte bitarteko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak.....	174
<i>Iñigo Urrestarazu</i> Auzibidea Burundakoa da, eta euskara? XVII. mendeko euskara apurtxo batzuk eta Burundako euskara garaikidea alderatzen.....	203
<i>Laura Vela-Plo</i> Araua eta gaur egungo erabilera: Espero genuen(a) baino aldakortasun handiagoa egitura konparatiboetan.....	228

Hitzaurrea

Euskal Ikasketek egun duten bizindarra azaltzeko, baitezpadakoa da aintzat hartzea lau hamarkadatik gora igaro direla Euskal Herriko unibertsitateetan Euskal Filologiako eta Hizkuntzalaritzako ikasketa programak ezarri zirenez geroztik. Ikusgarri bezain sendoak dira, gaur-gaurkoz, euskararen gaineko askotariko ikerketa esparruek urteotan izandako bilakabidea eta lorturiko estandarrak: arrunt bihurtu da euskal ikertzaileen lanak ohiko iragazki akademikoak gainditu eta nazioarteko biltzar, argitalpen, ikastaro eta bestelakoetan aurkeztu eta argitaratzea. Emaitzok erdiesteko, ezinbesteko izan dira bai bide urratzaile eta gidari aritu direnen jarduna, bai *Euskal Ikasketak* deritzogun arlo zabalaren azpi arloetan sortu eta handitutako ikerketa taldeak, bai horietan gazterik aritu eta aritzen diren ikertzaileen lana, bai esparru akademikoan jardun ez arren, estandar zientifikoak ezagutu eta baliatzen dituztenena.

Liburu honek arestian aipatutako ikertzaileen lanak biltzen ditu, funtsean, eta Aziti Bihia Euskal Filologo eta Hizkuntzalarien elkarteak antolatutako zenbait jardunalditako lan hautatu eta errebisatuak aurkeztu nahi ditu. Orain hamar urte sortu zen Aziti Bihia elkarteak UPV/EHUko zenbait doktoregaireren eskutik, eta urteotan hainbat ekimen akademiko antolatu eta kaleratu ditu: argitalpenak, biltzarrak, udako ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak bai, behinik behin. 2017az geroztik Euskal Filologiaren adarrak izeneko jardunaldiak antolatu ditu halako maiztasun batez: sei, guztira; lau aurrez aurreko eta bi online, COVID-19aren pandemiak eragindako gorabeherak tarteko. Liburu honek, bada, azken jardunaldietan aurkeztutako lan batzuen bertsio idatziak dakartza, eta baliagarri da, oso, aurretik aipatutako Euskal Ikasketen azpi arloetan ikergai diren gaien eta azterketen nondik norakoak ezagutzeko. Irakurlea ohartuko denez, soziolinguistika bariasionistari, hizkuntzaren soziologiari, filologiari eta testuei, gramatikari eta sintaxiari, dialektologiari eta hizkuntzalaritza historikoari lotutako lanak dakartza argitalpen honek.

Lehenengo atalean, Alex Artzelusek dialektologia pertzeptuala lantzen du, Garazi eskualdeko euskara aztergai hartuta; zehazki, bizi-bizirik dagoen aldakortasun linguistikoaren gaineko pertzeptzioa ikertzen du Artzelusek. Bigarren atalean, Eukene Francok euskarazko zenbatzaile zehaztugabeen al-

dakortasuna aztertu du: adizkian komunztadura plurala egiten duten ala ez, hala gramatikaren nola soziolinguistikaren ikuspegiak baliatuta. Hirugarren atalean, Alaitz Imazek euskal aditzaren historiari heltzen dio; zehazki, hika-ko adizki alokutiboetako *d- > z-* aldaketaren bilakabidea du ikergai, Euskara Arkaikotik Lehen Euskara Modernora bitarteko corpora baliatuz. Laugarren atalean, Gorka Lekarozek Benito Gil idazle urrauldarraren berri bio-bibliografiko zehatza eta argigarria dakar, bai eta garaiko giro linguistikoaren eta idazlearen hizkerako ezaugarri linguistiko zenbaiten berri ere. Bosgarren atalean, Aitor Lizardik al galde partikularen gramatikalizazioa du langai; partikularen beraren semantika hobeto ezagutzeko datuak aurkezten ditu egileak, eta orain artekoak ez bestelako proposamenak egiten. Seigarren atalean, Ainhoa Pardina hizkuntzaren soziologia gaietan murgiltzen da: Nafarroako euskal hiztun berrien hizkuntza gaitasuna eta proaktibotasuna ikertu ditu, hezkuntza sistemako D eredu linguistikoaren eraginari eta giroari loturik. Zazpigarren atalean, ikerketa ildo beretik jotzen du Mikel Pérezek; hizkuntzaren soziologiarenetik, alegia. Barakaldoko (Bizkaia) 14-18 urte bitarteko gazteek euskarari dagokionez dituzten jarrerak eta motibazioak bildu eta aztertu ditu Pérezek. Zortzigarren atalean, Iñigo Urrestarazuk Burundako euskara zaharra hartzen du aztergai, eta 1648ko auzibide batek dakartzan euskara apurrak tokiko hizkerari ala bestelako eredu linguistiko bati dagozkion aztertzen du, eskualde bereko beste garai batzuetako lekukotasunak baliatuz. Bederatzigarren (eta azken) atalean, Laura Vela-Plok sintaxia aztertzera jotzen du: *espero genuen(a) baino gehiago* ereduko konparazio perpau-sen aldakortasunaren azterketa dakar, kasu honetan ere hala gramatikaren nola hiztunen pertzepzioaren ikuspegitik.

Eneko Zuloaga
Sergio Monforte
Dorota Krajewska

Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin, lekukoan oharmenaren arabera

Perceptual analysis of the linguistic divergence
caused by the political border in the Basque dialect
of Garazi valley

Alexander Artzelus Muxika
alex_aitza@hotmail.com

LABURPENA

Zenbait lanek frogatu dute (Artzelus, 2019; Santazilia, 2009) gero eta alde linguistiko handiagoa dagoela Luzaide eta mugatik iparraldera dauden herri garaztarren artean. Datu horiek ongi interpretatzeko, ordea, ezinbestekotzat jotzen dugu bertako hiztunek aldaketa hori nola hautematen duten ikertzea. Horretarako, erreakzio subjektiboen testak erabili ditugu. Hots, grabaketa batzuk entzunarazi dizkiegu lekukoei: hainbat belaunalditako lau luzaidarrenak mugatik iparraldeko herrietan, mugatik iparraldeko herrietako beste laurenak Luzaiden, eta Iparraldeko Batuaren eta Hegoaldeko Batuaren ordezkari hartu ditugun bi grabaketa lekuko guztiei. Lekukoek entzuten dituzten hiztunak nongoak diren erran behar izan dute. Ondorioztatu ahal izan dugunez, garaztarrek ere ibarrean gertatzen ari den aldaketa linguistikoa hautematen dutela frogatu ahal izan dugu.

Hitz gakoak: soziolinguistika; bariasionismoa; hizkuntza aldakortasuna; oharmenezko dialektologia; Garazi.

ABSTRACT

Previous works (Artzelus, 2019; Santazilia, 2009) have proved that linguistic divergence is increasing in Garazi valley, because it is divided by the political border between France and Spain. Nevertheless, it is necessary to know how speakers perceive that difference to better interpret the data. For that purpose, we have conducted subjective reaction tests: informants of the southern side of the border have listened to four recordings of speakers of different generations from the northern side. The contrary has been done in the northern side. Finally, all the informants have listened to two recordings that represent the supralocal varieties from the Northern Basque Country and the Southern Basque Country. Then, informants have been asked to say where those recordings are from. We have concluded that, in effect, local speakers also perceive language change in the expected way.

Key words: sociolinguistics; variationism; language change; perceptual dialectology; Garazi Valley.

1 Sarrera

Hainbat lanek (Artzelus, 2019, 2021; Santazilia, 2009) Espainiako eta Frantziako estatuen arteko muga politikoaren eraginez, Luzaide eta Garaziko gainerako herrien artean, batez ere belaunaldirik gazteenean, muga linguistikoa sortzen ari dela frogatu dute hizkuntza datu objektiboetan oinarrituta. Dibergentzia horretan eragina dute gaztelania eta frantsesa hizkuntza nagusiek, eta baita Hego Euskal Herriko Batuak eta Ipar Euskal Herriko Batuak ere.

Dena den, J. Milroyk (1992, 5.-10. or.) dioenez, hizkuntza aldakortasunaren azterketa ez da osoa izango hizkuntza jarrerak kontuan hartu ezean. Guk zenbakietan ikusten duguna lekukoek ere hala dela sentitzen badute, ondorioek sendotasun handiagoa izanen dute. Hori dela eta, ezinbesteko iruditu zaigu oharmenezko dialektologiari arreta eskaintzea eta lekukoek muga politikoa muga linguistikotzat hautematen duten edo ez ikertzea.

Horretarako, erreakzio subjektiboen testak egin dizkiegu lekukoek; hots, grabaketa batzuk entzun dituzte eta ahots horiek nongoak diren erran dute. Grabaketako ahotsa beren mintzoaren iduria dela uste badute, espazioan hurbil kokatu ohi dute, eta desberdina dela uste badute, berriz, urrun. Bistan den bezala, badago ariketa horretan *transparik*. Hain zuzen ere, mugaren iparraldean entzun dituzten lehen lau ahotsak luzaidarrenak dira, mugaz hegoaldekoak. Luzaiden, berriz, entzun dituzten lehen lau grabaketa horiek Ainhize-Monjolose, Gamarte eta Ahatsakoak dira; beraz, mugaz iparraldekoak. Zernahi gisaz, inguru geografiko berekoak izanagatik, hainbat belaunalditako hiztunak dira, eta beraz, batetik bestera alde linguistikoa dago. Grabaketa horiez gain, mugatik bi aldeetara, Ipar Euskal Herriko Batuaren ordezkariatzat hartu dugun grabaketa bat eta Hego Euskal Herriko Batuaren ordezkariatzat hartu dugun beste bat ere entzun dituzte. § 4n zehatzago ari-tuko gara honetaz.

Hauek dira gure hipotesiak:

- i. Mugaz bi aldeetako adinekoek beren herrian edo herritik hurbil kokatuko dute lehen grabaketako hiztunaren (Luzaideko edo Gamarteko adineko emaztearen) mintzoa, berenaren berdina dela kontsideratzen baitute.

- ii. Mugaz bi aldeetako gazteek adinekoek baino urrunago kokatuko dute lehen grabaketako mintzoa, beren mintzotik hein batean desberdintzen dela uste baitute.
- iii. Grabaketetako hiztunak zenbat eta gazteago eta berritzaileago izan, orduan eta urrunago kokatuko dituzte lekukoek.
- iv. Adinekoek urrun ikusiko dute Ipar Euskal Herriko Batuaren / Hego Euskal Herriko Batuaren ordezkaria, baina hurbil gazteek (Iparraldekoek Ipar Euskal Herriko Batua mintzo duena eta Hegoaldekoek Hego Euskal Herriko Batua mintzo duena), berek erabiltzen duten mintzotik hurbil baitago.

2 Muga politikoa eta hizkuntza muga

Muga politikoez berebiziko eragina dute lekuari buruz eratzten dugun ideian, eta gaur egun are gehiago. Horrez gain, zatitzen duten espazio geografikoan, alde batean nahiz bestean, hitz egiten den hizkuntzan ere eragin nabarmena izan dezakete. Garaziko euskararen azterketaz ari garelarik, ezinbestekoa da muga kontuan hartzea; izan ere, ibarra erdi-erditik zatitzen du Luzaide gainerako herrietarik bereizita.

Hizkuntza plangintza lurralde eleanitzak *nazio* bihurtzeko erreminta izan da. Politikoki, kode linguistikoko baten edo bakar batzuen inguruan bat etorraziti dituzte hainbat hizkuntza zituzten herritarrak. Media eta hezkuntza elebakarrera buruzko estatuaren apustuak publiko elebakarraren ilusioa sortu du, eta linguistikoki eta kulturalki desberdinak diren lurralde bateko taldeek entitate nazional bakarra partekatzen dutelako irudia sortzen dute (Anderson, 1991, *apud* Choksi, 2013, 48. or.).

Haugen-en (1972, 245. or.) ustez, nazio estatuaren eta hauen hizkuntza nazusien ikuspuntuaren arabera, estatuaren arteko bereizkuntza beharrak talka egin du kontaktu internazionalaren behararekin. Hain zuzen ere, nazio estatuaren mugek errealitate lokalen, nazionalen eta internazionalen arteko gatazkaren ideia dakarte berekin, existentzia eskizofrenikoaren zentzua emanaz (Omoniyi, 2013, 12. or.). Eskizofrenia hori argi eta garbi ageri zaigu Luzaide; hala nola, hegoaldera (Aezkoa, Iruñea, etab.) eta iparraldera (Garazi) dituzten eremuak izendatzeko erabiltzen dituzten izenetan: *goiti* (Hegoaldea) *vs beiti* (Iparraldea), *Iparraldea*, *Frantzia*, *beste alderdia*, *Garazi inguru hau*, *Baigorri eta gure alderdi hau* (Luzaide barnean sartuz), *España* (Nafarroatik hegoaldera dagoena izendatzeko (baina hiztun berak gero *Frantzia*

erabiltzen du Garazirendako). *Hemen* hitzak zer erran nahi duen ere ez dago argi. Zenbait aldiz, Hegoaldea erran nahi du, baina beste zenbait aldiz, Iparraldea. Arreta ematen du Luzaideko adineko emaztearen esaldi honek, halaber: *Eskual Telebistan meza Frantziatik emaiten dutelaik, aiseo konpreintzen dixiu hemengoa bano*. Baita usu entzuten den beste honek ere: *gure eskuara frantsesa da*.

Mugaren alde banatako harremana maximoa izan daiteke, mugaren inguruan afinitate kultural eta linguistikoak badaude eta kontaktu eremu aberatsa bada (Momoh, 1989, 52. or.), hots, mugimendua arazorik gabe gertatzen bada. Minimoa izan daiteke bi aldeetan afinitate kultural eta linguistiko urria badago, normalean ez 2-5 kilometroko diametroa baino zabalagoa den eremuan. Azkenik, zero harremanen kasua dugu, erabateko blokeoa dagoe-larik; adibidez, Ipar eta Hego Korearen artean (Omoniyi, 2013, 12. or.), edota bi Karelien kasuan, Finlandia eta Errusia artean.

Nazioartean, muga politikoek dialektoen *continuum* zaharrak muga dialektal bihurtu dituzte (Auer & Hinskens, 1996, 4. or.). Hots, dialektoen arteko konbergentzia dibergentzia bilakatzen da mugan. Mugak bereiziriko lurralde eta hizkuntzen arteko hiru konstelazio proposatzen dituzte Auerek eta Hinskensek (1996, 16.-17. or.):

- i. *Continuum*a estandar ia berarekin: mugaren bi aldeetan estandar bera dago; errate batera, Austria eta Alemaniako mugaren kasuan. Hala ere, hizkuntzaren panorama desberdinak Austriako dialektoak Alemaniakoak baino kontserbatzaileago bilakatu ditu. Irlanda bezalako kasu konplikatuagoak ere baditugu: Irlanda burujabe den aldean ingelesa eta irlandera dira ofizial, baina Erresuma Batuko aldean, ingelesaren RP aldaerak du estatus hori eta irlanderari kasu gutxi egi-ten zaio.
- ii. *Continuum*a bi estandarrekin: Herbehereen eta Alemaniaren artean *continuum*a da nagusi bertako mintzoen artean. Hala ere, mugaren alde banatan estandar desberdinari so daude.
- iii. *Continuum*a estandar bakarrarekin: *continuum*aren alde bateko aldaerek estandarra garatua dute, baina bestaldekoek ez. Hori da gertatzen, errate batera, alsazieraren kasuan, Alemaniako aldean aleman estandarra baitute, baina ez Frantziako aldean.

Hain zuzen ere, Euskal Herrian, mugak eragin du, alde batetik, gaztelania eta frantsesa hizkuntza nagusiak hedatzea eta indartzea, batez ere, hondarreko hamarkadetan. Beste alde batetik, Euskal Herri osorako euskara estan-

dar bakarra izan beharrean, badirudi, mugaren alde banatan, bi barietate supralokal, Hego Euskal Herriko Batua eta Ipar Euskal Herriko Batua, ari direla indarra hartzen. XIX. mendeaz geroztik, nafar-lapurtera deituriko eredu propioa garatzen aritu dira baxe-nafartarrak eta lapurtarrak, besteak beste, *Eskualduna* aldizkari sonatuari esker. Eredu hori xeheki deskribatu zuen Lafittek bere *Grammaire basque navarro-labourdin littéraire* lanean (1944/1991), eta idazle andana bati barietate horretan idazteko tresna ezin hobea eskaini zion. Iparraldetik maiz leporatu izan diote Euskara Batuari Gipuzkoako euskararen isuri handiegia duela eta gaztelaniaren eragina ere bai. Hori dela eta, Iparraldean beren eredu propioarekin jarraitu dute, nafar-lapurteraren ondorengo den Ipar Euskal Herriko Batuarekin. Guk dakigula, ez da barietate hau deskribatzeko lanik egin, baina erraten ahal genuke Lafittek deskribatu ereduari hurren dela.

Bestalde, mugaz bestalde, Hego Euskal Herriko Batua dugu. Erdialdeko euskarari so den Euskara Batuari deitzen diogu horrela. Hain zuzen ere, nahiz eta sarri ekialdeko zein erdialdeko/mendebaldeko formak onarturik egon Euskara Batuan, bigarrenak dira entzuten ardurenean komunikabideetan eta bizitza publikoan, oro har; adibidez, *etxeetarik* eta *etxeetatik*, *izanen* eta *izango*, *erran* eta *esan*, guztiak daude Euskara Batuan onarturik, baina bigarrenen alde egiten da ia beti.

Mugak sortzen duen egoera berezia dela eta, ez da erraza Garaziko Luzaide herriaren kasua Auer eta Hinskensek proposaturiko zein konstelaziotan sailkatu behar den erabakitzea. Gogoeta hauxe egiten du Santaziliak (2009, 241. or.):

Euskara Batua (letra larriz) estandarra dela onartuz, mugaren bi aldeetarako sortutako estandarra genuke hori, a) taldekoa bezalakoa. Aitzitik, b) taldeko egoera islatu genezake, Iparralderako eta Hegoalderako bi estandar daudela onartuta: Luzaiden Hegoaldeko estandarra irakasten da eskolan, non Hegoalde osoko irakasleak biltzen diren; Iparraldean «iparraldeko batua» hedatzen ari dela pentsatuta (cf. Videgain 1995 edo Oihartzabal 1993), bi estandar badirela onartuko genuke. Azkenik, c) taldean litzateke Luzaide, estandarra Hegoaldean soilik hedatu dela baieztatuko bagenu.

Santaziliak b) aukeraren alde egiten du. Bere ustez, gainera, Luzaideko gazteek herriko euskara erabiltzen dute etxean, formakuntzaren zati bat Iparraldean jaso dutenak kapable dira Ipar Euskal Herriko Batua ere aritzeko, eta Hegoaldekoekin Hego Euskal Herriko Batua erabiltzen dute (Santazilia, 2009, 243. or.). Zenbaitek hiru sistema menderatzen dituzte, beraz.

3 Oharmenezko dialektologia

Oharmenezko dialektologia hizkuntza erabiltzaileek hizkuntza nola hautematen duten ikertzen duen diziplina da. Hiztunen ustez, dialektoen arteko mugak non dauden, beren mintzoaren eremu geografikoa zein den eta hizkuntza mintzatuaren aitzinean hiztunek dituzten erreakzioak ikertu nahi ditu. Hiztunean zentratuta dago, beraz, eta hizkuntza nola eta zergatik aldatzen den azaltzen laguntzen du (Montgomery & Beal, 2011, 121. or.).

Hiztunen usteak eta pertzepzioak bazterrean utzi izan dira usu, Niedziel-skik eta Prestonek (2003, 1. or.) dioten bezala, hizkuntzalariek *gu vs haiek* ikuspuntua hartu izan baitute (Montgomery & Beal, 2011, 122. or.). Ikerlari askoren ustez, alabaina, hizkuntzalariarendako hiztunen oharmena eta usteak ingurune dialektala ezagutzeko berebiziko laguntza eskaintzen duten tresnak dira (Taeldeman, 1989, 162. or.).

Diziplina hau Herbehereetan lantzen hasi zen, eta ondoren, tradizio japoniarra ere garatuz joan zen. 1939an egin zen nederlanderaren ikerketa dialektologiko batean, dialektoen oharmenezko mugak ikertu ziren (Montgomery & Beal, 2011, 123. or.). Lehenik eta behin, beren moduan non hitz egi-ten zuten galdetzen zitzairen, eta ondoren, berriz, ia non desberdin (Rensink, 1955/1999, 3. or.). Datuak Weijnenek (1946, *apud* Montgomery & Beal, 2011, 123. or.) aztertu zituen, eta geuzien metodoa ondu zuen (Preston, 1999, xxvi. or.). Honen bidez, gezi multzo bat zuen mapa irudikatu zen, dialektoen arteko antzekotasuna hautematen zen herrien arteko lotura adieraziz.

Oharmenezko dialektologia garatu zuen tradizio japoniarrean, berriz, aipatu dugun metodoaz gain, informatzaileei *continuum* dialektalean desberdintasun mailak emateko galdegiten zitzairen, *desberdinetik* has eta *ulertezi-neraino* (Montgomery & Beal, 2011, 124. or.).

Aipaturiko metodo horiez gain, hizkuntza jarrerak ikertzeko erabiltzen den *matched-guise* teknika ere erabiltzen da. Horren haritik, lan honetan baliatu ditugun erreakzio subjektiboen testak ere baditugu (Giles, 1977; Giles & Bourhis, 1976; Paltridge & Giles, 1984). Proba hauetan, lekukoei grabaketa batzuk entzunarazten zaizkie eta, ondoren, horietan entzuten dituzten pertsonak zein herritakoak edo hiritakoak diren galdetzen zaie. Montgomeryk eta Bealek (2011) frogatu zuten, besteak beste, lekukoek erakargarri eta prestigiotsuak iruditzen zaizkien lekuetako mintzoak berenetik hurbil kokatu ohi dituzte, eta konnotazio aski negatiboa dutenak, berriz, urrun. Metodo hori biziki egokia gertatu zaigu hiztunen oharmenaren berri izateko; izan

ere, euskal hiztunek gustuko izan ohi dute pertsona bat bere mintzoaren arabera nongoa den erratea. Hori dela eta, ia jolastzat hartu dute proba hori, eta neke eta esfortzu gutxi eskatu die, baita adinekoenei ere.

4 Metodologia

Sei grabaketa entzunarazi dizkiegu lekukoei, orotara. Horietarik lau desberdinak izan dira Luzaiden eta gainerako eremuetan. Mugaren iparraldeko eremuetan, Luzaideko adineko emazte baten, Luzaideko emazte heldu baten, Luzaideko emazte gazte gordetzaile baten eta Luzaideko emazte gazte berritzaile baten grabaketak izan dira. Luzaiden, berriz, Gamarteko adineko emazte baten, Ainhizeko emazte heldu baten, Ahatsako emazte gazte gordetzaile baten eta Gamarteko emazte gazte berritzaile baten grabaketak entzunarazi ditugu. Gamarte, Ainhize-Monjolose eta Ahatsa herriak aukeratu ditugu Luzaidetik urrunen daudenetako batzuk direlako eta, beraz, lekukoek hiztunak ezagutuko ez dituztela espero baitugu. Luzaideko lekuko guztiek eta Gamarteko adineko emazteak dardarkari hobikaria darabilte. Gazte berritzailetzat hartu ditugunak ez beste guztiak, berriz, *xuka* mintzo dira. Hiztun gazteak berritzaile edo gordetzaile diren erabakitzeke, beste lan batzuetarako (Artzelus, 2019, 2021), hiztun horien mintzoaz egindako azterketak hartu ditugu oinarritzat. Hain zuzen ere, berritzaileak lotuago daude Ipar Euskal Herriko Batuari / Hego Euskal Herriko Batuari eta gaztelaniari/frantsesari. Gordetzaileak, berriz, Garaziko oinarri dialektalari fidelago jarraikitzen zaizkie. Grabaketa guztiak geuk eginak izan dira eta hiztunek pasadizoren bat kontatzen dute. Minutu bat pasatxo irauten dute.

Azken grabaketak berak izan dira Luzaiden eta beste eremuetan: Ipar Euskal Herriko Batuaren ordezkarietat hartu dugun bat eta Hego Euskal Herriko Batuaren ordezkarietat hartu dugun beste bat. Lehena Kanaldudek emazte aski gazte bati egin elkarrizketaren zati bat da. Ez dakigu hiztuna zehazki zein herritakoa den, baina Lapurdi edo Nafarroa Beherekoa da. Bigarrena www.ahotsak.eus webgunean atzeman dugun elkarrizketa zati bat da, Uztarrozen familia duen Iruñeko Txantreako neska gazte bati egina. Biek minutu pasatxoko luzera dute.

Lekukoei aske erantzuten utzi diegu, eta gero geu arduratu gara beren arrapostuak multzokatzeaz. Adibidez, *Luzaide-Arnegi* arrapostuaren barnean sartu ditugu *Luzaide*, *Arnegi*, *Luzaide-Arnegi* edota *hemen muga ondo-ko herri batekoa*. *Garazi* arrapostuaren barnean sartu ditugu Garaziko herri-

ren bat ihardetsi dutenak.¹ *Lapurdi-Nafarroa Beherea* barnean sartu ditugu, berriz, *Garazi eta Kanbo bitartean, Iparraldekoa, baina ikastolakoa* edota *Iparraldean nonahikoa* (suposatzen baita ez dutela zuberotartzat hartzen). Ibar honetan jende gutxi bizi denez, behin baino gehiagotan gertatu zaigu leku-koek grabaketetako hiztunak ezagutzea. Kasu horiek zein izan diren aipatu dugu.

Orotara 48 lekukoren arrapostuak jaso ditugu. Horietarik 8 luzaidarrak dira, eta gainerakoak mugaren iparraldean dauden herri zenbaitetakoak: Irulegi, Anhauze, Arnegi, Lasa, Uharte-Garazi, Ezterenzubi, Ahatsa, Lekunberri, Mendibe, Behorlegi, Gamarte eta Ainhize-Monjolosekoak. Hiru adin taldetan banatu ditugu: adinekoak (70-85 urtekoak), helduak (45-60 urtekoak) eta gazteak (20-35 urtekoak). Arrapostuak aztertzerako orduan, *Adina* aldagai askea edo aldagai soziala hartu dugu kontuan.

5 Datuen azterketa

Lehenik eta behin, ohikoenak izan diren arrapostuen kopuru eta ehunekoen taula erakutsiko dugu. Bertan, lehenik, arrapostu bat zenbat aldiz eman den erakutsiko dugu *Kop.* zutabean, eta ondoren ehunekoa % zutabean. Taula handiegia ez izateko, ez ditugu arrapostu guztiak erakutsiko. Ondoren, arrapostu guztien ehunekoak erakusten dituen grafikoa etorriko da eta, azkenik, gure iruzkinak. Mugaren iparraldean dauden herrietako arrapostuak etorriko dira lehendabizi, eta Luzaidekoak ondoren.


¹ *Arnegi* arrapostua *Luzaide-Arnegiren* barruan sartu dugu, arnegiar batek eman duenean salbu. Kasu horretan *Garazi* arrapostuaren barnean sartu dugu, bere hurbileko mintzoari egin nahi baitio erreferentzia, eta ez gaztelania kutsua duen mugako herrietako mintzoari. Kasu hori Arnegiko lekuko batekin eta lehen grabaketan baino ez zaigu gertatu.

5.1 Erreakzio subjektiboen testak mugaren iparraldean

5.1.1 Lehen grabaketa (Luzaideko adineko emaztea)

1. taula. Mugaren iparraldean, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuruak eta ehunekoak

	Luzaide-Arnegi		Garazi		Garazi edo ondoko ibar bat	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	9	90	1	10
Helduak	3	30	4	40	1	10
Gazteak	9	45	6	30	2	10



1. irudia. Mugaren iparraldean, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Adineko lekuko guztiek Luzaideko adineko emaztea garaztarra dela uste dute. *Garazi edo ondoko ibar bat* erantzun dutenen artean, ibar hori Oztibarre eta Landibarre izan da. *Garazi* ihardetsi dutenen kopurua anitz apaltzen

da helduen artean eta beste erantzun batzuk agertzen hasten dira; batez ere, Luzaide-Arnegikoa dela. Batzuek *Luzaide* diote, beste batzuek *Arnegi* eta beste batzuek, berriz, *Luzaide-Arnegi*. Hiru erantzunok bildu ditugu *Luzaide-Arnegi* izenburupean. Aipagarria iruditzen zaigu mugaren iparraldeko gaztarrek, gazteek barne, batasuna dakusatela Arnegiren eta Luzaideren artean, nahiz eta muga erdian izan. Gazteen artean, *Luzaide-Arnegi* erantzuna *Garaziri* nagusitzen zaio. Beraz, argi erran genezake adinekoek beren mintzoarekin identifikatzen dutela emazte horren euskara. Ez hainbeste helduek, eta gutxiago gazteek.


Hiztuna eremu jakin batean kokatzearen arrazoia eman dutenen artean, *xuka* mintzo dela erran dute *Garazi* arrapostua eman duten anitzek. Luzaide-Arnegikoa dela erran duten anitzek *bueno* hitza, intonazioa, *oh-là-là* espresioa, dardarkari hobikariak eta *xuka* aipatu dituzte beren kokapena arrazoitzeko. Hain zuzen ere, ezaugarri horien konbinazioak bultzatu ditu arrapostu hori ematera.

5.1.2 Bigarren grabaketa (Luzaideko emazte heldua)

2. taula. Mugaren iparraldean, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide-Arnegi		Garazi	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	5	50	3	30
Helduak	8	80	0	0
Gazteak	15	75	1	5

A. Artzelus Muxika, *Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin...*



2. irudia. Mugaren iparraldean, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Adinekoek berek ere aldea nabaritu dute Luzaideko adineko hiztunarengandik helduarengana. Gehienek Luzaide-Arnegikoa dela erran dute, baina oraindik handia da garaztarra dela erran duen adinekoen kopurua. Helduengana igaroz gero, ia denek jo dute Luzaidekotzat edo Arnegikotzat. Ber gauza gertatzen da gazteen kasuan ere, nahiz eta bestelako erantzun ugari ere badiren; kopuru apalean, betiere.


Hiztun hau Luzaidekoa edo Arnegikoa dela diotenak, arrapostu hori emateko tenorean, lexikoan oinarritu dira, batez ere. *Ya, pues, jolín* gaztelaniazko hitzak aipatu dituzte, baita *uso* eta *urrita* ere,² ez baitute uste Garazi-koak direnik. Kaminok eta Salaberrik (2007, 184. or.) *uso* dakarte Luzaidera-ko, eta Caminok (2004, 456. or.) Garazin *urzo* eta *ur(t)xo* erabiltzen direla dio. Horiez gain, intonazioa eta dardarkari hobikariak ere aipatu dituzte.

² Lekukoak *octubre* ematen du itzulpentzat, baina *udazken* adierarekin bildu zuten Kaminok eta Salaberrik (2007, 183. or.).

5.1.3 Hirugarren grabaketa (Luzaideko emazte gazte gordetzailerak)

3. taula. Mugaren iparraldean, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide-Arnegi		Luzaide-Auritz/Aezkoa		Garazi		Ez daki	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	2	20	0	0	5	50	2	20
Helduak	6	50	1	0	2	0	0	0
Gazteak	13	65	1	5	3	15	0	0



3. irudia. Mugaren iparraldean, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.


Luzaideko emazte heldua ez bezala, adineko gehienek ere, garaztartzat jo dute emazte gazte gordetzailerak. Adinekoa baino hein apalagoan, halere. % 20k Luzaide-Arnegikoa dela diote, eta beste % 20k ez dakite. Heldu gehienek, beste behin, Luzaide-Arnegikoa dela erran dute, baina bestelako erantzun ugari ere eman dituzte, ziurgabetasunaren marka. Gazte gehienek, aski uniformeki, Luzaide-Arnegikoa dela ihardetsi dute.

Garaztarra dela erran dutenek *xuka* aipatu dute kokapenerako arrazoi-tzat. Luzaide-Arnegikoa dela erran dutenek, berriz, *xuka*, intonazioa, dardar-kari hobikariak eta *potreta ateratzeko mekanika* hitza eman dituzte arrazoi-tzat.

5.1.4 Laugarren grabaketa (Luzaideko emazte berritzailea)

4. taula. Mugaren iparraldean, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide-Arnegi		Baztan		Hegoaldea		Aezkoa		Zugarra-murdi		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	2	20	0	0	2	20	1	10	0	0	1	10
Helduak	1	10	4	40	2	20	0	0	2	20	1	10
Gazteak	6	30	4	20	4	20	1	5	0	0	1	5



4. irudia. Mugaren iparraldean, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Arrapostu ugari eman dituzte lekukoek, ziurgabetasuna dutelako marka. Hala ere, inork ez du hiztuna Garazikoa dela erran. Adineko gehienek Luzaide-Arnegikoa edo Hegoaldekoa dela erran dute. Adinekoak dira *Oztibarrre*, *Donapaleu* eta *Heleta-Hazparne* erantzun dutenak ere. Iparraldeko lekua dira hirurak, baina argi ageri da adinekoek ere, erantzun horien bidez, berengandik aski urrun kokatu nahi dutela hiztuna. Mugaren hegoaldekoak dira helduek eta gazteek eman dituzten kokapen guztiak. Hegoaldekoa dela uste badute ere, mugatik aski hurbil kokatzeko nahia ageri da. Hori dela eta, *Luzaide-Arnegiz gain*, *Baztan*, *Aezkoa*, *Zugarramurdi* edota *Hendaia* erantzunak jaso ditugu. Horiez gain, adin talde bakoitzean, lekuko banak *Gipuzkoa* erantzuna ere eman du.


Hegoaldeko kokapen horren arrazoiak *ya* eta *pues* gaztelaniatzko hitzak eta dardarkari hobikariak direla aipatu dute.

5.1.5 Bosgarren grabaketa (Ipar Euskal Herriko Batua)

5. taula. Mugaren iparraldean, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera

	Garazi		Kanbo-Itsasu		Lapurdi-Nafarroa Beherea		Kosta		Hiztuna ezagutu duela uste du	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	10	0	0	4	40	1	10	2	20
Helduak	2	20	1	10	3	30	1	10	1	10
Gazteak	8	40	2	10	6	30	0	0	1	5

A. Artzelus Muxika, *Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin...*




5. irudia. Mugaren iparraldean, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak adinaren arabera.

Adinekoen artean, lau hiztunek, % 40k, hain zuzen ere, hiztuna Lapurdi-Nafarroa Beherekoa dela erantzun dute. Adineko batzuek, hala ere, Garazikoa edo ondokoa dela ere ihardetsi dute. Garazikoa dela erantzun duten helduen ehunekoak handitu egiten da, eta zer erranik ez gazteena. Horrek gazteak mintzo horrekin identifikatzen direla erakusten du. Helduen gehien-goak, hala ere, Lapurdi-Nafarroa Beherekoa dela erantzun du, baita Kosta-koa, Lapurdi-kostakoa edota Kanbo-Itsasukoa dela ere. Erantzun horiek ere mintzo horren izaera orokorra adierazi nahi dutela iruditzen zaigu; hots, ez dela Garazikoa bezain mintzo lokala. Gazteen artean, % 30ek *Lapurdi-Nafarroa Beherea* erantzun dute, eta % 10ek *Kanbo-Itsasu*. Hala ere, Garazikoa dela diotenen ehunekoak hartzen du gaina. *Lapurdi-Nafarroa Beherea* izenburuaren baitan bildu ditugunek mintzo horren izaera orokorra azpimarratu digute: edonongoa izaten ahal dela, irratiko mintzoa dela, ikastolan ikasia, Iparraldeko euskara berria, nortasunik gabeko mintzoa, *xori galdu bat*. Irulegi-Anhauzeko emazte helduak eta Hergaraiko emazte gazte batek, gainera, berek ere horrela mintzo direla erran digute.

5.1.6 Seigarren grabaketa (Hego Euskal Herriko Batua)

6. taula. Mugaren iparraldean, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide		Baztan		Gipuzkoa		Hegoaldea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	10	2	20	1	10	6	60
Helduak	1	0	3	27,27	0	0	7	63,64
Gazteak	1	5	2	10	1	5	8	40



6. irudia. Mugaren iparraldean, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Adineko gehienek hitzuna Hegoaldekoa dela erran dute, baina ez dira gai nongoa den errateko. Batzuek aski hurbil ikusi dute, Luzaiden edo Baztanen, hain zuzen ere. Datuak berdintsuak dira helduen kasuan ere. Gazte guztiek ere Hegoaldean kokatu dute, baina beste belaunaldiak baino gaitasun handiagoa erakutsi dute Hegoaldearen barruan zein lekutakoa izan litekeen identifikatzeko. Horrek erran nahi du adinekoek eta helduek baino hobeki ezagutzen dituztela Hegoaldea eta hango hizkerak.

Ya, claro eta *jolín* gaztelaniazko hitzak eta intonazioa aipatu dituzte Hegoaldean kokatzeko arrazoitzat. Gainera, aipagarria da askorentzat intona-


zio hori irrigarria dela. Baztanen, Auritz-Aezkoan eta Luzaiden kokatu duten askok mugari aski hurranekoa dela erran dute, aise ulertzen baitute.

5.2 Erreakzio subjektiboen testak Luzaiden

5.2.1 Lehen grabaketa (Gamarteko adineko emaztea)

7. taula. Luzaiden, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide edo Arnegi		Mugaz bestalde baina ondokoa		Garazi	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	1	50	0	0
Helduak	2	100	0	0	0	0
Gazteak	3	75	0	0	1	25



7. irudia. Luzaiden, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.


Bina lekuko ditugu adineko eta helduetan, eta lau gazteetan. Hori dela eta, ehunekoaren arteko aldeak handiak dira. Lekuko gehienek hiztuna Luzaide edo Arnegikoa dela erran dute. Gainerakoek mugatik hurbil kokatu dute. Horretarako arrazoi nagusia *xuka* ari dela da. Lekuko gazte batek erran digu

dardarkari hobikariak erabiltzen dituela, baina Iparraldeko adinekoek ere halakoak darabiltzabela eta, beraz, ez dela aise mugaren alde batean edo bestean kokatzea. Luzaidarren eta mugaren iparraldeko adinekoen oharmenaren artean batasuna ageri da mugaren bi aldeetako adinekoen mintzoari dagokionez; hots, ez dute muga linguistikorik hautematen. Mugaren iparraldeko helduak eta gazteak dira Luzaideko adinekoarekiko desberdintasun linguistikoa hautematen dutenak.

5.2.2 Bigarren grabaketa (Ainhizeko emazte heldua)

8. taula. Luzaiden, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Baigorri-Banka-Orzaize		Garazi		Hazparne		Baiona	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	0	0	1	50	0	0
Helduak	2	100	0	0	0	0	0	0
Gazteak	1	25	2	50	0	0	1	25



8. irudia. Luzaiden, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.


Luzaidar ia guztiek Ainhizeko hiztun heldua adinekoa baino urrunago kokatu dute. Luzaide eta Arnegiko ibarretik atera eta Baigorri eta Garazi

(Donibane Garazi inguruaren adierarekin ulertuta) aldean kokatu dute gehienek. Adineko batek du Hazparnen kokatu eta gazte batek Baionan gaindi. Dardarkari ubularra da gehien aipatu duten arrazoia, baita [ə] hotsa edota [televizjonja] hitzaren ahoskera ere. Ikusten dugu mugaren bi aldeetan, lekukoen oharmentari dagokionez, alde handia dagoela adineko hiztunaren eta helduaren kokapenaren artean.

5.2.3 Hirugarren grabaketa (Ahatsako emazte gazte gordetzailea)

9. taula. Luzaiden, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Garazi		Garazi-Baigorri		Kostaldea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	2	100	0	0	0	0
Helduak	1	50	1	50	0	0
Gazteak	3	75	0	0	1	25



9. irudia. Luzaiden, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.


Kasu honetan ere, luzaidar gehienek Luzaide-Arnegiko hurbiltasun erradiotik urrunxeago ikusi dute hiztun honen mintzoa. Heldua baino hurbilago

kokatu dute, halere, Garazi baita gehien errepikatzen den erantzuna. Lekuko gazte batek kostaldekoa dela uste du. Beste gazte batek, berriz, kokapenaren arrazoia *xuka* erabiltzea dela erran du.

5.2.4 Laugarren grabaketa (Gamarteko emazte gazte berritzailea)

10. taula. Luzaiden, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Garazi		Garazi-Baigorri		Banka-Aldude-Urepele		Oztibarre-Amikuze		Hazparne		Kosta		Zuberoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	0	0	1	50	0	0	0	0	0	0	0	0
Helduak	0	0	0	0	0	0	0	0	1	50	1	50	0	0
Gazteak	0	0	1	25	0	0	1	25	0	0	1	25	1	25




10. irudia. Luzaiden, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Adinekoek hiztun hau ere aski hurbil ikusi dute, Garazin eta Banka-Al-dude-Urepelen,³ hurrenez hurren. Haatik, helduek eta gazteek aski urrunekoa dela sentitu dute. Hiztun bakoitzak erantzun bat eman du, eta horrek beren ziurgabetasuna erakusten du. Helduek eta gazteek aipatu dituzten kopak guztiak daude aski urrun, gazte baten *Garazi-Baigorri* salbu.

5.2.5 Bosgarren grabaketa (Ipar Euskal Herriko Batua)

11. taula. Luzaiden, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Garazi		Garazi-Baigorri		Mugaz bestalde nonahi		Itsasuren eta kostaldearen artean	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	0	0	1	50	1	50
Helduak	0	0	1	50	0	0	1	50
Gazteak	1	25	0	0	1	25	2	50



11. irudia. Luzaiden, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.


³ Kontuan izan beharra da hiru herri horiekin mendiz lotura sendoa duela Luzaidek aspalditik.

Mugaz bestaldeko garaztarrak bezala, luzaidarrak ere hiztun honen mintzoaren izaera orokorraz ohartu dira. Hori dela eta, Itsasu eta kostaldea birtartean kokatu dute, edota mugaz bestalde nonahikoa izan litekeela erran dute. Lekuko heldu batek Garazi-Baigorri kokatu du, eta lekuko gazte batek Garazin. Luzaidar batzuek hiztuna Garazin gaindi kokatzeak mintzo orokor hau duten garaztarrekin harremana badutela erran nahi du, Garaziko euskara hango adinekoen mintzoarekin lotuko balute, hiztun honena urrunago kokatuko bailukete.

5.2.6 Seigarren grabaketa (Hego Euskal Herriko Batua)

12. taula. Luzaiden, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak

	Luzaide-Auritz		Luzaide-Iruñea		Batua		Baztan		Aezkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	0	0	1	50	0	0	1	50
Helduak	1	50	0	0	0	0	1	50	0	0
Gazteak	0	0	2	50	2	50	0	0	0	0



12. irudia. Luzaiden, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak.

Luzaidar batzuek (adineko batek barne) Batuarekin lotu dute mintzo hau. Hori ez da gertatzen mugaren iparraldeko lekukoen kasuan. Mugatik hegoaldera daudenendako Batua dena Hegoaldeko euskara da Iparraldekoen-dako. Ez dute, beraz, euskara hau beren aldaera estandartzat hartzen. *Luzai-de-Iruñea* erantzun dute lekuko gazte batzuek. Erran dutenez, hiztuna luzaidarra izan liteke inongo arazorik gabe, baina ez du Luzaideko euskararik. Luzaide eta Iruñea berdintasun maila berean ezartzeak luzaidar gazte zenbait Iruñekoak bezala mintzo direla erran nahi du. Beste gazte batek, Iparraldeko zenbaitek bezala, hiztun honen mintzoaz irri egin du, eta imitatzen saiatu da. Intonazioan jarri du arreta, bereziki. Ez zaio iruditu euskaraz biziki ongi ari denik. Beste lekuko gazte batek frantsesezko hitzik ez erabiltzea eta dardarkari hobikariak izatea eman ditu bere kokapenaren arrazoitzat. Aezkoa eta Baztan arrapostuak adineko eta heldu banak eman dituzte, baina gazteek argi dute zein den hiztun honek darabilen barietatea.

6 Ondorioak

Hasieran proposatu ditugun hipotesiak betetzen diren edo ez ikusiko dugu jarraian:

- i. Mugaren bi aldeetako adinekoek bertakotzat jo dute lehen grabaketako adineko hiztunaren mintzoa. Ez dute muga politikoaren arabera desberdintasun linguistikorik ikusi.
- ii. Mugaren iparraldeko gazteek adinekoek baino urrunago sentitu dute lehen grabaketako adineko hiztunaren mintzoa. Adineko gehienek garaztarra dela erantzun dute, baina gazteek Luzaide-Arnegikoa dela erran dute gehienetan. Gazteendako, beraz, adinekoendako ez bezala, distantzia linguistikoa dakar muga politikoak. Ez dago alde aipagarririk Luzaideko adinekoen eta gazteen arrapostuen artean.
- iii. Oro har, grabaketetako hiztunak adinean beheiti joan ahala urrunago kokatu dituzte lekukoek, baina gazte gordetzaila heldua baino hurbilago kokatu dute mugaren iparraldekoek zein hegoaldekoek. Adinean beheiti joan ahala, oro har, muga politikoak eragiten duen desberdintasun linguistikoa handitzen doala hauteman dute lekukoek ere.
- iv. Mugaren iparraldeko adineko gehienek Ipar Euskal Herriko Batua-ren ordezkariatzat hartu dugun hiztuna Lapurdi edo Nafarroa Beherekoa dela erran dute. Gazte gehienek, aldiz, garaztarra dela ihardetsi

dute. Gazteak mintzo horrekin gehiago identifikatzen direla erran nahi du horrek. Hego Euskal Herriko Batuari dagokionez, Luzaideko adineko batek argi du Batua dela, baina Aezkoakoa dela dio beste adineko batek eta baztandarra dela heldu batek. Gazte guztiek, ordea, Euskara Batua dela edota Luzaideko euskaraz mintzo ez den herriko norbait izan litekeela erran dute argiki.

Aipagarria iruditu zaigu, era berean, Hego Euskal Herriko Batuaren ordezkartzat hartu dugun emaztearen mintzoa Hegoaldeko euskaratzat dutela mugaren iparraldeko lekuko gehienek. Luzaiden, berriz, Euskara Batua dela aipatu dute lekuko zenbaitek. Horrek erran nahi du mugaren iparraldean ez dutela mintzo hau aldaera estandartzat hartzen.

Erreakzio subjektiboen testaren emaitzek bat egiten dute Artzelus (2019, 2021) lanetan lortu genituenekin. Hain zuzen ere, muga politikoa hizkuntza muga bihurtzen ari da adinean beheiti goazen ber. Mugaren iparraldean dauden gazteak Ipar Euskal Herriko Batuarekin, hots, Lapurdi eta Nafarroa Beherea bitartean garatzen ari den erregiolektoarekin identifikatzen dute beren burua gero eta gehiago. Hego Euskal Herriko Batuak, berriz, ukaezineko eragina du Luzaideko gazteen artean, Luzaideko gazte batzuk Iruñekoak bezala mintzo direla aipatu baitute. Zalantzarik gabe, gaztelania eta frantsesa ere dibergentzia eragiten ari dira mugaz bi aldeetako mintzoen artean, eta lekukoek ere hala hauteman dute; izan ere, grabaketetako hiztunak mugaz bestalde kokatzean, gaztelaniazko/frantsesezko hitzak, intonazioa eta dardarkari hobikariak/ubularrak eman dituzte arrazoitzat.

Aitzina so, dudarik ez da zenbat eta lekuko gehiagoren arrapostuak jaso, orduan eta emaitza fidagarriagoak lortuko genituzkeela; areago, analisi estatistikoa ere egiten ahalko genukeela. Zalantzarik gabe, batez ere Luzaiden dugu lekuko kopuru handiagoaren beharra. Ezin dugu ahantzi, ordea, 300 pertsona baino ez direla bizi bertan, eta zaila dela herrian bizi diren gazte euskaldunak atzematea.

7 Erreferentziak

Artzelus, A. (2019). Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera. *Fontes Linguae Vasconum*, 127, 153-188. <https://doi.org/10.35462/FLV127.5>

Artzelus, A. (2021). Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna [Dokortesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/51354>

- Auer, P. & Hinskens, F. (1996). The convergence and divergence of dialects in Europe. New and not so new developments in an old area. *Sociolinguistica*, 10, 1-30.
- Camino, I. (2004). Nafarroa Behereko Euskara. *Fontes Linguae Vasconum*, 97, 445-486.
- Choksi, N. (2013). Scripting the border: script practices and territorial imagination among Santali speakers in eastern India. *International Journal of the Sociology of Language*, 227, 47-64.
- Giles, H. (arg.). (1977). *Language, ethnicity and intergroup relations*. Academic Press.
- Giles, H. & Bourhis, R. Y. (1976). Voice and racial categorisation in Britain. *Communication Monographs*, 43, 108-114.
- Haugen, E. (1972). Dialect, language, nation. In A. S. Dil & E. Haugen (arg.), *The ecology of language. Essays by Einar Haugen* (237.-254. or.). Stanford University Press.
- Kamino, P. & Salaberri P. (2007). *Luzaideko euskararen hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Lafitte, P. (1944/1991). *Grammaire basque: Navarro-labourdin littéraire*. Elkar.
- Milroy, J. (1992). *Linguistic variation and change*. Basil Blackwell.
- Momoh, C. S. (1989). A critique of borderland theories. In A. I. Asiwaju & P. O. Adeniyi (arg.), *Borderlands in Africa: a multidisciplinary and comparative focus on Nigeria and West Africa* (51.-61. or.). University of Lagos Press.
- Montgomery, C. & Beal, J. (2011). Perceptual dialectology. In W. Maguire & A. McMahon (arg.), *Analysing variation in English* (121.-148. or.). Cambridge University Press.
- Niedzielski, N. & Preston, D. R. (2003). *Folk linguistics*. Mouton de Gruyter.
- Omoniyi, T. (2013). A borderlands' perspective of language and globalization. *International Journal of the Sociology of Language*, 227, 9-24.
- Paltridge, J. & Giles, H. (1984). Attitudes towards speakers of regional accents of French: effects of rationality, age and sex of listeners. *Linguistische Berichte*, 90, 71-85.
- Preston, D. R. (arg.). (1999). *Handbook of perceptual dialectology*. John Benjamins.
- Rensink, W. G. (1955/1999). Informant classification of dialects. In D. R. Preston (arg.), *The handbook of perceptual dialectology* (1. liburukia) (3.-7. or.). John Benjamins.

- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *Fontes Linguae Vasconum*, 41, 219-248.
- Taeldeman, J. (1989). Typology of dialect transitions in Flanders. In M. E. H. Schouten & P. Th. van Reenen (arg.), *New methods in dialectology: proceedings of a workshop held at the Free University, Amsterdam and Philadelphia, December 7-10, 1987* (33. alea) (155.-164. or.). Foris Publications Holland.

Zenbat dira asko? Euskal zenbatzaile zehaztugabeak aztergai

How many is a lot? Analyzing Basque indefinite quantifiers

Eukene Franco Landa
University of Miami
eukenefrancolanda@miami.edu

LABURPENA

Lan honek euskal zenbatzaile zehaztugabeen komunztadura aldakortasuna aztertzea du helburu; zehatzago, adizkian zenbaki komunztadura plurala edo batere ez eragiteko gaitasuna. Horretarako, lehendabizi, literaturan aldaeren distribuzioa azaltzeko proposatu den teorizazioa aurkeztuko da. Bigarrenez, *Norantzeko* datu basean oinarriturik, gaur egungo Iparraldeko fenomenoaren azterketa soziolinguistikoa aurkeztuko da. Lortutako emaitzarik esanguratsuenak honako hauek dira: (i) komunztadura falta gehien eragiten duen funtzio sintaktikoa objektu zuzena da, (ii) literaturan Etxeberriak & Etxeparek (2008, 2009, 2012) proposatutako sistemaren aurka, subjektu ergatiboak aldakortasuna du adin ertainekoen artean (hein txiki batean bada ere), (iii) bi komunztaduren erabilera adinaren menpe dago, eta (iv) hautatzen den zenbatzaileak berebiziko garrantzia du komunztaduran.

Gako hitzak: zenbatzailea; zehaztugabea; aldakortasuna; komunztadura; euskara.

ABSTRACT

This study aims to analyze verbal agreement variation –the ability to trigger plural inflectional agreement or not– with indefinite quantifiers in Basque. In order to do so, I first provide the theories proposed in the literature to account for the distributional facts. Subsequently, I analyze the current Northern Basque data obtained from the *Norantz* database. My main findings are: (i) lack of agreement occurs mainly when the syntactic function is direct object, (ii) the ergative subjects show some variation (even if it is minor), contrary to what Etxeberria & Etxepare’s (2008, 2009, 2012) system suggests, (iii) speaker age is relevant, (iv) quantifier choice influences the agreement pattern.

Keywords: quantifier; indefinite; variation; agreement; Basque.

Eskerrak eman nahiko nizkieke Arantzazu Elordieta eta Myriam Uribe-Etxebarriari, lagundu didaten guztiagatik. Eskerrak halaber Blanca Urgelli eta Maia Duguini egindako iradokizun eta zuzenketengatik, Iñaki Camino, Manu Padilla, Joseba Lakarra eta Varun De Castro Arrazolari emandako laguntza eta bibliografiagatik, eta Urtzi Etxeberria eta Ricardo Etxepareri izan ditugun zalantzekin laguntzeagatik, eta haien denbora beti hain prestu eskaintzeagatik.

1 Sarrera: gertakariaren deskribapena eta proposaturiko analisiak

1.1 Deskribapen orokorra

Euskaraz, aditz jokatua NOR, NORI eta NORK argumentuekin jokatzen da nahitaez, pertsonan (1., 2. edo 3. pertsona) eta numeroan (singularra edo plurala):

- (1) a. Zuk liburuak irakurri dituzu.
- b. *Zuk liburuak irakurri duzu.

Lehenengo adibidean, osagarri zuzena (liburuak determinatzaile sintagma) pluraleko *-k* atzizkiaz markatuta dago, pluraltasuna denotatzen du eta aditz laguntzailean osagarriarekiko pluraleko komunztadura eragiten du. Informazio hori aditz jokatuan kodetzen ez bada, emaitza ez da gramatikala ((1a) vs (1b)).

Hala ere, badaude pluraltasuna denotaturik ere, halabeharrezko komunztadura eragiten ez duten subjektu edo osagarriak. Hau posible da argumentu horiek zenbatzaile ahul lausoez –hala nola *asko*, *gutxi*, *hainbat*, *ugari*, *franko* edo *zenbait*– lagundurik agertzen direnean. Fenomeno hori euskal gramatika askotan (klasikoetan zein berrietan) aipatu izan bada ere, gehienetan oso azaletik deskribatzen da eta, emanez gero, Txillardegik (1978) eta Euskaltzaindiak EGLU Ien (Euskaltzaindia, 1985) proposatutako hipotesietara jotzen da. Ikus dezagun, sakonago, Txillardegiren eta Euskaltzaindiaren analisi horiek zertan dautzan.

1.2 Txillardegi, *Euskal gramatika* (1978): *multzoa vs elementuen zenbaketa*

Txillardegik (1978) *Euskal gramatika*an *asko*, *(h)anitz*, *gut(x)i*, *zenbait*, *batzuk*, *beste*, *franko* edo *gehiegi* sortako zenbatzaileak adjektibo mugagabeak direla defendatzen du. Mugagabeak direnez, beste mugagabeen ildo beretik deklinatzea espero daiteke; beraz, mugagabearen erabilerarekin lotzen du komunztadura plurala ez eragiteko duten gaitasuna (1978, 37., 64.-67. or.).

Komunztadura aldizkatzearen azalpena pluraltasunaren askotariko izaeran oinarritzen du. Hizkuntzalari honentzat, pluraleko forma guztiak bi eratan ager daitezke: (i) multzo gisa, mugagabeen, edo (ii) multzo horren elementuen zenbaketa gisa, pluralean. Zehatzago, lehenengo kasuan, multzotasuna adierazi nahi da, eta ez multzo hori osatzen duten elementuak. Interpretazio horri komunztadura mugagabea dagokio eta horregatik ez da komunztadura pluralik eragiten. Bigarren adieran, aldiz, multzoari erreferentzia egin beharrean multzo hori osatzen duten elementuei egiten zaie erreferentzia. Interpretazio hori zenbatzaile kardinalen adibideekin azaltzen du: *bi liburu erosi dut* esatean multzoa ageri dela dio, eta *bi liburuak erosi ditut* esatean, ostera, multzorik ez dela ageri, osatzen duten bi elementu zehaztuak baizik. Txillardegiren ustez (1978, 37. or.), *bi liburu erosi ditut* bi estrategia horien arteko nahastea izango litzateke, inguruko erdaretatik datorren kalakoa, honelako kasuetan zenbatzaileak pluralak direlako gazteleraz zein frantsesez.

1.3 Euskaltzaindia, EGLU I (1985), EG (2021): zenbaki komunztadura eta zenbakaitz vs zenbakarri tasuna

Txillardegiri jarraituta, Euskaltzaindiak (1985, 219.-238. or.) EGLU I lanean antzeko bide bat hartzen du eta aztertzen ari garen zenbatzaileek zenbaki komunztadura mota bat edo bestea ahalbidetzea ezberdintasun semantiko batekin lotzen du: *masa vs banako-bat-gehi-beste-bat* oposizioarekin. *Batzuk* alde batera utzita, EGLU Ien *zenbait*, *asko*, *gutxi*, *franko* edo *aski* sailleko zenbatzaileek komunztadura plurala eragitea hautazkoa dela adierazten da. EGLU II jarraituta, komunztadura plurala egiten ez denean, izen sintagma zenbakaitz gisara hartzen da eta zenbatzaileak modifikatzen duen izena masa izen baten moduan interpretatzen da. Komunztadura plurala egiten denean, aldiz, izen sintagmaren ardatza zenbakarri gisa interpretatzen da, eta IS hori banakoen batuketa bat balitz bezala hartzen da. Hots, *ikasle gutxi* eta *liburu asko* masa zenbakaitz gisa interpretatuko litzateke (2a)-n eta (3a)-n; aldiz, izen zenbakarri gisa interpretatuko lirateke (2b)-n eta (3b)-n: *ikasle/liburu bat*, eta *beste bat* eta *beste bat...* (Euskaltzaindia, 1985, 223., 229.-230. or.).

- (2) a. *Ikasle guti etorri zen* (zenbakaitza > masa-interpretazioa)
- b. *Ikasle guti etorri ziren* (zenbagarria > banakoen batuketa)

- (3) a. Liburu asko erosi dut (zenbakaitza > masa interpretazioa)
b. Liburu asko erosi ditut (zenbagarria > banakoen batuketa)

Euskararen Gramatikan (2021), bestalde, *zenbait*, *asko* eta *gutxi* zenbatzaileek komunztadura plurala zein singularra egiteko aukera daukatela aipatzen da. *Askori* dagokionez, «komunztadura singularrez egiten du XVI. eta XVII. mendeetan. Lazarragak plurala ere erabiltzen du, eta XVIII. mendetik aitzina plurala hasten da nagusitzen» (Euskaltzaindia, 2021, 610. or.). EGLU Ieko *zenbakaitz vs zenbagarri* interpretazioaren araberrako azalpena ere ekartzen da. Azkenik, *gutxi* zenbatzaileak komunztadura plurala izen zenbakarriekin gehiago egin ohi duela adierazten da, eta izen zenbakaitzeekin, ordea, komunztadura singularra (617.-618. or.).

1.4 Etxeberria eta Etxepare (E&E, 2009): zenbatzaile lausoan ezaugarri semantikoak eta horien karakterizazio sintaktikoa

1.4.1 Komunztadura singularra ala zenbaki komunztadurarik ez?

Egitura hauetan sortzen den lehen galdera plurala ez duten aditz jokatuaren analisia da. Zer dira forma hauek, forma mugagabeak (Txillardeggi, 1978), singularrak (Euskaltzaindia, 1985) ala komunztadurarik gabeko formak? E&Ek azken analisiaren alde egiten dute, bigarren mailako predikatuen analisisan oinarrituz.

Jakina denez, bigarren mailako adjektibo predikatuek modifikatzen duten argumentuarekiko zenbaki komunztadura dute, (4a) adibidean ikusten den bezala. Kasu horretan ikasle asko argumentuak –osagarri funtzioa betetzen duenak–, komunztadura plurala eragiten du aditz jokatuan (*ditugu*) eta, horrekin batera, bigarren mailako predikatuan ere (*nekatuak*). (4b) adibideetan komunztadura plurala ez duten formak (kasu horretan, *dugu*) komunztadura singularreko adibide balira –hau da, (4b)-ko aditz jokatuan objektuari dagoen zenbaki komunztadura singularrekoa balitz–, orduan espero genukeen da adibide horretan singularrean dagoen bigarren mailako predikatua (*nekatua*) zilegiztatua izatea eta adibidea ongi egotea, gorago ikusi dugunez, zenbatzaile horrek komunztadura plurala nahiz «singularra» eragiten duela. Baina predikzio hori ez da betetzen: (4b) ez da zuzena euskaraz.

- (4) a. Ikasle asko nekatuak antzeman ditugu
b. *Ikasle asko nekatua antzeman dugu (E&E, 2009, 2. or.)

Beraz, hemendik ondoriozta daiteke komunztadura plurala ez duten formak (4a) ez direla komunztadura singularrekoak: aldiz, ez dute zenbaki komunztadurarik; komunztadura gabeko formak dira (2009. 2. or.).

1.4.2 Txillardegiren (1978) eta EGLU Ien (1985) analisisien kontrako argudioak

Txillardegiren aldizkatzearen azalpena *multzoa vs multzo horren barneko elementuen zenbaketa* interpretazioan oinarrituta dago, baina Etxeparek (2000) azpimarratzen duen moduan, Txillardegiren (1978) azalpenaren oinarrian den mugagabetasunaren ikuspegia aspaldian baztertu zen. Izan ere, deskriptiboki, Txillardegi zubereraren ezaugarrietan oinarritzen da, baina egungo zubereraren arauak ez dirudite Txillardegik uste bezain sinpleak (Coyos, 1999). Honek guztiak Txillardegik komunztadura aldizkatzea azaltzeko proposatu zuen hipotesia baztertzeraz garamatza.

Gisa berean, Etxeparek (2000) eta E&Ek (2009) Euskaltzaindiak emandako azalpen semantikoaren kontrako argudioak ere ematen dituzte. Euskaltzaindiak forma komunztadura gabeen analisi zehatz bat proposatu zuen EGLU I liburuan: zenbaki komunztadura plurala zenbatzaileak modifikatzen duen izenaren irakurketa zenbakarriarekin lotzea (banakoen batuketaren interpretazioarekin), eta komunztadura pluralik eza izen horren masa interpretazioarekin. E&Ek analisi horren kontra egiten dute, hainbat argudiotan oinarrituta. Espazio mugak direla eta, aipagarrienak besterik ez dira aipatuko.

(i) Hasteko, E&Ek erakusten dute aztertzen ari garen egituretan izen (guzti)ek ez dutela masa izen bati dagokion interpretazioa. Har dezagun, adibidez, izen zenbakarrien kasua. Zein da izen zenbakarri batek izan dezakeen masa interpretazioa? Pelletierrek (1975) horrela azaltzen du. Imajina dezagun makina bat edozer gauza birrindu dezakeena, *Zirtzikagailu Unibertsala* (*Universal Grinder*) deituko diogu horri. Zenbakarria den *sagar* bezalako izen bat Zirtzikagailu Unibertsaletik pasatzen badugu, jasoko genukeena *sagar* xehatua da. Horri *sagar* deitzen badiogu, orduan *sagar* izen horrek masa denotatuko luke. Hori da, hain zuzen ere, (5)-ean ikusten duguna. Baina hori ez da, argudiatzen dute E&Ek, aztergai dugun egituretan gertatzen dena. Adibidez, (6)-an *ikasle* izenaren interpretazioa ez da (5) adibidean *sagar* izenarekin lortzen dugun interpretazioaren parekoa: horren adiera arruntenean ez ditugu *ikasle* puskak, eta *ikasleak* osorik daudela interpretatzen dugu (2009, 3. or.).

- (5) Entsaladak sagar pixka bat dauka (*sagar* izena masa gisa interpreta-tua)
- (6) Ikasle asko ikusi dut gaurko batzarrean (*ikasle* izenaren masa inter-pretazioa ez da posible)

(6)-ko adibidearen bitartez E&Ek argi erakusten digute euskarazko zenbatzaile komunztadura gabeek modifikatzen dituzten izenek ez dutela beren izaera atomikoa galtzen (hau da, ez dira masa izen bihurtzen). Beraz, ez da zilegi komunztadurarik eza masa interpretazioarekin parekatzea aztergai dugun fenomeno honetan.

Are gehiago, masa izaeran oinarritutako analisiak ezin du azaldu zergatik forma komunztaduragabeak dituzten perpauk batzuek bi irakurketa ahalbidetzen dituzten, (7) adibidearen kasuan bezala: a) alde batetik, masa interpretazioa, sagar zatiak / masa eta b) bestetik, osorik dauden elementuez osaturiko multzo pluralaren interpretazioa. Euskaltzaindiaren proposame-nak ezin du bigarren interpretazio hau azaldu (E&E, 2009, 3. or.).

- (7) Plater honetan sagar asko ikusten dut

(ii) Egile hauek ebidentzia gehiago ematen dute masa interpretazioaren kontra, erakutsiz masa denotatzen duten izenek eta forma komunztaduragabeak eragiten dituzten zenbatzaile sintagmek ez dituztela propietate berberak agertzen. Adibidez, zenbatzaile sintagmek irakurketa distributiboa dute. *Asko* zenbatzaileak komunztadura plurala eragiten duenean, bi interpretazioei ematen die bidea: a) irakurketa kolektiboari (8a), eta b) irakurketa distributiboari (8b). Aldiz, zenbaki komunztadurarik eragiten ez duenean, adibide hauek irakurketa distributiboa bakarrik baimentzen dute (9b); irakurketa kolektiboa ez da posible (E&E, 2008, 7. or.):

- (8) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuten harria (komunztadura plurala)

Interpretazioa:

a. Irakurketa kolektiboa (gazte guztien artean altxatu zuten harria, altxatze gertaera bat denon artean)

b. Irakurketa distributiboa (gazte bakoitzak, indibidualki, altxatzen du harria; ikasle adina altxatze gertaera)

- (9) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuen harria (zenbaki komunztadurarik ez)

Interpretazioa:

a. *Irakurketa kolektiboa

b. Irakurketa distributiboa

Propietate hori dela eta, murriztapen asko aurkituko ditugu zenbatzaile komunztadura gabeak predikatuekin elkartzeko orduan. Esaterako, komunztadura eragiten ez duten zenbatzaile sintagmak ezin elkar daitezke predikatu elkarkariekin edo behin bakarrik irakurketa duten predikatuekin (2009, 6. or):

(10) a. Ikasle askok elkarren / bata bestearen antz handia dute

b. *Ikasle askok elkarren / bata bestearen antz handia du

E&Ek horrela azaltzen dute ezintasun hori: elkarkariekin operatzaile distributibo bat dute (besarkadura hartzen duten multzoaren gainean distribuzio edo banaketa bat sortzen dute). Baina zenbatzaile komunztadura gabeak dituzten egituretan hori ez da posible, ez dagoelako multzorik zeinetan distribuzioa egin (lan hori dagoeneko elkarkarien operatzaile distributiboak egin duelako).

(11) a. Baserritar askok hil zuten putrea

b. *Baserritar askok hil zuen putrea

E&Eren ustez, propietate hori loturik dago zenbatzaile komunztadura gabeek eskatzen duten interpretazio distributiboarekin: predikatu horiek behin bakarrik gerta daitekeen gertaera bat adierazten dutenez, ezin dute irakurketa distributiboa baimendu eta, horren ondorioz, ezin diote zenbatzaile mota horiek eskatzen duten irakurketari bidea eman.

1.4.3 Zenbaki komunztaduraren hiru sistema euskaraz

E&Ek (2009) aurreko lan gehienek aztertu ez dituzten zenbait aldagai sintaktiko kontuan hartu dituzte fenomenoaren deskribapenean, hala nola IS-ren funtzio sintaktikoaren garrantzia (zubereraren kasua Coyosek (1999) deskribatu zuen jada). Ikusiko dugunez, hori funtsezkoa izango da euskalkien artean dagoen bariazioa azaltzeko.

Euskal Herriko euskalki nagusiak hiru sistematan sailkatu dituzte aztertzen ari garen zenbaki komunztadura fenomenoari dagokionez: a) mendealde-erdialdekoa, b) trantsiziozkoa (Lapurdikoa) eta c) Zuberoakoa. Bi ezaugarritan oinarritzen da aldakortasuna. Alde batetik, zenbatzailearen

funtzio gramatikalarren eragina dugu. Mendebalde-erdialdeko sisteman komunztadura aldizkatzea edozein motatako subjektu (absolutibo zein ergatibo) edo osagarriekin (osagarri zuzena zein zehar osagarriekin) gerta badaiteke ere, beste bi sistemek ez dute askatasun hori. Horrela, trantsizioa eta Zuberoako sistemetan, subjektu ergatiboekin komunztadura plurala nahitaezkoa dela dirudi. Zuberoako sisteman, gainera, zehar-osagarriekin ere komunztadura plurala beharrezkoa da. Bigarrenik, hemen aztertuko ez badugu ere, aldakortasuna zenbaki kardinalen jokabidearekin ere loturik dago, Zuberoako sisteman zenbatzaile kardinalak ez dutelako nahitaez komunztadura plurala eskatzen, beste bi sistemetan komunztadura plurala beharrezkoa bada ere. Aldakortasun hori ondoko taulan laburbiltzen da (E&E, 2009, 138. or.).

1. taula. Hiru sistemak (Etxeberria & Etxepare, 2009, 138. or.)

Komunztadura eza zilegi da?	Mendebalde- Erdialdea	Trantsizioa «Lapurdi»	Zuberoa
Subjektu ergatiboa: <i>Neska askok lan egin...</i>	BAI (eza)	EZ (plur.)	EZ (plur.)
Subjektu absolutiboa: <i>Neska asko etorri...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri absolutiboa: <i>Nik neska asko ikusi...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri datiboa: <i>Hark neska askori liburua eman...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	EZ (plur.)
Zenbaki kardinalak osagarri zuzen funtzioan: <i>Zuk hiru ikasle ikusi...</i>	EZ (plur.)	EZ (plur.)	BAI (eza)

2 Azterketa soziolinguistikoaren datuak eta metodologia

2.1 Norantz proiektua

Bigarren atal honetan lan honetarako eginiko ikerketaren berri emango dugu. *Norantz* proiektuak Iparraldeko hiztunen artean egindako elkarriketen emaitzetan oinarrituz, gaur egungo Iparraldeko hiztunak aurreko ata-

lean deskribatutako sistemekin noraino bat datozen aztertu dugu. Espazio eta denbora mugak direla eta, Hego Euskal Herriko datuak hurrengo lan batean aztertuko dira.

Norantz 2009-2011 urteen bitartean CNRSko Iker laborategian eginiko proiektua da, Beñat Oyharçabal ikerlariaren zuzendaritzapean. Iparraldeko euskalkien arteko aldakortasuna eta euskalki horietan gertatzen ari diren aldaketak aztertzeko proiektu baten beharra zegoen eta horraxe sortu zen. Proiektu horren helburua zen Ipar Euskal Herriko gaur egungo hiztunen euskararen gramatikaren oinarriak zer bidetatik doazen ikustea eta datu base batean bildurik erakustea, Iparraldeko hizkeren gramatikaren bilakarearen behagune baten zimenduak finkatuz (Oyharçabal *et al.*, 2011, 2.-3. or.). Datu horiek guztiak webgunean bilduta daude, nahi duen ororentzat esku-agarri: <http://norantz.org/>.

Proiektu horren barruan aztertu zituzten ezaugarri gramatikalen artean zenbatzaile (lauso)en komunztadura dugu; horretarako 20 galdera prestatu zituzten, proiektuan C4 atalaren azpian sailkatuta daudenak (C79-C98 esaldiak), *Kuantifikatzaileen numero aditz komunztadura* atalaren azpian bildurik, eta horiek dira guk ikerketa hau egiteko baliatu ditugunak. Galdera sorta horretan, hainbat zenbatzaileekin osatutako perpausak ageri dira, funtzio bat baino gehiago betetzen dituzten ISz lagunduta. Hortaz, fenomeno hau aztertzeko propio diseinatuta daude. Bestalde, galdekatutako hiztunei buruzko datu asko biltzen ditu, hala nola hauen adina, jatorria, eskolatzea, sexua, euskalkia eta abar. Horrek guztiak emaitzak ikuspuntu soziolinguistikoko batetik aztertzea ahalbidetzen du. Lan honetan ikerketaren aldetik egiten dugun ekarpena da *Norantzek* bildu dituen datu horiek sistematikoki aztertuko ditugula, eta zenbatzaile ahul lausoen zenbaki komunztadura sistemarekin lotuta dauden hainbat aldagai soziolinguistikoko eta gramatikal aintzat hartuta, azterketa osotuagoa eskainiko dugula. Guztira 59 hiztun aukeratu ziren ezaugarri bereizi nagusiak honako hauek dira: a) adina (hiztunak 3 talde nagusitan banatu ziren, ≤ 30 , 40-60, eta ≥ 70 urtekoak), b) lurraldea edota euskalkia (Lapurdi/lapurtera, Nafarroa Beherea / behe-nafarrera, Zuberoa/zuberera), c) hiztunen ingurumen linguistikoa (Baiona-Angelu-Miarritze/BAM hirigunea, hiri txikiagoak eta baserrialdea) eta d) euskarak eskolatzean izan duen tokia (murgiltze eremuan ibilitako hiztunak diren ala ez). Elizitazio metodologia ikertzaileek frantsesez emandako perpausen itzulpena izan da. Elkarrizketatutako hiztunen mapa 1. irudian ikus daiteke.



1. irudia. Hiztunen mapa (Oyharçabal *et al.*, 2012. 10. or.).

2.2 Datuen azterketa

Norantzetik datuak eskuratzeko, proiektuko webgunera jo eta han galde-
tegiko C4 ataleko emaitzetara abiatu gara. 59 hiztun horien 20 erantzunak
banan-banan aztertu ditugu hurrengo faktore guztiei erreparatuz: sintagma-
ren funtzioa (subjektua *vs* osagarri zuzena), subjektu mota (ergatiboa *vs* ab-
solutiboa), zenbatzaile mota, adina, euskalkia, eskolatzeta eta jabekuntza
mota. Token guztiak ($n=1179$) kodetu ziren R programan eta *mixed-effect lo-
gistic model* funtzioarekin aldagai nagusi bitarra (komunztadura plurala *vs*
eza) aztertu zen, komunztaduran zein aldagai independentek eragiten duten
ikusteko asmoz (2. taula). Agertzen ez diren aldagaiak oinarritzat hartu dire-
nak dira. Esate baterako, funtzioen artean, objektu zuzena da komunztadura
plurala gutxien eragiten duena. Beraz, horrekin konparatuz, 0 balioa baldin
bada komunztadura gutxien eragiten duena ondoren subjektu absolutiboa
doa ($-1,6716$) eta, azkenik, subjektu ergatiboa ($-3,8645$). Bestalde, P balioak
sinesgarritasuna markatzen du. Oro har, datuak sinesgarriak izan daitezten, p
 $< 0,05$. (*) ikurrak balio esanguratsua dela esan nahi du, komunztadura plu-

rala beti edo inoiz ez eragiten dituzten aldagaienak, alegia. Beraz, aldagai esanguratsuak hauek dira: subjektu absolutiboa, subjektu ergatiboa, adinekoa izatea eta euskaraz eta frantsesez eskolatuak izatea.

2. taula. Aldagaien eragina komunztaduran

Fixed effects	Estimate	Std. Error	z value	Pr (> z)	
(Intercept)	-0.81	1.15	-0.71	0.48	
FuntzioaS_absolutiboa	-1.67	0.36	-4.62	0	***
FuntzioaS_ergatiboa	-3.86	0.43	-8.94	< 2e-16	***
AlokutiboaEz	1.08	0.68	1.59	0.11	
SubjektuaBigarrena	0.67	0.37	1.83	0.07	.
AdinaHeldua	1.32	0.73	1.82	0.07	.
AdinaAdinekoa	1.99	0.75	2.65	0.01	**
EuskalkiaBNafarroa	-0.82	0.62	-1.31	0.19	
EuskalkiaZuberoa	0.68	0.84	0.82	0.42	
Euskalkia?	-1.68	1.21	-1.38	0.17	
JabekuntzaBiH1	-0.68	0.85	-0.8	0.43	
JabekuntzaH2g	-0.78	1.12	-0.69	0.49	
JabekuntzaH2	2.4	1.27	1.88	0.06	.
EskolatzzeaEus_Fra	-2.36	0.96	-2.46	0.01	*
EskolatzzeaH2g_Fra	-1.35	0.82	-1.65	0.1	.
BizilekuaHirixka	-1.19	0.74	-1.6	0.11	
BizilekuaBaserrria	0.54	0.5	1.07	0.28	

Signif. Codes: 0 '***' 0.001 '**' 0.01 '*' 0.05 '.' 0.1 ' ' 1

Semantikari dagokionez, kontuan hartu behar da *Norantzen* erabilitako metodologiak ez duela ahalbidetzen hiztunek egindako interpretazioa kolektiboa edota distributiboa izan den jakitea; hortaz, ez da azterketa semantikorik egingo.

3 Gaur egungo egoera Iparraldean: emaitzak

3.1 Hitzunen adina aldagai gisa

Atal hau lantzeko orduan, lehendabizi azpimarratu beharrekoa da hitzunen hiru adin tartekak ez daudela proportzionalki islatuak; izan ere, ≤ 30 urteko gazteak 59 hitzunen % 54,2 dira, 40-60 tartekoak % 20,3 eta ≥ 70 tartekoak % 25,4. Adinaren ikuspuntutik, beraz, lagina ez dago orekatuta, eta alderdi hau kontuan hartu behar da ezinbestean emaitzak aztertzeko orduan, gazteei garrantzia berezia eskaini dien corpora baita.

Corpusean badira 13 hitzun beti komunztadura plurala egiten dutenak (3. taula); horietatik, 3 hitzun (hitzun guztien % 5,08) 40-60 adin tartekoak izanik, eta beste 10 (hitzun guztien % 16,9) ≤ 30 tartekoak. Adierazgarria da ≥ 70 urteko guztiek perpausen bat behintzat komunztadurarik gabe eman dutela.

3. taula. Adin tarteen arabeko komunztadura

Adin tartea	Adibideen % 100 pluralez +KMZ
≤ 30 urte	10 hitzun
40-60 urte	3 hitzun
≥ 70 urte	0 hitzun

Adibideen multzo osoari begiratzuz gero, *Norantz* corpuseko hitzunek sortutako perpaus guztietatik (1178), bakarrik 284tan ez dute komunztadura plurala erabili (4. taula). Hau da, joera orokorra zenbatzaile horiekin komunztadura plurala egitea da. Adinak, halaber, pisu handia du komunztadura plurala egiterako orduan; izan ere, taulak islatzen duen erara, komunztadura eza duten kasu guztietatik % 43,9 adineko hitzunek ekoiztu dute, hau da, ≥ 70 urte edo gehiagoko dituztenek, adin horretako hitzunen % 41,9k. Azkenik, 40-60 urtekoak dira komunztadura gabeko egitura gutxien ekoiztu dituztenak (% 21,8). Hala ere, kontuan izan beharrekoa da adin tarte hori dela hitzun gutxien dauzkana, gazteek adin talderik handiena osatzen dute eta. Beraz, hitzun proportzioari begira, 40-60 urte tarteko hitzun gehiagok (hitzunen % 25,8) erabiltzen dituzte komunztadura gabeko perpausak, ≤ 30

urtekoekin alderatuz (hiztunen % 15,2). Hiztunak indibidualki aztertu dira, baina ez da ezer esanguratsurik topatu banakoei dagokienez.

4. taula. Komunztadura adinaren arabera

	≤ 30	40-60	≥ 70	Guztira
-KMZ	97	62	125	284
% Komunztadura	% 34,2	% 21,8	% 43,9	% 100
% Adina	% 15,2	% 25,8	% 41,9	% 23,9
+KMZ	543	178	173	894
% Komunztadura	% 60,7	% 19,9	% 19,4	% 100
% Adina	% 84,8	% 74,2	% 58,1	% 75,9
Guztira	640	240	298	1178
% Komunztadura	% 54,3	% 20,4	% 25,3	% 100
% Adina	% 100	% 100	% 100	% 100

3.2 Lurraldea edota euskalkia

Norantz datu basean hiztunak euskalkiaren arabera *L* (=lapurtera), *BN* (=behe-nafarrera) eta *Z* (=zuberera) markekin identifikatuta ageri dira; euskalkirik ez dutenei marra bat jarri diete (13 gazte eta 40-60 adin tarteko hiztun bat). Gazteak 32 direla kontuan hartuta, gazteen artean ehuneko altu bat gelditzen zaigu euskalkien arabera sailkatu gabe: hiztun guztien % 23,7 hain zuzen ere (159tik 14). *Norantzek* ematen digun informazioaren arabera, zuberera da Iparraldeko euskalkietatik lagineko hiztunen artean ordezkapen baxuena duena: elkarriketatutako hiztunen % 16,9 (59tik 10). Horren ostean lapurtera dugu, lapurtarrek hiztunen % 22 direlako (59tik 13), eta azkenik behe-nafarrera dago: hiztunen % 37,3 (59tik 22).

5. taulak erakusten duen modura, euskalkiak ez du berebiziko garrantzia komunztadura plurala egiteko; izan ere, nahiko parekaturik daude. Bestalde, eta hau interesgarria da, badirudi komunztadura plurala gehien egiten dutenak jatorri edo euskalki ezezagunekoak direla, hau da, seguruen ikastolan edota gau eskoletan euskara ikasitakoak; horrela, aztertuko adibide guztien artean, % 82,3 komunztadura pluralean izan dira. Datuek diotenaren arabera, hiztun horietatik, hamalautik hamaikak euskara bigarren hizkuntza edo-

ta bigarren hizkuntza goiztiarra (ikastolan txikitatik jaso) daukate. Bi dira horren atzean egon litezkeen azalpenak: batetik, hezkuntzan irakatsitako euskara ereduak komunztadura gabeko egiturak ez onartzea edo ez erabiltzea; eta beste alde batetik, seguruena aukerarik errazena, frantsesak komunztadura plurala egiteko aukera besterik ez izateak susta lezake euskara L2 gisa daukaten hiztunen ekoizpenetan komunztadura plurala erabiltzea.

5. taula. Komunztadura lurraldearen arabera

	Lapurdi	Nafarroa Behera	Zuberoa	Ezezaguna	Guztira
-KMZ	79	106	60	39	284
% Komunztadura	% 27,8	% 37,3	% 21,1	% 13,7	% 100
% Euskalkia	% 26,4	% 24,1	% 27,3	% 17,7	% 24,1
+KMZ	220	333	160	181	894
% Komunztadura	% 24,6	% 37,2	% 17,9	% 20,2	% 100
% Euskalkia	% 73,6	% 75,9	% 72,7	% 82,3	% 75,9
Guztira	299	439	220	220	1178
% Komunztadura	% 25,4	% 37,3	% 18,7	% 18,7	% 100
% Euskalkia	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

3.3 Eskolatze mota

Norantzek elkarrizketatutako hiztunen artean, gazteek bakarrik izan dute aukera murgiltze ereduak eskolatuak izateko. ≥ 70 edota 40-60 urte tartekoek frantsesetik ikasi (behar izan) dute. Hala ere, gazte guztiek ez dute murgiltze ereduak ikasi. Bada, 59 hiztunetatik 38k frantsesetik ikasi dute eta hauetarik 11 hiztun ≤ 30 tartekoak dira. Gainontzeko ≤ 30 urtekoen artean, 17k, alegia, murgiltze ereduak ikasi dute, eta 4k eredu elebidunean, edota euskaraz eta gero frantsesetik. Euskaratze motak eraginik izan duen ala ez aztertzeko, eta horren arabera hiztun mota ezberdinak beren artean erkatu ahal izateko, murgiltze ereduak ikasteko aukera izan dutenen tartea hartu dugu lehendabizi: hau da, ikastolan ikasi duten gazteen multzoa.

6. taula. Eskolatzearen arabera komuntadurarik eza

	Euskaraz	Eus + Fr	Frantsesez	Guztira
-KMZ	54	6	224	284
% Komuntadura	% 19	% 2,1	% 78,9	% 100
% Eskolatzea	% 16,9	% 6	% 29,6	% 24,1
+KMZ	266	94	534	894
% Komuntadura	% 29,8	% 10,5	% 59,7	% 100
% Eskolatzea	% 83,1	% 94	% 70,4	% 75,9
Guztira	320	100	758	1178
% Komuntadura	% 27,2	% 8,5	% 64,3	% 100
% Eskolatzea	% 100	% 100	% 100	% 100

Datuak aztertuta (6. taula), ikusi dugu zenbaki komuntadurarik gabeko adibide gehien sortu dutenak (% 78,9) frantsesez hutsean ikasitakoak direla, eta gutxien erabili dutenak, ostera, euskaraz eta frantsesez ikasitakoak. Izan ere, multzo horretakoek sortutako adibideen % 94 komuntadura pluralarekin sortu dira. Azkenik, murgiltze eremuan ikasitakoek ere komuntadura plurala erabili dute gehienbat, multzo horretakoek ekoiztutako adibideen % 83,1, alegia. Hala ere, kontuan izanik 40 urtetik gorako hiztun guztiek frantses hutsean ikasi dutela, ez dut uste eragilea eskolatzea denik, baizik eta adina bera, euskaraz edota euskaraz eta frantsesez ikasitako guztiek ≤ 30 urte dauzkatelako.

3.4 Jabekuntza mota (euskara H1, H2 edo H2g)¹

59 hiztunetatik 47k dute euskara ama hizkuntza; horietarik 43k dute euskara ama hizkuntza bakarra (H1) eta beste 4k ere, frantsesarekin batera (2H1). Euskara H1 duten hiztunak izan dira komuntadura plurala gutxien ekoitzi dutenak, kasu guztien % 81 euskara H1 daukaten hiztunek sortua baita (7. taula). Hala ere, kontuan izanik hiztunen gehiengoak euskara H1

¹ Hemendik aurrera: H1 = Lehen hizkuntza; H2 = Helduan ikasitako bigarren hizkuntza; H2g = Bigarren hizkuntza goiztiarra, De Houwerrek (2009) proposatutako sailkapenari jarraikiz.

daukala, beharbada ez da hain adierazgarria; izan ere, H1 dutenen artean % 27,4k ez du komunztadura plurala egin. Bestalde, euskara 2H1 dutenek ez dute erakutsi joera hori: 11 adibidetan besterik ez dute komunztadura plurala egin (euskara 2H1 dutenen % 9,2). Azkenik, H1 euskara duten gehiengo handi batek (% 58,13) ≥ 70 eta 40-60 adin tartekoak dira, eta ez gazteak; beraz, eragilea berriro ere adina izan liteke.

7. taula. Euskararen jabekuntzaren arabera komunztadurarik eza

	H1	2H1	H2g	H2	Guztira
-KMZ	230	11	16	27	284
% Komunztadura	% 81	% 3,9	% 5,6	% 9,5	% 100
% Jabekuntza	% 27,4	% 9,2	% 11,4	% 33,8	% 24,1
+KMZ	608	109	124	53	894
% Komunztadura	% 68	% 12,2	% 13,9	% 5,9	% 100
% Jabekuntza	% 72,6	% 10,2	% 88,6	% 66,3	% 75,9
Guztira	838	120	140	80	1178
% Komunztadura	% 71,1	0	% 11,9	% 6,8	0
% Jabekuntza% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Oro har, komunztadura plurala gutxien erabiltzen dutenak frantsesez ikasitakoak eta euskara H2 dutenak dira. Dena den, azken talde hori ez da oso adierazgarria, hiztun bakarrak (EHI) ekoitzi dituelako komunztadura gabeko adibide gehienak. Beraz, ikasketak metodologia tradizionalarekin lotura izan badezake ere, ez dugu datu hori oso aintzat hartuko. Bestetik, komunztadura plurala gehien ekoizten dutenak eredu elebidunean (nahiz eta oso hiztun gutxi izan) edota murgiltze ereduan ikasi dutenak dira, hau da, euskara H2g dutenak. Estatistikoki esanguratsua den aldagai bakarra eredu elebidunean eskolatua izatea da, ia beti komunztadura plurala eragin dutelako ($z = -2,458$; $p = 0,013$).

3.5 Komunztadura zenbatzailearen funtzioa sintaktikoaren arabera

E&Ek (2009) espreski aipatzen dute zenbatzaile ahul lausoek modifikatzen duten ISk duen funtzio sintaktikoak erabili zuzena duela aztertzen ari garen fenomenoan, eta horretan oinarrituz euskara hiru sistema ezberdinetan sailkatzen dute. Hiru sistema hauetan (Mendebalde-erdialdekoan, Trantsizioakoan eta Zuberoakoan) posible da zenbatzaile lausoek zenbaki komunztadura ez eragitea osagarri zuzenekin eta subjektu absolutiboekin, baina aldakortasuna aurkitzen dugu subjektu ergatibo eta datibodun argumetuekin (nahiz eta azken hau ez den aztertuko). E&Eren arabera, subjektu ergatiboek nahitaez eskatzen dute komunztadura plurala zenbatzaile ahul lauso batez lagundurik agertzen direnean Trantsiziozko eta Ekialdeko sistemetan. Hortaz, E&Ek proposatutako sailkapenaren arabera, espero duguna da: a) lagin honetan subjektu ergatiboak derrigorrezko zenbaki komunztadura erabili behar izatea, eta b) sintagma absolutiboekin (subjektu zein osagarri zuzenarekin), aldiz, komunztadura hautazkoa izatea.

3.5.1 Objektu zuzena (absolutiboa)

Gure lagina funtzioaren arabera aztertzen dugunean, bada oso nabaria den ezaugarri bat: zenbatzaile lausoek objektu zuzenaren funtzioa dutenean komunztadura gabeko forma gehien aurkitu ditugu (ik. II. eranskina, C87-C92), objektu zuzenen agerpen guztien % 54,65 komunztadura gabekoak baitira. Osagarri zuzenaren funtzioaren barruan zenbatzaileei erreparatuz gero, *apur* da komunztadura gabeko forma gehien zilegiztatzen dituen zenbatzailea (% 100, baina kontuan hartuz *apur* corpus osoan guztira 28 aldiz bakarrik agertzen dela), ondoren *sobera* (% 62,88), gero *guti* (% 53,84) eta, azkenik, *anitz* eta *gehiegi* (% 50) (ik. II. eranskina). Funtzioa osagarri zuzena izatea; hortaz, aldagai oso esanguratsua da estatistikoki ($z = -4,621$; $p < 0,001$).

3.5.2 Subjektu absolutiboa

Osagarri zuzenaren ondotik, komunztadura plurala eragiten ez duen bigarren multzoa subjektu absolutiboena da (ik. C79-C86), subjektua absolutiboa denean komunztadura ez baita gorde kasuen % 34,70tan; hau da, kasuen heren batean. Zenbatzaileen artean, *apur* da komunztadura plurala gutxien duen zenbatzailea (agerraldien % 72,72 komunztadurarik gabe agertzen da), hurrengo *guti* (% 42,71) eta, azkenik, *anitz* (% 39,6).

Oro har (eta *apur* alde batera utzita), esan dezakegu IS subjektu absoluti-boa denean, kasurik gehienetan zenbatzaileek zenbaki komunztadura eragiten dutela, nahiz eta komunztadura falta ere posible den oso zifra altuetan. Izan ere, osagarri zuzenak duten jarrerarekin erkatuz gero (% 54,65), ez da hain kopuru altua.

3.5.3 Subjektu ergatiboa

Azkenik, corpuseko azken sei esaldiak (C93-C98) subjektu ergatiboari dagozkio. E&Eren (2009) lanari jarraituz gero, ez genuke esperoko Iparraldeko hiztunek ergatiboarekin komunztadura falta zilegiztatzea, baina adibideen % 5,26k ez dute pluraleko komunztadurarik. Beraz, funtzioa subjektu ergatiboa izatea aldagai oso esanguratsua da estatistikoki ($z = -8,936$; $p < 0,001$), ia kasu guztietan komunztadura plurala erabiltzen delako. Hona hemen adibide batzuk:

(12) a. *Aski haurrek astokei erran dizi.* (40-60, Z, euskara H1)

b. *Haur geiegik goxokiak jaten ditu.* (40-60, BN, euskara H1)

c. *Haur soberak goxokiak jaten ditu.* (≤ 30 , L, euskara H1)

Hala ere, esan behar da, espero genuenaren kontra, estrategia hori ergatiboarekin posible bada ere, kasu honetan komunztadura faltak beherakada handia egiten duela bestelako kasuekin erkatzen dugunean: izan ere, corpusean hiztunek emandako gainerako perpausetan hiztunen % 20-70ek komunztadurarik gabeko formak zilegiztatzen zituen arren, azken 6 perpaus horietan gehienez hiztunen % 11k bakarrik aukeratu du komunztadura ez egitea; hau da, ergatiboa ageri diren perpausetan komunztadurarik egiten ez duten hiztunak 0tik 7ra izango dira, baina ez gehiago. Hiztun horien ezaugarriak 8. taulan ematen dira.

Norantzeko lagina txikia denez, ezin daiteke behin betiko ondoriorik atara, baina interesgarria da ikustea gaur egun zenbait hiztunek komunztadura falta zilegiztatzen dutela subjektu ergatiboekin ere, aurreko lanetan (eta bereziki E&Ek) esaten dutenaren kontra. Ditugun datuetan oinarrituta, euskalkien artean lapurtera eta zuberera nabarmentzen dira ezaugarri horretan, baina behe-nafarreraz ere agertzeak iradokitzen du ezaugarri hori Iparralde osoko kontua izan daitekeela. Bi hiztun alde batera utzirik, beste guztien ama hizkuntza euskara dela kontuan hartzen badugu, agian pentsa daiteke, mendebaldeko sistemari bezala, oraintsu arte posible izan dela subjektu ergatiboarekin komunztadura pluralik ez egitea. Halere, estrategia hori bai-

mendu duen hiztunen adinari arreta jarriz gero, guztiak gazteak (≤ 30) edota 40-60 urtekoak direla ikusten dugu, ez dugu ≥ 70 hiztunen artean horrelako esaldirik aurkitu; hortaz, zentzuzkoena berrikuntza batez ari garela pentsatzea da.


8. taula. Subjektu ergatiboarekin komunztadura plurala egiten ez duten hiztunen datuak

Hiztuna	Kmz (-)	Adina	Bizilekua	Euskara	Euskalkia	Eskolatzea
Yosan	C93-98	40-60	Baserria	H1	Zuberera	Frantsesez
Moba	C95	40-60	Hiria	H1	Behe-nafarrera	Frantsesez
Ehi	C93-C95, C97, C98	40-60	Hiria	2H	-	Frantsesez
Iosen	C95	≤ 30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
Maiaz	C95	≤ 30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
Gorba	C93,C95	≤ 30	Baserria	H2g	-	Euskaraz
Alazi	C95	≤ 30	Hiria	H1	Lapurtera	Eusk. + fr.
Maila	C94	≤ 30	Baserria	2H1	Zuberera	Frantsesez

3.6 Komunztadura zenbatzaileen arabera

Zenbaki komunztaduran zenbatzaileen arteko aldakortasuna aurkitzen dugu, zenbatzaileen izaeraren arabera dena. Hori aztertzeko, frantsesezko esaldi bera itzultzerakoan hiztun guztiek euskarazko esaldian erabilitako zenbatzaile erabilienak banaka aztertu ditugu. Zenbatzaile horiek honako hauek dira: *anitz*, *asko*, *guti*, *apur*, *sobera*, *gehiegi*, *aski* eta *zenbait*. Zenbatzaile bakoitzaren agerraldi guztietatik komunztadura plurala zenbatetan ez den egin ikusi da, eta horren arabera erabileraren ehunekoak eta hiztun taldeen batezbestekoak lortu ditugu. Horretaz gain, zenbatzailea modifikatzen duen ISk duen funtzioa ere hartu dugu kontuan (ik. I. eranskina). Komunz-

tadura plurala gutxien erabili dutenetatik gehien erabili dutenera antolatu ditugu zenbatzaileok. 2. irudian ikus daiteke zenbatzaile bakoitzaren agerpena komunztadura pluralik gabe, agerpen gehienetik gutxienetara.



2. irudia. Zenbatzaileen agerraldi guztietatik komunztadura gabeko agerraldiak (%).

3.6.1 *Apur* (C80, C85, C88, C91, C94)

Zenbatzaile hau ez da ohiko erabilera estandarreko *apur bat*; ostera, corpus honetan ikusi dugu Zuberoako hiztunek *apur* erabiltzen dutela *gutxi* zenbatzailearen zentzuarekin; baliteke zubereraren berrikuntza izatea (*Euskararen Gramatika*n ez da agertzen). Subjektu (absolutibo zein ergatibo) eta objektu zuzen funtzioa duten ISk modifikatzen agertzen da, eta kasu horietan du aldakortasuna. Komunztadura ez egiteko joera handiena daukan zenbatzailea da, agerpen guztietatik % 75tan komunztadurarik eza baitugu.

(13) *Haur aphür hil dia gisa hortaz* (C80, «Namau», Z, ≤ 30)

(14) *Libüu aphür iosi dit* (C88, «Gerbar», Z, ≥ 70)

(15) *Haur aphürrek ekharri titzi ben libriak* (C94, «Yosan», Z, 40-60)

Funtzioei arreta emanda, ikus dezakegu zenbatzaileak modifikatzen duen ISk OZ funtzioa betetzen duen guztietan (11 guztira) aditz jokatua komunztadurarik gabe agertzen dela (% 100). Alde batetik, zenbatzaileak modifikatzen duen IS subjektu absolutiboa denean, hiztunen % 72,72k ez du komunztadura plurala hautatu. Subjektu ergatiboa den kasuetan, aldiz, ehunekoak askoz apalagoa da: agerpen guztietatik % 33,33k bakarrik baimendu du komunztadura eza. Irakurleak gogoan izango duenez, E&Ek (2009) eta Coyo-sek (1999) emandako deskribapenen aurka, ez litzateke esperoko laginean gauzaturik ikusten dugun estrategia hori aurkitzea funtzio ergatiboarekin.

3.6.2 *Sobera* (C81, C89, C92, C95)

Sobera zenbatzailearekin komunztadurarik gabeko adibideak eman dituzte subjektu ergatiboekin, subjektu absolutiboekin eta osagarri zuzenekin:

(16) *Sobera haur lerratu da eskaler ortan* (C81, «Jabi», BN, ≥ 70)

(17) *Sobea sagar jan dit* (C89, «Pimus», Z, 40-60)

(18) *Aur soberak goxokiak jaten ditu* (C95, «Maiatz», L, ≤ 30)

OZ funtzioan, agerpen guztietatik % 62,88 komunztadurarik gabekoa da (hau da, 97 objektu zuzenetatik 61 komunztadura gabeak). Subjektu funtzioan ehunekoak oso bestelakoak dira: forma komunztadura gabeak % 20 dira subjektu absolutiboen kasuan (50etik 10), eta % 13,72 (50tik 6 agerraldi) subjektu ergatiboekin. Argi dago, beraz, ISren funtzioak eragin zuzena duela, zenbatzaile honek eragiten duen numero komunztaduran, objektu zuzenekin askoz gehiagotan aurkitzen baititugu forma komunztadura gabeak subjektuekin baino. Subjektuetan, maizago ikusten dugu komunztadura eza subjektu absolutiboekin ergatiboekin baino. Aurreko zenbatzailearen kasuan bezala, badirudi posible dela zenbatzaile komunztadurarik gabeak aurkitzea subjektu ergatiboekin.

3.6.3 *Gutxi/gut(t)i/gütü* (C80, C85, C88, C91, C94)

Gutxi zenbatzailearekin ere komunztadura gabeko adibideak daude subjektu ergatiboekin, subjektu absolutiboekin eta osagarri zuzenekin:

(19) *Haur gutti hil da gisa hortan* (C80, «Belu», BN, ≥ 70)

(20) *Liburu gutti dut baina ideia aunitz* (C91, «Joain», L, ≤ 30)

(21) *Haur güttik ekarri du bere liburua* (C94, «Ehi», -, 40-60)

OZ funtzioa duten kasuetan, esaldi guztietatik % 53,84 agerpenetan ez da komunztadura plurala hautatu. Subjektu funtzioaren kasuan, hemen ere subjektu ergatiboak eta subjektu absolutiboak bakoitza bere aldetik aztertu behar dira, jarrera oso ezberdinak erakusten dituztelako. Hortaz, subjektu absolutiboen kasuan, agerraldien % 42,71k ez du komunztadura plurala eragin. Aldiz, subjektu ergatiboen kasuan aztertu ditugun esaldi guztietan, batean izan ezik, komunztadura plurala aurkitu dugu. Dena den, hiztun horrek (EHI) ez ohi du pluralez komunztatzen gehienetan.

3.6.4 *Anitz/anitx* (C79, C81, C84-C88, C90-C94, C98)

Anitz zenbatzaileak oso jarrera orekatua du OZ funtzioa betetzen duenean (ik I. eranskina): esaldien % 50ek komunztadura plurala erabili du, eta beste % 50ek ez du zenbaki komunztadurarik eragin.

(22) *Ainitz liburu badut* (C90, «Xalai», BN, 40-60)

Honetan ere alde handia aurkitu dugu OZ funtzioa subjektu funtzioarekin erkatu dugunean. Lafittek (1962) *hanitx* beti pluralez komunztatu behar zela esan bazuen ere, gure datuetan *anitzek* laguntzen duen ISk subjektu absolutiboa denean, agerraldien % 39,6k ez du zenbaki komunztadurarik eragin.

(23) *Aur anitz erori da eskaler oitan* (C79, «Eshen», L, ≥ 70)

Subjektu ergatiboekin erkatzen ditugunean, azken hauen kasuan 2 adibidetan baino ez dira komunztadura gabeko formak hautatu, kasu guztien % 4,08tan.

(24) *Aur ainitzek lo egin du emen* (C93, «Ehi», -, 40-60)

(25) *Haur hanitxek jadanik heben lo egin dizi* (C93, «Yosan», -, 40-60)

3.6.5 *Gehiegi* (C81, C89, C92, C95)

Aurrekoa bezala, *gehiegi* zenbatzaileak eragiten duen komunztadura nahiko orekatua da OZ funtzioa betetzen duenean (ik I. eranskina); honetan ere, esaldien % 50ek komunztadura plurala erabili du, eta beste % 50ak ez.

(26) *Sagar geiegi jan dut* (C89, «Lausa», -, ≤ 30)

Beste zenbatzaileekin bezala, alde handia aurkitu dugu OZ funtzioa subjektu funtzioarekin alderatu dugunean. Izan ere, subjektu absolutiboekin hiztunek emandako perpaus guztien % 14,28tan bakarrik baimendu da ko-

munztadura eza (7tik behin), eta subjektu ergatiboarekin behin besterik ez (% 11,11):

(27) *Haur gehiegi lerratu da eskaler untan* (C81, «Moba», BN, 40-60)

(28) *Haur geiegik goxokiak jaten ditu* (C95, «Moba», BN, 40-60)

3.6.6 *Asko* (C79, C86, C87, C90, C91, C93)

Askorekin komunztadurarik gabeko formak erabiltzen badira ere, ikusi dugu *askoren* agerraldi guztietarik bakarrik % 18,18k ez duela komunztadura plurala egin. Zehatzago, komunztadurarik eza baimendu da: i) OZ funtzioarekin agerraldien % 20 (20tik 4tan); ii) subjektu absolutiboekin % 21,42 (14tik 3tan), eta iii) subjektu ergatiboekin % 10, hau da, hamar agerraldietatik bakar batean.

(29) *Aur asko erori da eskaler untan* (C79, «Moba», BN, 40-60)

(30) *Liburu asko badut* (C90, «Jabi», BN, ≥ 70)

(31) *Aur askok jadanik emen lo egin du.* (C93, «Gorba», -, ≤ 30)

3.6.7 *Aski* (C84, C98)

Askik, bestetik, agerraldi guztietatik % 14,56an ez du komunztadura plurala eragin. Funtzioaren eragina aztertzeko orduan arazo batekin egin dugu topo: lagin honetan *aski* ez dela inoiz OZ funtzioan agertzen. Subjektuen kasuan, subjektu absolutiboekin % 24,07 agerralditan ez dute egiten komunztadura plurala (ik. I. eranskina).

(32) *Aski haur erori da hemen* (C84, «Aniz», BN, ≥ 70)

Azkenik, subjektu ergatiboekin, komunztadura gabeko formak oso gutxitan zilegiztatu dira: agerraldien % 4,08 (49tik 2tan).

(33) *Aur askik erran ditu zozokeriak* (C98, «Ehi», -, 40-60)

3.6.8 *Zenbait/zonbait/zunbait* (C83, C97)

Zenbaiti dagokionez, gramatikek (Euskaltzaindia, 1985; Zubiri & Zubiri, 2000) zein E&Ek (2009) aldakortasuna duela adierazi arren, gure corpusean birritan besterik ez da komunztadura pluralik gabe agertu, eta, gainera, funtzioa subjektu ergatiboa zela (2 29tik); beraz, zenbatzaile horren jokabideari kontu handiz begiratzea komeniko litzateke. Hiztunek zenbatzaile horrekin komunztadura plurala egiteko joera nabarmena dute.

(34) *Zombait aur juan dire elizarat* (C83, «Joban», BN, ≥ 70)

(35) *Zombait aurrek erosi du paperra* (C97, «Ehi», -, 40-60)

(36) *Haur zumbaitek iosi dizi pape* (C97, «Yosan», Z, 40-60)

Dena den, kontutan hartu beharko litzateke *zenbait* 58 aldiz bakarrik agertu dela (hiztunen beste erdiak *batzuk* erabiltzeko joera duelako).

4 Ondorioak

Euskarak badu inguruko hizkuntzek² ez duten ezaugarri bat zenbaki komunztadurarekin lotuta dagoena: zenbatzaile ahul lausok aukeran dute komunztadura plurala eragitea nahiz zenbaki komunztadurarik ez eragitea. Alde horretatik, interesgarria da aztertzea euskarak berezkoa duen ezaugarri horrek nolako garapena izan duen euskararen lurraldean, eta batik bat zein den sistema horren deskribapena ikuspuntu soziolinguistikotik. Abiapuntu horretatik, lan honetan ezaugarri gramatikal hau aztertu dugu. Lanaren lehen zatian gertakariaren gaineko azalpen nagusiak aurkeztu ditugu, E&Eren lanari arreta berezia emanda. Horren ondoren, lanaren bigarren atalean, *Norantz* proiektua eta ikerketaren metodologia aurkeztu dugu. Azkenik, Iparraldeko hizkeretan nola gauzatzen den aztertu ditugu. *Norantz*eko laginaren azterketak aukera eman digu fenomeno honetan parte hartzen duten zenbatzaile nagusien jokamoldeak aztertzeko, orain arte egin gabe ze goen lana.

Azterketa horrek emaitza interesgarriak izan ditu:

- i. Komunztadurarik gabeko formak gehien onartzen dituzten hiztunen ezaugarriak aztertzen baditugu, ikusten dugu ≥ 70 urte bitartekoak eta zuberotarrak direla. Adinak behera egin ahala, komunztadura pluralaren erabilera handituz doa. Komunztadura gutxien egin duen hiztuna YOSAN da (euskara H1, baserritarra, Z, 40-60).
- ii. Ezaugarri linguistikoei dagokienez, komunztadurarik gabe gehien agertzen diren zenbatzaileak *apur*, *guti* eta *sobera* dira. Egindako analisiak argi utzi du zenbatzaileen artean alde handia dagoela, eta

² Egia da gaztelerak *Aquí hay mucho niño* 'Hemen ume asko dago' bezalako komunztadura gabeko egiturak onartzen dituela. Dena den, zenbatzaile komunztadura gabeen erabilera ez da euskaraz bezain zabala, eta gainera, egitura horiek semantikoki markatutako kasuak dira, konnotazio negatiboa baitaukat.

zenbatzaile batzuek joera handiagoa dutela beste batzuek baino komunztadura falta baimentzeko. Guk dakigularik, orain arte inork ez dio xeheki begiratu zenbatzaile bakoitzak komunztadura pluralarekin duen portaerari. Komunztadura plurala gutxien eragiten duen zenbatzailea *apur* da. Beste muturrean, komunztadura plurala ia beti egiten duten zenbatzailea *zenbait* da.

- iii. Funtzio sintaktikoari ekinez, komunztadura falta gehien osagarri zuzenarekin gertatzen da (eta maiztasunean ondoren, subjektu absolutiboarekin eta subjektu ergatiboarekin, hurrenez hurren).
- iv. E&Ek (2009) euskararen barneko aldakortasuna azaltzeko zenbatzaile sintagma agertzen den funtzioari arreta jarri diote: proposatutako hiru sistemetan (Mendebaldekoan, Trantsiziokoan eta Zuberoakoan) ohikoagoa dela zenbaki komunztadurarik ez egitea osagarri zuzen eta subjektu absolutiboekin, baina Iparraldean ez dagoela aldakortasunik subjektu ergatiboarekin. Gure ikerketak ere argi utzi du ISren funtzioaren garrantzia: E&Ek emandako karakterizazioaren kontra, kasu gutxi badira ere, subjektu ergatiboekin ere komunztadura gabeko formak aurkitu ditugu, Iparraldeko lurralde osoan. Hau zilegiztatzen duten hiztunen ezaugarriak aztertu ondoren, aipagarria da estrategia hori ez dela gertatzen 70 urtetik gorako belaunaldian. Dena den, ez da estatistikoki esanguratsua, oso adibide gutxi baitira.
- v. Azkenik, lanean hainbat aldiz aipatu dugun moduan, kontuan hartu behar da lagina txikia dela, eta, gainera, hiztun batek estrategia bat edo bestea (komunztadura plurala egin ala ez) hautatzen duenean bere erantzuna emateko, ez duela esan nahi beste estrategia ezin duenik erabili; frantsesetik itzuli izanak eraginik izan lezake. Hala ere, egin dugun azterketa horrek joera nahiko garbiak azalarazi ditu, emaitza interesgarriak aterata, eta fenomenoak hobeto deskribatzen eta hobeto ulertzen ahalbidetu duela uste dugu. Etorkizunean, Hegoaldeko datuekin alderatuko da lagin hau, fenomenoak hobeto eza-gutzeko.

5 Erreferentziak

Coyos, J.-B. (1999). *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*. L'Harmattan.

De Houwer, A. (2009). *Bilingual first language acquisition*. Clevedon.

- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2008). Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa euskaraz. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren gehigarriak, 51) (259.-286. or.). UPV/EHU.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2009). Zenbatzaileak komunztatzen ez direnean: Hiru sistema. *Lapurdum*, 13, 127-144.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2012). Number agreement in Basque: Counting vs measuring. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.). *Noun phrases and nominalizations in Basque* (149.-178. or.). John Benjamins.
- Etxepare, R. (2000). Asko-ren zenbait alderdi. *Lapurdum*, 5, 99-111.
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskararen gramatika* (I. liburukia). Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal gramatika: lehen urratsak I*. Euskaltzaindia & Nafarroako Foru Gobernuak.
- Lafitte, P. (1944/1962). *Grammaire basque (navarro-labourdin litteraire)* (2. arg.). Amis du Musée basque & Ikas.
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. & Epelde, I. (2011). Norantz datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak. In I. Epelde (arg.). *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (ASJUren gehigarriak, 69) (1.-36. or.). UPV/EHU.
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. & Epelde, I. (2012). La base de données Norantz : vers un observatoire des parlars basques d'Aquitaine, *Lapurdum*, 16, 27-67.
- Pelletier, J. (1975). Non-singular reference: Some preliminaries. *Philosophia*, 5, 451-465.
- Txillardegui. (1978). *Euskal gramatika*. Ediciones Vascas.
- Zubiri, I. & Zubiri, E. (2000). *Euskal gramatika osoa* (2. arg.). Didaktiker.

I. ERANSKINA: zenbatzaileen eta funtzioaren arteko elkarreragina komuntaduran

10. taula. Zenbatzailearen arabeko komuntadura

	Funtzioa	(-)KMZ	(+)KMZ	(-) KMZ (%)	% Zenb-aren agerpenetatik KMZ-
Anitz	Subj ABS	40 / 101	61 / 101	% 39,60	% 36,58
C79, C81, C84, C85, C86, C87, C88, C90, C91, C92, C93, C94, C98	OZ ABS	48 / 96	48 / 96	% 50,00	
	*Subj ERG ³	2 / 49	47 / 49	% 4,08	
Ask	Subj ABS	3 / 14	11 / 14	% 21,42	% 18,18
C79, C86, C87, C90, C91, C93, C94	OZ ABS	4 / 20	16 / 20	% 20,00	
	*Subj ERG	1 / 10	9 / 10	% 10,00	
Guti	Subj ABS	44 / 103	59 / 103	% 42,71	% 38,99
C80, C85, C88, C91, C94	OZ ABS	56 / 104	48 / 104	% 53,84	
	*Subj ERG	1 / 52	51 / 52	% 1,92	
Apur	Subj ABS	8 / 11	3 / 11	% 72,72	% 75
C80, C85, C88, C91, C94	OZ ABS	11 / 11	0 / 11	% 100	
	*Subj ERG	2 / 6	4 / 6	% 33,33	
Sobera	Subj ABS	10 / 50	40 / 50	% 20	% 38,88
C81, C89, C92, C95	OZ ABS	61 / 97	36 / 97	% 62,88	
	*Subj ERG	6 / 50	44 / 50	% 11,76	
Gehiegi	Subj ABS	1 / 7	6 / 7	% 14,28	% 31,25
C81, C89, C92, C95	OZ ABS	8 / 16	8 / 16	% 50	
	*Subj ERG	1 / 9	8 / 9	% 11'11	
Aski	Subj ABS	13 / 54	41 / 54	% 24,07	% 14,56

³ Subjektu ergatiboko funtzioak izartxo (*) batez daude markatuta, Etxeberriaren & Etxeparearen (2009) hiru sistemen arabera, komuntadura plurala egitea nahitaezko izan beharko litzatekeelako, nahiz eta gure corpusean hori betetzen ez duten zenbait adibide egon.

	Funtzioa	(-)KMZ	(+)KMZ	(-) KMZ (%)	% Zenb-aren agerpenetatik KMZ-
C84, C98	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	2 / 49	47 / 49	% 4,08	
Oro	Subj ABS	0 / 10	10 / 10	% 0	% 5
C82, C96	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	1 / 10	9 / 10	% 10	
Guzi	Subj ABS	0 / 49	49 / 49	% 0	% 0
C82, C96	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	0 / 49	49 / 49	% 0	
Batzuk	Subj ABS	0 / 29	29 / 29	% 0	% 0
C83, C97	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	0 / 29	29 / 29	% 0	
Zenbait	Subj ABS	0 / 29	29 / 29	% 0	
C83, C97	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	2 / 29	27 / 29	% 6,89	% 3,44

II. ERANSKINA: funtzioaren arabeko zenbatzaileen elkarreragina komuntaduran (-/+)

11. taula. DS funtzioaren arabeko komuntadura (-/+)

	Zenb	(-)KMZ	(+)KMZ	(-)KMZ (%)	IS funtzioaren agerpenetatik KMZ - (%)
Subj (ABS)	<i>anitz</i>	40 / 101	61 / 101	% 39,6	% 34,70 (oro, guzi, batzuk, zenbait kontuan hartu barik)
C79, C80, C81,	<i>asko</i>	3 / 14	11 / 14	% 21,42	
C82, C83, C84,	<i>guti</i>	44 / 103	59 / 103	% 42,71	

	Zenb	(-)KMZ	(+)KMZ	(-)KMZ (%)	IS funtzioaren agerpenetatik KMZ - (%)
	<i>apur</i>	8 / 11	3 / 11	% 72,72	
	<i>sobera</i>	10 / 50	40 / 50	% 20	
	<i>gehiegi</i>	1 / 7	6 / 7	% 14,28	
	<i>aski</i>	13 / 54	41 / 54	% 24,07	
C85, C86	<i>oro</i>	0 / 10	10 / 10	% 0	% 25,82 (Orotara <i>oro</i> , <i>guzi</i> , <i>batzuk</i> , <i>zenbait</i> kontuan hartuta)
	<i>guzi</i>	0 / 49	49 / 49	% 0	
	<i>batzuk</i>	0 / 29	29 / 29	% 0	
	<i>zenbait</i>	0 / 29	29 / 29	% 0	
OZ (ABS)⁴	<i>anitz</i>	48 / 96	48 / 96	% 50	% 54,65
	<i>asko</i>	4 / 20	16 / 20	% 20	
	<i>guti</i>	56 / 104	48 / 104	% 53,84	
C87, C88, C89, C90, C91	<i>apur</i>	11 / 11	0 / 11	% 100	
	<i>sobera</i>	61 / 97	36 / 97	% 62,88	
	<i>gehiegi</i>	8 / 16	8 / 16	% 50	
*Subj ERG	<i>anitz</i>	2 / 49	47 / 49	% 4,08	% 5,26
C92, C93, C94, C95, C96, C98	<i>asko</i>	1 / 10	9 / 10	% 10	
	<i>guti</i>	1 / 52	51 / 52	% 1,92	
	<i>apur</i>	2 / 6	4 / 6	% 33,33	
	<i>sobera</i>	6 / 50	44 / 50	% 11,76	
	<i>gehiegi</i>	1 / 9	8 / 9	% 11,11	
	<i>aski</i>	2 / 49	47 / 49	% 4,08	
	<i>oro</i>	1 / 10	9 / 10	% 10	
	<i>guzi</i>	0 / 49	49 / 49	% 0	

⁴ Corpus honetan *aski*, *guzi*, *oro*, *zenbait* eta *batzuk* ez dira inoiz objektu zuzena modifikatzen agertzen.

Zenb	(-)KMZ	(+)KMZ	(-)KMZ (%)	IS funtzioaren agerpenetatik KMZ – (%)
<i>batzuk</i>	0 / 29	29 / 29	% 0	
<i>zenbait</i>	2 / 29	27 / 29	% 6,89	

III. ERANSKINA

12. taula. *Norantz* corpuseko perpausak eta adibide bana, funtzioaren arabera

Kodea	Zenbatzailea eta perpausak	Funtzioa
C79	1) Beaucoup d'enfats sont tombés dans ces escaliers 'Haur hanitx ioi düzü eskele hoitan' (GERBAR)	Subj. ABS
C80	2) Peau d'enfants sont morts de cette manière 'Haur aphür hiltzü manea hortaa' (REES)	Subj. ABS
C81	3) Trop d'enfants ont glissé dans ces escaliers 'Haur sobea lerratü düzü eskale hoitan' (YOSAN)	Subj. ABS
C82	4) Tous les enfants sont tombés par terre 'Haurrak oro lürrilat ioi tützü' (PIMUS)	Subj. ABS
C83	5) Quelques enfants sont allés à l'église 'Hau zunbait elizalat jun tützü' (MAAL)	Subj. ABS
C84	6) Suffisamment d'enfats sont déjà tombés ici 'Aski haur ioi tützü heben' (PEOLO)	Subj. ABS
C85	7) Il y a peu d'étudiants dans la rue 'Arrüan etüdian aphür düzü' (GERBAR)	Subj. ABS
C86	8) Il y a beaucoup de places vides dans ce train 'Badüzü lekkü hütsik hanitx tren hortan' (XILA)	Subj. ABS
C87	9) J'ai vu beaucoup d'enfants tomber par terre 'Ikhusi dit haur hanitx iorten lürrilat' (NAMAU)	OZ. ABS
C88	10) J'ai acheté peu de livres 'Libru aphür iosi dit' (MAILA)	OZ. ABS
C89	11) J'ai mangé trop de pommes 'Jan dit sagar sobea' (REES)	OZ. ABS
C90	12) J'ai beaucoup de livres 'Badit librü hanitx' (YOSAN)	OZ. ABS

Kodea	Zenbatzailea eta perpausak	Funtzioa
C91	13) J'ai peu de livres, mais beaucoup d'idées 'Libüü aphür ditpai bena ideia hanitx' (GERBAR)	OZ. ABS
C92	14) Beñat a trop de livres, mais pas assez d'amis 'Beñatek sobea librü batitzü bena ez lagünik aski' (PEOLO)	OZ. ABS
C93	15) Beaucoup d'enfants ont déjà dormi ici 'Haur hanitx heben dejaik lo egin dizie' (XILA)	Subj. ERG
C94	16) Peu d'enfants ont apporté leur(s) livre(s) 'Haur aphürrek dizie ekharri been lübüik' (REES)	Subj. ERG
C95	17) Trop d'enfants mangent des bonbons 'Haur sobeek bunbu jaten dizie' (MAILA)	Subj. ERG
C96	18) Tous les enfants ont mangé du pain 'Haur oek ogi jan dizi' (YOSAN)	Subj. ERG
C97	19) Quelques enfants ont acheté du papier⁵ 'Haur zumbaitek iosi dizi pape' (YOSAN)	Subj. ERG
C98	20) Suffisamment d'enfants ont dit des bêtises 'Aski hurrek erran dizie bai, astokeia' (GERBAR)	Subj. ERG

IV. ERANSKINA

13. taula. *Norantz* corpuseko hiztunen ezaugarri soziolinguistikoak

Kod.	Hiztuna	Adina	Euskalkia	Jabekuntza	Eskolatzea	Bizilekua	Aloku- tibia inoiz?
1	ESHEN	≥ 70	L	H1	F	Hirixka	EZ
2	JABI	≥ 70	BN	H1	F	Hiria	EZ
3	MADON	≥ 70	L	H1	F	Baserria	EZ
4	LOUSEN	≥ 70	L	H1	F	Baserria	EZ
5	GERBAR	≥ 70	Z	H1	F	Baserria	BAI
6	XALEZ	≥ 70	L	H1	F	Baserria	EZ

⁵ Komunztadura plurala egin ez dutenek zenbait erabili dute; batzukek ez dauka aldakor-tasunik.

Kod.	Hiztuna	Adina	Euskalkia	Jabekuntza	Eskolatzea	Bizilekua	Aloku- tibia inoiz?
7	ANIZ	≥ 70	BN	H1	F	Baserria	EZ
8	MAIHE	≥ 70	BN	H1	F	Hiria	EZ
9	BELU	≥ 70	BN	H1	F	Hiria	EZ
10	REES	≥ 70	Z	H1	F	Baserria	BAI
11	PIEPA	≥ 70	Z	H1	F	Hiria	BAI
12	PIEGE	≥ 70	L	H1	F	Baserria	EZ
13	JOBAN	≥ 70	BN	H1	F	Hiria	EZ
14	ADBAR	≥ 70	Z	H1	F	Hiria	EZ
15	XLEAHA	≥ 70	BN	H1	F	Hiria	EZ
16	JEDON	40-60	L	2H1	F	Hirixka	EZ
17	RAZI	40-60	L	H1	F	Hirixka	EZ
18	YOSAN	40-60	Z	H1	F	Baserria	BAI
19	PIMUS	40-60	Z	H1	F	Hiria	BAI
20	GRAAR	40-60	BN	H1	F	Hirixka	EZ
21	XALAI	40-60	BN	H1	F	Baserria	EZ
22	KOBA	40-60	BN	H1	F	Hiria	EZ
23	MOBA	40-60	BN	H1	F	Hiria	EZ
24	BERLA	40-60	BN	H1	F	Hirixka	EZ
25	MIMU	40-60	BN	H1	F	Baserria	EZ
26	KADO	40-60	BN	H1	F	Hiria	BAI
27	EHI	40-60	-	H2	F	Hiria	EZ
28	MAAL	≤ 30	Z	H1	F	Baserria	BAI
29	SEAI	≤ 30	BN	H1	F	Baserria	EZ
30	XAAN	≤ 30	-	H2	F	Hiria	EZ
31	XABAI	≤ 30	BN	H1	F	Hiria	EZ
32	LAUSA	≤ 30	-	H2	F	Baserria	EZ

Kod.	Hiztuna	Adina	Euskalkia	Jabekuntza	Eskolatzea	Bizilekua	Aloku- tibia inoiz?
33	ANHAZ	≤ 30	L	H1	E	Hirixka	EZ
34	IOSEN	≤ 30	L	H1	E	Hirixka	EZ
35	BEDO	≤ 30	BN	H2g	F	Baserria	EZ
36	MAIAZ	≤ 30	L	H1	E	Hirixka	EZ
37	NAZI	≤ 30	-	H1	E	Hirixka	EZ
38	AKAN	≤ 30	-	H2g	E	Hirixka	EZ
39	EHEN	≤ 30	-	H1	E/F	Hirixka	EZ
40	PABA	≤ 30	-	H2g	E	Hiria	EZ
41	JOAI	≤ 30	BN	H1	E	Baserria	EZ
42	PANZI	≤ 30	L	H1	F	Hirixka	EZ
43	JOSA	≤ 30	-	H2g	E	Baserria	EZ
44	LUIDO	≤ 30	BN	2H1	E	Hirixka	EZ
45	MAIE	≤ 30	BN	H1	E	Baserria	EZ
46	NAMAU	≤ 30	Z	H1	E/F	Baserria	BAI
47	IBA	≤ 30	-	H1	E	Hiria	EZ
48	KABA	≤ 30	BN	H1	E	Hiria	EZ
49	PEOLO	≤ 30	Z ⁶	2H1	F	Hirixka	BAI
50	JOAINH	≤ 30	L	2H1	F	Baserria	EZ
51	GORBA	≤ 30	-	H2g	E	Hiria	EZ
52	ABE	≤ 30	BN	H1	E	Baserria	EZ
53	AIBA	≤ 30	-	2H1	E/F	Hiria	EZ
54	XILA	≤ 30	Z	H1	E/F	Baserria	BAI
55	ALAZI	≤ 30	L	H1	E/F	Hirixka	EZ
56	MIMI	≤ 30	-	H2g	E	Baserria	EZ

⁶ *Norantz* corpusean euskalkirik aitortzen ez bazaio ere, euskara aitona-amonekin txikitatik ikasi duela adierazita dago. Bere erantzunak azterturik, zuberera gisa sailkatu dugu bere euskalkia, gainerako zuberotarren hizkera bera darabilelako.

Kod.	Hiztuna	Adina	Euskalkia	Jabekuntza	Eskolatzea	Bizilekua	Aloku- tibia inoiz?
57	KAU	≤ 30	BN	H1	F	Baserria	EZ
58	IBAI	≤ 30	-	H2g	E	Hiria	EZ
59	MAILA	≤ 30	Z	2H1	F	Baserria	BAI

Hikako adizki alokutiboetako *d-* > *z-* aldaketaren ibilbide historikoaz

On the historical trajectory of the *d-* > *z-* change in the allocutive verbs of *hika*

Alaitz Imaz

UPV/EHU

aimaz014@ikasle.ehu.eus

LABURPENA

Hikako adizki alokutiboek badituzte zenbait ezaugarri propio. Ezaugarri horiek pixkanaka joan dira garatuz neutrotik alokutiborako bidean nahiz alokutibo bihurtu ondoren. Aldaketa horien artean adizkien hitz hasierako *d-* vs *z-* aldakortasuna dago. Lan honetan aldaera horiei erreparatu zaie. Lehen testuetarik jada jasotzen dira forma ezberdinak eta Lehen Euskara Modernoaren garaira arte izan duten bilakabidea ikertu da. Ibilbide horretan eremu geografiko batzuek nabarmenago bereganatu dute aldaketa; halaber, adizki jakin batzuek lehenago garatu dutela ikus daiteke. Bestalde, ipar-ekialdean *d-* > *z-* araua atzeraka ote doan sumatzeko moduko datuak ere bildu dira. Horrek informazio garrantzitsua eskaintzen du alokutiboaren bilakabide historikoaz, eta, bidenabar, bai eta euskararen banaketa dialektologikoaz ere.

Gako hitzak: alokutibotasuna; banaketa dialektala; bilakabide morfologikoak; diakronia.

ABSTRACT

The allocutive verbs of *hika* treatment have certain characteristics of their own. These characteristics gradually developed on the way from the neutral to the allocutive, as well as after becoming allocutive. These changes include the initial *d-* > *z-* change in verbs. This change is analysed in this work. From the first texts, the change had already begun and its development up to the time of the First Modern Basque is investigated here. In this trajectory the change was more evident in some geographical areas, and it can also be seen that certain verbs developed earlier. On the other hand, data has also been collected that suggests that the *d-* > *z-* rule might be going backwards in the northeast. This provides important information on the dialectological distribution and historical development of the Basque language.

Keywords: allocutivity; dialectal distribution; morphological developments; diachrony.

1 Sarrera

Hikako trataerak berea du gaur-gaurkoz alokutibotasuna. Ez zitekeen hori, ordea, betidanikoa; noizbait hika ez-alokutibotik alokutiborako aldaketa prozesua gertatuko zatekeen euskaraz. Prozesu horretan aditz neutroek euren bikote alokutiboa garatuko zuketena, hainbat aldaketa morfologiko tarteko, besteak beste. Behin adizki alokutiboak sortuta, egun ere jarraitzen dute alokutibo barneko aldaketek.

Forma alokutiboak euren kide neutroaren gainean eraikiak dira, neutroei morfema alokutiboak erantsiz eta zenbait aldaketa eginez sortu baitira (Alberdi, 1995, 281. or.). Aldaketa guztiak ez ziratekeen garai berean edo kolpetik gertatuko; batzuk alokutiboak sortzerakoan eta besteak alokutibo bihurtu ondoren. Alokutiboaren aldaketez ari bagara ere, ez dugu ahaztu behar hikako alokutiboak euskararen eremu osokoak direla eta hizkera guztiek ez zituztela aldaketa berak eta modu berean garatuko. Horren adibide dira, esaterako, mendebaldean erro aldaketarik ez izatea **edun* erroari dagozkion adizkietan: *dot* ‘dut’ eta *jo(n)at* ‘di(n)at/dut’ edo erdialdean agertzen den *-tx-* morfema: *netxe(n)an* ‘nekien’ (kokapen ezberdinak hartzen ari dena, *neki-txo(n)an* ‘nekien’).

Lan honetan adizki horietan gertatzen den beste aldaketa bati erreparatuko zaio: hitz hasierako kontsonanteetan aurkitzen diren aldaerei. Kide neutroarekin alderatuz, hasierako hots hori ezberdina da hizkeraren arabera. Ondoko adibideetan ikus daiteke laburtuta zertaz ari garen. Esate baterako, *egon* aditzaren adizki trinko bat (NOR 3. sg) hartzen badugu, (1-4) aukerak sortuko dira, besteak beste:

- (1) *dago* (forma neutroa)
- (2) *diagok/n* (forma alokutiboa)
- (3) *jagok/n* (forma alokutiboa)
- (4) *zagok/n* (forma alokutiboa)

(1) adibidekoa forma neutroa da, egun ere neutrorako ohikoa dena; (2) jada alokutibokoa da, apika ekialdean egun ere entzungo dena, *-i-* alokutibo aurrekoa (adituek datibo aurrekoarekin lotzen dute; ikus Ariztimuño, 2013, 405. or.) eta alokutibo morfema (*-k* hartzailea maskulinoa denean, *-n* feminoa denean) erantsita baitaizka; (3)-an mendebaldeko forma alokutiboa

agertzen da, *j-* hasieragatik ezaguna; (4) adibideak, berriz, hitz hasierako *z-* eta alokutibo morfema dauzka. Horrela, forma horietan antzeman daitekeen ezberdintasun nabarmena hitz hasierako kontsonanteetan aurkitzen da.

Forma horiek guztiek jatorri bera dutela ikerlari gehienek onartzen dute; alegia, *di-* hasieratik eratorri izana. Forma neutroak jada duen *d-* hasieraren ondoren *-i-* morfema alokutiboa erantsiz osatzen den elkarketa litzateke. Gauzak horrela, bigarren osagai hori ezinbestekotzat jotzen da egun aurki daitezkeen aldaera horien azalpena emateko, horrek eragindako aldaera fonologikoak bailirateke goiko adibideetako hasiera ezberdinak. Adiera bera duten aldaera horiek edo, zehatzago esanda, aldaeren ezaugarri diren hasiera ezberdin horiek dira lan honen ikergai, baina (4)-n ikusten den *z-ri* erreparatuko zaio batik bat.

Aldaketa hori testuinguru jakinetan gertatzen da. 1. taulan ikus daitezke zein diren (egun entzun daitezkeen adibideak agertzen dira taulan). Bilakae-
ra aditz trinkoetan nahiz laguntzaileetan gertatu da. Laguntzaileetan indika-
tibo eta ahalerako sail hauean gertatu da aldaketa hori: NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK, nahiz eta eremu geografikoaren arabera aldatzen diren.

1. taula. D- > Z- aldaketaren testuinguruak

D- > Z-	Ez-alokutiboa	Alokutiboa
Trinkoak	<i>dator</i>	<i>zatorrek/n</i>
NOR-NORI-NORK	<i>diot</i>	<i>io(n)at</i>
NOR-NORK (NOR 3. pl)	<i>ditu</i>	<i>zetik/n</i> <i>zetuk/n</i>
Ahalerakoak	<i>dezaket</i>	<i>zezake(n)at</i>

Bestalde, zehaztu behar da *d-* > *z-* aldaketa ez dela gerta zitekeen testuinguru guztietan gauzatu; alegia, hitz hasieran *d-* duten aditz laguntzaile guztietan ez da *z-* izatera pasa. NOR-NORI kasuan forma neutroek *z-* hasiera dute berez NOR 1. eta 2. pertsona (nahiz azken horrek ere *z-* izan) ez denean; beraz, horri eusten zaio forma alokutiboetan ere: *zait* > *zaidak/n*. NOR-NORK sailari erreparatuz gero, oro har, ez da aldaketarik ikusten: *dut* > *di(n)at* eta *ditut* > *diti(n)at*, *dizki(n)at*. Hala ere, taulan ikus daitekeen bezala, NOR 3. sg den kasuetan salbuespena dago hizkera eta garaien arabera. Mendebaldean ere ez da *d-* hasierarik agertzen singular zein pluraletan: *dot* > *jo(n)at*,

xo(n)at. NOR sailean euskararen eremu osoa bat dator: ez da horrelako aldataririk gertatzen: *da > duk/n*.

Forma alokutiboetan agertzen den aldaketa edo bilakabide horretan arreta jarri duten ikertzaileak ez dira gutxi izan eta azalpen ezberdinak eman izan dizkiote; oro har, gehienak bat datoz hasierako kontsonante aldaera horiek *d-* + *-i-* elkarketaren emaitzak direla esatean. Gaiari heltzen lehenengoetakoa izan zen Schuchardt (1893/1972, 332. or.): *d-* + *-i-* elkarketak hasierako kontsonantean, eremu geografikoaren arabera, emaitza ezberdinak utzi zituela esan zuen, **dx-* hotsetik pasaz: Aezkoan *x-*, Bizkaian *j-*, Lapurdin eta Gipuzkoan *z-*. Hamarkada batzuk beranduago, Azkuek (1923/1969, 564. eta 570. or.) elkarketa horrek uzten dituen emaitzen zerrenda eman zuen, Schuchardtenari aldaera bat gehituz: *d-*, *dx-*, *x-*, *y-* eta *j-*. Gipuzkoako formetan ikusten zuena berezitat jo zuen. Gainerakoek *-i-* erantsi zuten bezala, horiek *zu* izenordainaren marka eransten zutela azaldu zuen; horregatik hitz hasierako *z-*: *zegok*. Bährek (1925, 110. or.) bestelako azalpena eman zion Gipuzkoako hasiera horri: *-i-* bere aurreko kontsonantearekin konbinatu eta *z-* (*zegok*, *zotorrek*) ematen duela esan zuen. Aurrerago, Lafonek (1959, 393. or.) ere *-i-* erantsi ondoren *z-* agertzen dela zioen, baina batez ere lapurteran gertatzen omen da: *dabiltza > zabilzak*. Ikertzaile horiek, beraz, *z-* hasieraren eremu geografiko ezberdinak aipatu zituzten. Yrizarrek (1977, 346. or.) lehen sekuentzia proposamena egin zuen: *d-* + *-i-*: *di-* > *dd-* > *dx-* > *x-* > *j-* > *z-* eta, aurreko batzuek bezala, eremu geografiko bakoitzean dauden hasieren berri emateaz gain, bizkaiaera hirutan bana daitekeela zehaztu zuen: mendebaldean *y-* hasiera, erdialdean *dx-* eta ekialdean *j-* (salbuespena Oñati da *x-* hasierarekin; Yrizar, 1977, 348. or.). Rebuschik (1984, 621. or.) ordura arte inork esan gabeko ekarpena egiten zuen, *d-* > *z-* aldaketa errorik aldatzen ez den adizki alokutiboetan soilik gertatzen dela ohartu zen. Mitxelena (1954, 30. or.) ere eskaini zion aipamenik: dialekto guztietan orokorra den *-i-* eranstean, bere aurreko kontsonantearen palatalizazio edo asibilazioa eragiten duela zioen, esaterako Gipuzkoan *zeramak*. Jatorrira jo zuen aurrerago, Mendebaldeko *j-* hasierak zein *zetik* 'ditu' bezalako formetako *z-* hasierak jatorri bera leukakete: **di-* > **dj-* (Mitxelena, 1961/1990, 173.-174. or.). Orain artekoengandik pixka bat urrunduz, azalpen korapilatsuagoa eman zuen Domenek (2008, 345. or.): kate fonetikoan *j-* zein *z-* hasiera aurreratuenak direla esan zuen, biak *x-* hasieraren ondorengo pauso izanik, eremu batzuetan bat garatu da, beste batzuetan bestea. Zehaztaperen interesgarri bat egin zuen, ordea, erroak *-i-* duenean, **edin* edo *-i(n)-* kasuetan be-

zala, alokutibo marka eta erroko *-i-* bereizi beharra zeudekeen; beraz, erroak *-i-* duenean *z-* hasierak *d-* ordezkatu egiten duela esan zuen, kasu horietan *z-* izanik alokutibo marka.

Orain arte horretaz kezkatu diren ikertzaileak, hortaz, dialektoetan aurkitzen diren forma ezberdinei azalbideak (gehienean fonologikoak) ematera mugatu dira, baina inork ez du oraindik historiara jo, datuek zer dioskuten egiaztatzen. Oraindik jorratu gabeko alderdi horixe izan da, bada, ikerketa honen helburua: aipatutako aldaera horiek testuek eskaintzen diguten informaziotik abiatuta ulertzea. Hau da, garaiz garai eta eremu eremu hitz hasiera horiek noiz eta non agertzen diren jasotzea, baita zein testuingurutan agertzen diren ere. Izan ere, Mitxelenaren esanei jarraikiz, historiako datuak ezagutu eta hortik abiatuta egin daitezke historiaurreari buruzko hipotesirik sendoenak; berreraiketan hasterako lekukotasunak ondo ezagutu eta aztertu behar dira. Hortaz, *d-* + *-i-* elkarketak utzi dituen emaitzei (hitz hasierako kontsonantei) erreparatuko zaie testuetan agertzen dena jaso. Emaitza horiek zerikusi zuzena dute *-i-* morfemaren eransketarekin. Hori dela eta, aurrerago horren azterketa egitea ezinbestekoa izango da aldaera horiek hobeto ulertzeko.

2 Corpora

Bilakaera horren ibilbide historikoa ezagutu ahal izateko, Euskara Arkai-ko (EA), Euskara Zahar (EZ) eta Lehen Euskara Modernoko (LEM) hika duten testuetako forma alokutiboen bilketa egin da. Lantegia ez da erraza, testu guztietan ez baita hitanoa erabiltzen. Dena den, denborarekin euskararen eremu osoko testuak biltzen dituen corpus bat sortu dugu, eta hemendik atera dira lan honetan erabiliko diren datu guztiak. Esan gabe doa: testu guztiak ez dira maila berean izan esanguratsu ezaugarri hori ikertzean.

Erabili diren testu eta autoreak jarraian zerrendatuko dira garaika:

- Euskara Arkaikoan: Etxepare (Etx 1545; Altuna, 1980), Lazarraga (Laz ca 1564-1605; Bilbao *et al.*, 2010), Leizarragaren *Testamentu Berrria* (Leiz 1571), *Refranes y Sentencias* (RS 1596; Lakarra, 1996) eta Oihenarten *Atsotitzak* (Oih Ats 1657; Altuna & Mujika, 2003).
- Euskara Zaharrean: *Elduaingo bertso iraingarriak* (EBI 1619; Mitxelena & Sarasola, 1989), Etxeberri Ziburukoaren *Manual debotionezcoa* (EZ ca 1627; Altuna, 1981), Oihenarten *Neurtitzak* (Oih Neur 1657;

Altuna & Mujika, 2003) eta Barrutia (Bar ca 1720-1750; Lakarra, 1981).

- Lehen Euskara Modernoan: Larramendi (Lar *HH* 1745, *Cor* 1754; Altuna & Lakarra, 1990), Jusef Egiategi (Egiat 1785; Peillen, 1983), Joakin Lizarragaren bertso bilduma (Liz 1793-1821; Apecechea, 1983), Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca* (Mog 1802), Martin Duhalde (Duh 1809), Dominika Desquerre (Desq 1828; Gartzia & Urkizu, 1991), Jean Pierre Duvousin (Duv *Tel* 1833; Krutzeta, 1997), Agosti Xaho (Xaho 1834; Urkizu, 1992), Jean Baptiste Kamusarriren bertso bilduma (Kamus 1834-1842; Artola, 1988), Jakes Oihenart (Oihen 1848; Aresti, 1971), Jean Baptiste Archu (Arch *LaFont* 1848, *Dav* 1862; Pagola, 2004), Leonce Goihetxe (Goihetx 1852), Frantzisko Laphitz (Laph 1862; Gartzia & Urkizu, 1991), Gratien Adéma (Adem *Bild* 1873, *Ait Saind* 1877, *Axer* 1884; Bengoetxea, 1991), Toribio Alzaga (Altz 1888), Jean Baptiste Elizanburu (Eliz 1888) eta Michel Elissanburu (Eliss 1889, Treku & Nazabal, 1993). Azken garai horretan autoreari dagokion lurraldea kontuan hartuta antolatuta dira datuak.

Kontuan hartu beharreko faktorea izango da corpusaren nolakotasuna azterketa egiterakoan. Euskara Arkaikoan testuak urriagoak dira ondorengo garaiekin alderatuz gero. EAko datuak osatzeko garrantzitsua da Fernando Maiorak Nafarroan bildutako testuak ere kontuan hartzea, baina Santaziliak (2015, 110. or.) dioenez, lan handia egin zuen arren, transkripzioetan akats ugari daude. Horregatik, datu horiek ikerketarako erabiliko badira, behar bezalako edizioa eta analisi filologikoa falta dutela deritzo. Maiorak testuen erreferentzia soilik ematen duenez, ez dago zehaztuta euskarazko pasarteak zein orrialdetan agertzen diren eta horrek asko zailtzen du datuak jatorrizko testuekin kontrastatzea. Hori dela eta, lan honetan ez dira datu horiek baliatuko. Hala ere, aurrerago, denbora hartuta, aditz forma interesgarriak sumatzen direnean egiaztatu egin beharko dira garai horretako datuak osatutakoak izan daitezkeen.

Aurrerago testu gehiago ditugu, ikertutako azken garaia denez, eremu gehien eta datu kantitate handiagoa barne hartzeko aukera ematen duena. Horrenbestez, nahiz datu arkaikoak betiere garrantzizkoagoak izan, ondorioak ugari eta sendoagoak izango dira azken garaietan. Era berean, aintzat hartu da testuek beti ez dutela herri jakinetako hizkeren isla leiala eskaintzen, baizik eta neurri handiago edo txikiago batean literatur hizkuntzaren

eraginpean idatziak izaten direla; horregatik, zalantzazkotzat jo ditugun zenbait lanetako formak jaso gabe utzi dira oraingoz.

3 Azterketa

3.1 Euskara Arkaikoan

Hika agertzen den lehen testuetan jada aurkitzen dugu hitz hasierako *d-/z-* aldakortasuna. Forma dataturik zaharrenak *diagok* (Etx I-47) eta *baziakiat* (Etx VIII-13) dira. Garai honetan bost testu jaso dira: Leizarragaren *Testamentu Berria*, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, Oihenarten *Atsotitzak*, *Refranes y sentencias* eta Lazarragaren eskuizkribua. Datu gehienak Leizarragari zor zaizkio, besteekin alderatuta hitanoaren erabilera ugariagatik ez ezik, bere lanak daukan tamainagatik ere. Testuinguruaren arabera banatuta emango dira eremu bakoitzean jasotako formak; hau da, batetik, aditz trinkoak eta, beste alde batetik, aditzak hartzen dituen argumentuen arabera banatutako sailetan: NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK (NOR 3. pl). Horrez gain, **edin*, **ezan*, **iron* erroetan gertatzen dena ere aparte jaso da.

3.1.1 Aditz trinkoetan

Mendebaldean datu bakarra dago sail honetan: *jaucaat* (Laz A25:45). Forma horretan ez dago ez *d-* ez *z-* hasierarik, *j-* baizik, orain arte esandakoen arabera, **di*-ren bilakaera fonetikoa izan daitekeena, alegia.

Etxeparek bi adibide dauzka erro ezberdinetan, bata *d-* hasierarekin, bestea *z-*rekin: *diagok* (Etx I-47), *baziakiat* (Etx VIII-13). Oihenarten lanean lau forma jaso dira, bi *z-*rekin (erro berean) eta bi *d-*rekin: *ziotsak* (Oih *Ats* 113), *zionat* (Oih *Ats* 240), *diakarken* (Oih *Ats* 160) eta *diezaguk* (Oih *Ats* 182), azken hori *ezagutu* errokoa. Leizarragarenean, berriz, zerrenda luzea ageri da; kopuruz *z-* hasiera ugariagoa da, baina ez erabiltzen den erro kopuruan, non aberatsagoa baita *d-* hasiera. 2. taulan ikusten da erro bakoitza zein hasierarekin agertzen den beti, lan horietan behinik behin erro bera ez baita bi hasierekin agertzen.

2. taula. EA. Aditz trinkoak

	Lazarraga	RS	Etxepare	Leizarraga	Oihenart
<i>Jakin</i>	-	-	Z-	Z-	-
<i>-io- 'esan'</i>	-	-	-	Z-	Z-
<i>Ekarri</i>	-	-	-	-	D-
<i>Ezagutu</i>	-	-	-	-	D-
<i>Eduki</i>	J-	-	-	-	-
<i>Egon</i>	-	-	D-	D-	-
<i>Ikusi</i>	-	-	-	D-	-
<i>Joan</i>	-	-	-	D-	-
<i>Ibili</i>	-	-	-	D-	-
<i>Etzan</i>	-	-	-	D-	-
<i>Jario</i>	-	-	-	D-	-
<i>Iraun</i>	-	-	-	D-	-
<i>Eritzi</i>	-	-	-	D-	-

Taulan ikus daitekeen bezala, *z-* hasiera Leizarragak, Etxeparek eta Oihenartek bakarrik dute eta ez erro guztietan, *jakin* eta *-io-* erroetan soilik. Etxepareren lanean *-io-* erroa falta zaigu, eta Oihenartenean *jakin*, baina litekeena da falta zaizkien erro horietan ere *z-* erabiltzea, Leizarragak bezala. *D-* zaharragoa dela onarturik (3.1.3 eta 3.2.3. ataletan argudiatuko dugu), horrek *z-* erro horietan lehenago sartu zela erakutsi ez ezik, hizkuntza eremu bat ere marrazten du: ipar-ekialdekoa. Tamalez, ez dugu mendebaldearen eta ekialde horren arteko eremurako daturik.

3.1.2 Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

Aurreko atalean bezalatsu, hemen ere datuak urriak dira, Leizarragarenak izan ezik (3. taula). Etxeparerenean ez da ezer aurkitu, ezta RSn ere. Lazarragak forma bakarra dauka, hura *j-* hasierarekin: *jaustac* (Laz A25: 42). Leizarragaren datu ugariak guztiek *d-* hasiera dute: esaterako, *diraukuk* (Leiz Mk 12, 19) 'digu', *dirautak* (Leiz Eg 23, 18) 'dit', *diarokat* (Leiz Mt 20, 14) 'diot'.

3. taula. EA. Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

	Lazarraga	RS	Etxepare	Leizarraga	Oihenart
* <i>edutsi</i>	J-	-	-	-	-
* <i>eradun</i>	-	-	-	D-	-

Sail honetan ikusten da Mendebaldeko **edutsi* erroak *j-* hasiera hartu duela; Leizarragarenean, berriz, **eradun* erroak *d-* hasiera hartzen du salbuespenik gabe. Testuinguru horretan *-i(n)-* erroa falta zaigu: ez dakigu erro horrek zein forma alokutibo zituen Euskara Arkaikoan.

3.1.3 Aditz laguntzaileak: NOR-NORK (NOR 3. pl)

NOR 3. pertsona singularra duten formak berdinak dira lehen garai hone-tatik azken garaira arte (baita egungo euskaran ere), Mendebaldean izan ezik, non *j-* edo *x-* hasiera duten. Gainerako eremuan *dik* (Leiz Mt 1, 21 eta Etx 2-73) eta *diat* (Leiz Mt 3, 14 eta Etx 8-19) formak aurkitzen dira. Aldake-tarik ez denez, ondorengo garaietan ez dira berriz aipatuko forma horiek: guztiek hala darabiltzatela ulertuko da.

Pluraleko formei dagokienez, ematen diren datu guztiak Leizarragarenak dira. Bi formak bizi dira elkarrekin, baina txandakatze interesgarri bat dela medio: adizki guztiek *z-* hasiera dute, *zitik* (Leiz Jn 17, 14) ‘ditu’ edo *zitiagu* (Leiz Eg 21, 23) ‘ditugu’ formek bezala, baina, adizkiari aurretik *ez* partikula eransten zaionean ez du *z-*rik hartzen: *eztitik* (Leiz 3J 10) ‘ditu’, *eztitiagu* (Leiz Ap 3, 2) ‘ditugu’. Hau da, *ez* partikula dagoenetan ez da *d- > z-* aldake-ta gertatzen; Leizarragak ez du **etzik* ‘ez ditik’ formarik. Kuryłowiczen laugarren analogiaren legeen arabera, transformazio morfologiko baten on-doren forma bat desberdintzen denean, berrikuntza garatu duena primario edo nagusia izaten da eta forma zaharra bigarren mailako funtzioan gorde-tzen da (Mańczak, 1980, 283. or.). Hori gurera ekarriz, forma primario edo nagusia baiezkoa (- ezezkoa) da; bigarren mailakoa, berriz, ezeztapena due-na. Hortaz, baiezkoa da berritzailea, eta ezeztapena duena gordetzaile edo zaharra.

3.1.4 *edin, *ezan, *iron laguntzaileak

Sail honetan ere Leizarragaren datuak baino ez dugu biltzerik izan. Horri dagozkion formetan ere beste berezitasun bat topatu dugu. Izan ere, erroa *edin denean hitz hasierako morfema *d-* da: *daitezkek* (Leiz 1Tm 5, 25). Alabaina, erroa *ezan denean *z-* hasiera agertzen da: *daitezkek* (Leiz 1Tm 5, 25) vs *zezakek* (Leiz Ap 3, 8). Hortaz, Leizarragaren hizkeran *edin erroak forma zaharra gorde du, *ezanek berrikuntza egin badu ere.

3.1.5 EA: Ondorioak

Era guztietako adibideak eskaintzen dituen Leizarragaren arabera neurtu beharko bagenu, 1571 inguruan *d-*dunak lirateke adizki alokutibo gehientsuenak, hala laguntzaileak (*dik* erako NOR-NORKen singularrekoak, NOR-NORI-NORKEko **eradunenak* eta **edinenak*) nola trinkoak (*egon*, *ikusi*, *joan*, *ibili*, *etzan*, *jario*, *iraun* eta *eritzi*). Berriz, *z-*dunak dira jadanik *-i(n)-* erroko *zitik* erako NOR-NORKen 3. pertsona pluralekoak, bai eta *jakin* eta *-io-* laguntzaileenak ere. Esan daiteke egoera hori berresten dutela Etxeparek eta Oihenartek trinkoetan, nork bere aldetik.

Gainerakoan, hutsune handia da garai honetan mendebaldeko *j-* hasierako eremuaren eta ipar-ekialdeko eremuaren artean duguna. Horrek eragozten digu NOR-NORI-NORKEko *-i(n)-* laguntzailearekin zer gertatzen zen ikustea, besteak beste.

3.2 Euskara Zaharrean

Garai honetan lau autore edo eremu dauzkagu: Oihenart (*Neurtitzak*), Etxeberri Ziburukoa, Barrutia eta Elduaingo hizkera (EBI). Garai honetan ez dago Euskara Arkaikoan adinako desorekarik euskalkien datuetan, baina Leizarragaren datu iturri handiaren aldean informazio urria eskaintzen du.

3.2.1 Aditz trinkoetan

Barrutiak adibide bakarra du, hura *x-* hasierakoa: *xaukat* (Bar 275). Barrutiaren grafiak merezi duen azterketa egin gabe egon arren, *x-*grafemak /x/ nahiz /f/ hotsak irudika ditzakeela pentsatzeko arrazoiak ditugu: *xagi* (Bar 144) ‘jaiki’, *xarten naiz* (Bar 96) ‘jartzen’, *xauna* (Bar 49) ‘jaun’ eta *xaioko* (Bar 107) ‘jαιο’ hitzetan /x/ hotsa adierazten duen bezala, *auxe* (Bar 83) ‘hauxe’ hitzean /f/ hotsa adierazten baitu. Beraz, *xaukat* anbigua

da fonetikoki, baina litekeena da agian jada /x/ hotsa izatea, egun Oñatin entzun daitekeena, esaterako.

Elduainen forma bakarra jaso da, hura z- hasierarekin: *vaceaquic* (EBI 38). Etxeberri Ziburukoak ere adibide guztiak z-dunak dauzka, baina berak hainbat errotan. Oihenarten lanean, berriz, batzuek d- eta besteek z- hasiera hartzen dute erroaren arabera, hala nola *diadukan* (Ohi Neur 3, 5) vs *ziotsan* (Ohi Neur 3, 4). 4. taulan ikus ditzakegu bilduta.

4. taula. EZ. Aditz trinkoak

	Barrutia	Elduaingo hizkera	Etxeberri Ziburukoa	Oihenart
<i>ĵakin</i>	-	Z-	-	-
<i>-io- 'esan'</i>	-	-	-	Z-
<i>Eduki</i>	X-	-	Z-	D-
<i>Egon</i>	-	-	Z-	-
<i>Ibili</i>	-	-	Z-	-

Eako trinkoetako erroei hauek gehitzen dizkie Etxeberri z-ren erabilean: *eduki*, *egon* eta *ibili*. Oihenartek EAn marraztu dugun egoera errepikatzen du garai honetan kokatutako testuan. Datu eskasia nabarmena izan arren, badirudi z- hasiera hedatuta dagoela Lapurdiko kostaldean, eta Etxeberri *ĵakin* eta *-io-* erroekin ere z- erabiliko zukeela pentsa daiteke. Aintzat hartzekoa da erdialdeko eremuan jaso diren forma guztiek z- izatea eta d-, erro bakarrarekin jaso arren, ekialdean soilik aurkitzea.

3.2.2 Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

Sail honetan ez dago datu askorik eta, gainera, Barrutia eta Etxeberri Ziburukoarenak soilik jaso dira. Barrutiak adibide bakarra du, *j-* hasierarekin: *jeusak* (Bar 242). Lehenago esan bezala, grafiaren azterketa sendo baten faltan, ez dago argi *j-* grafemak zein hots adierazten duen, baina baliteke Barrutiarenean adizki batzuk /j/-dunak, hori bezala, eta beste batzuk —trinkoetan ikusi dugunez— /x/-dunak izatea. Etxeberri Ziburukoaren lanean guztira bost forma jaso dira, guztiak z- hasierakoak, hala nola *etzioat* (EZ 1627, 226), *ziotzaat* (EZ 1627, 629).

5. taula. EZ. Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

	Elduaingo hizkera	Barrutia	Etxeberri Ziburukoa	Oihenart
<i>*edutsi</i>	-	J-	-	-
<i>-i(n)-</i>	-	-	Z-	-

5. taulan laburtuta ikusten denez, Barrutiaren *j-* hasiera **edutsi* erroari dagokio, eta hau bat dator EAko Lazarragarekin. Etxeberri Ziburukoak, berriz, *z-* dauka *-i(n)-* erroarekin; **eradun* errorik ez dauka, ordea. Hain datu gutxiarekin konparazioa egitea zilegi balitz, esan genezake EAn Leizarragak **eradunekin* beti *d-* daukanez, litekeena dela *-i(n)-* erroak *z-* errazago (lehenago?) hartzea.

EZn Barrutiaren lanetik ateratako grafemei dagokienez, pentsa liteke adizki guztietan ez zegokeela hots bera, baizik eta trinkoetan /x/ eta laguntzaileetan /j/, baina ezin ziurta daiteke behar bezalako azterketa filologikoa egin arte. Baldin eta hots ezberdina adieraziko balute, uste dugunez, horrek erakutsiko luke aldaketa fonetikoaren katean sail edo erro guztiak ez ziratekeela bat-batera joan: bilakabide fonetikoaren bi urrats lirateke, bada.

3.2.3 Aditz laguntzaileak: NOR-NORK (NOR 3. pl)

Elduaingo hizkeran adibide bakarra jaso da, *z-* hasiera duena: *cetic* (TBI 29). Oihenartek bi adibide ditu, biak *z-*rekin: *zitin* (Oih Neur. 9, 1) eta *zitique-guk* (Oih Neur. 26, 11). Etxeberri Ziburukoak, berriz, *tik* formakoak dauzka. Adibide bakarra dauka *d-*rekin: *ditik* (EZ 1627, 13), baina hori ez da gainerakoen parekidea, eduki aditzaren esanahia baitauka. Hortaz, sail honetako adizkiak *d-*rik gabe ematen ditu, baina adizkiak *edukiren* esanahia duenean *d-*ri eusten dio, beste inon eusten ez diolarik. Beraz, lehenik *ditik* > *tik* bihurtu zen laguntzaile zenean, eta geroago baino ez zen etorri *d-* > *z-* egiteko joera. Izan ere, behin *tik* izanda, ez dago *d-* > *z-* aldaketa gertatzeko tes-tuinguru egokirik, *d-* jada galduta baitago.

Interesgarria da sail honetan ikusten dena aurreko garaikoarekin osaturik. EAn Leizarragak bakarrik du *z-* (garrantzitsua da garai horretako beste eremuetako datu falta ia erabatekoa). EZn, ordea, Elduaingo bertsoetan nahiz Oihenarten lanean *z-* agertzen da. Berrikuntza hori (sail honetan) erdialdetik hasi eta alde batetik Gipuzkoaraino eta bestetik Zuberoaraino hel-tzen da; ez, ordea, Lapurdiko kostaldera. Daturik izan ez arren, Gn eta Zn *z-*

hasiera egoteak, baina Ln falta izateak pentsarazten du berrikuntzaren gunea Nafarroan zegokeela, Gren eta Zren arteko lotura eginez. Alabaina, ez da ahaztu behar beste erro batzuetan (**(n)in, eduki, egon* eta *ibili* erroetan) jadanik heldua zela berrikuntza Etxeberriren hizkerara.

3.2.4 **edin, *ezan, *iron* laguntzaileak

Etxeberri Ziburukoaren datuak besterik ez dira jaso, eta guztiak *z-* hasierakoak: **edin* erroarekin *ziaitek* (EZ 1627, 525), **ezan* erroarekin *ziezekek* (EZ 1627, 1067) eta **iron* erroarekin *zirok* (EZ 1627, 771). Aurreko garaian, Leizarragaren hizkeran (ekialderago kokatuta), banaketa ikusten zen **edin* eta **ezan* erroen artean; garai honetan, ordea, erro guztiekin *z-* agertzen da salbuespenik gabe jadanik beste sailetan berritzailetzat jo dugun Etxeberriren hizkeran.

3.2.5 EZ: ondorioak

Berriro ere datu eskasia handiarekin borrokan, Euskara Arkaikoan baino ondorio geografiko gardenagoak atera ahal izan ditugu, nola edo hala erdialdeko hutsunea estalita (baina oraindik ere NGko datuen faltan). Hala bada, egiaztatu dugu *z-* hala Elduainen nola Lapurdiko kostaldean ere bada-goela eta Euskara Arkaikoan ipar-ekialdean lekukotu ditugunak baino Euskara Zaharrean erdialdeko hizkera horietan erro gehiago erantsi zaizkiola *z-* hasierari, artean **edin, *iron* eta NOR-NORI-NORkeko *-i(n)-* laguntzaileak (azken bien datuak falta dira EAn). Geografiak iradokitzen du berrikuntzaren gunea Nafarroa Garaia izan zitekeela. Ekialdeko testuetan *z-* hasiera badela ikusi dugu, nahiz eta *d-* erro gehiagotan agertu. Kontua da *z-* agertzen denean, erro jakinekin soilik agertzen dela: *jakin* eta *-io-* erroekin. Hori horrela, erro batzuek *z-* hasiera hartzeko joera handiagoa dutela antzematen da. Hortaz, *d- > z-* errorik erro hedatuz zebilela pentsa genezake.

Jakingarri gisa, Oihenarten *Atsotitzak* Euskara Arkaikoan eta *Neurtitzak*, berriz, Euskara Zaharrean sartu direla kontuan hartuta, bi testuen arteko alderaketa egin ondoren ez da batetik bestera hizkuntza aldaketa nabarmenik sumatu, aztergai den auziari dagokionez behinik behin. Bi lanetan forma ezberdinak agertzen dira guztizko konparaketa egin ahal izateko; alabaina, kontraesanik ere ez da aurkitu.

3.3 Lehen Euskara Modernoan

Lan honetan aztergai diren garaien artean hau da hizkera gehien eskaintzen dituen. Halaber, denbora tarte honetako testuetatik informazio osatuen atera ahal izan da, hizkuntzaren gainerako ataletan bezalaxe.

Garai honetan ez dira lan edo autoreka emango jasotako datuak, lurraldeka baizik. Izan ere, aro honetan testu ugarian erabiltzen da hika. Lapurdiko (L) idazleen lanak 10 dira, baxenabartarrenak (BN) 3, zuberotarrenak (Z) 4, gipuzkoarrenak (G) 7, bizkaitarrenak (B) 2 eta nafarrenak (NG) bat. Oro har, salbuespenak salbuespen, aztergai ditugun gaietan bat datoz eremu baikoitzeko idazleak.

3.3.1 Aditz trinkoetan

Sail honetan sei lurraldetako datuak bildu dira, Araba ez beste guztietakoak: B, G, L, BN, Z eta NG. Bn hitz hasieran *j-* nahiz *i-* grafemak agertzen dira beti; grafema horien esangura garai honetan aski finkatutakotzat jo dezakegunez gero, baliokidetzat eman ditzakegu, /j/ hotsa edo gertukoren bat adierazteko erabilitakotzat. Hortaz, aurreko garaietatik ez da aldaketarik izan eremu honetan.

Gn jaso diren aditz trinko guztiek *z-* hasiera dute. Aditz erro hauekin agertzen da: *jakin*, *joan*, *egon*, *etorri*, *eduki*, *ibili* eta *irudi*. Esaterako, *céagoc* (Lar HH 22), *ceac* (Lar HH 22), *zebillek* (Altz 1888, 151), *zirurik* (Altz 1888, 152). Orain artean EZn *z-* geneukan Gko adibideak *jakin* eta *-i(n)-* erroekin ziren, jasotako erro guztietan, alegia. Horrez gain, orain arte gainerako lurraldeetan ere agertu gabeko bi erro agertzen dira Gn, *irudi* eta *etorri*, besteak bezala, hauek ere *z-*rekin.

Ln ere berbera da egoera: adizki guztiek *z-* daukate; adibidez, *ziagok* (Duv Tel 146), *cemotet* (Goihetx 1852, 103), *zatzac* (Duhai 1809, 185), *bazaramak* (Kamus 409-14), *zabiltzak* (Eliz 1888, 42), *zagok* (Eliss 1889, 91). Hemen orain arte gainerako lurraldeetan ere agertu gabeko bi erro daude: *eman* eta *eraman*.

BNn hiru forma bildu dira: *dagok* (Laph 1862, 644-8), *badouatzak* (Oihen 1848, 105-413) eta *bazakit* (Oihen 1848, 94-356). NGn forma bakarra, *z-* hasierarekin: *bazequigu* (Liz Konpl 128-628).

Zko datuen arabera, *z-* *jakin* eta *-io-* erroekin agertzen da; *d-* hasiera, berriaz, *egon*, *ibili* eta *jakinekin*. Azken erro hori bi hasierekin agertzea berezia

da; atal honetan bertan helduko zaio gaiari berriz. 6. taulan ikus daitezke laburbilduta erro eta hasierak.

Lurralde guztiak kontuan harturik, EZko trinkoen erroei hauek gehitzen zaizkie z-ren erabileran: *joan, etorri, eman, irudi, etzan* eta *eraman*. Garbi ikusten da *d-* hasierak ipar-ekialdeko eremua hartzen duela: *-io-* eta *jakin* erroetan izan ezik, eta azken horretan ere aldizka, *d-* dago gainerakoetan.

Orain arte *jakin* aditzaren forma trinkoetan beti *z-* hasiera agertu da hizkera eta garai guztietan (Mendebaldean izan ezik, jakina), baita *z-* ia ez zegoen garai eta eremuetan ere. LEMn *d-* aurkitu dugu lehenengoz eta zenbait autorek erabilia, gainera: *badakiagu* (Xaho 1834, 9), *badakiat* (Arch LaFont. 1), *badakiñat* (Arch LaFont. 89). Alabaina, *z-* duen adibiderik ere bada idazle zuberotarren artean: *bazakik* (Egiat 1785, 201).

6. taula. LEM. Aditz trinkoak

	B	G	L	BN	NG	Z
<i>Jakin</i>	J-	Z-	Z-	Z-	Z-	Z-/D-
<i>-io- 'esan'</i>	-	Z-	Z-	-	-	Z-
<i>Eduki</i>	J-	Z-	Z-	-	-	-
<i>Egon</i>	J-	Z-	Z-	D-	-	D-
<i>Joan</i>	-	Z-	Z-	D-	-	-
<i>Etorri</i>	J-/I-	Z-	-	-	-	-
<i>Ibili</i>	J-/I-	Z-	Z-	-	-	D-
<i>Eroan</i>	J-	-	-	-	-	-
<i>Eman</i>	-	-	Z-	-	-	-
<i>Irudi</i>	-	Z-	-	-	-	-
<i>Etzan</i>	-	-	Z-	-	-	-
<i>Eraman</i>	-	-	Z-	-	-	-

Jakinekiko aferak zuberotarrak bitan banatzen ditu: Egiategik *z-* dauka; hurrengo mendeko biek, aldiz, *d-*. Litekeena da horren azalpena kronologiarri lotutakoa izatea, Egiategik 50-70 urte lehenago idatzi baitzuen bere lana. Badirudi ekialdeko eremuaren joera izan dela *z-* berrikuntza indargabetzea

eta, beranduago apika, are *jakin* bezalako z-dun aditz zaharretan ere araua bertan behera uztea, neutroetako eta gainerako adizkietako *d*-ra analogiaren eraginez itzulirik.

3.3.2 Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

Sail honetan, A eta NGkoak izan ezik, gainerako eremuetako datuak jaso dira (7. taula). Bn laguntzaile guztiek *j*- hasiera dute, eta bakarrak du *i*- grafema: *ieutseek* (Mog Peru 55), baina jadanik adierazi dugu gorabehera horrek ez duela aldatzen lehen testuetatik jaso duguna.

Gn, salbuespenik gabe, hasiera guztiak z-dunak dira. Ln *-i(n)-* eta **eradun* erroak aurkitzen dira: biek hartzen dute *z*- ia beti; salbuespen bakarra dago *d*-rekin, **eradun* erroan: *dautak* (Adem Bild 109). BNn adibide bakarra jaso da, **eradunena z*- hasierarekin: *etziruat* (Oihen 1848, 106-420) ‘ez diot’.

Atzera, Z da *d*- hasiera nagusi duen eremu bakarra: testuinguru horretan adibide guztiek *d*- hasiera dute, baina oraingoan autore bakarraren datuak soilik dauzkagu, Archurenak: *dioat* (Arch Dav 72-2) eta *diok* (Arch Dav 118-18), besteak beste. Hala ere, zehaztu behar da Archuk testuinguru horretarako darabilen erroa *-i(n)-* dela, jada *z*- hasierarekin agertzen dena EAn NOR-NORK 3. pl. denean eta EZn NOR-NORI-NORKen, inoiz *d*- hartu gabe. Aurreko testuinguruarekin alderaturik, trinkoetan bagenituen NGko datuak; hemen ez.

7. taula. LEM. Aditz laguntzaileak: NOR-NORI-NORK

	B	G	L	BN	NG	Z
<i>*edutsi</i>	J-/I-	-	-	-	-	-
<i>-i(n)-</i>	-	Z-	Z-	-	-	D-
<i>*eradun</i>	-	-	Z-/D-	-	-	-

Orain artean banaketa garbia zen, EAn ikusi dugu **eradun* erroak *d*- hartzen duela salbuespenik gabe eta EZn, berriz, *-i(n)-* erroak *z*-, nahiz eta lehen garaian *-i(n)-* erroaren daturik ez izan (testuinguru horretan) eta bigarrenean **eradunenak* falta. Beraz, XIX. mendeko idazleengan egiaztatu dugu berrikuntza indar nahikoz **eradun* errora ere hedatzen ari zela Lapurdin ikus daitekeen bezala, baina aldi bertsuan *-i(n)-* erroak *d*- hartzen zuela

lehenengoz testuinguru horretan Zuberoan, ekialdeko *z-* hasieraren atzera-kadarekin bat etorriz.

3.3.3 Aditz laguntzaileak: NOR-NORK (NOR 3. pl.)

Bn ez da aldaketarik ikusten aurreko garaitik. Gainerakoan, L, Z, GN nahiz BNn *d-* hasierak aurkitzen dira (edo hasierako *di-* galdutakoak): *ditiat* (Kamus 416-6), *tiagu* (Oihen 1848, 108-428) edo *tik* (Arch Dav 118-7) gisako formak, alegia, baldin eta onartzen badugu Archu Zren lekuko leiala dela (ik. Cid, 2010). Horietan ez da *z-* hasierarik agertzen. G da *z-* hasieraren arrastoren bat duen hizkera bakarra: *d-* hasierak nagusitasun nabarmena izan arren, adibide bakarra jaso da *z-* hasierarekin: *etzeatiet* (Lar Cor 26).

3.3.4 **edin*, **ezan*, **iron* laguntzaileak

Sail honetan Lko datuak bakarrik jaso dira, guztira bederatziz forma. Erroei erreparatuta, **edin* eta **ironen* bina adibide daude, denak *z-* hasierarekin: *zintakek* (Dask *Athek* 61), *etzaittekek* (Desq 372-22), *zirok* (Adem *Ait Saind* 94) eta *ziroat* (Adem *Axer* 114). Ordea, **ezan* erroarekin bost adibide jaso dira, hiru *z-*rekin eta bi *d-*rekin: *baitcezakec* (Duhall 1809, 151), *zezakeyagu* (Eliz 1888, 78), *zinezakeat* (Eliss 1889, 47), *dezakeie* (Eliss 1889, 80) eta *dezakeat* (Eliss 1889, 107). Hortaz, **edin* eta **iron* erroek *z-* hasiera bakarrik daukate; **ezan* da bi hasierarekin agertzen den bakarra, baina azken horri buruz egin daiteke zehaztapenik: kostatik hurbil kokatzen diren lapurtarrek *z-* darabilte; Elissanburu da bi *d-* eta *z-* adibide bakarra dituen. Baliteke Elissanburuk dituen *d-* hasiera horiek ekialdeko hizkerek duen loturari zor izatea. Hiriburun (Lapurdikoa kostaldetik hurbil) haurtzaroa igaro arren, Heletan (Nafarroa Beherean) jaio baitzen eta ibilbide horri dagokioke aipatutako joera.

EZn ikusi dugu Etxeberri Ziburukoak aipatu hiru erroekin *z-* erabiltzen zuela salbuespenik gabe. LEMn ere, lapurtarrek (kostaldekoek eta inguru horretatik gertukoek behintzat) gauza bera dute. Elissanburu da salbuespena, baina hau ekialdeko hizkerekiko zeukakeen gertutasunarekin lotu dugu. Hortaz, ekialdean erro hauetan **ezanen* *d-* hasiera egotea esperoko litzateke, baina daturik gabe ezin ezer ziurrik esan. EAn Leizarragak zuen **edin* eta **ezan* erroen oposaketa ezin izan da ondorengo garaian ikusi.

3.3.5 LEM: ondorioak

LEMk, euskararen eremu osoa kontuan hartuta, hiru eremu geografiko erakusten ditu: batetik Mendebaldea, hasieratik gainerakoengandik aparte dabilena *j-* eta *i-* hasierekin. Bestalde, Ekialdea Z, BN eta Lko ekialdea hartzen dituena *d-* hasierarekin (*jakin* eta *-io-* erroak utzita, hauek hasieratik agertzen baitira *z-*rekin). Hirugarrena Erdialdea, *z-* nagusitasun osoz agertzen den eremua.

Oro har, *z-*ren aldeko bilakaera ikus badaiteke ere, erro batzuetan prozesua alderantzikatu bide zen, *z- > d-* sortuz *-i(n)-* –NOR-NORK (NOR 3. pl) denean soilik– erroan, ziurrenik indikatiboarekiko analogiatatik. Dena dela, joera berri hori egiaztatu beharko da XX. mendeko ahozko datuekin, besteak beste.

4 Ondorioak

Ondorioetan sartzera ez dugu aipatu gabe utzi nahi aztergai diren hiru garaiek eskaintzen duten datu kantitatea: bistakoa da garaiak aurrera egin ahala datuak ugariagoak direla, lekukotutako eremuak zabalagoak eta egile zein testuak ñabarragoak. Horrek ezinbestean hutsuneak sortzen ditu ikerketa nahi bezala aurrera eramatean, zaharrago eta interesgarriago bailitzateke guretzat.

Mitxelena (1961/1990) uste bezala, denak **di > *dj* aldaketan balu hasiera, egiaztatu dugu mendebaldeko eremuak *j-* berrikuntza aspaldi egin zuela, lehen testuak baino lehenago. Beraz, alderdi horri dagokionez aurreratu dezakegu XVI. mendea baino lehenago kokatu behar dugun *j-* berrikuntzaren arabera Euskal Herria bitan banatuta ageri dela mende hartatik: berrikuntza egin duen mendebaldeko eremua (A eta B) eta egin ez duen ekialde zabaleko eremua (gainerako lurraldeak). Eskura ditugun datuen arabera, ez da MEZko berrikuntza zaharrenetakoa (ik. Zuloaga, 2020), beranduagokoa baizik, lekukotasun ekialdekoena Barrutia baita. Horren kokapena argitu gabe badago ere (Aramaio ala Arrasate?), galderak funtsean ez luke garrantzi handiegirik, azken ikerketek Debagoiena bera ere araberaren ipar-ekialdean kokatu baitute (ik. Eraña, 2020; Urgell, 2020).

Muina etorririk, *d- > z-* aldaketara, alegia, atalez atal bildu diren datuei erreparatuz gero, lehen begiradan nahiko argi ikus daiteke, espero bezala, badela testuetan bilakabide baten zantzurik. Garaiz garai *d-* hasiera gero eta urriago agertzen da, gero eta aditz erro gutxiagotan, *z-*ren mesedetan. Beraz,

z- hedatuz doan berrikuntzat hartuko dugu *d-*ren kaltetan, nahiz eta alderantzizko prozesu baten zantzuak ere antzeman ditugun azken aldera. Badira, bestalde, *d-* hasiera zaharrago dela erakusten duten gertakariak, hala nola Leizarragaren *zitik/eztitik* bikoteak edo Oihenarten *zitin* erako formak vs Etxeberri Ziburukoaren *tik* erakoak: bai *eztitikek*, baita *tikek* ere erakusten digute hasieran *di-* zegoela gero *z-*dun bihurtu ziren formetan.

Lan hau antolatzerakoan bildutako datuak testuinguru edo sailka banatu ziren (trinkoak, NOR-NORI-NORK laguntzaileak, NOR-NORK laguntzaileak eta **edin*, **ezan*, **iron* laguntzaileak) datuek ematen duten informazioa azalertzeko modu egokia izango zelakoan. Halere, sailkapenak ez dira datuak antolatzeko moduak bakarrik: datuen gaineko hipotesiak ere badira. Lanaren azkenera ohartu gara *testuinguru* izena eman diegun sail horiek ez dutela gure datuak azaltzeko ahalmenik; aitzitik, agerian geratu da berrikuntza, antza denez, errorik erro zabaldu dela, betiere eremu geografikoen arteko aldeak kontuan hartuta.

Hitz hasierako *z-* erro hauekin agertzen da lehendabizikoz Euskara Arkaikoan: *jakin*, *-io-*, *-i(n)-* eta **ezan*. Euskara Zaharrea *z-*rekin agertzen dira aurreko garaian *d-* duten *egon*, *ibili* eta **edin* erroak, eta EZn lehendabizikoz jasotzen dira, *z-*rekin, *eduki* eta **iron* erroak. Gainera, *z-* hasierak aurreko garaian baino eremu zabalagoa hartzen du: Zuberoa eta Lapurdi, batetik, eta Elduain, beste alde batetik. Horrek iradokitzen du XVIII. mendera arteko daturik ez dugun arren, Nafarroan ere bazela berrikuntza eta, areago, balitekeela berrikuntzaren gunea bertan egotea, berrikuntzak hartutako norabi-deak kontuan izanda.

Lehen Euskara Modernoan *z-* hasierara batzen dira aurreko garaietan *d-*rekin agertzen diren *joan*, *etzan* eta **eradun* erroak. Lehendabizikoz garai honetan jaso dira ondorengo erroak, hauek ere *z-* hasierarekin: *etorri*, *eman*, *irudi* eta *eraman*. Geografiari dagokionez, azken garai horretan Nafarroa Garaian estreinakoz agertzen zaigu, baita Gipuzkoa ia osoan eta Lapurdiko kostaldean ere.

Gorago aitortu da datuak testuinguru edo gaika antolatu badira ere, erroka sailkatzea eraginkorragoa dela azterketarako. Alabaina, *-i(n)-* erroarekin salbuespen txiki bat egin beharrean gaude, ez baitu berdin jokatzen NOR-NORK (NOR 3. pl) eta NOR-NORI-NORK testuinguruetan agertzen denean. NOR-NORK (NOR 3. pl) sailean; beraz, Mendebaldean ez beste hizkera guztietan *-i(n)-* erroa erabiltzen da *-alokutiboetako laguntzaileetan erro aldaketak dau dela gogoraturik-*: testuinguru horretan ez dago beste errorik. Erroa NOR-

NORI-NORK sailean erabiltzen denean, Zuberoan soilik ikusi ahal izan da *d-* rekin eta azken garaian; NOR (NOR 3. pl) sailean, ordea, ohikoagoa dela ikusi dugu. EAn Leizarragak sistematikoki *z-* erabiltzen du; EZn Elduainen eta Zuberoan aurkitu da; ez, ordea, Lapurdiko kostaldean; LEMn Gipuzkoa ez gainerako eremu guztietan ez da horren arrastorik, eta hemen ere urria da. Lapurdiko kostaldeari dagokionez, litekeena da horra iristerako jada berrikuntza atzeraka hasi izana eta horregatik jaso ez izana eremu horretan. Hala ere, hasieran berrikuntza hori zegoen eremuetan galdu egin da *-Gn* izan ezik, ez baita guztiz galdu-, LEMra iritsi baino lehen: Zuberoan eta Nafarroa Beherean. Hori ere analogiari dagokioke, indikatiboko neutroak *d-* hasiera denez, horren eraginez atzera egingo zuketean.

Hortaz, *z-*ren agerpen eta garapen historikoa hori izan bada ere, zehaztu beharra dago badela alderik eremu bakoitzean izan duen indarrean. Hau da, behin LEMren garaian kokatuta, *Gn* eta *Ln* *z-* nagusi da erro guztietan. BNn bi hasierak aurkitzen dira, nahiz eta *z-* gehiago egon. Zn, ordea, *z-* erro jakinekin agertzen da, EAtik jada jasotakoekin; gainerakoan, aldiz, *d-* nagusitzen da. Beraz, erro jakinetan hasieratik agertu arren, ez da eremu guztietan indar berarekin garatu berrikuntza hau: esan daiteke erdialdean nagusitu dela gehienbat: *Gn*, *Ln* eta ziurrenik, baita *GNn* ere, beraz.

Gai horren ikerketan jardun zutenen esanak ekartzekoan aldaketa hori fonetikoa, morfologikoa edo biak batera izan ote zitekeen aipatu da. Ikusita-koak ikusita, ezin uka daiteke hasiera fonetikoa izan zitekeenik, baina testuetan ikusten denaren arabera, garapena analogikoa izan bide zen, adizki alokutibo batzuetatik besteetara zabaldutakoa. Interesgarria izango da LEMren ondoko testuek eta egungo hizkerak zer esaten duten ikustea, horrela, hobeto ulertuko baita zein errok eta zein hizkerak jarraitu zioten berrikuntzari eta zeinei egin zuten atzera, hala egin bazuten, behinik behin.

Hitz hasierako aldaera horiek *-i-* alokutibo aurrekoarekin duten lotura onartuta, aurrera begira morfema hori zein testuingurutan eta modutan agertzen den ikertzea garrantzitsua izango da auzia hobeto ezagutu ahal izateko.

5 Erreferentziak

- Alberdi, X. (1995). The development of the Basque System of terms of address and the allocutive conjugation. In J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language* (275.-293. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.131.11alb>
- Ariztimuño, B. (2013). Finite verbal morphology. In M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque* (Mikroglottika, 5) (359.-427. or.). Peter Lang.
- Azkue, R. M. (1923/1969). *Morfología vasca* (2. liburukia). La gran enciclopedia vasca.
- Bähr, G. (1925). Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri). *Euskera*, 6(2-3), 73-114.
- Cid, J. A. (2010). Archu frente a Bonaparte. Modelos antagónicos de aproximación a la lengua. *Idatz & Mintz*, 50, 66-70.
- Domene, J. F. (2008). El proceso de formación del allocutivo vasco. *Fontes Linguae Vasconum*, 108, 329-364.
- Eraña, A. (2020). *Jagin* aditz laguntzailea aztergai. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre* (229.-244. or.). UPV/EHU.
- Lafon, R. (1959/1999). Place de la 2e personne du singulier dans la conjugaison basque. *Vasconiana. Recueil d'articles de René Lafon* (387.-409. or.). Euskaltzaindia.
- Mańczak, W. (1980). Laws of analogy. In J. Fisiak (arg.), *Historical morphology* (283.-288. or.). Mouton.
- Mitxelena, K. (1954). Notas sobre algunos pasajes de los *Refranes y Sentencias* de 1596. *ASJU*, 1, 25-33.
- Mitxelena, K. (1961/1990). *Fonética histórica vasca* (ASJUren gehigarriak, 4). Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Rebuschi, G. (1984). *Structure de l'énoncé en basque*. SELAF.
- Santazilia, E. (2015). Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari. *Fontes Linguae Vasconum*, 119, 109-146. <https://doi.org/10.35462/flv119.3>
- Schuchardt, H. (1893/1972). Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco. (Goenaga, A., itzul.). *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 2-3, 217-337.
- Urgell, B. (2020). Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenaz. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri

(arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*. Koldo Zuazori gorazarre (701.-736. or.). UPV/EHU.

Yrizar, P. (1977). La alocución en el verbo vasco. Su expresión en los distintos dialectos y variedades. In B. M. Aginagalde (arg.), *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma* (3. liburukia) (345.-354. or.). Gráficas ESET.

Zuloaga, E. (2020). *Mendebaldeko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/49846>

6 Corpus bibliografia

Altuna, P. (1980). *Linguae Vasconum Primitiae (Edizio kritikoa Patxi Altunak paratua)*. Euskaltzaindia & Mensajero.

Altuna, P. (1981). *Manual devotioezcoa (lehen zatia)*. Euskaltzaindia eta Mensajero.

Altuna, P. & Lakarra, J. (arg.). (1990). *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoaingo Udala.

Altuna, P. & Mujika, J. A. (2003). *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Euskaltzaindia.

Altzaga, T. (1888/1994). *Neskazar, Amantxi, Aterako gera, Biozberak*. Auspoa & Euskaltzaindia.

Archu, J. B. (1848). *La Fontaineren aleighia-berheziak*. <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/565> (2021/07/28).

Aresti, G. (1971). *Kantiko eta Beltxina*. Lur.

Artola, M. J. (1988). Jean-Baptiste Camoussarry (1815-1842). Una primera aproximación a su vida y a su obra. *ASJU*, 22(2), 391-443.

Apecechea, J. (1983). *Koplak. Edizio Kritikoa. Juan Apecechea Perurenak Paratua*. Euskaltzaindia.

Bengoetxea, A. (1991). *Kantikak eta neurtitzak*. Euskal Editoreen Elkarte.

Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2010). *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*. UPV/EHU. <http://www.lazarraga.com>

Duhalde, M. (1809/1978). *Meditationeac gei premiatsuenen gainean*. Hordago.

Elizanburu, J. B. (1888/1991). *Piarres Adame*. Euskal Editoreen Elkarte - Elkar.

- Gartzia, J. & Urkizu, P. (1991). *Bertsolaritzaren historia. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak II*. Etor.
- Goihetxe, L. (1852/1978). *Fableak edo alegiak*. Hordago.
- Krutzeta, E. (1997). *Telemake, Ulizeren semearen gertakuntzak*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Lakarra, J. A. (1981). Barrutiaren edizio kritiko baterako. *ASJU*, 15, 121-156.
- Lakarra, J. A. (1996). *Refranes y sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia.
- Leizarraga, J. (1571). *Jesus Krist Gure Jaunaren Testamentu Berria*. *Armiarma.eus*-eko transkripzioa. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LeizarragaTesta.htm>
- Mitxelena, L. & Sarasola, I. (1989). *Textos Arcaicos Vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* (ASJUren gehigarriak, 11). UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia
- Mogel, J. A. (1802/1981). *Peru Abarca*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Pagola, R. M. (2004). *Bonaparteren ondareko eskuizkribuak*. CD dokumentuak: Deustuko Unibertsitatea.
- Peillen, T. (1983). *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia*. Euskaltzaindia.
- Treku, A. & Nazabal, I. (1993). *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Urkizu, P. (1992). *Azti-begia eta beste izkribu zenbait*. Euskal Editoreen Elkarte.

Benito Gil, euskal autore urraulgoitiarra

Benito Gil, a Basque author from Urraulgoiti (Navarre)

Gorka Lekaroz Mazizior
glekaroz@gmail.com

LABURPENA

Benito Gil autore nafarra dugu aztergai, Bonaparte printzearen eskuetara heldu zen Itzalleko dotrinaren idazlea. Ongi ezagutu gabeko egilea izan da luzaroan: Itzallerekin lotu da, dotrina dela eta, eta XVIII. mendearekin, testuan 1727ko data eman zuenez. Urraulgoitin sortu zen, ordea, XIX. mendearen hasieran, eta Bonaparteren berriemaile izan zen. Itzalleko kristau ikasbidea zaraitzueraz idatzi zuen arren, Gil da Urraulgoitiko hizkeraz ditugun albiste urrien iturri nagusia, eta zaraitzueraren eta nafarreraren arteko ukipen eremuan mintzatu zen euskarari buruzko argiren bat eman diezaguke. Ukipen eremu horretaz ere aritu gara orrialde hauetan.

Gako hitzak: Nafarroa; Urraulgoiti; Gil; XIX. mendea; Zaraitzu.

ABSTRACT

In this paper we deal with Benito Gil, a Navarrese author in the Basque language, to whom we owe the catechism written in Itzalle-Izal (Zaraitzu-Salazar Valley) which came into the hands of Louis Lucien Bonaparte. For a long time Gil was little known. Because of the place where he composed his text and the *lapsus calami* he committed when he wrote the date in it, he has been considered a person from Salazar of the 18th century. Nevertheless, he was born in the valley of Urraulgoiti-Urraúl Alto at the beginning of the 19th century, so that he came to know the prince Bonaparte, whose informant he was. Although he used the Salazar Valley speech for his doctrine, we owe to Gil much of the scarce information we have about the Basque spoken in Urraulgoiti, and he is an interesting reference to shed some light on the area of contact between Salazar Valley speech and the Navarrese dialect that extended to the west, so we also refer to that area.

Keywords: Navarre; Urraulgoiti-Urraúl Alto; Gil; 19th century; Zaraitzu-Salazar.

Lan hau prestatzerakoan eskertzeko moduko laguntza eman didate Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko (aurrerantzean, IEA) Juncal Campo eta Teresa Alzugarayk, eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko (aurrerantzean, NEAN) Miriam Etxeberriak. Zaraitzu ederki ezagutzen duen Iñigo Auzmendiren oharrak, halaber, balio handikoak izan dira. Akatsak nireak baino ez dira.

1 Sarrera

Hizkuntzaren historia hobeto ezagutzeko ezinbestekoak ditugu guregana heldu diren aspaldiko testuak. Garrantzitsua da egile ezaguna dutenak ongi aztertzea (Reguero, 2019, 20. or.), eta egile ezezagunekoak hobeto kokatu ahal izateko aingura testu egokiak izatea (Ulibarri, 2015, 65. or.).

Tamalez, Nafarroako euskararen historiari dagokionez ez da hutsunerik falta antzinako testu eta idazleen ezagutzan. Idazki ugari anonimoak dira, nork sortu zituen jakin faltan nahi bezain zehatz kokatzeko zailak.¹ Autore batzuen izenak, bestalde, idatzi zutena bidean lausoturik edo galdurik iritsi zaizkigu (Joan Undiano, Santxo Eltso) eta beste batzuei buruzko informazio handirik ez genuen orain gutxi arte.² Orrialde hauetara ekarri dugun Benito Gil, aldiz, datu zuzenak eta okerrak ezin bereizirik luzaroan ilunegi iraun duen egilea da, Adoainen sortutako XIX. mendeko apaiz urrauldarra, Nafarroako ekialdeko autore sarritan ahantzia eta nahasia. Lan honetan ilunak argitzen eta idazlearen biografia osatzen ahalegindu gara.

2 Ongi kokatu gabeko egilea

Benito Gilen izena idatzi zuen dotrinarengatik³ ezagutzen dugu. Azal iluneko liburuxka da, 144 mm ditu goitik behera, eta 90 eskuin-ekzer. Azalean 131 zenbakia du. Barruko lehen orrian, «Izal (de Irurozki)» hitzekin batera, hainbat eragiketa daude. Bigarrean aurkezpena idatzi zuen Gilek, hirugarrena zuritan dago, eta laugarrenean hasten den dotrina 55.aren atzealdean amaitzen da; horrenbestez, 102 orrialde ditu guztira testuak, tarteko hutsunerik gabe. Beheko zatia falta duen 56. orri bat dago, atzean jaunartzeko otoizño bat duena, gure ustez Gilek berak idatzia izan litekeena. Azken orria liburuaren atzeko azalarekin erdi itsatsia dago eta 1807-1810 aldera Patricio

¹ Zorionez, antzinako autoreak iluntasunetik ateratzeko aurrerapausoak eman dira azken urteotan. Santaziliak (2016), adibidez, aurrerago aipatuko dugun Juan Josef Berrade zaraitzuarra ezagutarazi du.

² Gogora ditzagun XVIII.-XIX. mendeetakoan artean Juan Cruz Elizalde (Huarte, 2019), Joan Bautista Sanzberro (Reguero, 2017) edo Mariano Erbiti (Lekaroz, 2014).

³ NEAN, C/33 124/3, 12. zk. Gaur egun dotrina Internet bidez kontsulta daiteke honako helbide honetan: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/Documentos/Catecismo-en-dialecto-de-Izal_IhEhiQ0-FvICGn7MmAK3BA (Azken kontsulta: 2022/02/27).


Martinez de Bustos artxidiakono soriarrak idatzitako liburu baten orri bat aprobetxatu zen. Dotrina hainbat unetan idatzi bide zen; testu barruko tinta eta idazkerak ez dira guztiz homogeneoak. Gaztelaniazko zenbait ohar dauka han-hemenka.

Honela dio bigarren orriko aurkezpenak (1. irudia): «Doctrina Uscaras Dn. Be- / nito Gil escrituric vere / governuaren daco. Yzallen / Avenduaren amalaurga- / rreanean, urte mila zazpi- / tan eun eta ogei eta zazpie- / tan». Egileak utzi zuen kronologia aipamen bakarrak, horrenbestez, XVIII. mendera garamatza. *Lapsus calami* baten aurrean gaude, ordea, ikusiko dugun legez.

Benito Gil zeharka azaleratu zuen lehen autorea Miguel Rodriguez-Ferrer euskaltzale sevillarra izan zen (1873/1976, 75.-76. or.), Bonapartek Klaudio Otaegiri 1866an idatzitako eskutitz baten pasartea kopiatzean. Pasartean ez dago adoaindarraren izenik ez dotrinaren aipamenik, baina ikusiko den gisan ez da zalantzarik Gilez ari zela: «He recibido carta del señor cura de Irurozqui, que es hijo de Andoain (sic) en el valle de Urraul alto, y me asegura que en Irurozqui el interrogatorio fué bien hecho...».

Handik aitzina ia mende beteko isiltasunak ezkutatu zuen Gil, harik eta Jorge Riezu (1958, 157. or.) Bonaparteren laguntzaileen zerrendan «Gil, Benito, párroco de Irurozqui» aipatu zuen arte. Antza denez, Riezuri Jose Vilallonga Medina ikertzaileak eman zion datua, prestatzen ari zen lan baterako bildu zuen informaziotik (Riezu, 1958, 156. or.). Lan hori *Euzko-Jakintzan* eman zen argitara (Vilallonga, 1957, 39.-68. or.), baina ez dago bertan Gilen aipamenik, ez Bonaparteren gainerako berriemaileen ere, lana ez luzatzearen laguntzaileei buruzko kapitulua kendu egin baitzuen azkenean Vilallongak (1957, 64. or.).

Aspaldikoa da, beraz, Iruozkiko apaiz Benito Gil Bonaparteren berriemaitzat jo zuen erreferentzia zuzena. Baina Itzalleko dotrina sinatu zuen abadea eta printzearen Urraulgoitiko datu emalea ber gizona zirela ondorioztatu ordez, Gilen *lapsus calamiak* eragindako interpretazioa nagusitu zen handik harat. XVIII. mendekotzat hartu izan da azken hamarkadetan, oker, dotrinak dakarren datan oinarrituta, eta nahasiak izan dira eskuarki urraulgoitiarrari buruzko aipamenak.



1. irudia. Benito Gilek idatzi dotrinaren hasiera, okerreko data eta guzti (NEAN, AP_BONAPARTE, 12. zk., 2. fol.).

Rosa Miren Pagolari zor diogu Gilen dotrina argitara eman izana (Pagola *et al.*, 1997). XVIII. mende hasierako testu gisa aurkeztu zuen eta herriaren izena nahasita Itzaltzuko dotrina zela adierazi zuen, ez Itzallekoa (Pagola *et al.*, 1997, 213. or.).

Erizek (1997, 298. or.), aldiz, Riezu oinarri zuela seguru asko, Irurozkiko Benito Gil aipatu zuen Bonaparteren laguntzaileen zerrendan, horrenbestez, Gil Zaraitzutik eta XVIII. mendetik urrunduta, baina espreski adierazi gabe.

Caminok (1995, 2011) behin baino gehiagotan izan du hizpide Gil, XVIII. mendeko autoretzat hartuz eta Itzallerekin lotuz, baina dotrinan Zaraitzuko euskarari ez zegozkion ezaugarriak ageri direla nabarmenduz (§ 4.2).

Bidadorrek (2004) ez zuen korapiloa askatu. Are gehiago, dotrina Itzallen idatzia zela adierazi zuen (Bidador, 2004, 31. or.), baina Itzaltzuko apaizak egina zela ere bai (Bidador, 2004, 78. or.). XVIII. mendeko testua izanik Bonapartek Zaraitzun eskuratu zuela gaineratu zuen iruindarrak.

Laburbilduz, Benito Gilen izena agertu izan da Nafarroako euskal autoreen zerrendan eta azken hirurogei urteetan bederen aipatu da. Izan da Urraulgoitirekin eta Bonaparteren garaiarekin lotu duenik, baina dotrinaren hasierako datazio akats potoloa lagun, egiazko datuen ondoan maiz hedatu dira okerrekoak.⁴ Badu interesik azken hauek identifikatu eta baztertzeak, Gilek Nafarroako euskal autoreen artean tokia izateaz gain hego-nafarreraren sortalde muturreko mintzoaz argitasunen bat eman diezagukeelako.

3 Benito Gil Tabar (1801-1870)

3.1 Lastoa eta bihia bereiziz

Gilek berak dotrinan idatzitakoa ontzat ematera, XVII. mendearen bigarren erdian (edo XVIII.aren hasiera-hasieran) jaio zen, eta 1727an Zaraitzuko Itzallen⁵ abade zatekeen.

Ez da, ordea, haren arrastorik orduko parrokia liburuetan. XVII. mendeko azken hamarkada hastean⁶ Martin Labrit zen Itzalleko erretore. Pedro Sayes izan zen hurrengoa, eta 1699an zendu ostean Francisco Garcia Labari aurkeztu zuten herritarrek. Itzaltarra zen, eta onura baten jabea. Hark eskuratu zuen abadetza⁷ eta baita hari eutsi ere hil arte (1735). Garcia Labari zen, beraz, Itzalleko parroko Benito Gilen dotrinan idatzita ageri den urtean, eta Juan Simon Iribarrenek ordezkatu zuen 1735ean, herritarrek aukeraturik be-

⁴ Berriki argitara emandako lan batean, aldiz (Garralda *et al.*, 2019), zuzen kokatu da Benito Gil, eta Adoingo apaiz gisa aipatu.

⁵ Horrelaxe –Itzalle– esaten zioten herriari XX. mende amaierako zaraitzuera hiztunak (Artola, 2005, 255. or.). Bonapartek ere horrela idatzi zuen bere oharretan. Herritarrak izendatzeko, bestalde, udalerria osatzen ez duten herriguneetako formak finkatu gabe egonik, *itzaltar* baliatu dugu guk.

⁶ Itzalleko 1650 eta 1690 bitarteko datuetan hutsunea dago.

⁷ IEA, Prozesuak, 1.358 kaxa, 27. zk.

tiere⁸: nekez izan zitekeen Gil erretore 1727an. Itzalleko jaiotza liburuetan badira giltarrak XVII. mende amaieratik aurrera, baina Benito izenekorik ez, eta Zaraitzuko 1726ko erroldan ez da Gil abizeneko lagunik ez Itzallen, ez Galozen, ez Izizen.

Ez dago, beraz, Benito Gil eta Itzalle lotzen dituen XVIII. mendeko datu-rik, baina garbiak dira ehun urte geroagokoak. Batetik, herriko parrokia liburuak emandakoak. Miguel Francisco Perez izan zen parrokoa 1826ra arte. Ondoren behin-behineko bi apaiz izan ziren herrian: Juan Miguel Erlanz 1826an bertan, eta Josef Domingo Navarro, Gorzako abade, 1826ko irailetik 1827ko irailera arte. Handik harat «Benito Gil, Abad» sinadura ageri da. Ohikoa bihurtu zen ondorengo urteetan.

Bestetik, parrokia liburuetan ez ezik, IEAko matrikula liburuetan eta NEANko zenbait notario agiritan ere aurkitu ditugu Benito Gil ez zaraitzuarra, ez XVIII. mendekoa ez zela erakusten duten dokumentuak. Lan honetan zehar aipatuko ditugu.

Badira, azkenik, Gil kokatzen lagun dezaketen zeharkako albiste batzuk. 1828an Zaragozan argitaratutako sermoi bilduma baten harpidedunen artean «D. Benito Gil, Abad de Izal» zegoen (Echeverria, 1828, 370. or.), eta hiru urte geroagoko Teologia hiztegi bat jaso zutenen zerrendan ere bai (Bergier, 1831, 517. or.).

Agerikoa iruditzen zaigu, beraz, hanka sartze gisa hartu behar dela Benito Gilek kristau ikasbidean idatzitako data.⁹ Horrenbestez, autore honen gaineko informazioa osatu nahi izanez gero, orain arteko datu batzuk zuzendu eta ia hutsetik hasi beharra dago. Hori saiatu gara egiten ondorengo biografia ahalegina osatzeko.

3.2 Etorkia, jaiotza, lehen urteak

Francisco Benito Gil Tabar 1801ean jaio zen Adoainen.¹⁰ Gindano eta Zerengano¹¹ hustuta, Nabaskozera eta Zaraitzura begira dagoen Urraulgoiti ekialdeko azken herrigunea da gaur egun Adoain.¹²

Urteen joanean Itzalleko bikario bihurtu zenaren aspaldiko sustraiak Itzallen bertan zeuden, Orlagatu mendiaren beste aldean. Hantxe jaio zen

⁸ IEA, Prozesuak, 1.809 kaxa, 33. zk.

⁹ Aurreko guztiaz gain, Gilen kaligrafia ez dator bat XVIII. mende hasierako testuetan erabili ohi zenarekin.

¹⁰ IEA, Parrokia-Liburuak, 639-8, Adoain, Bataiatuen 1. liburua (1606-1883), 87.

XVII. mende hondarrean Gaspar Gil birraitona, Adoainera ezkondu eta erroak Pardixerrian¹³ bota zituen, alaba bat eta sei seme bederen izan zituelarik. Seme adoaindar haietako bat —1729an jaiotako Bautista, Benitoren aitona— *Perotx* etxeko Maria Zazurekin ezkondu eta etxe hartako jaun bihurtu zen; *Perotxen* sortu zen, horrenbestez, Juan Lope Gil adoaindarra, Benitoren aita, Jakoistiko Francisca Tabar Cabodevillarekin esposatu zena. Franciscak Jakoistikoa zuen aita, eta aietxuarra ama. Aspaldiko etorkia zaraitzuarra izanagatik, beraz, nekez izan zezakeen jatorri urrauldarragorik euskararen lekuko bihurtu zen Benito Gilek.

Juan Lope eta Francisca Jakoistin ezkonduko ziren noski; ez da ezkontza oharririk Adoaingo liburuetan.¹⁴ Benito baino lehen bi alaba behintzat izan zituzten —Maria Agueda 1794an eta Francisca 1798an—, baita Juan Rafael semea ere bi alaben artean. Benito 1801eko martxoaren 20an jaio zen eta egun berean bataiatu zuen aurreko urtetik Adoaingo abade zen Francisco Gil osabak, aitabitxi Jakoistiko Francisco Gil eta amabitxi Gindanoko Bentura Gorraraz izan zirelarik.¹⁵ Zazpi urte falta ziren gerora Aita Esteban Adoaingoa izango zen Francisco Pedro Marcuello haurtxoa¹⁶ *Eneko* etxean jaio zedin.

XIX. mendearen hasieran 90 bat bizilagun zituen Adoainek, eta herriko hamabi etxeetako bat zen *Perotx* (2. irudia).¹⁷ Hiru solairuko etxea, bizitokiaz

¹¹ *Zerregano* (gazt. *Cerréncano*) izeneko baserriak bi ziren, euskaraz *Zerregano Gora* eta *Zerregano Apal* deituak, Zaraitzun barrena jaso zenez (Artola, 2014, 119.-120. or.). Sudurkari osteko herskari ozenez ahoskatu zuten Otsagabian edo Orontzen Artolak elkarrizketatuek eta horrelaxe idatzi dugu hemen. Itzaltzun *Zarrangano* esaten diote gaur (Iñigo Auzmendik gaztigitua).

¹² Itsasoaren mailatik goiti 750 metrora dago Adoain, eta 1000 metrotik gorako mendiek inguratzen dute iparralderantz, Aietxu aldera (Aldaxur, Carrascal), eta batez ere ekialderantz, Zaraitzu aldera (Santa Cruz, Orlagatu, Berroeta, Oianburu, Zorokieta). XX. mende erdialdekoa da Zabaltzan barrena herria Imirizaldurekin lotzen duen errepidea. Adoainen behinolako isolamenduaz, ik. Zubeldia (1944, 17.-18. or.).

¹³ Aetz eta zaraitzuarrendako, Pardixerria Urraulgoitiko herriek eta inguruko beste batzuek osatzen zuten (ik., besteak beste, Salaberri, 1989).

¹⁴ Urte haietako Aietxu, Jakoisti eta Ezkanizko ezkontza liburuak galduta daude egun (ik. 66. oh.).

¹⁵ IEA, Parrokia-Liburuak, 639-8, Adoain, Bataiatuen 1. liburua (1606-1883), 79, ginberra.

¹⁶ Gogora dezagun Aita Esteban Adoaingoa (Adoain 1808 - Sanlucar 1880) Amerikako hainbat lurretan ibilitako misiolari kaputxino euskalduna izan zela, Lapurdiko eta Nafarroako iparraldeko herri ugarian egin zuen misio lanerako euskarazko predikua pres-tatu zituen (Ondarra, 1985; Satrustegi, 1978).

¹⁷ *Perotx* etxea zutik dago gaur, baina guztiz eraberritu eta aterpetxe bihurtu zen sute batek kiskali eta gero (Real Academia de la Historia, 1802, 7. or.).

gain ukuilua, lastategia, larraina eta txerritokia ere bazituen.¹⁸ Huraxe izan zen Gilen sorlekua eta lehen bizilekua. Ezin jakin noiz artekoa, ez baitugu haurtzaroari edo nerabezaroari buruzko albisterik. XIX. mende hasieran ez zen 30 urtez ez sendotzarik ez apezpikuen bisitarik izan Adoainen eta inguruko herrietan.



2. irudia. Adoaingo Perotx, gaur egun.

¹⁸ «Situada en dicho lugar de Adoain y su calle llamada Barrio de arriba, señalada con el número seis». NEAN, 5188 kaxa, 55. zk. (1872).

Umetan ez zitzaion gurasoen babesa faltatu: aita 1821ean hil zen eta ama beste 20 urtez bizi izan zen. Adoainek bazuen eskola 1845 aldera (Madoz, 1846/1986, 11. or.), baina mende hasierako urteetan osabaren laguntza baliatu zuen beharbada herrian bertan alfabetatzeko. Litekeena da Adoain hain isolatuta egonik Benito gaztetxoak urte haietako gerra hotsak ez entzutea, Aita Esteban Adoaingoari gertatu bezala (Zubeldia, 1926, 7. or.). XIX. mendean zehar adoaindarren hizkuntza egoera errotik aldatu bazen ere, euskara izan zuen segurki lehen mintzoa; halaxe izan zuen Aita Estebanek (Zubeldia, 1944, 20.-21. or.).

Ez dakigu Nafarroatik kanpo ikasketarik edo apaiz prestakuntzarik egin zuen; Zaraitzun, Urraulgoitin, Irunberrin eta Iruñean topatu dugu Gilen arrastoa. Baina etxetik urrunago ere ibili zela iradoki dezakeen adierazpen bat egin zuen 1857an.¹⁹

3.3 Adoaingo giltarren apaiz tradizioa

Urraulgoiti eta Zaraitzuko sustraiak bezain sendoa da XVIII.-XIX. mendeetan Gil abizenak eta Adoaingo San Esteban parrokiak izan zuten lotura; harexek esplika lezake, ausaz, Benito gaztearen bokazioa.

Gaspar Gilen bilobetako bat, Benitoren osaba zahar Lucas Agustin Gil Eneco (Adoain, 1753-1799) jaioterriko abade izan zen hil arte, 1784tik bederen. Urte hartan Bernardo Perez apez zabaltzarrak Gindano eta Zerreganoko zereginak utzi eta Zerreganoko jauntxo zangozarrak proposatuta Adan de Arbizu ustaiztar erdalduna izendatu zuten ordezeko (Jimeno Jurio, 1991). Izendapenak eragin zuen auzian aukeraketaren kontra mintzatu zen Lucas Gil Adoaingo erretore gisa, prozesuan deklaratu zuten Urraulgoitiko gainerako bikarioekin batera: euskararik ez jakiteak Arbizu lanerako ezgai bihurtzen zuela argudiatu zuen. Ongi ezagutzen zuen Gil euskaldunak ibar ekialdearen hizkuntza egoera, adoaindarra izateaz gain Zerreganoko parrokiar arduratu zelako prozesuak iraun bitartean.²⁰ Horri esker azaldu ahal izan

¹⁹ «...que busque, así en este pueblo, como en cuantas partes de España me he hallado y presente testigos sobre ello, y que merezcan crédito». NEAN, 12 385/1 kaxa, Martin Miguel Erro, 1857, 45. zk., 154 (§ 3.7).

²⁰ Ardura hori adoaindarrari eman aitzin, apezpikutegiak Gindano eta Zerreganokoen hizkuntzari buruzko txostena eskatu zion Juan Josef Berraderi. Berrade Sartzeko apaiza zen eta, Santaziliak (2016) argitu duenez, zaraitzueraz idatzitako 1780 inguruko hiru sermoiren egilea ere bai.

zuen zehaztasun osoz zein hizkuntzatan mintzo ziren Gindano eta Zerren-
ganoko biztanleak (§ 4.4).

Lucas Gil hiltzean Francisco Gil Zazu lehengusua (Adoain, 1769 - *ca* 1841, Benito Gilen osaba) heldu zen Adoaingo parrokiara Aizkurgin eta Ezkani-
tzen ibili ostean. Lau hamarkadaz izan zen sorterriko abade. 1840tik aurrera,
Francisco adinak ezinduta, Benito lehengusuak ordezkatu zuen tarteka
(§ 3.6). Erraz ikus daiteke, beraz, giltarrak 1784tik 1841era arte bederen izan
zirela Adoaingo arimen zaintzaile: ia hirurogei urtez, Benito Gilek ondoren
emanikoak kontuan hartu gabe.

3.4 Apaizgintzarako bidean

Gilek ordena sakratuak osatu bitarteko ibilbideak hiru bat urte iraun
zuen, ordu hartan sarritan gertatu legez. 1824ko apirilaren 2an bihurtu zuen
tontsuradun Joaquin Xavier Uriz Lasaga apezpiku zarearrak Iruñeko apezpi-
kutegian.²¹

Ordena nagusiak hartu eta apaiz bihurtuko bazen, ordea, edozein apaiz-
gaik frogatu beharra zuen bazuela duintasunez bizitzeko moduko ondare,
errenta edo onurarik.²² Senide batzuei esker eskuratu zuen ondare hura Gi-
lek: lehengusu-lehengusina zituen Juan Carlos Cabodevillak eta Benita Za-
balzak hainbat eremu eta jabetza eman zizkioten 1825eko martxoan Irunbe-
rriko notarioaren aurrean Adoaingo apaizgaiari, errenta berezirik ez zuenez,
apaiz bihurtu ahal izateko baliagarri gerta zekizkion: hamalau alor, bost ba-
ratze, ukuilu bat eta borda bat, besteak beste. 1620 dukateko balioa eman
zieten Jose Iriguibel eta Lorenzo Zabalza laborari aietxuarrek, lan hura egi-
teko enkargua harturik.

Bizibidea ziurtatuta, ordena txikiak 1826ko maiatzean osatu eta nagusiak
1826-1827etan hartu zituen Gilek Iruñean.²³ Azkena eskuratu zuenerako
(1827ko ekainaren 23a) bazuen parrokia ardura, non eta Zaraitzun, Gaspar
birraitonaren sorterrian bertan.

²¹ IEA, 1280-3 kaxa, 119.

²² Apaizgintzarako bidean eskatu ohi zen baldintza hori dela eta, ik. García Cortés (2001).

²³ IEA, 1280-3 kaxa, 157, ginberra (graduak); 158, ginberra (epistola); 171 (ebanjelioa); 173,
ginberra (meza).

3.5 Itzalleko apaiz. Dotrina idazle

Itzalleko abade Miguel Francisco Perez 1826ko otsailean hilik, eta arestian esan den bezala (§ 3.1) urtebetez behin-behineko erretoreak izan ostean, abadetza bereganatzeko eskubidea zuen Crisostomo Lus Jaurrietako onuradunak uko egin zion karguari; apez berria aukeratzea egokitu zitzairen, beraz, herritarrei, nahiz eta bozak Lusi emanda zeuden. Itzalleko 21 gizon eta 6 emakume bildu ziren kontzeju etxean 1827ko apirilaren 28an hautaketarako.²⁴ Haren gaitasuna kontuan hartuta Adoingo Benito Gil aukeratu zuten.

Handik lasterrera heldu zen Gil bere parrokiara: 1827ko azarokoa da Itzalleko liburuetan idatzi zuen lehen oharra.²⁵ Herrira heldu orduko antzeman zuen nonbait euskarazko kristau ikasbide baten beharra,²⁶ abenduaren 14an idatzi baitzuen okerreko urtea zuen sarrera. Dotrina beharra bakarrik ez; apez gazteak predikua idazteko inspirazio iturrien premia ere sentitu zuen, antza. Arestian aurreratu bezala, Fr. Felipe de la Virgen del Carmen karmeldarrak 1828an idatzi *El párroco. Pláticas doctrinales y morales para todos los domingos* liburua eskuratu bide zuen; eta Bergier abate frantsesaren 1831ko *Diccionario enciclopédico de Teología* lanaren harpidedun ere bazen, Nafarroa osoko dozena bat elizgizonekin batera.

Itzalleko lehen egonaldia 1833ko udazkenean amaitu zen. Orduetik aurrera, hamar urtez, zenbait buruhauste eragin zion beste betebehar bati lotu zitzaion Gil.

3.6 Urraulgoitira. Baratzagaizko priore

Baratzagaizko Santa Fe²⁷ basilikaren prioretza izan zen Gilek Urraulgoitin hartu zuen lehen ardura; ez nolana hikoia, ibarreko seme batendako. Basilika Ezkanitzekin lotua ageri da XVI. mendeko agirietan. *Ermita, iglesia* eta *basílica* izenak eman zizkioten ordu hartan; nabarmenago hirugarrena XVIII. mendetik aurrera. Behin eta berriz Ezkanizkotzat jo arren, Eparoztik oso hurbil zegoen («*a un tiro de mosquete*», 1687ko agiri batean irakur daitekeen). 1584tik bederen Sedezarra izeneko kofradiari zegokion Santa Feko

²⁴ NEAN, 12042-1 kaxa, 86. zk.

²⁵ IEA, Parrokia-Liburuak, 723-11, Itzalle, Bataiatuen 1. liburua (1606-1903), 45.

²⁶ Bonaparte printzeak berrogei urte geroago emandako albisteak kontuan hartuta, Itzalle Adoain bera baino herri euskaldunagoa izango zen seguruenik 1820ko hamarkadan. Guk 1860 ostean jaiotako euskal hiztun itzaltarrak identifikatu ahal izan ditugu.

²⁷ Santa Fe dela eta, ik. Jimeno Jurio (1991).

priorea aukeratzea. Ibarreko bizilagunak oro ziren kofradiako kide, eta horiek ordezkatuta herrietako agintariak arduratzen ziren hautaketaz. Agintari hauek lau diputatu izendatzen zituzten eta horiek ziren priore lanerako hautagaia aukeratu eta aurkezten zutenak.

Santa Fe ez zen parrokia, kofradia etxea baizik, eta, horrenbestez, priorea aldi berean Urraulgoitiko herriren bateko abade izan zen luzaroan: Ongozkoa (1629, 1663, 1751), Eparozkoa (1687, 1706), Ozkoidikoa (Pedro Uriz, bertan jaioa, 1729), Gindanokoa (1766) edo Zabaltzakoa (Bernardo Perez, arestian aipatua, 1784, 1799). Betiere Santa Fetik hurbil ziren herriak. XVIII. mendearen amaierara arte prioretzaren kudeaketak ez omen zuen gorabehera aipagarririk eragin, baina ordutik aitzina aldatu egin zen egoera. Bernardo Perezek uko egin zion karguari 1811n. Adina eta Zabaltzatik Eparotzerako bidea ezin egina argudiatu zuen, baina, antza denez, beste arrazoirik ere bazen: gero eta errenta eskasagoa ematen zuen prioretzak —haren baitako zenbait ondasun salmentan jarri ziren errege agindu bidez 1807an²⁸— eta ordurako gehiago ziren prioreari zetozkion gastuak, karguak emandako irabaziak baino. Horretaz gain, lan handia eragiten zuen Santa Feko arduraren bete-tzeaz gain beste herri bateko abade izateak. Hogei urtez behin-behineko prioreak izendatu ostean, Xavier Oroz 1832an hil zenean prioretzaren nondik norakoa aldatu beharra ikusi zuten ibarreko arduradunek, egitekoaren izaera berrituz eta berrikuntzak dokumentu batean ezarriz. Apezpikutegiko bikario nagusi Casildo Goicoaren baimena eskuratu eta araudi berria zedarritzeko ibarreko lau lagun hautaturik, prioretzaren eraberritze prozesua hasi zen.

Prioretza eraberritu haren lehendabiziko burua Benito Gil izan zen. Kofradiaren arduradunek adoindarra proposatu zuten 1833ko apirilean, Santa Fe basilikaren sakristian eginiko biltzarrean, Diego Errazu eskribauaz gain Urraulgoitiko diputatu Francisco Aristu ere lagun zutela.²⁹ Irailean sinatu zuen Gilek azkenekoz Itzalleko parrokia liburuetan eta azaroaren 5ean bikario nagusiak Santa Feko prioretzari buruzko azken sententzia jakinarazi zuen: Gilek baldintza guztiak bete ez ezik, azterketa gainditu eta, ordaindu

²⁸ Irurozkiko errota —Sedezarrako kofradiaren jabetza izanikoa eta Santa Feko basilikak Besollako markesari zor zizkion gari errentak ordaintzeko erabilia— 1808an saldu zen (IEA, 2981 kaxa, 23. zk.).

²⁹ IEA, 2993 kaxa, 10. zk., 6 (ginberra) eta ondorengoak.

beharrekoa ordaindu zuenez, ez zuen aurrerantzean priore izateko trabarik.³⁰

Baratzagaizko prioretza eraberrituak xehetasun osoz adierazitako bete-behar jakin batzuk eragin zizkion Gili. Garizumako igandeetako sermoiak eta urtean zeharreko beste egun seinalatu batzuetakoak egin behar zituen eta jai egunetan ez ezik agindutako beste zenbaitetan meza esan ere bai. Aitortu egin behar zuen, eguraldi txarraren aurkako konjuruak egin, basilikarako argizagi, olio eta ornamentuez arduratu, eta hiru sekularrekin batera prioretzaren kontuak eraman. Santa Fen bizi beharra zuen, baina, hori betez gero, eskubidea zuen aldi berean ibarreko beste herrietako behin-behineko bikario izan eta horren araberrako errentak eskuratzeko. Eta Gilek hala egin zuen. Eparotzen aldi baterako abade gisa sinatu zuen 1835ean; 1840an eta 1843an bere izena ageri da tarteka Aietxuko parrokia liburuetan herrikoei «mis feligreses» esanez; eta 1839tik 1841era bederen Adoainen izan zen, ezindutako osabari lagunduz eta ondoren hura ordezkatzuz. Egun haietan Benito Gilen ama hil zen *Perotx* etxeko nagusi zelarik, hilburukorik egin gabe. Semeak berak sinatu zuen heriotza agiria 1841eko abuztuan.

Urte haietan, Baratzagaizko prioretzak ematen zuen errenta eskasa izan zen seguruenik Gilen buruhauste nagusia; horrek azal lezake basilikan ez ezik, ibarrean barrena betegabeko apaiz lanetan ere ibili izana. 1833ko eraberritzaileek prioretzaren baldintza ekonomikoak hobetzeko asmoa zuten, baina hartutako neurriak ez ziren urte zail haietan aski izan. Gainera, Baratzagaizko prioretzaren errenta iturririk garrantzitsuenetako bat aspaldiko urteetan Melidako Udalak ordaindu beharreko zerga zen —berrogei gari erregu urtean— eta Oroz priorea 1832an hil zenetik Melidakoez ez zuten zergarik ordaindu.³¹ Ezinbestean eragin zuen horrek ika-mika. Gilek behin eta berriz eskatu zien Melidakoei zorra kitatzeko, baina alferrik. Azkenean, 1841eko urrian, prioreak Rafael Izagirre izendatu zuen ahaldun Irunberriko notarioaren aurrean, Melidako Udala auzitara eraman eta handik aurrerako urratsez ardura zedin.³² Izendapen horrek interes kontrajarriak eragin zituen, agian: Murillo El Frutoko notario ez ezik, Izagirre Melidako idazkari ere bazen eta udalaren interesak defendatu zituen beste auzi batzuetan.

³⁰ IEA, 2993 kaxa, 10. zk., 56.

³¹ 1813tik 1850era bitartean hamar urtetan bakarrik ordaindu zuten zerga melidarrek. Ez beti garaiz. Udalaren diru sarrerak asko murriztu ziren 1822tik aurrera. Gerra urteek ez zuten egoera hobetu, eta herriko maisu, zirujau edo eskribauarekin ere zorpetu zen batzuetan (Melidako Udal Artxiboa, 0001 kaxa, 4.4.2.).

³² NEAN, 12055 kaxa, 135. zk.

Izagirreri esker izan ala ez, ordaintzeari ekin zioten oster a melidarrek: 1270 erreale eman zituen udalak 1845ean, aurreko hiru urteetako zergen ordainetan. Beranduegi, ordea, Gilentzat, 1843an prioretza uztea erabaki baitzuen, egoera ezin jasanik beharbada. Ardurari uko egiteko baimena eskuratzearren bestelako jabetza edo onurak bazituela frogatu behar, eta Ezkanizko senide batzuek —*Kordobeko* etxejabe Francisco eta Juan Fermin Alzuetak, eta haien emazte Maria Zalbak eta Martina Iturrik— hainbat alor, baratze, larrain eta txabola eman zizkioten 1843ko urri hasieran Irunberriko notarioaren aitzinean; Martin Redin eta Joaquin Uriz laborari ezkaniztarrak arduratu ziren emaniko jabetza haien hedadura, balioa eta urteroko balizko errentak kalkulatzeko.³³ Notarioari eskua emanda sartu zen Gil egun batzuk geroago lursail berrietan, handik harat jabea bera izatearen erakusgarri, eta urri amaieran Ezkanizko parrokiari jakinarazi zuten Adoingoari eginiko emaria, inork jabetza haietan eskubiderik zuela uste izanez gero, Eliz Auzitegira jo ahal izan zezan. Izapide haiek beteta, azaroan egin zion uko Gilek hamar urte lehenago onartutako prioretzari.

3.7 Adoaindik Itzallera bigarrenez

Santa Fe utzi, eta 1844ko urtarrilean Adoainen zen Gil.³⁴ 1848ra arte parroko zereginetan lagundu eta Gindanoko eliztarren ardura hartu zuen zenbait unetan bederen.³⁵ Baina, 1848ko apirilera Itzalleko behin-behineko abade zen atzera³⁶ eta hurrengo martxotik aitzina etenik gabe aritu zen bigarrenez ongi ezagutzen zuen Zaraitzu aldean.

Itzalleko bigarren egonaldi hartan, 1857ko apirilaren 1ean, *Iribarren* etxe-ko Francisco Maria Jimenez salatu zuen Gilek Galozeko bake epailearen aurrean,³⁷ herrian hedatu zen gezurrezko zurrumurrua sortu izana leporatuta. Zurrumurrua, adiskidetzeko epaiketan Jimenezek berak aitortu zuenaren arabera, 1855ean edo 1856an sortua zen, Benito Gilen gelaria Francisca Cajen Larrañeta gazte orbaizetarra zelarik. Egun batez Jimenez Otsagabira joan zen itzaltarrendako botika bila, beste zenbait mandaturen artean abade etxetik zetorren sendagai eskari bat zeramala. Otsagabiko botikariak sendagai hura hilekoaren minak arintzeko zela esan zion Jimenezi, eta Itzalleko pa-

³³ NEAN, 12057 kaxa, 196; IEA, 3104 kaxa, 11. zk.

³⁴ IEA, Parrokia-Liburuak, 639-12, Adoain, Hildakoen 1. liburua (1598-1905), 72, ginberra.

³⁵ IEA, Parrokia-Liburuak, 633-17, Gindano, Bataiatuen 1. liburua (1598-1853).

³⁶ IEA, Parrokia-Liburuak, 639-8, Adoain, Bataiatuen 1. liburua (1606-1883).

³⁷ NEAN, 12385/1 kaxa, Martin Miguel Erro, 1857, 45. zk., 151-156 (ginberra).

rrokiaren izenean sarritan eskatzen ziotela; *Iribarrengoari* apaizaren zerbitzaria haurdun egongo ote zen bururatu zitzaion.³⁸ Hilabete batzuk igarota, 1856ko Santiago egunez, Otsagabian gertatua Itzalleko bi gizoni kontatu zien eta botikariaren hitzak aldatu ere bai, hark botika hilekorako ez, baizik eta abortatzeko zela esan balio bezala.

Francisca ez zen ordurako Gilen gelari, *Garzia* etxera ezkonduetako Pedro Jose Burguete alargunaren bigarren emazte baitzen ekainetik,³⁹ baina zurrumurruak inguru osoan zabaldu ziren: Itzalleko apez etxean umea galdu zela, umea jaio egin zela, aita bikarioa zuela, edota senargaia zela. Ezkontzak ez zituen esamesak isilarazi eta Burguetek Gilengana jo zuen, kezkatuta, 1857ko martxoan. Adoaindarrak herrian galdetu eta zurrumurrua eliztar gehienek ahotan zegoela jakin zuen. Hori bakarrik ez: esamesa bere izen ona eta bizibidea arriskuan jartzen ari zela ere bai.⁴⁰ Horrexegatik erabaki omen zuen auzibidera jotzea, eta gartsuki defendatu zuen bere burua epailearen aurrean, Itzallen apaiz izandako urte luzeetan ardozalekeriarik eta lizunkeriarik gabeko jokabidea izan zuela aldarrikatuz. Jimenezek bere burua erruduntzat jo zuen, barkamena eskatu, eta zurrumurruek eragin kalteagatik irainduek ezartzen zioten ordaina onartzeko prest zegoela adierazi. Franciscaren lekukotasuna, aitzitik, ez zuen inork jaso; auzian senarra izan zuen ordezkari. Gilek hala eskaturik, Erramu Igandeko meza nagusian Izizeko abadeak Itzalleko elizako pulpitutik irakurri zuen epaiketa agiria, abadearen eta senar-emazte irainduen irudia garbitzearren. Unea ez zuten agian hala-behar hutsez aukeratu; bi egun lehenago jaioa zen *Garzia* etxeko senar-emazteen lehen alaba.⁴¹

Epaiketak epaiketa eta konponbideak konponbide, Gilek ez zuen Itzallen luze iraun. 1858ko otsailaren 22an sinatu zuen azken aldiz parrokiako liburuetan.⁴² Zaraitzu azkeneko aldiz atzean utzi eta Urraulgoitira itzuli zen.

³⁸ «...el relacionante [Jimenez] llevando mas allá de lo regular sus conjeturas, tuvo la desgracia de formar el juicio de si podía estar embarazada» (NEAN, 12385/1 kaxa, Martin Miguel Erro, 1857, 45. zk., 154, gimberra).

³⁹ Burgueteren lehen emaztea, Josefa Palacios itzaltarra, 1855eko kolera aldian hila zen.

⁴⁰ «...hallandosen reunidas algunas de las personas ya mencionadas, y hablando sobre el modo de arreglar y pagar la renta p[ar]a mi subsistencia, exclamó alguna de ellas ¡dar renta! ¡dar renta! ¡Pero si quita la gana de ello con lo que pasa!» (NEAN, 12385/1 kaxa, Martin Miguel Erro, 1857, 45. zk., 152, gimberra).

⁴¹ Deigarria da Pedro Jose Burguetek hil hurren egin testamentuan (1867) Gil bera izendatu zuela betearazle, ordurako adoaindarra aspaldian Itzalleko bikario ez zelarik.

⁴² IEA, Parrokia-Liburuak, 724-2, Itzalle, Hildakoen 1. liburua (1690-1883), 88.

3.8 Azken urteak: Imirizaldu eta Irurozki. Bonaparte Urraulgoitin

Berrogeita hamazazpi urte zituela eta Itzalleko dotrina idatzi zuenetik hiru hamarkada igarota lotu zitzaion Benito Gil bere hondarreko parrokia zereginari, Santa Fetik hurbil, elkarren ondoko Imirizaldun eta Irurozkin. 1858ko abenduan idatzi zuen estreinakoz Irurozkiko bataiatuen liburuan,⁴³ eta hurrengo hilabetetik aurrera Imirizaldukoan.⁴⁴ 1859ko abendutik aitzina bi herriotako parrokia liburuetako ohar guztiak sinatu zituen, noiz bakarrik, noiz beste elizgizon bat lagun zuela, eta Eparozkoak ere bai aldizka 1859-60etan, herriko bikarioaren enkarguz.

Artean osasuntsu baina adinean aurrera, 1865eko abuztuaren 28an testamentua egin zuen Gilek Irurozkin, Irunberriko notario Francisco Oyarbide-ren aurrean, Gabriel Machin Gil ilobaren alde;⁴⁵ Machin zen egun haietan *Perotxeko* etxejauna. Gilek oinordeko bakar izendatu zuen, baina betebeharrak ezarri zion: heriotza gertatu ostean ondasunak bereganatzeko baldintzak zeuzkan agiri bat topatu behar zuen ilobak abade etxean, eta agirian idatzitakoa bete. Hileta eta lur ematea, bestalde, sorterrian izan zitezen nahi zuen.

Litekeena da Gilek hilburukoa egin zuen unean Luis Luziano Bonaparte ez ezagutzea, baina handik lasterrera apaizak eta euskalariak elkarren berri jakin zuten. 1865 aldera Bonaparteren kezka nagusietako bat Nafarroako mintzoen informazioa ongi osatzea zen. Baztertua zuen Agoizko hizkeraz idatzitako dotrina eskuratzeko asmoa, baina inguru hartako euskarari buruz gauza handirik ez zekiela aitortuta (Urkixo, 1910, 283.-284. or.). Zaraitzu eta Erronkaribarko mintzairak nolakoak ziren jakitea zuen ordurako xede nagusi eta argi zuen bi ibarrak hobeki ezagutu behar zituela («une excursion que je finirai tôt ou tard par faire dans ces pays», Urkixo, 1910, 288. or.). 1865eko abendurako bidaiaren nondik norakoak aztertzen hasia zen Etxenikerekin (Urkixo, 1910, 289.-290. or.) eta 1866ko otsail-martxoetan konplitu zuen bere desira (Arana Martija, 1994, 438.-439. or.). Bi aste eman zituen Bonapartek Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkaribarren datu biltzen eta, ondoren, Bidankoze, Ustaize eta Aizpurgi atzean utzita Zabaltzan barrena sartu zen zaldiz Urraulgoitin. Irurozkitik igaro zen lehenik eta Imirizaldutik geroago. 1866ko martxoaren 13a zen.

⁴³ IEA, Parrokia-Liburuak, 640-12, Irurozki, Bataiatuen 1. liburua, 269.

⁴⁴ IEA, Parrokia-Liburuak, 642-4, Imirizaldu, Hildakoen 1. liburua (1599-1880), 26, ginberra.

⁴⁵ NEAN, 5183 kaxa, 151. zk., 754.-757. or.

Gure ustez argi dago Bonapartek egun hartan Gil ezagutu eta berriemaile izan zuela (§ 4.1); Itzalleko dotrina orduan bereganatuko zuen printzeak,⁴⁶ eta beharbada besteren bat ere bai (Garralda *et al.*, 2019, 37. or.). Galdeketa egin zuen Irurozkin, Gilek lagunduta edo adoaindarrari berari seguruenik, eta *gau, gori, gura* gisako erakusleak erabiltzen zituztela ondorioztatu. Iluntzean Agoitza heldu zen Bonaparte, eta ostatuaren ardura zuen emakume longidarrak Agoitzen ere forma herskaridunak zerabiltzatela erantzun zion. Auzi hura printzearentzat munta handikoa izaki Etxenike informazioa berresten saiatu zen ondoren, eta bestelako datuak jaso zituela ematen du. Ur-dazubiarrak datu horiek Klaudio Otaegiri jakinarazi eta honek printzeari igorri zizkion apirilaren 13a baino lehen, baina Bonaparteri oso sinesgarria iruditu zitzaion Agoitzko ostalertsaren lekukotasuna eta erakusleetako herskarien kontrako froga gehiago eskatu zituen. Aldekoak iritsi zitzaizkion, ordea, Benito Gilek berak idatzi omen ziolako Bonaparteri (§ 2) esateko Irurozkin hartutako datuak zuzenak zirela, eta erakusle herskaridunak, Urraulgoiti osoan ez ezik, Agoitzen ere baliatzen zituztela. Ekainaren 7an Otaegiri idatzi zion eskutitzean Gilen eta Longidako berriemailearen ikuspegiaren aldeko agertu zen Bonaparte. Ez dakigu Gilen gutuna betiko galdu den, baina gure ustez ziurtzat jo daiteke 1866an harremana izan zuela printzearekin, bai idatzizkoa, bai aurrez aurrekoa.

Ordurako hirurogeita bost urteak betea zen Gil; ia berrogei zeramatzan apaiz lanetan, eta erdiak baino gehiago Urraulgoitin. 1868ko maiatzean notario protokoloetan gordetako beste arrasto bat utzi zuen; osaba Francisco zenak Adoingo bikario lanagatik irabazi eta sekula jaso ez zuen lansaria bereganatzen lagun ziezaion boterea eman zion Madrilgo Joaquin Bescansari.⁴⁷ Baina adinean gorago eta indarrak eskasago, Gilen egunak amaitzeaz zeuden. 1869ko urrikoa da Imirizalduko parrokia liburuetan idatzi zuen azken oharra,⁴⁸ eta Irurozkiko 1870ekoetan gero eta dardartiago sinatu zuen. Idotzingo patrimonialista bat izan zuen egun haietan lagun; baliteke agirietako letra Gilena ez, eta harena izatea. Irailaren 3an sinatu zuen adoaindarrak azken parrokia oharra eta urriaren 12an, berriro ere Francisco Oyarbide

⁴⁶ Ondorengo lerroetan Rodríguez Ferrer (1976/1873, 75.-76. or.) eta Urkixo (1910, 293. or.) izan ditugu oinarri.

⁴⁷ NEAN, 5186 kaxa, 71. zk.

⁴⁸ IEA, Parrokia-Liburuak, 642-2, Imirizaldu, Bataiatuen 1. Liburua (1584-1881), 69. 1870 hastearekin batera Fernando Indurain ageri da abade.

notarioa lekuko, boterea eman zion Irurozkiko Angel Blancori aurrerantze-ko negozio guztietan ordezka zezan.⁴⁹

Sei egun geroago hil zen Irurozkin bertan Benito Gil, 1870eko urriaren 18an, herriko elizaren beharretarako laurogei erreal aginduta. Biharamun gauean, meza esanik, hilerrira eramán zuten gorpua. Azaroaren 3an hileta elizkizuna izan zen Adoainen, Irurozkikoak ez ezik beste zenbait herritako elizgizonak ere bildu zirelarik.⁵⁰

4 Benito Gil, Urraulgoiti eta euskara

Ez da lan honen xede nagusia Benito Gilek erabilitako euskara aztertzea. Dena den, hizkuntzaren lekuko izan zelako dugu ikergai eta, horregatik, Gilen nondik norakoak argiturik, adoaindarra eta euskara lotzen dituzten zenbait alderdi laburbilduko ditugu.

4.1 Gil, Bonaparteren berriemaile

Benito Gil Bonapartek Agoitz-Irunberrialdeko euskararen gainean jasotako albisteen iturrietako bat izan zen; iturri nagusia agian, bere apalean. Printzeak Aietxu, Adoain, Mugeta eta Agoitzi buruzko ohar gutxi batzuk bildu zituen idatziz.⁵¹ Aietxukoetan «de Zabalza» eta «en Zabalza» idatzi zuen, Zabaltzan topatutako berriemaile aietxuar batek eskaini zizkion seinale.⁵² Adoaingo datuek «de Irurozqui» / «en Irurozqui» idatzita dutenez eta orrialde horietan esandakoak esanda, Gilen bidez eskuratu zituela uste dugu. Aietxuri buruzkoak baino zabalagoak dira, haiek ia guztiz berretsi ez

⁴⁹ NEAN, 12087/1 kaxa, 126. zk.

⁵⁰ IEA, Parrokia-Liburuak, 640-16, Irurozki, Hildakoen 1. liburua, 630, gimberra.

⁵¹ Oharren kopia mikrofilmatu bat NEAN-n dago; horixe kontsultatu dugu (2c2: *Manuscriptos vascos, Dialectos compartidos (1)*). Bonaparte Bilduma, 29. agiria). Originala Bizkaiko Foru Agiritegian dago: <https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/bitstream/handle/20.500.11938/81948/b12928367.pdf?sequence=1&isAllowed=y>. Georges Lacomberen bilduman dauden oharrek ere interneten daude ikusgai: <https://dokuklik.euskadi.eus/badator/visor/008/0052#> (Azken kontsulta: 2022/02/27).

⁵² Besteak beste zenbait aditz forma jaso zituen (*naiz, zara, da, gara, zate, dre, erran dira...*) eta izen batzuk ere bai (*ilargia, iruzkia, osotsa, oñaztura, kísua, éskua...*). Ez dakigu nor izan zuen berriemaile. Baliteke apaiza ez izatea: 1866an Candido Ezquerrena Rande zen Zabaltzan behin-behineko abade, baina Ezquerrena iruindarra zen, San Joan Bataiatzailearen parrokian 1841ean bataiatua.

ezik,⁵³ aberastu ere egin zituelako, deklinabideari edota aditzari buruzko xehetasunen bat gehituz. Longida eta Agoitzerako, bestalde, bi iturri erabili zituen gutxienez Bonapartek 1866an, eta bietako bat Gil izan zela ikusi dugu (§ 3.8).

4.2 Gilen dotrina eta Urraulgoitiko euskara

Adoingoak 1827an idatzitako Itzalleko dotrinak, euskararen lekukotasun gisa duen berezko interesaz gain, badu zer azterturik. Lanaren hasieran aurreratu dugun bezala (§ 2) Iñaki Caminok aspaldi samar jarri zuen agerian — artean Gil Urraulgoitirekin eta XIX. mendearekin behar bezala lotu gabe zegoela— bazirela dotrinan zaraitzuerara baino nafarrerara begirago ziruditen ezaugarri batzuk (1995, 106. or., 1997, 160.-162. or.).⁵⁴ Orainago (2011, 813. or.) Itzalleko idazkia aipatu du ostera ere Caminok, adieraziz nafarreratik zaraitzuerarako jauzian gertatu elkargunearen seinale ziratekeen ezaugarriak erakusten dituela. Ikertzaile donostiarrak nabarmendu du dotrinak badiuela interesik bi hizkeren arteko ukipen gunea aztertzeke.

Ukipen gunea hori nahi baino okerrago ezagutzen dugu, tamalez; handia da Urraulgoiti inguruko lekukotasun eza. Baina Gil Itzalleko dotrinaren egilea ez ezik Bonaparteren Adoingo berriemailea ere izan zela onarturik, zerbait esan daiteke Adoingo eta Itzalleko mintzoen arteko aldeaz: 1827ko dotrina, Zaraitzuko garaikideak eta Gilek Bonaparteri 1866an eman zizkion datuak erkatuta, adoaindarrak Itzalleko kristau ikasbidean bere mintzoa baliatu ordez Zaraitzukurora hurbiltzeko egin zuen ahalegina antzeman daiteke. Batetik, Adoainen *gau*, *gori*, (*g*)*ura* erakusleak erabiltzen zirela esan zion printzeari, baina Zaraitzun barrena ohikoak ziren *cau*, *cori*, *cura* aukeratu zituen Itzallen. Bestalde, hirugarren pertsonako erakuslearen absolutibo pluralerako *curac* hautatu zuen Gilek —*urac* izenordain gisa zihoanean—, Adoaini buruzko oharretan Bonapartek *gaek* idatzi zuen arren. Ergatiboan ere, hasierako herskari ahostuna duen *carec* erakuslea eta hura gabeko *arec* izenordaina daude dotrinan, Adoainen omen zerabilten *garek* bazterrean utzita.⁵⁵ Horrekin batera, pertsona bakarreko *niz*, *gra*, *zra*, *dra* iragangaitzak

⁵³ *Zarate* zerabilten Adoainen (eta ez *zate*), baina gainerakoan «lo mismo que en Ayechu» adierazi zuen.

⁵⁴ Pagolak *et al.*-ek (1997, 219. or.) dotrinari zerion polimorfismoari buruzko oharren bat egin zuten, baina ez ziren haratago joan.

ageri dira testuan,⁵⁶ Zaraitzu osoko joera nagusiarekin bat eginez, baina Adoainerako *naiz, gara, zara, zarate* eta *dre*⁵⁷ eman zituen Gilek. Halaber, iduri luke Zaraitzun ohi zen bezala kristau ikasbidean Gilek sistematikoki emaniko *-aren* genitibo singularra ez datorrela bat Adoainerako Bonapartek jaso zuen *-ain* atzizkiarekin. Horrekin batera, **eradun* erroko forma triper-sonalak aukeratu zituen Gilek 1827an (*dauzquizut, daucula, dauzcuyen*), baina printzeak Zabaltzan zein Irurozkin jasotako *dira* (= *dit*) adizkiak Urraulgoitin *-i(n)-* erroko formak erabiltzen zituztela iradokitzen du. Azkenik, *iguzqui* dago dotrinan, Zaraitzun barrena nonahi legez, Bonapartek Aietxu eta Adoainerako *iruzki* jaso bazuen ere.

Laburbilduz, Itzalleko dotrinan Gilek ez zuen sorterriko euskara erabili, guregana heldu diren Urraulgoitiko hizkuntza ezaugarri urriei begira. Ezaugarri horietarako Zaraitzuko testuen argitan espero zitezkeen hautuak egin zituen *Perotxeko* semeak. Itzalletik hurbil jaioa zenez, ongi ezagutuko zuen auzoen euskara, eta litekeena iruditzen zaigu aukeratu zituen formak Zaraitzu osoan zeharrekoak ez ezik Itzallekoak ere izatea.

Baina bistakoa da, halaber, Caminok adierazi bezala, Gilen dotrinan badi-rela Zaraitzuko lekukotasun garaikideen argitan bitxiak diren zenbait hizkuntza ezaugarri. Ez dira asko; polimorfismoa ageri du Gilek ia denetan, eta zoritxarrez ezin ditugu Urraulgoitiko datuekin behar bezala alderatu, Bonapartek ia ez baitzuen ezaugarri haiei buruzko albisterik jaso. Caminok aipatu ezaugarriak instrumentaleko nahiz herskarien aurreko noizbehinkako txistukari apikaria (*uscaras, emastea*),⁵⁸ *deus* hitzarekin batera sarri erabilitako *daus*, zaraitzuerako *zoin* galdetzailea baino sarriagoa den *zein*, eta Zaraitzuko katiximetako *beitarte* elearen orde z ageri den *aurpegi* dira. Talde berekoa izan liteke Gilek dotrinan behin bakarrik baliatutako *-n* gabeko lehenaldi hau: «Norc erranzue Avemaria?» (Pagola *et al.*, 1997, 226. or.), printzeak Urraulgoitin eta Agoitzen bildutako *etor(ri) ze* formarekin bat datorrena.

Ezaugarri horiek Urraulgoitin zuten hedadura ziurtatzeko moduko aingura testurik ez dago. Aita Esteban Adoangoak Lapurdiko eta Nafarroako ipa-

⁵⁵ Badirudi Urraulgoitiko erakusleetan nagusi zen herskari ahostuna ez zela (hain) ohikoa leku aditzondoetan. Gilek Bonaparteri idatzi omen zionez *gao* (sic; *gau*), *gura* eta *gor* ibar osoan zebiltzan «aunque no el *gan* y el *jacmen* (*guemen?*) ó *gaen* (*guen?*)» (Ferrer, 1976/1873, 75. or.).

⁵⁶ Behin *zirade*.

⁵⁷ Longida sortaldeko Mugetan, Urraulbeitiko mugan, *dre* orde z *dere* egiten zela jaso zuen Bonapartek.

⁵⁸ Orontzeko dotrinetan bederen bada amaierako apikariren bat salbuespen gisa.

rraldeko eliztarrentzat idatzi zituen bere euskal testuak, berak ere entzuleen euskara zuela oinarri, eta sorterriko oihartzunekin osatuz;⁵⁹ Urraulgoitiko datuak ongi finkatzeko kaputxinoa ez da 1827ko dotrina baino baliagarriagoa.⁶⁰ Horrenbestez, ezin da argiro ziurtatu Gilen arestiko ezaugarri *bitxiak* zaraitzueratik nafarrerarako balizko trantsizioaren arrastoa diren edota, besterik gabe, Itzalleko mintzora egokitu nahi zuen Adoaingo apezari noiz-behinka ihes egindako sorterriko uzta. Zalantzak zalantza, guk bigarren aukera honen alde egingo genuke; izan ere, gutxitan aldendu zen Gil zaraitzuerazko formatatik, aldendu zenetan nafarreraz ohikoak ziren ordainak baliatu zituen beti, eta ordain horiekin batera Zaraitzukoak ere ematen zituen, gainera. Ohart bedi, bestalde, Zaraitzuko datuak biltzean Bonapartek xehetasun handiz markatu zituela zenbait erabilera bitxi eta salbuespen moduko, Galoze aldeko baten bat ere bai. Ez zaigu iruditzen Itzallen *zein/zoin* edo *deus/daus* bezalako bikoiztasun esanguratsuak izan balira bildu gabe utziko zituenik. Hitz gutxitan, sinesgarriagoa iruditzen zaigu *zein* eta *dausen* agerpena, noizbehinkako apikariak edota *-n* gabeko lehenaldia Adoaingo ezaugarriak izatea, ez Itzallekoak, eta Gilen luma tarteka ama hizkerara lerratzearen ondorioz agertu izana.

4.3 Adoain ingurua eta sortaldeko auzoak

Ez dakigu zehaztasunez zenbaterainoko jauzia zegoen Zaraitzuko euskaratik Urraulgoitikora, baina inolako trantsizio gunerik izan bazen, oso litekeena da Itzalle, Adoain eta Aietxu harrapatzea. Zaraitzun Urraulgoitira begira bizi zen herririk bazen, Itzalle zen hura; Urraulgoitin, aldiz, Aietxu eta Adoain ziren Zaraitzurekin harremanik sendoena zutenak (3. irudia). Malkartsua da Adoain-Itzalle ingurua, udal administrazioak aspaldian eta orografiak betidanik banandua, baina beharrak eraginda eremu menditsuek ez dute beti giza harremanak eteteko aski indar izan (Camino, 2003, 9. or.). Itzaltarrek harreman ona izan dute mende luzeetan urrauldarrekin, ez Zarai-

⁵⁹ «El padre Adoain hablaba un vasco raro, mezcla de dialecto usado en Francia y de reminiscencias de su juventud» (Zubeldia, 1944, 412. or.). «El [euskera] que usa en sus escritos es fundamentalmente el dialecto labortano (...) Es cierto que mezcla ese dialecto con reminiscencias de su juventud (...) que mamó en su infancia y practicó en exclusiva hasta que fue a Pamplona a los veinte años y que volvió a practicar cuando atendió las parroquias de Iruozqui e Imirizaldu» (Ondarra, 1985, 353.-354. or.).

⁶⁰ Hala ere, Aita Esteban eta Gil alderatuta atera daiteke ondorioz. Txistukari apikariaren oihartzun apala, esaterako, oso antzekoa da biengan.

tzuko auzoekin baino epelagoa, eta Adoainen ere Itzalleri buruzko antzeko pertzepzioa jaso dugu.⁶¹

Urraulgoititik Zaraitzurako aterabide naturalak Itzalle eta Uskartze ziren; oroz gain lehenbizikoa. Bi ibarren arteko bide nagusiak Aietxu zein Adoain Itzallerekin lotzen zituztenak, eta Zerregano bietan barrena Uskartzera zihoana ziren. Itzalletik Adoainerako bidean hogeit hamar minutura Atebera (edo Atazpea) eta Ategaña izeneko bi pasabide daude, harri bizia zulatuz egindakoak. Pasabideok eta Tobo erreka zeharkatzen duen zubia —Arzubi— bi herrien arteko loturak zuen garrantziaren seinale dira.⁶² Zubia bera bezain sendoa izan omen zen Adoain eta Itzalleren arteko komunikazio ardatza, ondoren Itzallen barrena Gorzarako bidea hartzen zuena, Gorza omen zelako —eta ez Galoze, egun den gisan— Itzallekoen sarbidea Zaraitzun barrena ibiltzeko. Adoainekin bezala, Aietxurekin ere harreman estua zuten itzaltarrek, Araxamendi inguruko larreak partekatzen baitzituzten.⁶³ Itzalle abeltzainen herria izan da beti, eta aziendak elikatu beharrak zerikusi handia izan du Adoain eta Aietxu aldera dauden mendietara jotzearekin eta Urraulgoitirekiko loturarekin. Iparralderago, Elkoatzek eta Aristuk harreman estuagoa zuten Arizkuren edo Azparrengo artzibartarrekin.

Ez da baztertzekoa, orobat, Zabaltzak eta Adoain ibarttoko biziguneez (Adoainek, Gindanok, Zerreganok) Nabaskozeko almiradioarekin zuten lotura, Urraulgoitiko gainerako herriek zutena baino estuagoa. Larraun, Ezkanitz edo Ongozko biztanleek, besteak beste, Areta ibaian beheiti garraiatzen zituzten enborrak Arripodaserantz. Adoaingoek, errepidea egin arte, herriko errekan behera eramaten zituzten, Gindanon barrena, Aizpurgiko Bentaraino (San Martin *et al.*, 1966, 106.-107. or.). Almiradioko behinolako euskararen nondik norakoaz Urraulgoitikoaz baino are gutxiago dakigu; Arrakasgoiti euskaraduna zen XIX. mendean (Bonaparte, 1872, 25. or.), Arrakasbeiti ere bai XVIII. mende hondarrean⁶⁴ eta Ustaise, aldiz, guztiz erdaraduna omen zen XVII.era (Jimeno Jurio, 1993). Gure ustez, arinegi jokatzeko litza-

⁶¹ Adoaini buruzko zenbait albiste interesgarri *Gilko* etxean jaso ditugu; Itzallen, berriz, Jose Orduna eta oroz gain Pio Sarries izan ditugu berriemaile nagusi.

⁶² *Ado(a)ingobide* toponimoa ezaguna da oraindik Itzallen. XX. mendearen erdialdean Adoain Zabaltza eta Irurozkirekin lotu zuen errepidea egin zutenean, Adoaingo *Gilko* etxeko jaunak esan zuen hobe izango zutela errepidea Aizpurgi edo Itzalle aldera egin balute.

⁶³ Gaur *Raja* esaten diote Itzallekoen eta Aietxuko behinolako partzuergo eremuari. Bi herrien artean erdibanatuta dago 1979tik, ordura arteko herri lurra izateari utzita.

⁶⁴ IEA, Prozesuak, 2.075 kaxa, 7. zk.

teke Aizpurgi eta Nabaskozeko hizkuntza egoera Ustaizekoarekin parekatzea; auziak ikerketa sakonagoa behar du.



3. irudia. Urraulgoiti ibarra eta inguruko herriak.

Urraulgoiti sortaldeko herriek ekialdeko auzoekin izan zuten harremanaren oihartzuna ekar dezaketelakoan, XVIII. mende hasieratik XIX.era bitarteko ezkontzak aztertu ditugu.⁶⁵ Esanguratsua da urte haietan esposatutako itzaltarren % 17k zuela Urraulgoitiko ezkontidea (Adoaingoa batez ere), baina Gorzatik Uskartzera bitarteko beste herrietakoen % 4-6k gehienez. Bestalde, adoaindarren % 20 ezkondu zen zaraitzuar batekin; Itzalle eta Uskartzekoekin, oroz gain. Adoain ibarttoko biztanleen % 18 lotu zen Zaraitzu aldera; Areta eskuinaldeko gainerako herrietan, Aietxutik Zabaltzara, % 5 bai-

⁶⁵ 1730 eta 1820 bitarteko Urraulgoiti, Zaraitzu, Erromantzatu eta Nabaskoze inguruko 24 herritako 1369 ezkontza agiri aztertu ditugu. Parrokia batzuetan, tamalez, ez da gorde epe hartako agiririk (Aietxun, Jakoistin) edo gorde direnak oso berankorrek dira (XIX. mende hasieratik aurrerakoak Ezkanitzen, Aizpurgin eta Biotzarin).

no ez.⁶⁶ Zabaltzarrek, bestalde, lotura sendoa zuten Aizpurgikoeekin:⁶⁷ elkarren artean edo inguruko beste herrietakoeekin baino sarriago ezkondu bide ziren haiekin.

Esandako guztiak ez du hizkuntza ondorio zuzenik ematen ahal; ezin dugu ziurtasun osoz baietsi Itzalleko euskara Zaraitzuko gainerako herrieta-koa baino hurbilago zegoela Urraulgoitikotik. Nolanahi ere, agerikoa da gure ustez Urraulgoiti hego-ekialdeak aipatzeko moduko lotura izan zuela Zaraitzu hegoaldearekin eta Almiradioko zati batekin; ez litzateke harritze-koa giza harreman estu eta jarraiak mintzoen arteko jauziak arindu eta hizkuntza mailako ondorioak eragin balitu.

4.4 Gilek Urraulgoitin erabilitako hizkuntzaz

Agoitzalde eta Irunberrialdeko herri askotan XIX. mendean eten zen euskararen jarraipena; Urraulgoitiko hizkuntza egoera XVIII.ean aldatzen hasi eta goitik behera irauli zen hurrengoan. Benito Gil sortu aurreko urteetan oso euskaradunak ziren ibarreko herriak, iparraldetik hegoaldera. 1762an Oibarko elizgizon batek uko egin behar izan zion Aristuko parrokia ardurari, euskara ezinbestekoa zela ikusita, eta Aizkurgiko urraular batek ordezkatu zuen (Jimeno Jurio, 1997, 166. or.). XVIII. mendearan amaieran euskaraz egin ohi ziren predikuak Santa Fen, nahiz eta gaztelania erabiltzen hasia zen kanpotarrak hurbiltzeagatik edo tarteka euskarazko sermolaririk ez zegoelako (Jimeno Jurio, 1991, 237. or.). Gindanon 1770eko hamarkadan hasi omen zen erdara dotrinaren bidez zabaltzen (Jimeno Jurio, 1991, 238. or.), baina 1785ean Gindano eta Zerenganoko lau biztanletik hiru ez ziren erdarazko solasari eusteko gai (Jimeno Jurio, 1991, 241. or.). Gilen zahartzaroan, aldiz, oso bestelako egoera islatu zuen Bonapartek bere mapan: Urraulgoiti erdia irudikatu zuen euskararen eremutik at, Adoain, Ongotz eta Lareki hizkuntza mintzatuaren azken mugatzat jota (Bonaparte, 1863).

Nolanahi ere den, Gilek eta Aita Estebanek erakusten digute 1800 aldera jaiotako adoaindarrak euskaradun hazi zirela. Munta txikikoak ez diren galderak eragiten ditu horrek: ea zein hizkuntzatan arituko zen Gil bere ibarreko eliztarrekin, sortuko ote zuen Itzallen bezala haiendako euskal testurik.

⁶⁶ Aietxuko parrokiako datuak galdu direnez beste herrietara esposatutako aietxuarren arrastoari bakarrik jarraitu dakioke.

⁶⁷ Almiradioko Aizpurgiri buruz ari gara; horrez gain, Aizkurgiko urraulgoitiarrekin ere harreman estua izan du beti Zabaltzak, ondo-ondoko bizilagunak izanik.

Galderok ez dute gaur-gaurkoz erantzunik, baina *Perotxeko* semeak Urraulgoitiko abade lanean topatu zukeen hizkuntza egoeraz hausnarketa egiteko bidea ematen digute.

Gil hogeita zazpi urtez aritu zen Pardixerrian (1833-1848, 1858-1870). Ez da bere izena duen urte haietako testurik agertu, baina oso litekeena da sermoiak prestatu behar izatea, guztiz ere Santa Feko egonaldian: adierazi dugun bezala (§ 3.6), Gilek bete beharreko araudiak argi eta garbi utzi zuen prioreak urteko egun jakinetan predikua egin behar zuela. Ez zen araudian esan prediku haiek zein hizkuntzatan egin behar ziren, baina Garizumako igandeetan salbea erdaraz izan zedila agindu zen.⁶⁸ Ibarrean zehar gertatzen ari zen hizkuntza aldaketaren isla ematen du aginduak, baina aldi berean salbea izan ezik arrosarioaren gainerako zatiak euskaraz egiten zituztela adieraz lezake beharbada.

Horrenbesterainoko bizitasunik izango al zuen euskarak Baratzagaitz inguruan Benito Gilen denboran? Areta ugaldearen ertzean (Eparotz, Santa Fe, Irurozki, Imirizaldu) zein sortalderago (Aietxu, Ezkanitz, Adoain, Gindano) topatu dugu Gil 1833tik 1870era arte. Bonaparteren mapa estu-estu hartzera, zortzi gune horietako seitan ez zegoen euskararik 1863rako. Baina Bonaparte oso zorrotza izan zen eremu euskalduna mapan mugatzean; ezaguna da herri bat zeharo erdalduntzat jo zezakeela bertan sortutakoek euskara guztiz ahantzia ez izan arren.⁶⁹ Eta XIX. mende erdialdean Urraulgoitiko euskara Bonaparteren mapak adierazi baino apur bat sasoikoago zegoela susmarazten digu zenbait albistek.

⁶⁸ «...los referidos sermones de los domingos de cuaresma se han de predicar dando principio a las dos y media en punto (...) saldrá el Prior de su casa a la misma puerta con sobrepelliz, estola y bonete puesto, y quitandolo dará principio al Santo Rosario (...) hasta el ultimo decenario, y la letanía, y a continuación la salve en romance, cantada (...) concluido esto subirá al púlpito, y predicará primero un punto de doctrina Cristiana...» (Araudiaren 16. puntua. IEA, 2993 kaxa, 10. zk.).

⁶⁹ «Je considère donc Luco, Ullibarri de Gamboa, Landa, Zuazo, Nanclares et Luyando comme des localités entièrement castillanes (...) Que bien des personnes y sachent parler le basque ne change pas ma manière de voir. En effet ces personnes qui savent parler le basque, entre elles ne se servent pas de cette langue, et elles ne l'emploient, je suppose, qu'avec des basques venant de los caseríos (sic) ou d'autres localités où l'on parle le basque (...) du moment que ces personnes n'emploient cette langue qu'avec des gens de la campagne qui demeurent en dehors des localités en question, et non pas dans ces trois villes elles-mêmes, le nom de basques même en minorité, ne peut pas leur convenir» (Bonapartek Etxenikeri idatziriko eskutitza, 1862-8-22. Urkixo, 1910, 255. or.).

Elkoatzen, ibarraren ipar muturrean, San Martinek *et al.*-ek (1966, 118) aipatu Juan Mateos Antonio Ayechu Sarries euskal hiztuna 1841ean sortu eta 1919an hil zen, eta Juan Fermin Errea Inda, aldiz, 1859an jaio eta 1943an zendu. *Aleman* etxeko Jose Villanueva Cabodevilla zenak (1856-1946) ‘zerbait’ zekiela esan zioten San Martini, baina, jakin dugunez, 1889an sortutako alaba gai omen zen herrira heltzen ziren tratulari euskaldunek ziotena uler-
tzeko. San Martinek berak bildua da Bonapartek zeharo erdalduntzat jo-
zuen ibar hegoaldeko Irurozkin euskara entzuten zela 1860 aldera, Gil herri-
ko bikario zelarik alegia. Ozkoidiko Dominica Echarte Gil, 1840ko abuztuan
jaioa eta Eparotz eta Ozkoidiko gurasoak zituena, euskaraz moldatzen zen
mendialdetik heltzen zirenekin; andere hark esan zuenez, haurra zenean
euskara zen eguneroko hizkuntza Ozkoidin. Aietxun, bestalde, 2018an go-
goan zuten 1859an sortutako *Espartzenako* etxeko jaun euskalduna⁷⁰.

XIX. mendearen erdialdean euskara higatzen ari zen Urraulgoitin zehar
—hegoalderago eta higatzenago, ez bairik gabe— baina zenbait herritan gu-
txienez ez zen soilik Benito Gilen belaunaldiaren eta adinekoen hizkuntza.
Baziren hiztun gazteak; Elkoatzen edo Aietxun, esaterako. Gil 1840 aldera
ibili zen Aietxun, eta arestian adierazitakoaren arabera ematen du adin guz-
tietako eliztar euskaldunak izango zituela, izan zezakeela euskararen behar-
ra eguneroko parrokia jardunean. Ez Aietxun bakarrik: Gilek Bonaparteri
1866an erakusle herskaridunak *Urraulgoiti osoan* (§ 3.8) indarrean zeudela
esan bazion, herri ugaritan entzungo zituen seinale ematen du horrek, ez
Adoainen edo ipar muturrean bakarrik. Ez dakigu Gilek Urraulgoitin euska-
razko predikurik idatzi zuen, Itzallen bezala eliztarrei egokitutako euskaraz-
ko dotrina baten beharra sentitu zuen. Baina ez dugu zalantza handirik iba-
rrean zeharreko abade zereginetan euskara baliagarri eta are beharrezko
izango zuela zenbait unetan bederen.

5 Azken hitza

Euskara nafarraren ekialdeko muga zegoen Adoain herrixkan bi euskal
autore garaikide jaio ziren XIX. mendean: aski ezaguna den Aita Esteban
kaputxinoa, eta, Itzalleko dotrina idatzi arren, ezezagun samar iraun duen
Benito Gil Tabar. Gil ez zen ez XVIII. mendekoa, ez itzaltarra, baina *lapsus*
calami batek eta datu eskasiak eraginda behar bezala kokatu gabe egon da
luzaroan.

⁷⁰ IEA, Parrokia-Liburuak: 642-1 & 641-10 (Elkoatz), 640-6 (Ozkoidi), 642-6 (Aietxu).

Euskara Zahar eta Klasikoari ez, baizik eta Lehen Euskara Modernoari dagokion 1827ko zaraitzuerazko dotrina idazteaz gain, Adoingo mintzoaren zenbait ezaugarri jakinarazi zizkion Gilek Bonaparte printzeari 1866an, eta Aietxuri buruz jasotakoak berretsi ere bai. Nahi baino lagin urriagoa osatzen dute, baina haiei esker Urraulgoitiko euskarari buruzko informazio iturririk zabalena dugu Gil, eta izenez ezaguna den datu emaile bakarra.

Urraulgoitiko zenbait parrokiatako abade eta Santa Feko Baratzagaitz basilikako priore izan zen Gil, baina Itzallen ekin zion erretore lanari. Ez hori bakarrik: apez gazte heldu berria zela zaraitzuarren mintzoa paperean txukun jartzeko gaitasuna erakutsi zuen. Itzalleko kristau ikasbidearen egilea, ingurune menditsuak galarazi ez zuen Zaraitzu hegoaldearen eta Urraulgoiti sortaldearen arteko harremanaren adibide gisa ageri zaigu.

Harreman horrek euskara nafarraren eta zaraitzueraren arteko jauzia inon (eta zenbateraino) leundu zuen jakitea, ordea, ez da lan erraza. Datuak falta dira; Urraulgoitikoak, oroz gain. Nolanahi ere, Gilek argi izpi zenbait utzi zuen: Itzalleko eliztarrendako dotrina eta Adoingo mintzoari buruzko xehetasunak hari zor dizkiogunez, Aldaxurreko mendilerroaren alde biak neurri batean behintzat erkatzeko bidea ematen du, eta erkaketak erakusten du Itzalleko mintzoa eta Adoingoa ez zirela bat eta bera, bazela alde argirik ezaugarri esanguratsu zenbaitetan.

Zaraitzu eta Urraulgoitiko mintzoen arteko elkargunerik izan ote zen argitzeko oso interesgarria litzateke jakitea ea Itzalleko eta Adoain-Aietxuko mintzoak zein bere ibarreko auzo herrietakoak bezalakoak ziren, edo neurri batean bederen elkarrengana bilduta ote zeuden. Gilen dotrian ez dugu ikusten Itzalleko euskara Zaraitzuko beste herrietan zerabiltena ez bezalako zela baieztatzeko pisuzko arrazoirik; han-hemenka aurki daitekeen polimorfismoa, Itzalleko berezitasuna baino gehiago, Gilen sorterriko mintzoaren isla delakoan gaude. Dakigun apurraren arabera bertsuak diruditen Adoain eta Aietxuko hizkerak Urraulgoitiko beste eremuetan egiten zen euskaratik ezertan aldenduta zeuden jakiteko, aldiz, lekukotasun berrien argia beharko genuke, edo gaur umezurtz dirauen testuren bati bihar egilea eta testuingurua egokitzeak eman lezakeena.

6 Erreferentziak

- Arana Martija, J. A. (1994). Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bi-delagun Nafarroan zehar. *Euskera*, 39, 435-440.
- Artola, K. (2005). Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (9. Espartza: ahozko testuak). *Fontes Linguae Vasconum*, 99, 213-264.
- Artola, K. (2014). *Ziorditik Uztarrozeraino. Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa oinarri. III. Atala. Entzungaiak*. Aranzadi.
- Bergier, N. S. (1831). *Diccionario enciclopédico de Teología* (Garcia Consul, itz.). Catalina Piñuelaren ondorengoen inprimategia.
- Bidador, J. (2004). *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra*. Pamiela.
- Bonaparte, L. L. (1863). *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Standford's Geographical Establishment.
- Bonaparte, L. L. (1872). *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal: tels qu'ils sont parlés à Arike, à Jaurrieta et à Vidangoz*. John Strangeways.
- Camino, I. (1995). Abiaburu bat aezkeraren azterketarako. In R. Gomez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)* (ASJUren gehigarriak, 28) (59.-160. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Camino, I. (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (2003). *Hego-nafarrera*. Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (2011). Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak. In A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri Zaratiegi (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra* (IKER, 26) (773.-822. or.). Euskaltzaindia.
- Echeverria [Fr. Felipe de la Virgen del Carmen]. (1828). *El párroco, pláticas doctrinales y morales para todos los domingos y fiestas principales del año*. Francisco Magallon.
- Erize, X. (1997). *Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Nafarroako Gobernua.

- Garralda, E., Pulido, A. & Auzmendi, I. (2019). *El renacimiento cultural vasco en el valle de Salazar. Federico Garralda Argonz y su entorno (1881-1929). Euskal pizkundea Zaraitzuko ibarrean. Federiko Garralda Argontz eta ha-ren ingurua (1881-1929)*. Lamiñarra.
- García Cortés, C. (2001). José Jacinto del Río López (1757-1819): apuntes biográficos de un sacerdote eumés. *Cátedra*, 8, 181-204.
- Huarte, G. (2019). *Cruce de caminos. Nagore (Arce)*. Fundación Navarra Cultural.
- Jimeno Jurio, J. M. (1991). El vascuence en Urraúl Alto (1785). *Fontes Linguae Vasconum*, 58, 227-246.
- Jimeno Jurio, J. M. (1993). Salazar / Almiradio. Muga lingüística (1605). *Fontes Linguae Vasconum*, 63, 235-252.
- Jimeno Jurio, J. M. (1997). *Navarra. Historia del euskera*. Txalaparta.
- Lekaroz, G. (2014). Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I). *Fontes Linguae Vasconum*, 118, 247-278. <https://doi.org/10.35462/flv120.2>
- Madoz, P. (1846/1986). *Navarra. Diccionario geográfico-estadístico-histórico. Ámbito*.
- Ondarra, F. (1985). Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoáin (1808-1880). *Fontes Linguae Vasconum*, 46, 343-406.
- Pagola, R. M., Iribar, J. J. & Iribar, I. (arg.). (1997). *Bonaparte ondareko eskuiz-kribuak: zaraitzera*. Deustuko Unibertsitatea.
- Real Academia de la Historia. (1802). *Diccionario geográfico-histórico de España, Sección I (Navarra, Vizcaya, Álava, Guipúzcoa)*. Joaquín Ibarren alarguna.
- Reguero, U. (2017). XVIII. mende erdialdeko Etxalarko dotrina. *Fontes Linguae Vasconum*, 124, 354-367. <https://doi.org/10.35462/flv124.5>
- Reguero, U. (2019). *Filologiatik Dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)*. UPV/EHU.
- Riezu, J. (1958). El príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana*, 70-71, 149-164.
- Rodríguez Ferrer, M. (1873/1976). *Los vascongados. Su país, su lengua y el Príncipe L. L. Bonaparte*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Salaberri Zaratiegi, P. (1989). Nafarroan erabiltzen diren zenbait toki-izenez. *Fontes Linguae Vasconum*, 53, 55-60.
- San Martín, J. & Peña Santiago, L. P. (1966). Estudio etnográfico del valle de Urraúl Alto (Navarra). *Munibe*, 18, 69-160.

- Santazilia, E. (2016). Zaraitzueraren lekukotasunak XVIII. mende bukaeran: hiru testu zahar eta autore berri bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 121, 67-120. <https://doi.org/10.35462/flv121.2>
- Satrustegi, J. M. (1978). Adoain-go Esteban agurgarriaren esku-iskribu bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 29, 299-306.
- Ulibarri, K. (2015). *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15971>
- Urkixo, J. (1910). Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores (1) (Continuación). *RIEV*, 4(2), 233-297.
- Vilallonga, J. (1957). Introducción a un estudio sobre Luis-Luciano Bonaparte y sus trabajos. *Extraits de Euzko-Jakintza*, VII. bolumena (1953-1957), 39-68.
- Zubeldia, M. [Gumersindo de Estella] (1926). *El Padre Esteban de Adoáin. Sucesos extraordinarios de su vida*. Ricardo Garcíaren alarguna.
- Zubeldia, M. [Gumersindo de Estella] (1944). *Historia y empresas apostólicas del siervo de Dios P. Esteban de Adoáin*. Aramburu.

Ahaletik alera: partikula baten gramatikalizazio bidaia

From *ahal* to *al*: a particle's grammaticalization path

Aitor Lizardi Ituarte
UPV/EHU
aitor.lizardi@ehu.eus

LABURPENA

Lan honen helburua da *al* galde partikularen esanahia hobeto ezagutzeko bidea irekitzen laguntzea. Gramatika eta eskuliburu gehienek (Euskaltzaindia, 1987, 2016; de Rijk, 2008) hautazko galdera osoen markatzailetzat badute ere, ikuspegi hori zalantzan jartzen duten datuak erakutsiko ditut. Bi galdetegiren emaitzak aurkeztu eta iruzkinduko ditut. Lehen galdetegian, *ali* jatorri duen *ahal* partikulatik (Monforte, 2020) zer geratzen zaion ikusteko, *aldun* galderak epistemikotasunik gordetzen duten begiratuko dut. Bigarren galdetegian, *alen* eta hizketa ekintzaren arteko elkarreragina arakatu dut, eta hizketa ekintzak *alen* agerpenean eragina duela ondorioztatuko. Orain arteko iritzien aurka egingo dut, beraz, eta *al* galdera markatzailea baino galderaren hizketa ekintzaren erregulatzailerak dela proposatuko dut.

Gako hitzak: partikula modalak; pragmatika; epistemikotasuna; hizketa ekintza.

ABSTRACT

This article aims to reach a better understanding of the Basque particle *al*. Even though most grammars (Euskaltzaindia, 1987, 2016; de Rijk, 2008) describe it as a yes/no question marker, I will show data that challenges this view. I will present the results of two surveys. In the first survey, I will explore the possible epistemic dimension of *al*, due to its grammaticalisation from the epistemic particle *ahal* (Monforte, 2020). In the second survey, I will investigate the relation between the question's speech act and *al*. Against common descriptions, I will propose that *al* regulates the speech act of the interrogative sentence.

Keywords: modal particles; pragmatics; epistemicity; speech act.

Ikerketa hau ondoko ikertalde eta proiektuen diru iturrirei esker garatu da: VASTRUD proiektua (PGC2018-096870-B-I00), Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetako Ministerioak (MiCIU) / Espainiako Ikerketa Agentziak (AEI) eta Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsak (EGEF, EB) finantzatua; HiTT ikertaldea (IT1396-19) Eusko Jaurlaritzak finantzatua; HiTT ikertaldea (GIU18/221) Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) finantzatua; eta Basque in the Making (BIM) proiektua (ANR-17-0011-BIM), Frantziako Gobernuako Ikerketako Agentzia Nazionalak finantzatua.

1 Sarrera

Ezagun denez, euskarak badu aditz jokatuaren aurreko posizioa betetzen duen hautazko partikula sail bat (Euskaltzaindia, 1987; Haddican, 2008; Monforte, 2020). Horietarik da lan honetan aztergai izango dudana *al* partikula:

(1) Miren etorri al da?

Gipuzkeraz (Zuazo, 2008), galdera osoei *al* partikula gehi dakieke aditz laguntzailearen aurretik. Gramatika gehienek arabera (Euskaltzaindia, 1987), hautazko elementua da *al* hori, galdera osoak markatzeko baliabideetarik bat baino ez. Hizkuntzaren ekonomia buruan, ordea, ez da erraz ulertzekoa ekarpenik egiten ez duen elementurik izatea gramatikan. Izan ere, *alik* gabeko galdera osoak ere erraz asko aurki ditzakegu gipuzkera hiztunen artean ere, (2) lako adibideetan.

(2) Miren etorri da?

Bi erataratu uler genezake egoera hau. Batetik, aurreko deskribapenei jarraion egin eta *aldun* eta *alik* gabeko galdera osoak perpaus mota bera eraikitzeko bi aukera direla pentsa genezake, guztiz ordezkagarriak, guztiz berdinak. Ezin esan azalpen hori asegarria denik, baina, ez baita ulertzen erraza hiztun berak galdera osoa bezalako perpaus mota sortzeko zergatik izan beharko lituzkeen bi era desberdin (eta ez, esaterako, adierazpen edo aginte perpausak sortzeko). Lehen hipotesia aintzat hartu aitzin, beraz, aurretik bestelako aukerak erre beharko liratekeen iritzikoa naiz. Eta bada egoera ulertzeko beste era bat, hots, *aldun* eta *alik* gabeko galdera osoak ez direla berdinak, ez direla gauza bera adierazteko erabiltzen. Azken ideia horri helduko diot artikulu honetan, eta ikuspegi horretatik zer bide egin daitekeen ikusiko.

Artikuluak ondoko egitura dauka. Bigarren atalean galde perpausaz, partikulez eta *aldun* galderen ezaugarriez jardungo dut. Hirugarren atalean lehen galdetegia aurkeztuko dut, eta bertan *alek* galderaren epistemikotasunarekin loturarik duen begiratuko dut. Laugarren atalean bigarren galdetegia izango dut hizpide, galderaren hizketa ekintzak *alen* agerpenean eragirik duen arakatze aldera. Hondarreko ondorioetarako utziko dut bosgarren atala.

2 Galderez, partikulez eta galde partikulez

2.1 Sinplifikazioak saihestuz: partikula guztiak ez dira berdinak

Zabalduta dagoen ikuspegia da perpaus oro, era batera edo bestera, perpaus mota zehatz batean edo bestean sailkatu behar dela (Cheng, 1997), hots, ez dagoela perpausik, ezein hizkuntzatan, perpaus mota baten edo bestearen artean ambigua denik. Hiru dira hizkuntza gehienek, ez bada guztiek, markatzen dituzten perpaus mota nagusiak: adierazpen perpausak, galde perpausak eta aginte perpausak. Lehena izan ohi da markatugabeena, salbuespenak salbuespen, eta, aitzitik, galde eta aginte perpausak markaketa bereziren bat jasotzen dute: hitz ordena ez-kanonikoren bat, aditz morfologia, edota partikulak, esate baterako (Cheng, 1997; Kaufmann, 2021). Artikulu honen interesak zein diren ikusita, arreta galdera osoetan jartzea izango dugu onena.

WALS*i* (*World Atlas of Language Structures*) begiratu bat ematea besterik ez dago hizkuntzen artean galdera osoak markatzeko zenbat estrategia egon daitezkeen jabetzeko (1. taula).

1. taula. Galdera osoak markatzeko estrategiak (Dryer, 2013, moldatuta)

Markatzailea	Hizkuntza kopurua	Laginaren ehunekoa
Galde partikulak	585	% 61,85
Intonazio hutsa	173	% 18,11
Aditz morfologia	164	% 17,17
Galde partikula eta aditz morfologia	15	% 1,57
Hitz hurrenkera	13	% 1,36
Adierazpen perpausetako morfemarik eza	4	% 0,42
Adierazpen/galdera bereizketarik ez	1	% 0,1
Oso tara	955	% 100

WALSeko datuei itsuan jaramon eginez gero, galde perpausak markatzeko biderik zabalduena partikulena litzateke. Alta, taula horren gainean go-goeta zenbait egin nahiko nituzke aurrera jarraitu baino lehen. Lehenik eta

behin, errepara diezaigun ohikoenetan bigarrena den markatzaileari. Intonazio hutsa markatzailetzat hartzen bada, beste markatzaileak erabiltzen dituzten hizkuntzetan ere galderek intonazio berezia dutela pentsatzekoa da. Hori hala izanik, intonazioaren papera eta beste markatzaileena noraino-koak diren begiratzea ere beharrezko ikusten dut. Horrez gain, galdera partikulen izaerari begiratzea ere funtsezkoa iruditzen zait, baliabide hori darabilten hizkuntzen kopuru hain altu hori ulertzeko. Euskara ere kategoria horretan sartzen dute, *al* partikula buruan, euskalki bakarrean erabiltzen den galderak markatzeko era bat izanik ere, ez orokorra eta ez nagusia. Gainera, kategoria horretan partikula klase bat baino gehiago erakusten dituzten hizkuntzak nahasirik sartu dituztela esango nuke. Mandarina da, WALSen arabera, galde partikulak erabiltzen omen dituen beste hizkuntza bat. Baina gauza bat galderetan partikulak agertzea da, galderen edukian eragiteko baliabide gisa; ordea, beste gauza bat perpaus bat galdera dela markatzeko partikula erabiltzea. Lehen partikula motari Partikula Diskurtsibo (PD) izena emango diot eta bigarrenak Galde Perpaus Markatzaile (GPM) izendatuko ditut. Bereizketa hau hobeki erakuste aldera, mandarinezko eta gaskoizko galde perpausak erkatuko ditut.

Bai mandarina (3a) eta bai gaskoia (3b) galderak partikula bitartez markatzen dituzten hizkuntzat hartzen dira, galde perpausetan partikulak erabiltzen dituztela eta.

- (3) a. *Xiáofú dú-guo zhè běn shu (ma)?*
 Xiaofu irakurri-EXP hau CL liburu PD
 ‘Xiaofuk liburu hau irakurri zuen?’ (Li, 2006, 29. or.)
- b. **(E) parlatz Gascon?*
 GPM hitz.egin.DENB Gaskoi
 ‘Gaskoiz hitz egiten duzue?’ (Morin, 2008, 140. or.)

Haatik, lehen adibidetik ikusten da bi partikulen desberdintasuna. Gaskoiz *e* partikula nahitaezkoa da galde perpausetan; mandarinez, ostera, *ma* gabe ere osa daitezke galderak. Zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta sakonagoak dira aldeak, gainera. Mandarinez beste perpaus motak markatzeko partikulen beharrik ez dago; gaskoiko *e*, ostera, perpaus motak markatzeko nahitaezko partikulen sail baten parte da: adierazpen perpausak *que*

agertu behar dute eta harridurazkoek *be*, perpaus gramatikaltzat har daitezten (Morin, 2008).

Artikulu honen helburuei dagokienez, baina, alderik interesgarriena dimentsio pragmatikoari dagokiona da. Mandarinezko *mak*, galde perpausak markatzeko derrigorrezkoa ez izateaz gain, agertzen denean balio pragmatiko bat dakar, Li-ren (2006) arabera: ‘gradu altua’ adierazten omen du, galde-raren erantzuna jasotzeko kasu honetan.¹ Gaskoiko *ek*, aitzitik, ez du inolako balio pragmatikorik markatzen (Morin, 2008). Hori da, seguruenik, bi partikula moten arteko aldea.

Gure helburua *al* aztertzea bada, beraz, partikula talde horietako zeinetan dagoen zehaztea izan beharko genuke helburu beste ezertan hasi aurretik. Horretarako, hurrengo azpiataletan *alen* propietateetan jarriko dut arreta, lehenik bere saileko partikulen ezaugarri orokorrak hizpide hartuz, eta *al* partikulan bertan zentratuz ostean.

2.2 Barne partikulez

Al ez da partikula berezi eta isolatu bat, bere posizioan ager daitekeen ale bakana. Aitzitik, partikula ebidentzial eta epistemiko sorta batekin banaketa osagarrian dago. *Partikula modal* izena eman zaie sarri (Euskaltzaindia, 1987; Monforte, 2020), tradizio alemanari jarraiki. *Barne partikula* izena hobe-siko dut nik hemen, aditz modaletatik baino, perpausaren ertzetan agertzen diren *kanpo partikuletatik* (*batik*, esaterako) hurbilago ikusten baitituz (azalpen sakonagoetarako, ik. Lizardi Ituarte, prentsan a; Lizardi Ituarte, prentsan b). (4) adibidean laburtzen ditut *alez* landako barne partikulen ekarpen semantiko/pragmatikoak (epistemikoak (4a-c) artekoak, ebidentzialak (4d-e)).

- (4) a. *Ote*: proposizioaren gaineko zalantza/gogoeta (Garmendia, 2014; Monforte, 2020).
- b. *Bide*: proposizioaren gaineko ziurgabetasuna (Korta & Zubeldia, 2016).
- c. *Ahal*: proposizioarekiko ziurtasuna (Euskaltzaindia, 1987; Monforte, 2020; Villasante, 1980).

¹ Dirudienez, *ma* adierazpen eta aginte perpausetan ere ager daiteke, eta horietan ere hizlariaren ‘gradu altua’ adierazten du, perpausarekiko konpromisoaz lehenean, agin-dua betetzeko bigarrenean (Li, 2006, 35. or.).

d. *Omen*: esan-entzunezko ebidentziala (Etxepare & Uria, 2016; Zubeldia, 2015).

e. *Ei*: esan-entzunezko ebidentziala.

Hainbat dira partikula horiek guztiak sail berekoak direla esateko argudioak. Hiru aipatuko ditut hemen. Hasteko, denak ageri dira aditz jokatuaren aurrean, baiezko (5a) zein ezezko (5b) perpausetan.

(5) a. Lurdes etxera joan {*ote, bide, ahal, omen, ei, al*} da(?/.) (Euskaltzaindia, 1987, 502. or.).

b. Ez {*ote, bide, ahal, omen, ei, al*} du ogia ekarri(?/.) (Euskaltzaindia, 1987, 503. or.).

Bigarrenik, barne partikulek ezin dute aditz trinkoa perpausaren lehen posiziotik babestu.² Ohiko deskribapenen arabera (Altube, 1929; Elordieta & Haddican, 2018; Ortiz de Urbina, 1994), aditz trinkoa ezin da *babesik* gabe perpausako lehen elementua izan: aurretik *ba-* baieztapen enfatikoa, *ez* ezeztapena edo bestelako sintagmaren bat beharrezkoak dira aditz trinkoa hasieran duen perpausa gramatikala izan dadin. Espero izatekoa litzateke, beraz, barne partikulak trinkoaren *babes* lan hori betetzeko egokiak izatea, baina, harrigarria izanik ere, ez da horrela: barne partikularen aurretik *ba-*, *ez* edo bestelako sintagmaren bat agertu behar da perpausa gramatikala izan dadin.

(6) a. *{*Al, Omen, Ote...*} dator(?/.) (Elordieta & Haddican, 2018, 407. or.)

b. *(*Ba/Ez/Jon*) {*al, omen, ote...*} dator(?/.)

Azkenik, aurrez esan bezala, partikula hauek banaketa osagarrian daude; hots, ezin da haietako bat baino gehiago perpaus berean agertu.

(7) a. *Jon etorri ote al da?

b. *Lan asko egin bide omen du.

Alek, beste partikulek bezala, azpiatal honetan aipaturiko propietate guztiak betetzen ditu, baita aipatu ez diren beste batzuk ere, eta, beraz, garbi esan daiteke denek sail bat osatzen dutela. Hala eta guztiz ere, bada *al* beste guztietatik bereizten duen ezaugarri bat, esanahiari dagokiona hain zuzen. Izan ere, barne partikula guztiek ekarpen ebidentzial edo epistemikoa egiten

² Ekialdeko hizkeretan partikula hauek beste jokabide sintaktiko bat dute, eta hizkera horietan bai, aditz trinkoa lehen posiziotik *babes* dezakete (Etxepare & Uria, 2016; Monforte, 2020).

diote perpausari. *Al*, ostera, deskribapen gehienei jaramon eginez gero bederen, esanahi semantiko/pragmatikorik gabeko markatzaile sintaktikoa litzateke. Egoera horrek ere zer pentsatua ematen du, eta *alen* esanahian arakatzeko beharra are gehiago uzten du agerian, lehenik ere nahiko nabarmena ez bazen.

2.3 *Alez eta aldun galderez*

Esan duguna laburbilduz, beraz, *al* galde perpausetan agertzen den barne partikula da. Hori baino gehiago ere badakigu, ordea, eta dakiguna ekarriko dut azpiatal honetara, *alen* esanahiari begira nondik hasi ideia orokorrago bat lortze aldera. Artikulu honetan *alek* perpaus nagusietan duen portaerari erreparatuko diot, zehar-galderetan ere ager badaiteke ere.

Esanahiaz argi izpiren bat eman diezagukeelakoan, jo dezagun lehenik *alen* etimologiara. Monforteren (2020) arabera, *alen* jatorria ez dugu urrun bilatu behar, beste barne partikula batetik baitator, *ahaletik* alegia. Kasu, hala ere, ez baikara *ahal* aditz modalaz ari. Gaur egun hiztun gehienentzat galdua badago ere (*Etorriko ahal da!* bezalako esapideetan salbu), *ahal* barne partikulak, adierazpen perpausetan, hiztunak proposizioarekiko segurtasun maila erdi-altua duela adierazi izan du euskalki guztietan (Arocena, 1961; Villasante, 1980), eta hala adierazten du gaur ere ekialdeko zenbait hizkeratan; nafar-lapurteraz, bederen. Honatx zenbait adibide, denboran urrunagoko zein hurragoko.

(8) a. Ama enea seme baga çuc ipinico **al** doçu. (Lazarraga, AL 1144r; Bilbao *et al.*, 2020).

b. Nihor ez **ahal** da hoin zentzu-gaberik. (Duhalde, 1809; Villasante, 1980, 57. or.).

c. Sosak balio **ahal** ditik! (Larzabal, 1991, 108. or.).

Adierazpen perpausetan agertzeaz gain, galde perpausetan ere agertzen da *ahal*, zentzu erretorikoan (Euskaltzaindia, 1987, 513. or.), «zalantzaz galdetzen denean» (jatorrizkoan, «cuando se pregunta dudando»), Larramendiren arabera (Mitxelena & Sarasola, 1987-2005).


Monfortek (2020) argudio sendoak ematen ditu ondoko gramatikalizazio katea proposatzeko:

(9) *ahal*_{Aditz modala} > *ahal*_{Part. epistemikoa} > *al*_{Galde part.}

Gramatikalizazioaren lehen zatian, *ahal* aditz modala partikula bilakatu-ko litzateke, bere esanahiaren zabalera epistemikotasunera murriztu eta jo-kaera sintaktikoa aldatuta.³ Bigarren urratsa gipuzkeraz bakarrik gertatuko litzateke, eta partikula galde perpausetara mugatu eta esanahia lausotu egingo litzaioke. Hortxe bada galdera: zenbateraino galdu ote du *alek* jatorri duen *ahalen* esanahia, eta zenbateraino gordetzen du? Hurrengo atalean galdera horri erantzuten saiatuko gara patxada handiagoz.


Aurretik, baina, *aldun* galderei begiratu ematea komeniko litzateke, ez soilik esanahira jo aitzin beste alderdiak ezagutzea komeni delako, baizik baita *alik* gabeko galdera osoekin erkatzea komeni delako ere. Izan ere, *al* agertzeak edo ez agertzeak esaldiaren eremu askotako ezaugarriak ukitzen ditu, intonaziotik hasi eta syntaxian buka. Eta horrek ere susmopean ezartzen du ohiko planteamendua, alegia, *alek* ez dakarrela inongo esanahi aldatetarik. *Al* agertzeak intonazioan eta syntaxian eragina badu, esanahiaren dimentsioan ere aurkitzea espero izatekoa da.

Has gaitezen intonazioarekin. *Al* agertzeak ohiko galdera oso baten intonazio kurba nabarmen aldatzen du, eta *ote* galderekiko antzekoago egiten du. Erka bitza irakurleak 1. irudiko *alik* gabeko galdera osoaren intonazio kurba 2. irudiko *aldun*arekin, eta 2. irudia 3. irudiko *ote* galderarenarekin.




1. irudia. *Alik* gabeko galdera oso baten intonazio kurba.

³ *Ahalen* aditzetik partikularako gramatikalizazioak are funts sendoagoa hartzen du, Lakarraren (2019) ildotik, gainerako barne partikulak ere aditzetatik datozela onartuz gero. Haatik, bada hor alde nabarmena: *omen* eta *ote eman* eta **bor* 'eman' aditz arruntetatik letozke, *ahal*, ostera, portaera sintaktiko eta semantiko desberdineko aditz modala da. Sakonago aztertu beharreko kontua, ez bairik gabe.



2. irudia. Aldun galdera oso baten intonazio kurba.



3. irudia. Otedun galdera oso baten intonazio kurba.

1. irudian ikusten den legez, *al*ik gabeko galdera osoetan intonazioak gora egiten du esaldiaren hasieran eta halaxe eusten dio aditz laguntzailera iritsi arte, han jaitsiera txiki bat izaten du eta. Aitzitik, oso bestelakoa da kurba *aldun* galderetan, 2. irudiak darakutsan bezala: berdin hasten bada ere, hasieran gora eginez, bat-bateko beherakada izaten du *al* partikulara iristen denean. Funtsean, *aldun* galderak *ote* galderen intonazioarekin bat egiten dute, 3. irudian ikusten den bezala, *ote* galderetan ere hasierako gorakada gertatzen baita, baita beherakada nabarmena ere partikulara iristearekin bat.

Sarri esan izan da esaldiaren intonazioak esanahi diskurtsiboa gordetzen duela (Gunlogson, 2008; Portes *et al.*, 2014; Vanrell *et al.*, 2013), besteak beste, hiztunek proposizioarekiko duten atxikimendua edota jakintza kode dezakeela alegia. Nabarmena da efektu hori partikularik gabeko galdera osoen eta *otedun* galderen artean, lehenean hiztunak entzuleak erantzuna emango diola espero baitu; ez, hala, bigarreanean, galderaren erantzuna ez hiztunak, ez hizlariak ez dakiela adierazten baitu halako esaldi batek (Garmendia,

2014; Monforte, 2020). Ez dago garbi esanahi aldaketa zein mailatan dakarren partikulak eta zein mailatan intonazioak, baina biek ere azken esanahian euren aletxoak jartzen dutela esango nuke. Intonazioak halako esanahiak adieraz ditzakeela onartuz gero, *aldun* galderetan ere halako efektu-
ren bat esperoko genuke.

Sintaxiari dagokionez, *alek* zenbait murriztapen baditu. Perpausa sintaktikoki galdera gisa markatzeko funtzioa esleitu izan zaio behin eta berriz, goian aipatu bezala, baina ikuspegi horrek arazoak dakartza. Halakotzat hartuz gero, edozein galdera motatan ager litekeela pentsatuko genuke. Zein da, izan ere, galdera moten arteko desberdintasuna? Galdera osoek bi proposizio batzen dituen multzoa denotatzen dutela, eta NZ-galderak NZ-hitza-
ren balio posible bakoitzeko proposizio bana duen multzoa (Groenendijk & Stokhof, 1984; Karttunen, 1977). Ez dago, berez behintzat, bestelako alderik. Eta, hala ere, *al* galdera osoetan bakarrik ager daiteke; hauta galderetan eta NZ-galderetan, ezin.

- (10) a. Mirenek ikusi al du?
b. *Mirenek ikusi al du ala ez?
c. *Nork ikusi al du?

Eta edozein galdera osotan ere ez da posible, *edo* edota *ala* bezalako kanpo partikularen bat duten galderetan ere ezin da agertu *al*. Bestalde, zehar-galdera osoetan ere ager daiteke, baina, aurretik esan bezala, lan honetan perpaus nagusietan duen portaeraz ardurako naiz.

- (11) a. *Mirenek ikusi al du ala?
b. *Mirenek ikusi al du edo?
c. Jakin nahiko nuke ea Mirenek ikusi al duen.

Pragmatikara joz gero ere, efektu bereziak ager daitezke egoera pragmatikoaren arabera *al* agertu edo ez. Har dezagun, esaterako, (12)-ko egoera pragmatikoa; *al* arraroa da halakoetan zenbait hiztunentzat.

- (12) Egoera: hiztuna okindegira sartu da, ez dago beste bezerorik eta okina berari jaramon egiteko prest dago. Hiztunak ogia eskatu dio:
Emango al didazu txapata bat, mesedez?

(12)-an hiztunak galdera bat egin du, baina informazioa eskatzeko galdera ohikoa baino, gehiago da galdera bitartez eginiko eskaera. Eta horixe izan daiteke, agian, hiztun batzuei *alek* sortzen dien ezegokitasunaren arrazoia.

Izan ere, hainbat dira galde perpaus baten bitartez adieraz daitezkeen hizketa ekintzak (Krifka, 2011), eta agian *alek* hizketa ekintza mailako funtzioen bat izan dezake. Bigarren esperimentuan helduko diot gai horri, eta susmo diren horiek oinarri sendoago batez berretsi edo baztertzeko bidea emango dut.

Atal honetako errepassoa eginez, *alek* duen esanahia esploratzen hasteko bi bide ikusten ditut. Etimologiarena batetik. Aurretik esan bezala, *ahal* epistemikoaren emaitza bada aztergai dugun *al*, zilegi da galdetzea zenbat geratzen zaion bere jatorritik, ea epistemikotasun graduren bati eusten dion. Bigarrena aurreko paragrafoan aipatu dudana hizketa ekintza mailako efektuarena da. (12) bezalako adibide bat ikusita, haizu da galdetzea hizketa ekintza motak *alen* agerpenean eraginik duen. Bi auzi horien erantzunera hurreratzeko datuak emango ditut ondoko ataletan, pasatu ditudan galdetegiak emaitzak eskainiz.

3 Lehen galdetegia: *al* eta epistemikotasuna

3.1 Testuingurua

Aurreko atalean esan bezala, galderetako *alek ahal* barne partikula du iturri. Ez dira asko, *ahal* horren esanahi zehatzaz ditugun datuak, galduz joan den ezaugarria baita, egun ekialdeko hiztunetako batzuen artean soilik gordea, eta hizkuntzalarien arreta handirik ere ez du jaso. Deskribapenek, gainera, kontraesankorrak ere badirudite: Villasantek (1980) ziurtasun maila apala egozten dio, *beharbadaren* tankerakoa; Arocenak (1961), ostera, ziurtasun maila nahiko altua duela dio.⁴ Zenbait adibidek ziurtasun maila altu samarra erakusten dute, bai (13a). Galderetan ere ager daiteke, erantzuna baiezkoa izango den susmoa-edo adieraziz (13b).

- (13) a. Egoera: aseguru etxeok kontratua sinatzeko boligrafo elegantea utzi dio Manexi. Honela dio Manexek:

⁴ Horiez gain, badago *alen* beste erabilera bat ere, miratiboa, hiztunaren desira adierazten duena.

(i) Joango ahal da!

Erabilera hori Euskal Herri osoan gorde da eta ez du epistemikotasunarekin zerikusirik. *Alen* zein *ahal* epistemikoaren aldean esanahi zein banaketa geografiko desberdinak dituenez, *ahal* epistemikoak garatutako esanahi zehatz baten arrasto beregaina delakoan nago. Ez litzateke, beraz, *ahal* epistemikotik *alerako* bideko katebegi bat.

Hau tresna ederra! Sosak balio ahal ditik! (Larzabal, 1991, 108. or.)

b. A: Errazu, Amatxi, neskato pollita ahal zinen gaztetan!

B: Ez ziakinat bada; hauxe dun galdea! (Larzabal, 1991, 98. or.)

Halako partikula epistemiko bat galdera batean jartzean, pentsatzekoa da hiztunak proposizioarekiko ziurtasuna agertzen duela, eta susmo hori berresteko egiten duela galdera. Beste hizkuntzetan bada halako esanahia gordetzen duen egiturarik, ingelesezko *adierazpenezko galderak*, esate baterako. Adierazpenezko galderak, gordin esanda, sintaktikoki adierazpen perpausen forma duten baina galderen intonazioa duten esaldiak dira. (14)-n duzue haietako baten adibidea.

(14) Lankide bat sartu da gelan. Ilea moztuta datorrela ikusi duzu. Hau diozu:

You got a haircut?

zu jaso bat ile.mozketa

‘Ilea moztu duzu?’

Bada arrazoirik *ahaldun* galderak eta adierazpenezko galderak erkagarritzat hartzeko. Adierazpenezko galderak adierazpen perpausak dira eta, adierazpen perpaus orok bezala, hiztunaren segurtasun maila bat agertzen dute. *Ahal* partikulak ere halatsu egiten du, perpausari hiztunaren segurtasun maila bat gehituz. Bestetik, hala bata nola bestea galderak dira, entzuleari informazioa eskatzen baitiote. Hots, bi egiturek erakusten dute hizlariaren segurtasun mailaren bat galde perpaus batean, eta hortik letorke bi egituren arteko paralelotasuna.

Gunlogsonen (2008) arabera, baldintza pragmatiko hauek behar dira adierazpenezko galderak pragmatikoki egoki egon daitezen:

- i. Hizlariak proposizioarekiko konpromisoa du. (14)-ko adibidean, hizlariak entzulea ilea moztuta datorrela ikusi du, hortik konpromisoa.
- ii. Hizlariak proposizioarekiko konpromisoa iturri independente batetik jaso du, ez entzuleak esanda; entzulea ikusita, (14)-ren kasuan.
- iii. Entzuleak ere proposizioarekiko konpromiso independentea du. (14)-n, entzuleak ilea moztu duen edo ez badaki.
- iv. Proposizioaren egiaz erabakitzeko orduan, entzulea posizio hobean dago. (14)-ren kasuan, hizlariak pentsa dezake entzuleak ilea moztu

duela, baina entzuleak baino hobeto inork ez daki hori egia den ala ez.

Baldintza pragmatiko horiek, funtsean, hizlariaren epistemikotasunaren efektua gordetzen duten galderen antz handia dute; *ahaldun* galderena, alegia. Funtsean, hizlariak oinarritutako ezagutza bat du proposizioaren gainean, ziurtasun bat, baina entzulearena baino baxuagoa haatik, eta horregatik egiten du galdera. Horregatik, *aldun* galderak, *ahalen* epistemikotasunik mantenduko balute, adierazpenezko galderen baldintza pragmatikoetan sarriago agertzea esperoko genuke. Beraz, euskara ohikotasunean erabiltzen duten hiztunen artean galdetegi bat zabaltzea erabaki nuen, lotura hori benetakoa den ikusteko.

3.2 Galdetegiaren ezaugarriak

Ekoiuzpen galdetegi bat prestatu nuen, beraz. Bertan, hiztunei testuinguru pragmatiko bat erakusten nien, eta, euren buruak egoera horretan jarrita, galdera bat ekoiuzteko eskatzen nien. (15)-ek galdetegiko item bat erakusten du.

- (15) Egoera: enpresa bateko giza harremanetako sailean lan egiten duzu, lan elkarriketak egiten. Curriculum ona eta bete nahi duzun lanposturako egokia daukan gizon bati lan elkarriketa egiten ari zara. Legeak eskatzen duena betetzeko, galde iezaiozu ea inoiz kondenatu duten delituren batengatik.

_____ zaituzte delituren _____?⁵

Galdetegia 21 galderak osatzen zuten: (a) baldintzak adierazpenezko galderekin bat egiten zuten 7 testuinguru biltzen zituen; (b) baldintzan adierazpenezko galderen baldintzak betetzen ez ziren beste 7 testuinguru sartzen ziren; eta (c) baldintzan beste 7 esaldi betegarri (NZ-galderak eta aginte perpausak eskatzen zitzaizkien hiztunei). Galdetegia online zabaldu nuen, Google Forms bidez; horrek 60 parte hartzailearengana iristea erraztu zuen, denak gipuzkeradunak,⁶ *al* gipuzkeraren ezaugarria izaki.

Hipotesia sinplea zen. *Ahaldun* galderek ingelesezko adierazpenezko galderen baldintza pragmatikoak betetzen dituztela onartuta, eta *al* partikulak

⁵ Hiztunek azpimarratutako zatia bete behar zuten. Batzuetan ekoiuzte behar zuten galdera osoa agertzen zen azpimarratuta eta galdera osoa idatzi behar zuten. Beste batzuetan, galderak bai ala bai izan behar zituen hitzak agertzen ziren tartean.

ahalen epistemikotasuna gordetzen duela oinarri harturik, ondokoa espero genuen: *al* partikula askoz gehiago erabiliko zela adierazpeneko galderen baldintza pragmatikoak betetzen zituzten testuinguruetan halako baldintzak betetzen ez zituztenetan baino.

3.3 Emaitzak

Emaitez ez zuten inongo efekturik erakutsi: parte hartzaileek *al* antzeko proportzioan erabili zuten bi baldintzetan, adierazpeneko galderen baldintzak betetzen ziren edo ez jaramonik egin gabe.

(16) a. *Alen* erabilera (a) baldintzako perpausetan: % 55,4 (159/287).

b. *Alen* erabilera (b) baldintzako perpausetan: % 55,7 (160/287).

Nolanahi ere, alde hori esanguratsua zenetz begiratu nuen, R programa erabilia, efektu nahasiko erregresio logistikoaren testaren bitartez, eta, noski, ez zen ezer esanguratsurik atera: $p > 0,97$.

Galdetegia planteatzeko momentuan aurreikusitako hipotesia bete ez arren, emaitzek, behintzat, *alen* epistemikotasunaren ikuspegia alde batera uzteko balio dute. *Alek ahalen* epistemikotasuna mantenduko balu, (a) baldintzan (b) baldintzan baino askoz gehiago erabiltzea esperoko genuke, baina epistemikotasunaren baldintza honek eraginik ez duela dirudi, bi baldintzetan era bertsuan erabiltzen baita *al*. Emaizen arabera, beraz, *alek* ez du bere iturri den *ahalen* epistemikotasunaren zantzurik gordetzen, *aldun* galderak ez dute hizlariaren inongo segurtasunik erakusten. Zentzu horretan, beraz, beste barne partikulen aldean berezia da *al*, bakarra baita ekarpen ebidentzial-epistemikorik egiten ez duena.

Epistemikotasunaren aukera alde batera utzirik, beraz, orain beste nonbait begiratu behar da *alen* esanahi ekarpena zein den jakiteko. Pragmatikara jauzi egiteko ordua izan daiteke.

⁶ Berrikusle anonimo batek gipuzkeratik kanpoko eremuetan begiratzea iradoki dit, *alen* erabilera euskara batuaren eraginez zabaldu dela iritzita. Hala ere, iruditzen zait euskara batuak *al* galdera-oso markatzaile gisa aurkeztu duenez, euskara batuaren eraginez zabaldu den erabileran ñabardura pragmatikoak ez direla zabaldu eta, beraz, bilatzen ari naizen efektu pragmatikorik ikusiko ez zela iritzita, galdeketan parte hartzeko baldintza gisa jarri nuen gipuzkera hitzuna izatea.

4 Bigarren galdetegia: *al* eta hizketa ekintza

4.1 Testuingurua

Lehen galdetegitik atera daitekeen ondorio nagusia da *al* eta *ahal* bi partikula bereizi direla, *al* ez dela galderetara mugatu den *ahal* partikularen bilakaera hutsa, baizik, bilakaera horretan, jatorri zuen esanahi ekarpen epistemikoa ere galdu duela. Puntu honetan, pentsa dezakegu *al*, esanahizko ekarpen oro galduta, Galde Perpaus Markatzaile (GPM) bihurtu dela, gaskoizko eren pareko zerbait, gramatika eta hiztegi gehienek (Euskaltzaindia, 1987; Euskaltzaindia, 2016) diotenaren bidetik. Ustez laua dirudien arrazoibide horretan, baina, bada hartxintzarrik; (12) adibidea, esaterako. Hona ekarriko dut berriro.

(12) Egoera: hiztuna okindegira sartu da, ez dago beste bezerorik eta okina berari jaramon egiteko prest dago. Hiztunak ogia eskatu dio:

Emango al didazu txapata bat, mesedez?

(12)-an galde perpaus bat ekoitzi du hiztunak, baina hiztun batzuentzat ez dirudi oso egokia. Eta hala dioten hiztunek hizketa ekintzari egozten diote ezegokitasunaren kausa, erantzun eskaera bainoago, eskaera bat dirudiela eta. Zehatzago, zuzeneko eta zeharkako hizketa ekintzak desberdinu beharko genituzke hemen. (12) bezalako adibideetan galdera geneukake zuzeneko hizketa ekintza, baina zeharkakoa eskaera litzateke (Austin, 1962).

Izan ere, zertaz ari gara galderaz ari garenean? Bi ikuspegitatik uler daiteke. Sintaxiari hel diezaiokegu, eta galdera egitura gramatikal zehatz gisa ulertu, era jakin batean markaturiko perpaus gisa, adierazten duen balio pragmatikoari jaramonik egin gabe. Pragmatikari lehenetasuna emanik ere uler ditzakegu galderak, alta, informazio eskea adierazten duen esaldi gisa, forma sintaktikoari garrantzi handiegirik eman gabe. Krifkari (2011) jarraikiz, galderek hainbat hizketa ekintza adieraz ditzakete: erretorikoak izan daitezke, deliberatiboak, baldintzak adierazten dituztenak, aginduak, etab. Sintaxiaren eta pragmatikaren arteko tentsio honi jarraika, (12)-ko *alen* ezegokitasuna hobeki ulertzeko gakoak aurki ditzakegulakoan nago.

Zenbait hiztunentzat badirudi *al* ez dela hain egokia eskaerak adierazten dituzten galde perpausetan. Horrek galderaren hizketa ekintzak *alen* agerpenean efekturen bat izan dezakeela iradokitzen du, eta, hori esateko argudio sakonagoen bila, bigarren galdetegi bat pasatzea erabaki nuen.

4.2 Galdetegiaren ezaugarriak

Bolingerek (1978) hamabi testuinguru bereizi zituen, galdera osoen eta hauta galderen artean pragmatika jauzia zegoela nabarmendu nahian. Testuinguru horietan (hizketa ekintzak sarri, eskaerak edo eskaintzak kasu), galdera osoak egokiak omen dira ingelesez; ez, aitzitik, hauta galderak. Hamabi testuinguru eta hizketa ekintza horietarik lau aukeratu nituen, galdetegiak begiratu beharreko gisa: gonbidapenak, informazioa ematen duten galderak, aurretik eztabaidatu gabeko galderak eta eskaerak. Testuinguru horietan guztietan galderak informazioa eskatzeko erabiltzen ez direnez, *alen* erabilera txikiagoa izatea espero nuen.

Horiez gain, beste hizketa ekintza edo egoera pragmatiko bat kontuan hartzea ere interesgarria iruditu zitzaidan, hizketa errealean *al* kasu horretan beste egoera batzuetan baino gehiago erabiltzen delakoan: *estutze efektuzko* galderetan. Estutze efektu deritzan egoera pragmatikoa Biezmak (2009) aurkeztu zuen lehen aldiz. Hizlariak galdera bat egin, eta, entzulea erantzun nahi ezta isilik geratu dela eta, hizlariak berriro galdetzen dion egoera da estutze efektua, (17)-an agertzen den bezalako.

- (17) (Egoera: Kongresu bateko afari baterako sukaldariak koordinatzeko lanean zbiltza, Jon tartean. Atzo Jonek esan zizun haragia egingo zuela berak, baina ez zuen garbi utzi pasta ere egingo zuen ala ez. Afaria bihar da eta pasta norik egingo duen jakin behar duzu. (Biezma, 2009)

Zu: Pasta zuk egingo duzu?

Jon: (erantzunik ez, zalantza aurpegia).

Zu: # Pasta egingo duzu?

Pasta egingo al duzu?

Pasta egingo duzu ala ez?

Halako egoera batean, arruntena *ala ez?* hauta galdera erabiltzea da, horrek sortzen baitio entzuleari erantzuna jasotzeko *presio* handiena. Aldun galderak ere ez dira ezohikoak, ordea, *presioa* txikiagoa izan arren, neurri apalagoan baina efektu hori lortzen baitute. *Alik* gabeko galdera oso arruntak, ostera, ez dira egokiak efektu hori lortzeko, besterik gabe aurreko galdera errepikatzen den sentipena sortzen baitute, besteek eragiten duten erantzuteko *presio* gabea.

Halaxe, bost egoera pragmatiko hauei begiratu nien:

- i. Gonbidapenak
- ii. Informazioa ematen duten galderak.
- iii. Aurretik eztabaidatu gabeko galderak.
- iv. Eskaerak.
- v. Estutze efektuzko galderak.

Horietako bakoitzarekin 10 testuinguru pragmatiko zehatz prestatu nituen, 50 item kritiko, beraz, eta beste 50 item betegarri sartu nituen.

Aurreko galdetegiaren kasuan bezala, oraingo honetan ere ekoizpen ariketa egin behar zuten parte hartzaileek: testuinguru pragmatiko bat aurkezten zitzaien, eta esaldi bat ekoizteko eskatzen, galdera bidez. Aurrekoan bezala, ekoizti behar zuten esaldiaren zati bat ematen nien batzuetan, eta beti puntuazio marka, nolako perpausa (adierazpenezkoa, galderazkoa, agintezkoa) zen jakin zezaten. (18) adibidean (ii) baldintzako item kritiko baten adibidea duzue ikusgai.

- (18) Tokioko unibertsitatera joan zara urtebeteko egonaldi bat egitera. Bertara joan eta hango unibertsitatean euskara irakasten dela jakin duzu eta irakaslea ere ezagutu duzu. Amari deitu diozu. Esaiozu Tokioko unibertsitatean euskara irakasten dela, ez daki eta.

_____ Tokioko unibertsitatean euskara irakasten dela?

Galdetegi hau ere Google Forms bidez zabaldu nuen eta 92 parte hartzailek erantzun zuten.

Hipotesiak, funtsean, bi ziren. Lehenik, hizketa ekintzak *alen* agerpenean nabarmen eragitea espero nuen. Bigarrenik, estutze efektuzko galderen eta gainerakoen arteko aldea ikustea espero nuen: estutze efektuzkoetan *al* nabarmen gehiago erabiliko zelakoan nengoen, eta gutxiago gainerakoetan, informazio eskeko galderak ez zirela eta.

4.3 Emaitzak

Emaitzek hainbat datu utzi zituzten. Lehenik eta behin, hiztunen arteko alde nabarmena aipatzekoa da. Izan ere, parte hartzaile batzuek *al* batere ez edo oso gutxitan erabiltzen zuten; beste batzuek, aitzitik, erantzun guztietan

edo ia guztietan zerabilten.⁷ Hala ere, parte hartzaile gehienek, 52k, *al* % 10 eta % 90 artean erabiltzen zuten. Jarraian 52 parte hartzaile horien datuak izango ditut hizpide.⁸

(19)-k erakusten du *alen* erabilera baldintzaka.

(19) i. Gonbidapenetan % 56,4.

ii. Informazioa ematen duten galderetan % 44,7.

iii. Aurretik eztabaidatu gabeko galderetan % 57,8.

iv. Eskaeretan % 32,3.

v. Estutze efektuzko galderetan % 61,1.

Erabilera tasari begira, alde nabarmenak ikusten dira taldeen artean. Alabaina, esanguratsuak ote dira baldintzen arteko aldeak? Bi hipotesi jarri ditut mahai gainean lehen. Bigarrenari lotuko gatzazkio orain, hertsiena izaki. Estutze efektuzko galderen eta gainerakoen arteko aldea espero nuen hipotesi hartan. Hori begiratzeko, efektu nahasizko erregresio logistikoaren testa pasatu dut datuen gainean, R programa erabiliz, (v) baldintza besteekin erkatuz. Eta oraingoan, bai, efektua nabarmena zen baldintza batzuen artean. (v) baldintzaren (estutze efektuzko galderen) eta (ii) baldintzaren (aurretik eztabaidatu gabeko galderen) artean, *alen* erabileran alde esanguratsua omen dago, $p < 0,01$. Desberdintasun handiena, hala eta guztiz ere, (v) eta (iv) (eskaeren) baldintzen artekoa da: $p < 0,001$.

Baldintza batzuen arteko aldea esanguratsua izanagatik, ez da nahikoa bigarren hipotesia berresteko. Gogora dezagun bigarren hipotesia: (v) baldintzaren eta gainerakoen artean alde nabarmena espero nuen bertan. Eta hala gertatzen da batzuen artean, ez hainbeste beste batzuen artean.

Dena dela, datu hauek nahikoak dira lehen hipotesia berresteko. Lehen hipotesiak esaldiaren hizketa ekintzak *alen* agerpena baldintzatuko zuela aurreikusten zuen; horixe bera berresten dute emaitzek. Hizketa ekintza bat edo bestek *alen* agerpena baldintzatzen du, gehiago edo gutxiago ager daiteke galderak adierazten duen hizketa ekintzaren arabera. Esanguratsua da hizketa ekintza mota guztietan agertzea, horrek iradoki bailezake, apika,

⁷ Emaitzak beste galbahe batzuetatik ere pasatu nituen, hiztunen adina, eskualdea, eta euskara nola ikasi eta norekin erabiltzen zuten kontuan izanik. Ez zen emaitza esanguratsurik antzeman.

⁸ Hala eta guztiz ere, emaitzak ez dira aldatzen parte hartzaile guztiak kontuan harturik ere.

Galde Perpaus Markatzaile izateko bidean egon daitekeela zenbait hiztunen-tzat bederen. Haatik, hizketa ekintzen arteko efektu horrek *al* hizketa ekin-tza erregulatzailerak dela iradokitzen du, hots, funtzio pragmatikoa duen partikulatzen har genezake, orain arte esleitu zaion Galde Perpaus Markatzaile funtzio sintaktiko hutsa baztertuta.

5 Ondorioak

Artikulu honek *al* partikularen funtzioa zein den sakonago arakatzea zuen xede. *Alen* propietate fonologiko zein sintaktikoei begira, susmagarri gertatzen ziren haren gaineko ohiko hurbilketak. Galde perpausa markatze-ko baliabide sintaktiko hustzat hartu izan da literaturan, baina bere propie-tate bereizgarriak, alde batetik, eta *aldun* galderen eta *alik* gabekoen arteko desberdintasunek, bestetik, *alen* analisiak beste bide bat hartu behar zutela iradokitzen zuten. Artikulu hau izan da bide berri hori urratzeko lehen saia-kerak.

Halaxe, *alek* izan lezakeen ekarpen semantiko-pragmatikoari jarri diot arreta lan honetan. Nondik hasi jakitea erraza izan ez, baina, eta, helduleku sendoagorik ezean, etimologiari eta hiztunen juzguei egin diet so. Etimolo-giak *ahal* partikula epistemikotik datorrela diosku, eta *al* galderetan episte-mikotasun zantzu bila jardun dut lehen galdetegian. Bigarren galdetegian, zenbait hiztunen juzguen gainean oinarriturik, galderaren hizketa ekintzak *alen* agerpenean leukakeen eraginean aritu naiz miaka.

Alen epistemikotasuna bilatzeko jarduna bide itsuan itxi zait. *Al* galdere-tan hiztunak proposizioarekiko ziurtasunen bat agertzea espero nuen lehen galdetegian. Emaitzei erreparatuz, ordea, hiztunek ez dute halako epistemi-kotasun efekturik erakusten *alen* erabileran. Zalantzarik gabe, *al* ez da *ahal* partikula epistemikoaren galderetara murriztutako aldaera, benetan handik garatu eta gramatikalizatutako beste partikula bat baizik, zentzu aldetik bes-te ekarpen bat dagiena.

Epistemikotasunik ez, beraz. Hala, *alen* esanahi ekarpena ezagutzeko bi-dean errebueltak hartu eta hiztun zenbaiten juzguetan antzemandako kon-trasteen bideari ekin behar izan diot. Bigarren galdetegi baten bitartez, *al* galderaren hizketa ekintzarekiko sentikor denetz ikustea nuen helburu. Eta hara non aurkitu dudan efektu hori: *al* ohikoagoa edo urriagoa da hizketa ekintza batzuetan beste batzuetan baino. *Al* estutze efektuzko galderetan ageri da gehien, eta eskaerak adierazten dituzten galderetan gutxien; aurre-

tiko juzguez benetako oinarria zutela erakutsi dut horrela. *Al* perpausaren dimentsio pragmatikoarekin elkarreraginean dagoen partikula dela erakusten dute datu hauek.

Bi galdetegi hauen emaitzek Monfortek (2020) planteatutako gramatikalizazio bide berresten dute, beraz:

$$(20) \text{ ahal}_{\text{Aditz modala}} > \text{ahal}_{\text{Partikula epistemikoa}} > \text{al}_{\text{Galde partikula}}$$

Lan honek bigarren katebegi horretan jarri du begia, lotura hori hobeki ezagutze aldera. Lehen katebegiaren lotura nolakoa zen nahikotxo ezagutzen genuen lehendik ere: *ahal* aditz modalari halako aditzek ohi duten banaketa gaitasun zabalak murriztu zitzaizkion, perpausaren egiturari gorago kokatu zen eta, horrekin bat, halako modal batek izan ditzakeen beste esanahi batzuk (deontikoak, egoerazkoak...) galdu zituen. Halaxe sortu zen *ahal* partikula modal epistemikoa, perpausaren ziurtasuna erakusten duen partikula, adierazpen zein galde perpausetan ager daitekeena. Bigarren katebegiaren lotura hori nolakoa zen gutxiago ezagutzen genuen, eta horixe izan da lan honen ekarpena. Lehendik bagenekien adierazpen perpausetan agertzeko gaitasuna galdu eta galde perpausetara mugatu zela; esanahizko eremuan izandako aldaketak ezagutzen genituen gutxienik. Lan honetan aurkeztu ditudan galdetegiaren emaitzei esker, badakigu *alek* ez duela bere iturri *ahalen* epistemikotasunik gordetzen. Esanahi modal guztiak galdu ditu, ezin esan *al* partikula modala denik. Beste dimentsio batera igaro da bere eragina, hizketa ekintzaren dimentsiora, maila horretan eragiten baitu *alek*. Gramatikalizazio prozesuetan gertatu ohi den bezala, lausotu egin da partikularen esanahia, baina oraindik eragin pragmatiko bat gordetzen du, galde perpaus markatzaile izatetik urrun.

Lan honek jarraipena eskatzen du, nolana ere. Ekoizpenezko galdetegi zehatz batzuek erakutsi duten datuak dira hauek. Osagarri izango lituzketen onarpen galdeketen emaitzak ikustea ere interesgarria litzateke. Halaber, lehen galdetegiak epistemikotasun efektua guztiz baztertzen ez duela argudia dezake norbaitek, eta beste ikuspegi batetik heldu gaiari. Eta, noski, bigarren galdetegiaren emaitzetan sakontzeko, hizketa ekintza gehiagori ere errepara dakieke.

Etorkizuneko lanak dira horiek, baina, lan honen asmoetatik harago daudenak. Galderaren hizketa ekintzak *alen* agerpenean eragina duela erakutsi du lan honek. Oinarri horretatik sortzen diren galdera eta zalantzak etorkizuneko lanen esku daude.

6 Laburdurak

CL	klitikoa
DENB	denbora
EXP	aspektu experientziala
GPM	galdera partikula markatzailea
PD	partikula diskurtsiboa

7 Erreferentziak

- Altube, S. (1929). *Erderismos* (2. edizioa). Indauchu.
- Arocena, F. (1961). El euskera y los judíos de Guevara. In F. Arocena (arg.), *Selecciones vascas* (137.-149. or.). Itxaropena.
- Austin, J. L. (1962). *How to do things with words*. Harvard University Press.
- Biezma, M. (2009). Alternative vs polar questions: the cornering effect. *Proceedings of SALT*, 21, 37-54. <https://doi.org/10.3765/salt.v19i0.2519>
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2020). *Lazarragaren eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. UPV/EHU.
- Bolinger, D. (1978). Yes/No questions are not alternative questions. In H. Hiž (arg.), *Questions* (87.-105. or.). Springer.
- Cheng, L. (1997). *On the typology of wh-questions*. Garland.
- Dryer, M. S. (2013). Polar questions. In M. S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online (WALS)*. Max Plank Institute.
- Elordieta, A. & Haddican, B. (2018). Truncation feeds intervention. *Natural Language Theory*, 36, 403-443. <https://doi.org/10.1007/s11049-017-9381-0>
- Etxepare, R. & Uria, L. (2016). Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (265.-288. or.). John Benjamins.
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika. Lehen urratsak II (EGLU II)*. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2016). *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Garmendia, J. (2014). A pragmatic analysis of the Basque particle *ote*. In I. Witczak-Plisiecka (arg.), *Cognitive and pragmatic aspects of speech actions* (97.-116. or.). Peter Lang.

- Groenendijk, J. & Stokhof, M. (1984). *Studies on the semantics of questions and the pragmatics of answers* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Universiteit van Amsterdam.
- Gunlogson, C. (2008). A question of commitment. *Belgian Journal of Linguistics*, 22, 101-136. <https://doi.org/10.1075/bjl.22.06gun>
- Haddican, B. (2008). Euskal perpausaren oinarrizko espez-buru-osagarri hurrenkeraren aldeko argudio batzuk. In I. Arteatx, X. Artiagoitia & A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarrizko hurrenkeraren ezbaian* (65.-92. or.). UPV/EHU.
- Karttunen, L. (1977). Syntax and semantics of questions. *Linguistics and Philosophy*, 1(1), 3-44.
- Kaufmann, M. (2021). Imperatives. In L. Matthewson, D. Gutzmann, C. Meier, H. Rullmann & T. Zimmermann (arg.), *Companion to semantics*. Wiley Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781118788516.sem067>
- Korta, K. & Zubeldia, L. (2016). *Bide* partikula: eduki doxastikoa eta ebidentziala. *Gogoia*, 15, 11-29.
- Krifka, M. (2011). Questions. In K. von Stechow, C. Maienborn & P. Portner (arg.), *Semantics* (1742.-1785. or.). De Gruyter.
- Lakarra, J. A. (2019). *Bon-/bor-/bol-* familiaren berreraiketakarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (377.-396. or.). UPV/EHU.
- Larzabal, P. (1991). *Piarres Larzabalen idazlanak I*. Elkar.
- Li, B. (2006). *Chinese final particles and the syntax of left periphery* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Universiteit Leiden.
- Lizardi Ituarte, A. (prentsan a). Particles in Basque: a neo-performative approach to *ba*. *Proceedings of WoSPP15*. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Lizardi Ituarte, A. (prentsan b). On intonationally integrated complex speech acts: the Basque discourse particle *ba* in interrogatives. *Proceedings of the Annual Meeting of the Chicago Linguistic Society 56 (CLS56)*.
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Monforte, S. (2020). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz: sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/49782>

- Morin, A. (2008). The syntax of Gascon clause-type particles. *Linguistica Atlantica*, 29, 137-155.
- Ortiz de Urbina, J. (1994). Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua*, 94(2), 125-153.
- Portes, C., Beyssade, C., Michelas, A., Marandin, J.-M. & Champagne-Lavau, M. (2014). The dialogical dimension of intonational meaning: Evidence from French. *Journal of Pragmatics*, 74, 15-29. <https://doi.org/10.1016/j.-pragma.2014.08.013>
- de Rijk, R. P. G. (2008). *Standard Basque. A progressive grammar*. MIT.
- Vanrell, M. del M., Mascaró, I., Torres-Tamarit, F. & Prieto, P. (2013). Intonation as an encoder of speaker's certainty: information and confirmation yes-no questions in Catalan. *Language and Speech*, 56(3), 163-190. <https://doi.org/10.1177/0023830912443942>
- Villasante, L. (1980). *Sintaxis de la oración simple*. Editorial Franciscanas Arantzazu.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak*. Elkar.
- Zubeldia, L. (2015). Omen *partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa*. UEU.

D ereduan euskaldundutako gazte nafarren euskara gaitasunaren eta euskara transmisioaren bilakaera

Evolution of the Basque language competence and transmission of young people in Navarre

Ainhoa Pardina
ELEBILAB, UPV/EHU
ainhoa.pardina@ehu.eus

LABURPENA

Artikulu honetan Lizarrako hiztun berri gazteen euskara gaitasunaren bilakaera izango dugu aztergai, aurrez galdetegi batzuen bidez identifikatutako profil proaktiboaren kasuan, eta bilakaera hori eragin duten faktoreak zein diren ikusi nahi dugu. Hala, D ereduak gazteen euskara gaitasunean izan duen eraginari ere erreparatuko diogu. Era berean, gazte horiek eta beren familiek etxean izan duten transmisioa edo transmisiorik eza ere ikertu nahi da. Honela, lehen hurbilketa aurkeztuko da Lizarran euskarak izan duen bilakaera aztertzeke, galera prozesutik biziberritze prozesura arte. Amaieran, gure emaitzak muda linguistikoei buruz dakigunarekin alderatuko dira.

Gako hitzak: euskara gaitasuna; transmisioa; biziberritze prozesua; Lizarra.

ABSTRACT

This article examines the evolution of the Basque language competence of young new speakers in Lizarra, and more specifically in the case of the proactive profile previously identified through questionnaires. We are interested in the factors that have influenced the speakers' evolution. We also look at the impact that the linguistic model D has had on their language competence. In addition, the Basque language transmission of the participants and their families is analysed too. Thus, a first approach is presented to study the evolution of the Basque language in Lizarra, from the process of loss to the process of revitalization. To conclude, our results are compared to what we know about linguistic mudes.

Keywords: Basque language competence; transmission; revitalization process; Lizarra.

1 Sarrera

Lizarrako euskararen biziberritze prozesuaren testuinguruan kokatuta, murgilketa ereduan euskalduntako Nafarroako eremu mistoko gazte hiztun berriek euskara nola jaso duten aztertzeo ikerketa bat aurkeztuko dugu lan honetan. ELEBILAB ikertaldeak azken bi hamarkadetan euskara-gaztelania gaitasunen garapenaz egindako lanei segida eman nahi zaie; zehazki, taldearen aurreko ikerketetan parte hartutako gazte berberen hizkuntza gaitasunaren bilakaeran eta transmisioan eragina izan dezaketen eragileak aztertuko dira. Lan honetan lehen hurbilketa aurkeztuko da, eta lehenago galdetegi kuantitatibo baten bidez identifikatutako profil proaktiboa duten hiztunen ezaugarriak, horien familien nolakotasunak nahiz euskara gaitasuna jaso izanaren eragileak agerraraziko dira. Hain zuzen ere, proaktiboak dira euskara gehien erabiltzen duten eta euskararekiko jarrera aldekoena daukaten gazteak.

Lan hau ikerketa handiago baten parte da, non euskararen erabilera eta jarrerak ere ikertu diren. Gainera, asmoa da, aipatutako profila aztertzen jarraitzeaz gain, aurrera begira, galdetegi bidez identifikatutako gainerako profilak ere ikertzea, horiekin ere eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak eginda, besteak beste.

Hemen aurkeztu dugun ikerlana Nafarroako eremu mistoan kokatzen da. Euskararen Legeak bereizten dituen hiru eremuetako bat da eremu mistoa. Bertan, euskara ez da guztiz ofiziala, baina legediak aukera ematen du euskara, neurri batean bada ere, sustatzeko. Horretarako tresna garrantzitsua da D eredua, etxetik erdaldunak diren umeak euskaldun daitezen ahalbidetzen duelako.

Lau ataletan banatu da lana: lehenengoan, Nafarroako euskararen bilakaera azalduko dugu, galeratik biziberritze prozesura, baita gaitasunari buruzko datu batzuk eman ere; bigarrenean, helburu eta aurreikuspenak azaldu ostean, metodologiari buruzko zehaztapenak eman eta gure ikerketa aurkeztuko dugu; hirugarrenean, gure ikerketaren emaitzak aurkeztuko ditugu; eta, azkenik, laugarrenean, ondorioak aterako ditugu.

2 Euskararen bilakaera Nafarroan: galeratik biziberritze prozesura

Atal honetan Nafarroako galeraren historia nola gertatu zen ikusiko dugu azaletik eta, jarraian, biziberritze prozesuaz arituko gara. Atalarekin bukatzeko, gainera, euskararen gaitasunari buruzko ikerketa batzuk ikusiko ditugu.

2.1 Galeraren historia

Erizeren (1997) lanean ikus daitekeenez, Nafarroan lehen atzerakada Tuteraraino iritsi zen I. eta VI. mendeen artean. VI. eta XVI. mendeen artean Nafarroako Erriberaraino eta XVI. mendetik XIX.aren erdialdera arte Nafarroaren hegoalderaino jarraitu zuen atzera. Honela, Dufurren (2012) esanetan, esan daiteke XVI. mendean, oro har, euskal komunitateak eutsi egin ziola erdararen zabalkundeari eta XVII. eta XVIII. mende bitartean gertatuzela atzerakadarik nabarmenena. Hain zuzen ere, XVIII. mendean, Lizarra bere ingurua erdaratuko zuen eragile bilakatu zen autorearen esanetan, hezkuntzaren unibertsalizazioa (neurri batean) eta euskararen aurkako hizkuntza jazarpena euskararentzat kolpe gogorak izanik XVIII. eta XIX. mendeetan. Honela, XIX. mendea izan zen bertako euskal hiztun komunitatea erabat galdu zen garaia, galeraren ibilbidea hegoaldeetik iparralderakoa eta mendebaldetik ekialderakoa izanik.

Hain zuzen ere, Erizek (1997) bere lanean esan bezala, erdalduntzean hainbat faktorek izan zuten eragina: faktore instituzionalek (eliza, agintariak ofiziale errealak izateak, etab.), faktore sozio-politikoek (erregearen ordezkarien jokaerak, irakasle nazionalek, funtzionario publikoek, euskal nobleziaren Gaztelarekiko loturak, administrazio hizkuntzak, etab.), hirien sorrerak (lehen gune diglosikoak hiribilduak ziren), jarduera ekonomikoei loturiko kanpoarekiko komunikazioak eta faktore psiko-sozialek (aurreiritzi eta estereotipoek), besteak beste. Bestela esanda, euskararen atzerakadaren eragile nagusiak Espainiako hizkuntza kolonialismoak eragindako zapalkuntza eta horri lotutako faktore sozio-politiko zein ekonomikoak direla esan daiteke.

Nafarroako euskararen galeraren historia azalduta, gure ikerketan parte hartu duten gazteen herrian euskara noiz eta nola galdu zen azaltzea interesgarria da. Dufurren (2012) esanetan, 1842an euskara galtzear zegoen Li-

zarraldeko ipar eta ipar-ekialdeko herrietan; izan ere, adinekoek bakarrik hitz egiten zutenez, transmisioa etenda zegoen. Horrela, XIX. mendean galdu zen Lizarra inguruan, Garesen 1925ean eta XX. mendearen hasieran Estellerrian.

2.2 Biziberritze prozesua


Paula Kasaresek (2014) bere tesian azaltzen duen bezala, 1960-1970 hamarkadetan euskararen galerari buelta eman eta biziberritze zantzuak agertzen hasi ziren; izan ere, euskararen aldeko jarrerak indartu ziren, 1960ko hamarkadako euskararen irakaskuntzari –ikastolen eta gau eskolen bidez– hasiera eman zitzaion, eta 1970eko hamarkadan ikastolen gizarte-mugimendua sendotu zen. Gerra ostean sortutako lehen ikastolei dagokienez, 1963an Iruñean lehen ikastola sortzen saiatu arren, Francoren gobernuaren eraginez ez zuten lortu. Hala ere, 1965ean Iruñean bertan Uxueko Andre Maria Ikastola sortu zen. Hain zuzen ere, hizkuntzarekiko motibazio handia zeukateenez, ikastolaren egitasmoa gurasoek eraman zuten aurrera, nahiz eta gehienek ez zekiten euskaraz. Horrela, aipatu beharra dago 1971-1972 ikasturtean hamalau ikastola zeudela Nafarroan: Iruñean bi eta bana Agoitzen, Olaguen, Lizarran, Etxarri Aranatzan, Burlatan, Lakuntzan, Lekunberrin, Leitzañan, Elizondan, Altsasun, Tafallan eta Olatzagutian. Nafarroako ikastola gehienak hamarkada hartan sortu ziren; urterik emankorrena 1977 izan zen, bederatzi ikastola zabaldu baitziren. Honela, 1980an Nafarroan 42 ikastola zeuden. D eredu publikoa, aldiz, gerora zabaldu zen; esaterako, Lizarran 1995ean jarri zen martxan.

Hezkuntza erduekin jarraituz, aipatu beharra dago, euskararen legeztatunak Nafarroan dauzkan mugak handiak izanik ere, hainbat aukera daudela gaur egun: guztia euskaraz ikastea, gainerako hizkuntzak izan ezik (D eredu), ikasgaien erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz ikastea (B eredu), ikasgai guztiak erdaraz izan arren euskara ikasgai bezala ematen duena (A eredu) eta, azkenik, euskararik irakasten ez den eredu (G eredu). Hala ere, kontuan izan behar dugu eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen direla; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak eta, azkenik, eremu ez-euskaldunerako A, D eta G ereduak (Aldasoro, 2001). Beraz, eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunetan G eredu aukera daiteke, eta eremu euskaldunetan da bakarrik nahitaezkoa euskara ikastea. Are gehiago, eremu misto eta ez-euskalduneko hamahiru herritan bakarrik dago D eredu publi-

koa, 2015ean martxan jarri zena (Muñagorri Garmendia, 2021). Gainera, aipatutako ereduaren barruan Ingelesa Ikasteko Programak ere sartzen dira, hots, ingelesez ematen dituzte ikasgai batzuk, ingelesezko ikasgaiak gain. Honela, Nafarroan, 104 ikastetxetan (84 publikoak) daude martxan IPPak eta horietatik 8 ikastetxek D ereduko lerroak dituzte eta gainontzekoek A/G ereduak (Steilas, 2017).

Joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera Nafarroan D ereduaren hedatuz joan da, nahiz eta bilakaera hori oro har mantsoa izan den eta ez duen lortu euskararik gabeko G ereduaren matrikulazioaren ehunekoetara gerturatzea: G ereduaren matrikulatu diren ikasleen portzentajea % 61 inguruan dago, eta aldiz, D ereduko matrikulazioa % 25 ingurukoa da (Noticias de Navarra, 2021).

1. irudian hobeto ikus daitezke hezkuntza ereduaren aukeraketak. Halaber, ikus daitezke 1990etik 2000ra bitartean G ereduko matrikulazioa asko jaitsi eta A eta D ereduak igo egin zirela, nahiz gaur egun dagoen joera mantendu den.



1. irudia. Hizkuntza aukeraketa: Haur Hezkuntza+Lehen hezkuntza, hizkuntza ereduak, Nafarroa, 1990-2017, ehunekotan (datuen jatorria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saila, *online*).

Erizek (2018) esaten duen bezala, honelako hautuak egiterakoan, balore linguistiko eta identitarioak adierazten dira, eta aurreko grafikoan ikusi ditugun datuak aukeraketa linguistikoaren prozesu kolektiboaren emaitzak dira.

Gainera, ikus daitekeen bezala, lehenengo grafiko honen marrak ia horizontalak dira, eta honek lehenetasun linguistiko nahiko egonkortua adierazten du.

Gainera, kontuan hartzekoa da murgiltze ereduak izan dezakeen inpaktua. Esaterako, matrikulazio datu hauekin pentsa daiteke belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eskolaren bidez gertatzen dela. Hala, Kasaresek (2017) azaldu bezala, hizkuntza jarraipena askotariko espazioetan gertatzen da, eta ez bakarrik etxean; izan ere, *transmisio* kontzeptuan oinarritutako modeloan, eremuak etxea eta eskola dira. Etxean gurasoen bidezko transmisio naturala gertatzen da, eta eskolan irakasleen bidezko transmisio kulturala. Transferentzia hau bertikala eta norabide bakarrekoa da, hau da, helduengandik umeenganakoa, 1. taulan ikusten den bezala.

1. taula. Hizkuntza transmisioa: kontzeptua, helburua, eremua eta agente transmisoreak (Kasares, 2017, 144. or.)

Kontzeptua	Helburua	Eremua	Agente transmisoreak
Transmisioa	Ama hizkuntza	Etxea Eskola	Gurasoak Irakasleak Norabide bakarreko agentzia (bertikala, goitik beherakoa)

Hala ere, helburu soziolinguistikoa komunikazio ez instituzionalizatuetan umeek beste umeekin euskara erabiltzea izanik, transmisioaren modeloak eragozpen batzuk ditu; horregatik, sozializazio linguistikoaren paradigman oinarritutako modelo bat proposatzen da Kasaresen (2017) lanean, 2. taulan ikusten den bezala.

2. taula. Hizkuntza sozializazioa: kontzeptua, helburua, bitartekoak eta agente sozializatzaileak (Kasares, 2017, 145. or.)

Kontzeptua	Helburua	Bitartekoak	Agente sozializatzaileak
Sozializazioa	Ama hizkuntza	Gizartea (holistikoa)	Askotariko agentzia interaktiboak (bertikala, goitik beherakoa eta behetik gorakoa, eta horizontala)

2. taulan ikus daitekeen modelo horretan, heziketa linguistikoan eta umeen harremanetan erabilera ohiturak finkatzen laguntzen duten bitartekoak ez dira etxea eta eskola bakarrik; komunitate osoa barnebiltzen duen bizitza sozialera eta sozializazio linguistikoaren izaera holistikora zabaltzen dira bitarteko horiek (eskolaz kanpoko ekintzak, kirola, musika, komunikabideak...). Baina, kontuan hartu behar dugu haurrak ez direla hizkuntzaren hartzaile hutsak edo helduen hizkuntza ondarearen oinarrikoak, hizkuntzaren jarraitutasunaren eragile aktiboak baizik. Haurrek hizkuntza jasotzen dute, baina bere egin behar dute, belaunaldi bakoitzak egin behar izan duen bezala, eta hau egingo dute baldin eta soilik baldin eta berentzat hizkuntza besteekin erlazionatzeko, dibertitzeko eta izan nahi dutena izateko balio duen errekurtsoa bada (Kasares, 2017).

Hain zuzen ere, eskolaren nahiz hizkuntza sozializazioaren bidez euskalduntzen dira haur asko gaur egun, eta beren etxeetan euskara sartzen dute. Hala, Kasaresek (2014), belaunaldiz belaunaldiko euskararen jarraipena aztertzeko, zenbait familia mota bereizten ditu: familia euskaldun beteak, familia euskaldun ez-osoak eta familia euskaldun berrituak, 3. taulan ikusten den bezala.

3. taula. Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeko familia euskaldunen tipologia soziolinguistikoa (Kasares, 2014, 113. or.)

	Familia euskaldunbeteak	Familia euskaldun ez-osoak		Familia euskaldunberrituak
Aitatxi-amatxiak	Euskaldunak	Euskaldunak	Erdaldunak	Erdaldunak
Gurasoak	Euskaldunak	Euskaldunak	Erdaldunak	Erdaldunak
Seme-alabak	Euskaldunak	Euskaldunak		Euskaldunak
Zein ingurune soziolinguistikotan diren nagusi	Batik bat, euskararen belaunez belauneko jarraipena eten ez den herri edo ingurune oso euskaldunetan	Batik bat, azken hamarkadetan euskararen galera berreskurapen prozesua gertatu den hiri-herrietan		Oro har, euskara XX. mendea baino lehenago galdu zen eta berreskuratze prozesua hasia den hiri-herrietan

Beraz, 3. taulan ikus daitekeen bezala, haurrak euskaldunak diren familiak, nahiz eta gurasoek euskararik jakin ez, familia euskalduntzat har daitezkeela esan daiteke, hots, familia euskaldun berritutzat. Bestela esanda, haurrak eskolan euskaldundutako familiak familia euskaldun berritutzat har daitezke, haur horiek euskara sartzan baitute beren etxeetan; hau euskararen biziberritze prozesuan funtsezkoa da.

Behin Nafarroako datuak ezagututa, gure ikerketako parte hartzaileen herriari erreparatuko diogu. Horri dagokionez, Dufurren (2012) lanean ikus daitekeen bezala, euskararen biziberritzearekin lotutako ekintza asko izan dira 1932tik hona. Hain zuzen ere, urte horretan, 1932ko martxoan, gau eskolak martxan jarri ziren, eta 1934an Errepublika garaiko ikastolak ere bai. Honek 1936ra arte bakarrik iraun zuen, baina 1930eko hamarkadan euskara bertakoa izatearen memoria bizia zegoen oraindik.

Handik urte batzuetara, 1960ko hamarkadan, berriz ere euskalgintza esnatzen hasi zen, gau eskolak martxan jarritz. Horretaz gain, Lizarra Ikastolak 1970eko urriaren 5ean izan zuen lehen ikasturtea, baina kontuan hartu behar da, euskara irakasten bazen ere, ikasgai gehienak gazteleraz ematen zirela. Hala ere, horrela haurrak ez zirela euskalduntzen ikusita, 1973an lehendabiziko murgiltze ereduak ezarri zuten. Gainera, urte gutxiren buruan, 1978an, gau eskolako ikasleek Gure Izkuntza elkarteak sortu zuten euskara erabiltzeko gune bat sortzeko eta, 80ko hamarkadan, AEK-k Lizarrako gau eskolen ardura hartu zuen eta, horrekin batera, Bernat Etxepare elkarteak sortu zen. Gainera, kontuan izan behar dugu lehendabiziko Korrikak garai hartan izan zirela (Dufur, 2012).


1989an Euskara Zerbitzua eskuratu zen Lizarrako Udalean eta, hurrengo urtean, Nafarroa Oinezi esker ikastolak eraikin berria eraikitzeko dirua eskuratu zuen. Gainera, 1995ean D eredu publikoa ere ezarri zen Lizarran, ordutik aurrera gurasoei bi aukera eskainiz haurren eskolatzea euskaraz egiteko (Dufur, 2012).

Azken urteak ere oparoak izan dira euskarari dagokionez; izan ere, 1996an, alde batetik, Lizarrako Gazte Asanblada sortu zen eta, beste alde batetik, ikastola DBH eskaintzen hasi zen; 1999an, bestalde, haur eskola zabaldu zen. Horrela, lehen euskarazko murgiltze ereduarekin gertatu bezala, haur eskolaren eskaintza ere bikoiztu zen 2004an Arieta haur eskola sortzean: udal eskola horrek hasieratik euskal lerroa eta gaztelania lerroa ezarri zituen. Azkenik, 2006an Maria de Vicuña Gazteriaren Etxea inauguratuta, udalak kudeaturiko gazteentzako eskaintza zabaldu zen eta 2008an Garean

Euskaldunon Elkartea sortu zen. Gainera, aipatu beharra dago 2011n Euskal Herrian Euskaraz taldea berrosatzen hasi zela Lizarran (Dufur, 2012).

2.3 Euskararen gaitasunari buruzko ikerketa batzuk


Gaitasunari dagokionez, hasteko, esan beharra dago Nafarroako gazteen gehiengoa erdalduna dela (% 65,5), 2. irudian ikus daitekeen moduan, nahiz eta egia den euskaldunen kopurua geroz eta handiagoa dela eta, gainera, zenbat eta gazteago, orduan eta euskaldunen ehuneko handiagoa dagoela.



2. irudia. Euskara gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2018, ehunekotan (Nafarroako Gobernua, 2020, 12. or.).

Horrela, zenbait lanek erakusten duten moduan (Anduaga & Kasares, 2018; Nafarroako Gobernua, 2020), Nafarroan, euskarari dagokion gaitasuna gora doan arren, gazte euskaldun gehienek erraztasun handiagoa dute gaztelera euskaraz baino eta, gainera, zenbat eta gazteago, orduan eta erdal ebildunen ehuneko handiagoa dago (3. irudia).

Irudi hori ikusita, pentsa daiteke euskaraz aritzeko erosotasun falta dagoela gazteen hizkuntza hautaketen eta, beraz, euskararen erabileraren kopuruaren atzean. Horrela, eskolan euskalduntako haur eta gazteek euskaraz egiteko eta euskara euren egiteko aukera sozialak behar dituzte (Anduaga & Kasares, 2018; Kasares, 2014).



3. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera. Nafarroa, 2018, ehunekotan (Nafarroako Gobernua, 2020, 14. or.).

Horrez gain, ondoren aipatuko ditugun lanak agertzea komeni da, lan honetan aurkeztuko den ikerketako parte hartzaileen adinaren aldetik urrun gelditu arren, parte hartzaileak berberak direlako, umeak zirenean. Hain zuzen ere, horregatik, ELEBILAB ikertaldekoek egindako ikerketetan zentratuko gara gehienbat.

Nafarroako eremu mistoko D ereduko eskola bateko ikasleen gaztelania H1 / euskara H2 garapenez egindako ikerketa sekuentziales (Ezeizabarrena, 2012; Manterola, 2010; Manterola & Almgren, 2013; Manterola *et al.*, 2013) erakutsi dute bi hizkuntzen garapena antzekoa dela 5 eta 11 urte bitartean. Era berean, ikasle horien eta ingurune eta etxe euskaldunetako haurren euskara garapena konparatuta, antzekotasun ugari ikusi da, nahiz eta ezberdintasun batzuk ere badauden, bai euskararen alderdi gramatikal batzuen garapenean, bai alderdi diskurtsibo batzuen garapenean: esate baterako, euskal morfologia gaztelaniazko hitz lexikoei txertatuz hizketa elebiduna erabiltzeko ahalmena agertzen da 5 urterekin, bai eta 8rekin eta 11rekin ere; bestalde, denborazko testu antolatzaileen ekoizpena goraka doa adinean aurrera egin ahala.

Manterolaren (2019) lanean aipatu berri ditugun ikerketetako parte hartzaileek 11 urte zituzteneko idatzizko gaitasuna aztertzen da. Zehazki, errezeta bat idatzi behar izan zuten, eta, besteak beste, hauen testu generoarekiko adaptazioa, edukien planifikazioa eta testu antolatzaileak aztertu dira aipaturiko lanean. Generoarekiko adaptazioari dagokionez, bi taldeen idatzietan, euskara H1 eta H2 dutenen idatzietan, ikus daiteke, errezeta dela eta,

oinarrizko hiru atalak agertzen direla (izenburua, osagaien zerrenda eta elaborazio prozesua). Testu antolatzaileei dagokienez, oro har, testu guztietan agertzen direnez, bi taldeak gai dira errezetaren prozesua kronologikoki antolatzeko. Horrela, euskara H1 eta euskara H2 dutenengan garapena antzekoa dela esan daiteke, ikusi ditugun alderdi guztietan.

Aipatu berri ditudan ikerketetako parte hartzaile berberetako batzuk aztertu dira lan berriagoetan (Pardina, 2021) eta horiek ere erakutsi dute parte hartzaile gehienek euskara gaitasun ona zeukatela DBHn, eta horietako gehienek gaitasun hori mantendu egin dutela. Hala ere, aipagarria da ekoizpenaren gaitasuna % 31-37k galdu duela DBHn zeudenetik gaur egunera,¹ idatziz zein ahoz, hurrenez hurren.

4. taula. Gazteen euskara gaitasunaren bilakaera (Pardina, 2021, 110. or.)

	«(Nahikoa) ona zen DBHn eta mantendu egin dut»	«(Nahikoa) ona zen DBHn, baina galdu egin dut»	«(Nahikoa) txarra zen DBHn, baina hobetu egin dut»
Ahozko ekoizpena	% 50	% 37	% 13
Ahozko ulermena	% 87	% 13	% 0
Idatzizko ekoizpena	% 63	% 31	% 6
Idatzizko ulermena	% 87	% 13	% 0

Gainera, ikerketa berberak erakutsi du gaitasunaren transmisioaren bilakaerari dagokionez, aztergai dugun herrian oso gutxi gertatu dela; izan ere, 5. taulan ikus daitekeen bezala, aztertutako parte hartzaileen % 23,1ek euskararen gaitasunaren transmisio galera izan zuen familian, beren aitona-amonek, euskara jakin arren, ez zietelako gurasoei gaitasun hori transmititu. Hain zuzen ere, % 7,7k bakarrik mantendu du aipatutako transmisioa belaunaldiz belaunaldi, baina aipagarria da % 30,8en gurasoek, etxean euskara gaitasunik jaso ez arren, euskara apur bat transmititu zietela gazteei, gaitasunaren transmisioari hasiera emanez.

¹ 18-23 urterekin bete dituzte galdetegiak.

5. taula. Euskararen gaitasunaren etxeko transmisioa, azken hiru belaunaldiak² (Pardina, 2021, 110. or.)

Belaunaldien arteko euskararen transmisioaren ibilbide motak	Gaitasunaren transmisioaren ehunekoa
1. Ibilbidea: Bai – Ez – Ez	% 23,1
2. Ibilbidea: Ez – Ez – Ez	% 38,4
3. Ibilbidea: Ez – Ez – Bai	% 30,8
4. Ibilbidea: Bai – Bai – Bai	% 7,7

3 Metodologia

Lanaren zati honetan gure ikerketa gauzatzeko erabilitako metodologia azaltzera igaroko gara. Ondoko atalak honela banatuko ditugu: ikerketaren helburuak, aurreikuspenak, partaideak eta, azkenik, datu bilketarako tresnak.

3.1 Ikerketa helburuak

Lizarrako euskararen biziberritze prozesuaren testuinguruan kokatuta, murgilketa ereduan euskaldundutako gazte hiztun berrien euskara gaitasunaren bilakaeran eta transmisioan eragina izan dezaketen eragileak aztertu nahi dira, aurrez galdetegi batzuen bidez identifikatutako profil proaktiboaren kasuan. Lan honetan lehen hurbilketa bat aurkeztuko da, eztabaida talde baten eta banakako elkarriketen bidez aztertutako gazteen familien nolokotasunei nahiz gazteek euskara gaitasuna jaso izanaren eragileei dagokiena, hauen ezaugarriak ezagutzeko.

3.2 Aurreikuspenak

Lizarran eta oro har eremu mistoan euskararen bilakaera soziolinguistikoak nolakoa den kontuan hartuta, euskararen gaitasunaren bilakaerari dagokionez, askotariko ibilbideak espero daitezke. Euskaraz gaitasun ona daukatela uste duten hiztun berriak topatzea espero dugu. Izan ere, 2.3 azpiatalean azaldu dugun moduan, Almgren eta Manterolaren (2016) lanean gure

² Parte hartzaile hauetako gehienek lan honetako ikerketan ere parte hartu dute.

parte hartzaileetako askoren euskara gaitasunaren bilakaera aztertu zen 5-8-11 urte zituztenean, eta ikusi zen parte hartzaile horien euskara gaitasuna (zehazki, ahoz ipuinak birkontatzeko gaitasuna) etxetik euskaldunak eta tes-tuinguru euskaldunekoak ziren adin bereko haurren oso antzekoa zela. Hala ere, euskaraz aritzeko gaitasuna galdu duten hiztun berri gazteen profil za-bala identifikatzea ere espero dugu, EAEko gazte hiztun berriekin egin diren ikerketa lanak kontuan hartuta (Amorrortu *et al.*, 2017).

Horrez gain, gazteen etxeko sozializazioan euskarak izandako lekua dela eta, espero da familia euskaltzaleetako gazteak identifikatzea, Kasaresen (2014, 2017) lanak kontuan hartuta. Hala ere, familietan euskararekiko atxi-kimendu berezirik gabe sozializatutakoak ere topatzea espero da.

D ereduaren ekarpenei dagokionez, gazte horiek euskalduntzean paper garrantzitsua jokatu dutela aurreikusten da, D eredurik gabe ez zutelako euskararik jakingo eta gazte horiek umeak zirela jada euskaraz ipuinak kon-tatzeko gai zirelako, aurreko aurreikuspenen jadanik aipatu bezala (Ezeiza-barrena, 2012; Manterola & Almgren, 2013; Manterola *et al.*, 2013).

3.3 Partaideak

ELEBILAB taldearen hainbat ikerketatan 5, 8 eta 11 urterekin parte hartu zuten subjektu batzuk aztertu dira, gaur egun unibertsitate graduiko ikaske-tak egiteko adinean daudela. Lehenago egindako azterlan horietan, parte hartzaileen euskararen eta gaztelaniaren gaitasunen garapena aztertu zen. Nafarroako eremu mistoko herri batean jaiok dira, etxean gaztelaniaz ha-ziak eta euskara D ereduaren ikasiak, bizpahiru urtetatik aurrera. Beraz, eus-kararen hiztun berri gisa har ditzakegu parte hartzaile horiek, Ortega *et al.*-en (2016) arabera.

35 parte hartzailek betetako galdetegietan identifikatutako profil bat az-tertu nahi da, esan bezala, lan honetan. Honela, 21-23 urteko sei gazte izan dira profil proaktiboa, hots, euskara gehien erabiltzen dutenen eta jarrera al-dekoena dutenen taldea ezagutzeko baliatu ditugun parte hartzaileak: bost neska eta mutil bat.

3.4 Datu bilketarako tresnak: eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak

Ikerketa gauzatzeko, lehenik, galdetegi bat pasatu zitzairen parte hartzaileei, eta bertatik ateratako emaitzak aztertuta, zenbait profil bereizi genituen. Euskara gehien erabiltzen zutenak eta jarrera aldekoena zutenak proaktibotzat hartuta, haiekin eztabaida talde bat eta hainbat banakako elkarrizketa gauzatu genituen. Lan honetan eztabaida taldetik eta banakako elkarrizketetatik ateratako informazioa –besteak beste, muda linguistikoak zerk eragin dien– azalduko dugu. Hain zuzen ere, muda linguistikoak dira hiztunak hizkuntza bat egitetik bestea egitera pasatzea euren eguneroko ohiko elkarrekintzetan (Pujolar *et al.*, 2017).

Jarrerak biltzeko balio duten zeharkako metodo kualitatiboak dira eztabaida talde nahiz banakako elkarrizketak, helburu nagusizat parte hartzaileek gai bati buruz dituzten uste, jarrera, sentipen eta bizipenei buruzko informazioa jasotzea dutenak. Metodo horiei esker, gai baten askotariko ikuspegiak azalera daitezke (Amorrortu *et al.*, 2009).

Beraz, lau pertsonak osatutako eztabaida taldea antolatu genuen eta, horiei bibliografiako gaiekin lotutako hamar hizpide edo hizketagai atera genizkien, bost multzotan banatuta, gutxi gorabehera, ordubeteko saioa osatuta. Gainera, eztabaida taldeko datuak aztertuta, bertako informazioa sendotu nahi izan genuen, zehaztasun gehiago lortzeko. Horretarako, lau banakako elkarrizketa gauzatu genituen: hasteko, eztabaida taldean parte hartu zuten biri egin genien, berek emandako informazioa zehaztasun gehiagoz ezagutzeko, eta gero beste bi parte hartzaileei.

Horrela, mudak, hiztun legitimotzat jotzeko gakoak, gazte hiztun berriak eta euskara identitateak, *bottom-up* hizkuntza politika eta Euskaraldia izan ditugu hizketagai metodologia kualitatiboak lantzean. Hala ere, guk planteatutako gaiez gain, beste hainbat gai ere atera ziren eztabaida talde nahiz elkarrizketetan. Hain zuzen ere, horietako batzuk ikusiko ditugu jarraian.

4 Emaitzak

4.1 Euskararen galeraren historiaren arrastoak

Parte hartzaile batzuen aiton-amonak Bilbokoak nahiz Sakanakoak ziren, euskaldunak, etxean euskaraz heziak. Hala ere, aipagarria da Lizarrara joandakoan ez zutela euskararik erabiltzen eta ez zutela transmititu, euskarak ospe txarra zeukalako Lizarran eta, horregatik, arraro begiratzen zietelako euskaraz aritzean. Euskararen galeraren arrastoak ikus daitezke parte hartzaileek emandako ondorengo testigantzetan:

- (1) Nire birramona ta birraitona (...) *Sakanan hitz egiten zuten euskeraz, baina etorri ziren hona bizitzera (...) eta ya begiratzen zituzten arraro euskaraz hitz egiteagatik ta orduan, bueno nire aitonak ikasi zuen txikitan baina gero ya utzi zioten hitz egiteari* (1ET-U)
- (2) nire aitite Bilboko zen eta *euskaldunak ziren nire familiakoak, baina hori da, nire amak ez zuen, o sea hona etorri zirenean Lizarrara bizitzera, nire amak ez zuen izan e: euskaraz ikasteko aukera hori (...) ez daukagu ohitura hori e: etxean hitz egitekoa* (1ET-I)

Hala ere, nahiz eta euskararen beraren transmisioa galdu zen, esan daiteke gazteen gurasoek euskararekiko sentimendua daukatela, gehienbat beraien gurasoek euskaraz zekitelako, hots, galera horri dagokionez kontzientek direla:

- (3) Es que gainera hori, *bere aitak zekienez euskaraz hitz egiten, ba ez dakit, berarentzat da ere sentimendu bezala edo* (BE-U)

4.2 Familia euskaltzaleetako gazteak

Gazte horien gurasoek ez dakite euskaraz hitz egiten, baina familia euskaltzaleak dira, hots, familiek euskararen aldeko jarrera daukate (4) eta beti nahi izan dute seme-alabek euskara jakin eta erabil dezaten. Hau ikusten da, esate baterako, seme-alabak euskara ikas (5) eta erabil dezaten (6) animatzean edo motibatzean, euskarari buruz hitz egitean eta gauza positiboak esatean (7), euskararen aldeko ekimen nahiz manifestazioetan parte hartzean (8), nahiz seme-alabek lanean euskaraz hitz egiten dutelako gurasoek sentitzen duten harrotasunean (9).

- (4) aitona-amonek bai transmititu zietela (...) nire aitari (...) euskal kulturaren ba... alde zeudela edo dena delakoa, ez? (...) nire gurasoek (...) *euskararen alde daudela*, eta horregatik ikasi dugu nire arreba eta biok euskaraz (BE-I)
- (5) [gurasoak] bai *saiatu direla beti*, nahiz eta haiek ezin izan (...) *gu motibatzen edo gu bultzatzen euskara ikastera* (BE-J)
- (6) beti esaten zidaten «animatu» ta hori, beti daudela hor, «*venga, hitz egin behar dezutela*» beti animatzen (1ET-Z)
- (7) baina beti *euskara burutan daukate*. (...) nere ama bai izan da txikitatik animatu nauena gehiena. (...) *Beste gurasoekin konparatuta beti da euskara, euskara, euskara ta dena-dena super ona*. Ta ordun, bai izan dudala motibazio hori nik txikitatik. (...) *Ta es que nere aitona-amonek ere «ai, ze ondo, euskaraz»* (BE-Z)
- (8) beti egon dira *euskararen alde* ta *Nafarroa oinez, euskararen e: aldeko manifestaziotan* ta... (1ET-U)
- (9) Ba nire aitak beti esaten dit «ze ongi etorri zaizun kanpinean lan egiten hastea euskaraz hitz egiteko» (...) Pasatu nintzen justu kanpinera ta (...) hitz egiten dut egunero, egunero, egunero euskaraz, ia % 90a, lanean, ta orduan *beti esaten dit hori, e «ze ongi», «ze pozik nagoen», no sé que... ta «se me cae la baba viéndote hablar euskera» eta holakoak, aitak* (BE-U)

Horrez gain, familien euskaltzetasuna ikus daiteke gurasoek euskara ikasteko egindako saiakeretan ere bai, nahiz eta testuinguru negatiboa izan. Hain zuzen ere, gurasoak euskara ikasten saiatu ziren euskaltegian (10) eta, gaitasun hori lortu ez arren, seme-alabak D ereduan matrikulatu zituzten (11), haiek euskara umetatik ikas zezaten.

- (10) Ta *hasi ziren euskaltegian ikasten gurekin hitz egiteko*, (...) azkenean lanagatik eta ta gu zaintzeagatik pues utzi zuten. Ta orain niri beti esaten didate, biek gainera, e *jubilatzen direnean sartu nahi dutela barnetegi batean edo euskaltegian ta ikasi o sea ongi ongi jakiteko* (BE-U)
- (11) *nere gurasoek D ereduan sartuko ez ba... bazidaten ba ez nun euskara ikasiko*, (...) nere familiatik sartu zidaten pribilegio bat zela, (...) beti

jarri dutela gogo pila bat edo e saiatu direla pila bat gu euskaraz ikastea (BE-Z)

Esan daiteke euskararen gaitasunik ez dietela transmititu beren seme-ala-bei, baina euskaldun sentitzea edo euskararekiko jarreraren transmisioa egon dela esan daiteke (12). Gainera, familia euskaltzalea izateak erabileran eta erabiltzeko egiten duten esfortzuan nahiz gaitasunean eragina daukala ere ikusi dugu (13):

- (12) da *etxean transmititzen dizutena*. Edo adibidez nire gurasoak *sentitzen dira euskaldunak* ta orduan transmititu didate hori (1ET-U)
- (13) nik uste dut (...) egia dela ba *gure gurasoek edo aitona-amonek euskara jakingo balute, ba guk ere askoz gehiago hitz egingo genuela*. (...) *gure gurasoek e ba motibatu ez baligute edo, agian ez genuela e intentzio hori ba euskaraz hitz egiteko edo esfortzu hori egingo*. Baina bai, o sea, pixkat nik uste... bai, daukala zerikusia (BE-J)

Beraz, hori guztia ikusita, esan daiteke gurasoek ez dietela gazteei euskararen gaitasunik transmititu, berek ere ez zeukatelako gaitasun hori; bai, al-diz, euskararen aldeko jarrera bat.

4.3 D ereduari euskaraz egiteko gaitasuna garatu dute

Parte hartzaileek D ereduari, oro har, lagungarria dela uste dute. Hasteko, euskarak beren bizitzetan presentzia izan dezan ahalbidetzen du murgilketa ereduak (14) eta, honela, gazteen gaitasunean (15) –bestela ez luketelako ikasiko–, motibazioan (16), nahiz erabileran (17) dauka eragina. Hain zuzen ere, D ereduari esker, klasean beren artean euskaraz aritzen ziren beti (18) eta, txikitan, patioan euskaraz hitz egiten zuten (19), nahiz eta handitu ahala gaztelerara pasatu diren. Beraz, aipatutako arlo horietan guztietan D ereduari euskararentzat onuragarri gertatu da.

- (14) *batxilerra ikastu nuen euskaraz* eta... igual lagun batzuekin egiten nuen euskaraz, eta gero neukan e... ba neuzkan klaseak euskaraz, *orduan zeukan presentzia gehiago euskarak nire... euskarak nire bizitzan* (BE-I)
- (15) *nik D eredurik gabe, ezin o sea enekien euskaraz hitz egingo*. (...) gurasoek ez dakite, familian ez daki inork, orduan nik ikasi dut ikas-

tolan ta nik horri zor diot, o sea, dena. (...) *tresna bakarra euskaraz ikasteko* (BE-U)

- (16) nik uste (...) D ereduan ikasi duten edo umeek edo pertsonak (...) agian, egon daitezkeela *motibatuagoak* edo erabiltzera. (...) badute-lako pertsona hoiak ba bere bizitzetan e... arlo bat edo leku bat, non badakiten beti hitz egingo dutela euskaraz, ta agian horrek bultzatzen du (...) ba gero hortik kanpo baita ere e hitz egitera (BE-J)
- (17) Lizarran askoz gehiago, ia guztiok euskara, ta osea *beti «venga, euskaraz» edo edozer egiten euskaraz mintzatzeko* ta hori, ta unibertsitatean ya ez det hori somatu, osea, inork ez dit esaten «e, euskaraz» edo zeozer egiteko euskaraz (BE-Z)
- (18) *klasean beti euskeraz* (1ET-M)
- (19) *txikitan bai*, baina gero joan ginenean hazten ba: hasi ginen gehi-ago hitz egiten patioetan eta gazteleraz, nik uste dut (1ET-U)

Horrez gain, gazteleraz hitz egiten egon arren, eskolarekin lotutako hitz batzuk (ebaluazioa, ariketak, ezaugarriak...) euskaraz ateratzen zaizkie (20) eta apunteak ere euskaraz jaso izan dituzte nahiz eta klaseak gazteleraz izan (21). Bestela esanda, ikasketa eremuan euskaraz erosoago daude gazteleraz baino (22), eta hori D ereduaren ekarpen garrantzizko bat da. Gainera, irakasleekin (23) ere euskaraz egin dute beti. Beraz, ikastolarekin lotura dutenetan euskara askoz gehiago erabiltzen dutela esan daiteke.

- (20) nik igual espresatzeko, espresatzen naiz hobe gazteleraz, baina gero, ba hori, *unibertsitate edo ikasketa munduan hobe euskaraz. Igual zaude gazteleraz hitz egiten eta sartzen duzu hortik «ebaluazioa», «arriketak», «ezaugarriak»... ta esaten duzu «espera, nola esaten da...»* (1ET-M)
- (21) ni joan nintzen [Espainiar estatuko hiri batera], *hasi nintzen apunteak hartzen ta dena euskeraz*, ta batek eskatu zitzaidan eta jartzen zun «ura» ez dakit zer. Ta ni... Konturatu gabe nituen euskaraz apunteak, eta *gazteleraz jasotzen nituen klaseak*, eta... euskaraz, bai (1ET-Z)
- (22) naturaltasuna segun ze esparrutan, ze nik igual espresatzeko, espresatzen naiz hobe gazteleraz, baina gero, ba hori, *unibertsitate edo ikasketa munduan hobe euskaraz* (1ET-M)

- (23) *nik ikastolan ez diot hitz- bueno, Remontibalen³ ezta, baina ez diot hitz egin e: irakasle bati gazteleraz inoiz ez (1ET-M)*

Hala ere, badago, zentzuren batean, kaltegarria izan daitekeela edo lagungarria ez izatea gerta daitekeela uste duenik ere. Hain zuzen ere, parte hartzaileen esanetan, posible da D eredia ez gertatzea lagungarri erabileran, ikastolatik kanpo eta patioan ez zutelako euskaraz hitz egiten (24). Kaltegarria ere gerta daitekeela diote, erabilerari dagokionez; izan ere, txikitari, euskara ikastolarekin erlazionatzen zuten batzuek eta horregatik ez zuten kanpoan euskaraz hitz egiten, nahiz handitzen joan den heinean hori aldatzen joan den (25):

- (24) *erabileran ez du ikastolak laguntzen. O sea, adibidez, nire gurasoek txikitatik euskaraz irakatsi izan balidate ta gero ikastolara joan, ez du laguntzen erabileran. Porque gero, ikastolatik kanpo eta ikastolan bertan patioan ez dugu euskaraz, o sea, nik ez dut inoiz euskaraz hitz egin. Ta nire klasekide batzuk, zekitenek, ezta (BE-U)*
- (25) *agian, txikiagoa nintzenean bai erlazionatu nezakeela gehiago ikastolarekin, eta... ba hori, e... eta agian gero ez dela kanpoan hitz egiten ba... ikastolarekin erlazionatzen nuenez, ez nuelako ikastolaren inguruan ezer jakin nahi. Baina nik uste dut, agian, hori gertatzen zitzaidala txikia nintzenean, baina gero, ba urteak pasata, nik uste (...) dituela gauza hobetoak txarragoak baino (BE-J)*

Edonola ere, ikus daiteke parte hartzaileek D eredia euskararentzat oso onuragarria dela uste dutela, edozein arlotan, eta kontziente dira D ereduaren garrantziaz, baita guraso batzuentzat dakarren sakrifizioaz ere, euren seme-alabek euskara ikas dezaten (26).

- (26) *adibidez ikastolan etortzen dira Lodosatik, jendea, beraien gurasoek egiten dute esfortzu bat, etortzen dira Lodosatik, ordaintzen dute egunero taxi bat ze ez dago autobusa, ta etortzen dira egunero ordu erdi, taxian. Eta hori da kriston esfortzua bere seme alabek euskara jakiteko (1ET-M)*

³ Remontibal Lizarrako eskola publikoa da.

4.4 Gaitasunaren askotariko bilakaerak

Banakako elkarrizketei esker, ikusi da batzuek euskaraz hitz egiteko gaitasuna galdu dutela. Hain zuzen ere, (27) adibidean ikus daiteke gaitasuna hizpide den gaiaren arabera izan daitekeela. Bestela esanda, gai batzuetan –eskolari lotutako gaietan– euskara gaitasun hobea daukate gaztelarazkoa baino eta, beraz, ikastolako garaitik gaitasuna mantendu dute; aldiz, beste gai batzuetan kontatu nahi dutena euskaraz adieraztea zaila egiten zaie (28), gaitasuna galdu baitute.

(27) besteek hitz egiten dituzte gauzak o sea, edozein gairi buruz euskaraz, ta nik *gai batzuk*, o sea, ez dakizkit o sea, ez dakit espresatzen euskaraz gai askotan. Bai. Edo, bai, hitz egiterako gauza asko ez dakit nola hasi edo, ta aldatzen dut beti gaztelarara. (BE- U)

(28) *Ohitura falta eta agian ez gaude hain eroso batzuk*, eta ordun ya pasatzen dira ya gaztelaniaz eta, ya ordun... (1ET-Z)

Hala, aipagarria da gaitasun falta ohitura faltarekin lotzen dutela eta gaitasun falta ahozkoan bakarrik daukatela, hau da, idatziz maila ona dutela, ondoko adierazpenetan agertzen den bezala:

(29) *ohitura faltagatik ez dugu hain ondo hitz egiten*. Ez dakit. O sea, ezin gara hain ondo espresatu edo... (1ET-I)

(30) bai, ahoz, ahoz. (...) Idatziz ez, idatziz daukagu como... (1ET-I)

Gainera, gure partaideen esanetan, haien koadrilakoek jada euskara ahaztu egin dute –D eredutik irten eta gutxira–, horrek erabilera ia ezinezko bihurtuta, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez:

(31) batzuk baita joan dira kanpora ta *ahaztu dute pixkat* (1ET-M)

(32) kuadrilan baita *batzuk dakite hobeto ingelesez euskeraz baino* (1ET-M)

Aldiz, unibertsitatean euskaraz ikasten duten parte hartzaileen bilakaera positiboa izan da, hots, graduan sartu aurretik –eta Gasteizera/Bilbora joan aurretik– euskara maila apalagoa zeukaten, baina urte horietan asko hobetu dute euren maila (33), beti erabilerari lotuta. Bestela esanda, euskaraz maila hobea daukate gaur egun, DBHkoarekin alderatuta; izan ere, adierazpena geroz eta errazagoa egiten zaie (34), eta gramatika ere hobetu dute (35). Horrela, parte hartzaile pare batek aitortu digute Lizarrako lagunekin alderatuta haiek gaitasun ona zeukatela, baina unibertsitatera joandakoan inguru-

koek berek baino gaitasun hobea zeukatela (36). Beraz, gaitasunaren bila-kaera hori unibertsitate bizitzako harreman esparruek eragin dutela esan daiteke; izan ere, ingurukoen euskara maila hobea izateak eta euskaraz hitz egiteko ohitura duen jendearekin elkartzeak beren gaitasuna igotzea ekarri du (37).

- (33) Baina *nabaritzen da hobetzen duzula*, ta bakarrik urte batean e. (1ET-I)
- (34) nik nabaritu dut pilla lelengo mailatik orain arte. *O sea lelengo mailan egiten zitzaidan oso zaila hitz egitea euskaraz ta espresatzea*, ta orain o sea nik ikusi dut *urteekin joan naizela hobetzen* baina pilla, o sea euskara Gasteizen. O sea klaseak baina aparte hori, jendearekin euskaraz hitz egitea o sea asko. (1ET-U)
- (35) hori da ere *ohituragatik*. Nik lelengo mailan ez nekien jartzen ezta ergatibo bat ere, o sea... denak gaizki. (...) ta orain hori, nik uste dut egiten ditudala ondo (1ET-U)
- (36) hona etorri nintzenean, porque gero e *Lizarran* nengoenean *nire euskara zen*, o sea, nire ustez ba ya *ona*, *besteekin konparatuta* (...) pentsatzen nuen hitz egiten nuela ongi, baina gero *hona etortzean ba entzutea mundu guztia... zen como, joe...* (BE-U)
- (37) orain eroso sentitzen naiz euskaraz hitz egiten, baina lehen, (...) sentitzen nintzen deseroso gauza asko ez nekielako esaten ta espresatzen, ta orduan niretzat hor garrantzitsua da (...) *ohitura izatea euskaraz hitz egiten*. Ta igual, beste leku batean e jaio izan banintz edo... ez dakit, edo beste giro batean ta familiarekin beti ta lagunekin, osea beti beti euskaraz, nik uste jakingo nuela hobeto espresatzen (BE-U)

Horrela, badirudi parte hartzaileak pozik daudela berek gaur egun daukaten euskara mailarekin, nahiz eta maila hobea izatea gustatuko litzaiekeela ere adierazi diguten, esaterako, (38) adibidean.

- (38) *nahiko nuke euskara maila hobegoa izatea*. Egia esan, ez nago triste edo ez nago haserre nire buruarekin ta hola dudan euskara mailagatik. (...) konparatzen banaiz pixkat nire inguruko pertsonekin, e bai nabaritzen dudala izan naizela e gehien mantendu duena, (...) nik uste beti izan behar dugula hobetzeko nahia edo... dena delakoa (BE-I)

5 Ondorioak eta eztabaida

Lan honen helburua izan da murgilketa ereduak euskaldundutako gazte hiztun berrien euskara gaitasunaren bilakaeraren eta transmisioaren eragileak aztertzea. Aurreikuspena zen euskararen gaitasunaren askotariko bilakaerak topatzea eta, euskaraz aritzeko gaitasuna galdu duten hiztunen profil zabala identifikatzea. Horrez gain, aurreikusten zen euskararekiko gaitasunaren familiaren atxikimenduak eta D ereduak eragina izango zutela.

Hala, hasteko, Lizarrako duela bi belaunaldiko euskararen galeraren arrastoak ikusi ditugu, gure parte hartzaileen aitona-amonetako asko euskaldunak baitziren, baina euskaraz hitz egiteari eta gaitasuna transmititzeari utzi zioten. Hala ere, gaur egun euskararen biziberritzeari dagokionez, leku esanguratsua da Lizarra. Gainera, aztertutako profil proaktibodunak familia euskaltzaleetatik datozen gazteak direla ikusi dugu, aurreikusten genuen bezala, eta baita ere familiok, euskara gaitasuna galdua duten arren, neurri batean, euskara transmititu dietela, gazteek euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa, hain zuzen ere. Bestela esanda, euskararen aldeko jarreraren transmisioak gazte proaktiboak sortu dituela esan daiteke eta, beraz, transmisio hori ezinbestekoa izan daiteke euskararen biziberritzeko.

Horretaz gain, hau bezalako ikerketa longitudinalek duten interesa ere agerian gelditu da lan honetan; izan ere, parte hartzaileen ibilbidea hainbeste urtez behatuta izateak horien euskara gaitasunari dagozkion ondorio batzuk ateratzea ahalbidetu digu. Hala, aurreikusten genuen bezala, gaitasunaren askotariko bilakaerak ikusi ditugu. Batzuek euskaraz hitz egiteko gaitasun ona daukatela uste dute eta beste batzuek, aldiz, gaitasuna galdu dutela uste dute. Hain zuzen ere, unibertsitatean joateak parte hartzaileen euskara gaitasunaren nahiz erabileren bilakaerak baldintzatu ditu; izan ere, unibertsitatean euskaraz ikasi dutenek beren erabilera nahiz gaitasunak igo dituzte; aldiz, unibertsitatean kanpora joan direnen kasuan, murriztu egin dute. Honekin, beraz, D ereduak izan duen eragina ikus daiteke, bertan euskara gaitasuna lortu baitzuten, ELEBILAB taldeak gure ikerketako parte hartzaile berberekin egindako hainbat ikerketak erakutsi bezala (Ezeizabarrena, 2012; Manterola, 2010; Manterola & Almgren, 2013; Manterola *et al.*, 2013), eta bertatik joandakoan, euskaraz ikasten jarraitu dutenek salbu, gaitasuna nahiz erabilera asko murriztu dute. Bestela esanda, gure datuak Kasaresen lanarekin (2014) bat datozela esan daiteke; izan ere, euskarazko eskolatzea, eta zehazki murgilketa, belaunaldien arteko euskararen jarraipena eta eus-

karazko hizkuntza sozializazioa berreskuratzen saiatzeko ezinbesteko tresna dela ikusi dugu. Gainera, emaitza hauek bat datoz muda linguistikoei buruz dakigunarekin; izan ere, esaterako Katalunian egindako ikerketek erakusten dute gazteek katalan gehiago erabiltzea eragiten duela unibertsitateak (Pujolar *et al.*, 2017; Pujolar & Puigdevall, 2015). Gure parte hartzaileekin egindako ikerketek ere muda egiterako orduan unibertsitateak duen garrantzia erakusten dute (Pardina & Manterola, 2021). Are gehiago, mudak gauzatze-ko momentu edo eragile nabarmenena da unibertsitatea. Hau ez da, aldiz, Goirigolzarri *et al.*-en (2019) nahiz Amorrortu eta *et al.*-en (2020) lanetan Bilboko testuinguruko eragile esanguratsuenetako bat. Hala ere, gure ikerketetako parte hartzaile proaktiboek azpimarratu bezala (Pardina & Manterola, 2021), esan daiteke unibertsitatea bera baino aipagarriagoa direla bertan eraikitako harreman sareak. Beraz, baieztatu ahal izan dugu testuinguru orokorra baino gehiago –Leioa edo Gasteiz– harreman sare zehatzak direla benetan lagungarri/oztopatzaile gaztelaniatik euskararako muda egiterako orduan (Amorrortu *et al.*, 2017; Ortega *et al.*, 2016). Bestalde, Pardinaren eta Manterolaren (2021) ikerketaren arabera, herriko betiko lagunekin zailagoa da muda egitea, batez ere talde handian; izan ere, gazte proaktiboak euskaraz egiten saiatzen dira eta lagunei esplizituki eskatzen diete, baina oztopoak handiegiak direnez, ez dute lortzen. Hain zuzen ere, oztopo horiek batez ere lagun euskara gaitasun mugatua eta haien jarrera epel nahiz errektiboak izan dira. Gainera, askotan ohiturari egozten diote errua, zailtasunaren arrazoi nagusitzat izendatuz. Horrela, ohitura hori arau sozialtzat interpreta genezake (Amorrortu *et al.*, 2017; Goirigolzarri *et al.*, 2019); izan ere, beren artean arau soziala gazteleeraz hitz egitea da, eta arau sozial hori apurtzea ez da horren erraza.

Aurrekoa kontuan hartuta, gaitasunaren eta erabileraren artean lotura handia dagoela esan daiteke, bai eta unibertsitatean nahiz harreman sare berrietan euskara erabiltzeak gaitasuna hobetzea eragin diela ere. Kasu honetan, beraz, bai gaitasunari, bai erabilerari nahiz muda linguistikoei dagokienez, katalanaren kasuan bezala, euskararen kasuan unibertsitatea faktore esanguratsuenetako bat dela esan daiteke.

6 Erreferentziak

- Aldasoro, E. (2001). La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 46(2), 593-624.
- Almgren, M. & Manterola, I. (2016). The development of narrative skills in learners of Basque as a second language. *Education Inquiry*, 7(1), 27-46. <https://doi.org/10.3402/edui.v7.27627>
- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017). Hiztun berriak eta hizkuntza ohitura aldatzea. Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketetan aurkeztutako txostena. <https://www.udaltop.eus/documents/374239/468824/Estibaliz+Amorrortu.pdf/7816dfdc-b1d9-4009-b00c-1b8f0031f60b>
- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2020). Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketaren behin-behineko emaitzak. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (47.-61. or.). Nafarroako Gobernua.
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. & Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritzak.
- Anduaga, E. & Kasares, P. (2018). Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 106, 65-78.
- Muñagorri Garmendia, L. (2021/02/16). Hamalaugarren D ereduak. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/2095/004/001/2021-02-06/hamalaugarren-d-eredua.htm>
- Dufur, A. (2012). *Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera*. Asmoz Fundazioa.
- Erize, X. (1997). *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. UPV/EHU.
- Erize, X. (2018). Nuevos consensos sociales plurales para el fomento de la lengua vasca en Navarra. *Príncipe de Viana*, 271, 741-777.
- Ezeizabarrena, M. J. (2012). The acquisition of the (in)consistent ergative marking in Basque: L1 and early L2. *Lingua*, 122(3), 303-317.
- Goirigolzarri, J., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2019). Capítulo 2. Activación lingüística de jóvenes neohablantes de euskera en la universidad. In F. Ramallo, E. Amorrortu & M. Puigdevall (arg.), *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español* (23.-46. or.). De Gruyter.

- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2017). La transmisión intergeneracional desde la socialización lingüística: el caso vasco. *Treballs de sociolingüística catalana*, 27, 133-147. <https://doi.org/10.2436/20.2504.01.129>
- Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI <https://addi.ehu.es/handle/10810/8260>
- Manterola, I. (2019). A study of recipes written by Basque immersion students: any evidence for language revitalization? In N. Yigitoglu & M. Reichelt (arg.), *L2 writing in non-English languages* (117.-134. or.), *Multilingual Matters*. <https://doi.org/10.21832/9781788923132-010>
- Manterola, I. & Almgren, M. (2013). Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera. In J. Dolz & I. Idiazabal (arg.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües* (217.-240. or.). UPV/EHU.
- Manterola, I., Idiazabal, I. & Almgren, M. (2013). Basque L2 development in immersion school settings. *International Journal of Bilingualism*, 17(3), 375-391. <https://doi.org/10.1177/1367006912438996>
- Nafarroako Gobernu (2020). *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018*. Nafarroako Gobernu, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua.
- Noticias de Navarra (2021/12/02). La cifra de escolares baja ligeramente tras 7 años de aumento progresivo. *Noticias de Navarra*. <https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/sociedad/2021/12/02/cifra-escolares-baja-ligeramente-7/1206534.html>
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Pardina, A. (2021). Euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena Lizarrako ikastolako familien testuinguruan. In O. Arbelaitz, A. Latatu, M. J. Ormaetxebarria & B. Urgell (arg.), *IV. Iker gazte nazioarteko ikerketa euskaraz, giza zientziak eta artea* (107.-112. or.). UEU.
- Pardina, A. & Manterola, I. (2021). Euskara murgilketa ereduan ikasitako gazte nafarren muda linguistikoak: faktore laguntzaileak eta oztopatzaileak. ICML kongresuan aurkeztutako komunikazioa.
- Pujolar, J., González, I. & Martínez, R. (2017). Gazte katalanen muda linguistikoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 51-70.

- Pujolar, J. & Puigdevall, M. (2015). Linguistic *mudes*: how to become a new speaker in Catalonia. *International Journal of the Sociology of Language*, 2015(231), 167-187. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2014-0037>
- Steilas (2017). *Hizkuntzen txostena*. <https://steilas.eus/files/2017/06/Hizkuntzen-txostena.pdf>

Barakaldoko 14-18 urte bitarteko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak

Attitudes and motivations of 14 to 18 years old young people from Barakaldo towards the Basque language

Mikel Pérez González
UPV/EHU
mperez163@ehu.eus

LABURPENA

Artikulu honetan, Barakaldoko 14-18 urte bitarteko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak eta, zehazki, beren euskara erabilerara oztopa edo lagun dezaketen faktore (batez ere) subjektiborik azpimarragarrienak dira hizpide. Horretarako, 2017-2018an Barakaldoko hainbat gazteri egindako inkestak eta zenbait gazteren arteko elkarrizketak baliatu dira. Artikuluan, besteak beste, hurrengo ondorioztatzen da gazteei dagokionez: a) euskararekiko jarrearik eta motibaziorik positiboena *barnekoak*, *integratzaileak* eta *izanarazleak* (*identity*) dira; b) euskararekiko harreman estuagoa edota ohikoagoa dutenek hizkuntza honekiko jarrera eta motibazio aldekoagoak eta positiboagoak dituzte; c) gazteen artean, ez da euskararen aldeko jarrera oso proaktiborik antzeman.

Gako hitzak: euskararen erabilera; euskararekiko jarrerak; euskararekiko motibazioak; testuinguru soziolinguistikoa; gazteak.

ABSTRACT

This article analyses the attitudes and motivations of 14 to 18 years old young people from Barakaldo towards the Basque language and, more specifically, the most remarkable subjective factors that can hinder or favour the use of it. For this purpose, surveys and conversations (conducted in 2017-2018) were used. The most relevant conclusions are the following: (a) the most positive attitudes and motivations towards Basque are *internal*, *integrative* and *identity*; (b) those who have a closer relationship with Basque have a more positive attitude and motivation towards it; and (c) very proactive attitudes in favour of Basque have not been detected.

Keywords: use of Basque; attitudes towards Basque; motivations towards Basque; sociolinguistic context; youth.

1 Sarrera

Euskal soziolinguistikan, euskararen erabilereko kezka lehen lerroan dugu; hizkuntza hautuetan eragiten duten faktoreen artean, *motibo subjektiboak* orain gutxi arte euskararen biziberritze prozesuaren ikerketaren esparruan bigarren mailan egon badira ere (Erize, 2016, 154. or.), pixkanaka erdigunerantz ekarri dira (Erize, 2016, 129.-130. or.). Halaber, gaur egun *gazteei* (berezi euskal hiztun berri gazteei) eta euskarari begirako *testuinguru oztopatzailei* arreta berezia eskaini ohi zaie. Bada, lan honek aurrean aipatutako osagai eta kezka horiek guztiak biltzen ditu nolabait.¹ Izan ere, Barakaldoko 14-18 urte bitarteko gazteen euskararekiko jarrerez eta motibazioez mintzatzen naiz. Horretarako, 2017-2018an Barakaldoko hainbat gazteri egindako inkestak eta zenbait gazteren arteko elkarrizketak baliatu ditut. Zehazki, helburu nagusi hauek izan ditut: a) Barakaldoko 14-18 urte arteko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak arakatzea; b) Barakaldoko adin tarte bereko gazteen euskara erabilera oztopa edo lagun dezaketen faktoreak (gehienbat faktore subjektiboak) identifikatzea.

Euskararen biziberritzeari begira, *Bilbo Handia* eta *gazteak* aztertzea, batez ere euskal hiztun berri gazteak aztertzea, estrategikoa da (Amorrortu *et al.*, 2016, 17. or.; Amorrortu *et al.*, 2020, 59. or.; Eusko Jaurlaritza, 2016, 11. or.; Hernández *et al.*, 2020, 4. or.), baita hizkuntza hautuetan eragiten duten *alderdi subjektiboak* aztertzea ere, hala nola *jarrerak* eta *motibazioak* (Erize, 2016, 129., 158. eta 163. or.). Gauzak horrela, gazteen jarrerak, jokabideak eta portaerak hobeto ezagutzea eta ulertzea ezinbestekoa da, betiere gazteei hitza emanez (Amorrortu *et al.*, 2016, 256. or.; Eusko Jaurlaritza, 2016, 39.-40. or.). Hain zuzen ere, lan honetara testuinguru oztopatzaile bateko zenbait ikastetxetako gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak ekarri dira, euren hitzak oinarri hartuz.

Gazteen euskararen erabilera eta motibo subjektiboak ikergai dituzten orain arteko lanak ikusirik (adibidez, Erize, 2016, 129.-130., 165.-177. or.; Eusko Ikaskuntza, d.g.; Soziolinguistika Klusterra, d.g.), azterlan honek izan dezakeen ekarpenik azpimarragarrienetako bat lan berean testuinguru ozt-

¹ Artikulu hau «15-17 urte bitarteko Barakaldoko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak» (Pérez, 2020) lanerako jaso nituen datuetan oinarritzen da. Hona lan hartatik erazutako Barakaldoko 14-18 urte bitarteko euskararekiko jarrerei eta motibazioei buruzko emaitzarik eta ondoriorik esanguratsuenak ekarri dira.

patzaile bereko askotariko gazteak (14-18 urtera arteko nerabeak) jaso izana izan daiteke. Gainera, testuinguru oztopatzaile hori Barakaldo da; soilik udalerrri honen gainean fokua gutxitan jarri da. Jasotako gazteak A, B eta D eredukoak, euskal hiztun berriak nahiz etxetik euskaldunak, euskara gaitasun aurreratua dutenak zein gaitasun oso mugatua dutenak, euskararekiko interesatuago daudenak nahiz interesik ez dutenak, eta abar dira.

Artikuluaren antolaketari dagokionez, bigarren atalean marko teorikoaz hitz egingo dut, hots, euskararen erabilerarekiko kezka, hizkuntza jarrerez eta hizkuntza motibazioez eta ikerlan honen aurrekari batzuez. Hirugarrenean emaitzak jasotzeko erabilitako metodologia azalduko dut (ikerketa helburuak gogorarazi eta aurreikuspenak aipatu ostean), ikergai izan dudan testuinguru soziolinguistikoa aurkeztu eta parte hartzaileen karakterizazioa egin. Laugarrenean emaitzak bi azpiataletan banatuko ditut, alde batetik, emaitza kuantitatiboak partekatuko eta iruzkinduko ditut eta, beste alde batetik, emaitza kualitatiboak. Amaitzeko, zenbait ondorio aterako ditut.

2 Marko teorikoa

2.1 Euskararen erabilera kezka

Orain gutxi arte, euskararen soziolinguistikaren kezken lehen lerroan euskararen ezagutza izan da; gaur, ordea, euskararen erabilerak hartu du leku hori. Izan ere, orain «erabilera sendotzea da erronka» (Goikoetxea, 2016, 17. or.). Dagoeneko argi geratu da ezagutzak ez dakarrela ezinbestean erabilera, nahiz eta hura erabilerarako ezinbesteko baldintza izan. Adibidez, gazteen euskara ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala azpimarratzen da (Altuna & Hernández, 2020, 449. or.).

Hizkuntza bat baino gehiago erabil daitekeen testuinguruetan, hizkuntza hautuetan eragiten duten faktoreak hiru mailatan bana daitezke (Martinez de Luna, 2012, 126. or.): norbanakoaren maila, maila makrosoziala eta maila mikrosoziala. Faktorerik subjektiboenak maila indibidualean daude (iritziak, jarrerak eta bestelakoak), objektiboenak makro mailan (estatus juridikoa, hiztun kopurua eta abar) eta mikro mailan erabilera esparruak, harreman sareak eta abar daude. Beraz, jarrerak eta motibazioak gizarte psikologian eta subjektibotasunaren edo norbanakoaren dimentsioan kokatu behar dira. Edonola ere, esan behar da hiru mailak daudela, nolabait, elkarreraginean.

2.2 Hizkuntza jarrerak eta hizkuntza motibazioak

Hizkuntza jarrerak objektu, pertsona, egoera, ideia, instituzio eta hala-koenganako disposizioak edo egoera mentalak dira, eraikuntza psikologikoak eta hipotetikoak (Ajzen, 2005, 3. or.; Baker, 1992, 10.-12. or.; Juvrianto, 2016, 8. or.). Horiek oinarrizko ezaugarri ebaluatzailea (positiboa-negatiboa, atsegina-desatsegina, aldekoa-kontrakoa eta abar) dute elementu zentral gisa, erantzun ikasia izaten dute eta bereziki emozionalak dira (Abdelaziz, 2018, 3. or.; Cherry, 2021; Igartzabal, 2015, 124. or.). Gauzak horrela, eta betiere ikuspegi mentalista oinarri (Zarraga *et al.*, 2010, 204. or.), jarrerak ezin dira zuzenean behatu; aitzitik, agerian gera daitezen, estimulatu behar dira (Abdelaziz, 2018, 3. or.; Ajzen, 1987). Lan honetarako estimulazio bidezko datuak jaso dira.

Hizkuntza jarrerak ezagututa, hein batean behintzat, portaerak aurreikus daitezke, edo ulertu (Baker, 1992), iritzien eta jokaeren arteko zubia baitira jarrerak nolabait (Juvrianto, 2016, 3. or.). Zarragak *et al.*-ek dioten moduan (2010, 208. or.), «Gai baten inguruko jarrerak ez dute zuzenean jokaera ziurtatzen, baina jokaera zehatz baterako prestutasuna eragiten dute». Hala ere, hizkuntza jarrerak ez dira nahikoa hizkuntza jokaerak ziurtasunez ondorioztatzeko; izan ere, gorago aurreratu bezala, bestelako faktore eragileak ere badaude (Briñol *et al.*, 2019; Holdershaw & Gendall, 2008, 4. or.). Luzea da hizkuntza jokaeretan eta hizkuntza jarreretan eurentan eragin dezaketen faktoreen zerrenda (adibidez, Ajzen, 2005; Briñol *et al.*, 2019; Juvrianto, 2016; Holdershaw & Gendall, 2008).

Jarrerekin batera, *motibazioak* kontzeptua ageri ohi zaigu (Juvrianto, 2016, 5.-6. or.). Hizkuntza motibazioak ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma dira (Uranga, 2021). Jarrerek jokaeretarako norabidea seinala dezakete; motibazioek, ordea, norabide hori markatua dute (Zarraga *et al.*, 2010, 206. or.). Azken finean, motibazioek zerbait (ez) egiteko arrazoiak barnebiltzen dituzte; jarrerak, aldiz, sinesmenak barnebiltzen dituzte. Motibazioak, beraz, jarrerak baino konduktualagotzat har daitezke, nahiz eta sinesmen multzo jakin bat zerbait (ez) egiteko arrazoi nahikoa izan daitekeen (Oroujlou & Vahedi, 2011). Ñabardurak ñabardura eta azterlanen arteko aldeak alde, hizkuntza jarrerak eta hizkuntza motibazioek jokaera zehatz baterako nolabaiteko prestutasuna adierazten dute, baina ez dira ageriko jokaerak.

Euskararen soziolinguistikaren baitan, hizkuntza jarrerekin eta motibazioekin lotutako kontzeptu nagusi hauek bana daitezkeela ondorioztatu dut: a) barne motibazioak eta kanpo motibazioak (Amorrortu *et al.*, 2009, 35.-36. or.), b) motibazio instrumentalak eta motibazio integratzaileak (Zarraga *et al.*, 2010, 212.-213. or.), c) *bai-bainako* jarrerak (Amorrortu *et al.*, 2009, 185. or.) eta d) jarrera izanarazleak (Larrañaga, 1995, 68. or.). Horiek aurrerago aipatuko direnez, azaltzea merezi duela iruditzen zait, labur bada ere.

Barne motibazioak norbere barnetik sortuak (norbere uste, nahi eta afektuetatik sortuak) dira; *kanpo motibazioak*, aldiz, kanpo presioen edo kanpo eraginen ondorioz (norberarengandik at) sortuak.

Motibazio integratzaileak eta *motibazio instrumentalak* oso aztertuak izan dira (Juvrianto, 2016, 5.-6. or.). Integratzaileek hizkuntza komunitate batean sartu, *integratu* edo mantendu nahia adierazten dute, eta instrumentalek hizkuntza bidez lor daitezkeen onura praktikoei (gizarte etekinek edo etekin ekonomikoek) sorraraz ditzaketen barne bulkadak. Motibazio integratzaileei eta instrumentalei deitzeko, ezagunak dira *sinboliko*, *trukeordaineko*, *pragmatiko* eta *praktiko* kontzeptuak ere. Batzuetan, bi motibazio hauen arteko aldeak lausoak dira eta elkarrekin ager daitezke (Baker, 1992, 33.-35. or.).

Bai-bainako jarrerak baieztapen orokorrekiko adostasuna, baina neurri zehatzekiko ñabardurak eta oztopoak islatzen dituzte. Jarrera hori dutenek diskurtso nahiko konplexua eta zehaztua dute, euskararekiko konpromiso maila epela eta batzuetan iritzi kontrajarriak dituzte (Goikoetxea, 2016, 36. or.). Horiei edo antzekoei erreferentzia egiteko *jarrera epelak*, *azpiko jarrerak* eta *jarrera konplexuak* kontzeptuekin ere egin daiteke topo.

Azkenik, *jarrera izanarazleak* ditugu. Horiek motibazio integratzaileak ez bezalakoak dira; talde berri batean integratzeko nahiaz gain, norbere izanahia ere biltzen baitute. Hau da, norbere izateari edo izanahiari lotuta daude eragile izanarazleak. Larrañagaren esanetan (1995, 68. or.), horrelako jarrera dutenek «euskara garrantzitsua ikusten dute bere izaera adierazteko, euskara bere hizkuntzatzat daukate eta beharrezkoa ikusten dute beraien izaera horri eutsi ahal izateko. Euskara euskal kultura eta euskaldunen komunitateari lotuta ulertzen dute».

Atal honekin bukatzeko, orain arte egin diren (gazte) euskal hiztun berriei buruzko edota (gazteen) euskararen erabileran eragiten duten faktore subjektiboiei buruzko azterlan hauei begiratuko diegu: Amorrortu *et al.* (2016); Alvarez (2018); Goirigolzarri *et al.* (2018). Nire lanaren unibertsoa Al-

varezen eta Goirigolzarriren eta besteren lanetatik hurbilago dago Amorrorturen eta besteren lanetik baino. Izan ere, Amorrorturen eta besteren lanean euskara maila aurreratua duten 18-26 urte bitarteko gazte euskal hiztun berriei kapitulu bat eskaintzen zaie; Alvarezen lanak, ordea, Bilboko eta Gasteizko 15-16 urteko nerabeak ditu mintzagai eta Goirigolzarri eta besterenak Bilboko 15 eta 22 urte bitarteko gazteak. Gogora dezagun nireak Barakaldoko 14-18 urte bitarteko gazteak dituela hizpide. Alde batetik, hiru lanak kontuan hartuta, testuinguru erdaldunetako gazteen erabilera edota euskararekiko jarrera eta motibazioetan eragiten duten faktore hauek ondoriozta daitezke: testuinguru soziolinguistikoa, harreman sareak, euskararekiko lotura eta bizipenak, hizkuntza ereduak, hizkuntza ohiturak, euskarari esleitzen zaion balio instrumentala, euskararekiko atxikimendua, gaztelaniaren aldeko gaitasun aitortu erlatiboa, euskararen eta eskolaren (edota hizkuntzaren erregistro formalaren) arteko lotura eta euskararen aldeko konpromisoa. Bestalde, Amorrorturen eta besteren (2016) lanean badira gutxienez bestetan azpimarratzen ez diren bi ideia:² testuinguru erdaldunetan dagoen euskararen aldeko militantzia eta gazte hiztun berri askoren erosotasuna eta gustura sentitzea euren euskara mailarekin.

3 Metodologia

Atal honetan ikerketa helburuak (eta aurreikuspenak) eta horietara iristeko erabilitako metodo eta teknikak azalduko ditut. Era berean, ikergai izan dudana testuinguru soziolinguistikoa eta aztergai izan ditudan gazte parte hartzaileak zer-nolakoak diren zehaztuko dut.

3.1 Ikerketa helburuak eta aurreikuspenak

Aurrean aipatu bezala, lan honen helburuak hurrengoak dira: a) Barakaldoko 14-18 urte arteko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak arakatzea; b) Barakaldoko adin tarte bereko gazteen euskara erabilera oztopa edo lagun dezaketen faktoreak (gehienbat faktore subjektiboak) identifikatzea.

² Honek lotura izan dezake aztergai diren gazteen adin tartearekin; esan nahi da, Amorrorturen eta besteren laneko gazteak beste bi lanetakoak baino helduagoak dira.

Orain arte egin diren gazteen eta euskararen gaineko azterlanak oinarri (1. eta 2. ataletan zehar aipatu ditudanak), nire aurreikuspenak hauek izan dira: a) gazteen profil soziolinguistikoa euskararekiko zenbat eta hurbilagoa izan, orduan eta euskararekiko jarrera eta motibazio positiboagoak aurkituko dira; b) testuinguru oztopatzaile bateko gazteen inguruan ari garela aintzat hartuta, *euskara gaitasuna* (edota *euskara gaitasunarekiko autopertzepzioa*), *harreman sareak*, *hizkuntza ohiturak*, *hizkuntza prestigioa* eta *hizkuntza eredia* bezalako faktoreak lagungarri edo oztopatzaile izango dira euskararen erabilerari begira.

3.2 Galdetegia eta elkarrizketetarako gidoia

Barakaldoko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak arakatzeko eta gazte horien euskararen erabilera oztopa edo lagun dezaketen faktoreak (gehienbat faktore subjektiboak) identifikatzeko, azken hamarkadetan ohiko bihurtu den hautu metodologikoa egin nuen, hau da, metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartu nituen. Ikerketako parte hartzaileei lehendabizi kutsu kuantitatiboko galdetegi bat pasatu nien eta, ondoren, elkarrizketa taldeak egin nituen galdetegiko emaitza kuantitatiboen zergatiak eta ñabardurak ikertzeko. Galdetegia eta elkarrizketa taldeetarako baliatutako gidoia aurkeztu aurretik, bi ohar egitea komeni dela uste dut. Galdetegietan bai, baina solasaldietan ez da profila kontrolatu eta galdetegiko galdera gehienak (bat salbu) galdera irekiak dira.

Parte hartzaileei Barakaldo mailako azterlan soziolinguistikoa bat egin nahian, beren erantzunak jaso nahi nituela aipatu nien. Galdetegian hauei buruz galdetu nien, horrela banatuta:

- [1-6 galderak]: adina, sexua, jaiolekua, auzoa, bizitokia (eta bizitoki aldaketarik?), gurasoen jaiolekua, norbere familian ezagutzen diren hizkuntzak, eskola ibilbidea (zein ikastetxetatik igaro diren).
- [7-11 galderak]: gurasoekin eta gainontzeko senideekin duten hizkuntza erabilera; eskolako patioan duten hizkuntza erabilera; ikaskideekin duten hizkuntza erabilera; irakasleekin duten hizkuntza erabilera; lagun artean duten hizkuntza erabilera (eskolaz kanpo) –ohikoa nahiz ohiz kanpoko–; norbere hizkuntza erabileran aldaketarik nahi luketen eta zergatik; hizkuntza dela-eta noizbait baztertuta-edo sentitu diren (noiz, zein hizkuntza dela eta, eta zergatik); zein hiz-

kuntzatan hasi ohi dieten elkarrizketa (edo dena delakoa) ezezagunei eta zergatik (ez) euskaraz.

- [12-22 galderak]: euskara non ikasi duten; ea pozik eta gustura dau-den beren euskara *mailarekin*; ea zerbaiten falta nabaritzen duten euskaraz hitz egiten dutenean eta zergatik; eguneroko bizitzan Barakaldon euskara beharrezkoa den uste duten; norbere euskararen erabilera aitortua (ehunekotan); (norbere ustez) ehuneko zenbatean bizi litezkeen euskaraz (norbere erabilera aukera aitorturik altuena); ea gustatuko litzaiekeen euskara erabiltzea ahal bezainbeste eta zergatik uste duten (ez) dela hala; norbere euskararen erabilera nahia (ehunekotan); eskolaz kanpoko jarduerarik egiten duten (zein) eta horietan euskararen presentzia; norbere euskararen kontsumoa (telebista, musika, irakurketa...) –zenbat eta zergatik–; DBHtik aurrerako ikasketak zein hizkuntzatan egin nahi eta orain arte zein hizkuntzatan egin dituzten (eta zergatik); ea norbera *euskalduna* den eta zergatik, ea ondo/zuzen/egoki iruditzen zaien galdetegia euskara hutsen egotea (eta zergatik eta ea arazorik izan duten ondo ulertu ahal izateko); 1etik (guztiz desados) 5era (erabat ados) hurrengo esaldien balorazioa:
 - (1) Euskal Herria –euskararen eremua, euskararen herria– da nire herria, egun bi estatutan zatituta dagoena; frantziar estatua eta espainiar estatua.
 - (2) Ni ez naiz euskal herritar sentitzen, ez naiz bi estatutan zatituta sentitzen...
 - (3) Euskara batua euskara errobotikoa da, nahiago nuke bizkaieraz-edo hitz egiten jakin.
 - (4) Hezkuntza sisteman Euskal Herriko / euskararen historia erakutsi beharko ligukete.
 - (5) Euskal Herriko hezkuntza sisteman soberan daude D eredu ez diren beste eredu guztiak (A, B, G eta X). Euskararen normalizaziorako oztopo dira eta.
 - (6) Euskal Herrian zeozer eraginkor egin behar da euskararen ezagutza eta batez ere erabilera indartzeko. Hizkuntza politika eta plangintza sendoak behar ditu euskarak berandu baino lehen... baldin eta hiz-

kuntza honen normalizazioa eta etorkizuna bermatu eta ziurtatu nahi baditugu...

- (7) Edozein arrazoiengatik euskaraz ez dakiten Euskal Herriko biztanleek euskara klaseak jaso beharko lituzkete, dohainik (diru publikoz ordaindutakoak).
- (8) Euskararik ez dakienak ez daki eta punto! Nahikoa da gaztelania edo frantsesa (ipar Euskal Herrian) baldin badaki, hemen guztiok ulertzen dugu-eta gaztelania edo frantsesa, eta ez, ordea, euskara... Euskaraz egiten ez dakienak ez du zertan euskararik ikasi hemen bizi eta lan egin ahal izateko. Hori inposizioa litzatekete zentzu handi batean... Begiratu Barakaldo!
- (9) Gaztelera edo frantsesa eskatzeaz gain beste hizkuntzaren bat eskatzeotan ingelesa eskatzea da logikoena. Izan ere, ingelesa jakitea gero eta garrantzitsuagoa da.
- (10) Euskal Herria? Ez dut ondo ulertzen zer esan nahi duen... beraz, niri Barakaldoren inguruan hitz egin, ez Euskal Herri horren inguruan!

Bestalde, galdetegietako erantzun gako batzuk hurbilagoetik ezagutu nahian, zenbait gazteren arteko (gela bereko zenbait gazteren arteko) elkarriketak moderatu eta jaso nituen. Hauxe galdetu nien (nahiz eta gidoia ez nuen itsu-itsuan erabili, malgu samar jokatu bainuen ateratzen ziren gaien arabera): jaiolekua; ikasketa ibilbidea (+ hizkuntza ereduak); norbere familiaren hizkuntza errealitatea; zerekin lotzen duten parte hartzaileek gazte izatea; non duen presentzia euskarak euren bizitzetan (eta beste hizkuntzen agerpena euren bizitzetan zer-nolakoa den); ingelesari-gaztelaniari-euskarari (bakoitzari) ematen dioten balioa; norbere euskara mailaren autopertzepzioa / (ez) poztasuna; ea Barakaldon euskara beharrezkoa dela uste duten; euskaraz gehiago bizi nahi duten eta zergatik; euskaraz gehiago (ez) egiteko faktore oztopagarriak edota lagungarriak zein diren; eskolaz kanpoko jarduerak eta euskararen presentzia; euskararen kontsumoa; euskararekiko lotura/atxikimendua/ideologia; hizkuntza ereduaren inguruan zer uste duten; zer den euskalduna izatea; Etorkinak – Euskara – Barakaldo; zer iruditzen zaien euskara hutsean aritu izana edo aritzea eurekin; zer uste duten halako esaldiez: «El euskera es para niños pequeños», «¿Qué haces hablando en euskera fuera de clase?»; ea badakiten (Barakaldon, eta oro har) euskaraz

zer egiten den edota zer dagoen; zer uste duten beren euskara motari buruz eta euskalkiez.

Emaitzen atalean ikusiko dugun bezala, artikulu honetan aurrean zehaztutako ikerketa helburuei erantzuteko a proposenak diren galderak eta gazteen hitzak baino ez dira aintzat hartu.

3.3 Barakaldo

Esan bezala, Barakaldoko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak eta horien euskara erabilera oztopa edo lagun dezaketen faktore batez ere subjektiboak ditugu hizpide. Bada, orain Barakaldoko udalerriri buruz bi hitz esango ditut.

Barakaldoko biztanleria izugarri hazi da azken 200 urteotan (Foro-Ciudad, d.g.; Gorrotxategi, 2017, 69. or.). Immigrazioa fenomeno nabarmena da (Ochoa de Aspuru & Fernández, 2020): 2017an, EHn jaiotakoak 66.623 inguru ziren, eta EHTik kanpo jaioak 34.600 inguru (Barakaldoko Udala, 2017). Hori bai, lehen Gaztela, Galizia, Extremadura eta Andaluzia jatorri azpimarragarrienak ziren; orain, berriz, Latinoamerika, Magreb eta Errumania dira (Ochoa de Aspuru & Fernández, 2020; Barakaldoko udal txostenak), nahiz eta oraindik ere jatorri atzerritarra dutenen artean gehiengoa (% 68 inguru) espainiar estatuan jaiotakoa den.³

Immigrazioaren haritik tiraka, 2015-2016ko ikasturtean, Barakaldoko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle guztietatik % 8,4 (1.202) espainiar estatutik kanpo jaiotakoa zen, eta 2018-2019 ikasturtean ere, jatorri etorkina duten ikasleak % 8,4 (1.223) ziren. Ikasle profil hori, 2015/2016 ikasturtean (Barakaldoko Udala, 2016), batez ere B ereduan matrikulatuta zegoen, gero A ereduan eta, azkenik, D ereduan. 2018-2019 ikasturtean, ordea, D eredua A ereduari nagusitu zitzaion.

Erregimen orokorreko unibertsitaterik kanpoko Barakaldoko hizkuntza ereduen bilakaerari erreparatuz gero, nabaria da A ereduaren beherakada B eta D ereduen mesedetan. Egun D dugu eredurik aukeratuena (Barakaldoko Udala, 2020, 16. or.; Eustat, 2020).

Euskararen ezagutza datuetara etorrira, Barakaldon, 2016an (Eustat, 2016), 24.307 euskaldun (% 25,26) zeuden, gehienak euskal hiztun berriak (Barakaldoko udala, 2020, 14.-15. or.), eta 51.754 erdaldun. Euskara erabile-


³ *Gaztela* kontzeptuaren barruan, egungo Madrilgo Erkidegoa, Gaztela eta Leon, eta Gaztela Mantxa sartu ditut.

rari dagokionez, azken datuek diote familia erabilera % 7,03koa dela (Barakaldoko udala, 2020, 15.-16. or.); kale erabileraren neurketa sendorik eta nahikoa fidagarririk inoiz egin ez bada ere (Barakaldoko Udala, 2020, 23. or.), Olatz Altunak jakinarazi zidanaren arabera, Soziolinguistika Klusterrak, Barakaldon, 2001ean jaso zituen azken kale erabilera datuak, zeharkakoak. Orduan euskararen kale erabilera % 0,9koa izan zen.

3.4 Parte hartzaileen karakterizazioa


Artikulu honetarako, orotara, 14-18 urte bitarteko Barakaldoko 179 gazte hartu ditut ikergai (1. irudia), 5 ikastetxetakoak: 162 gazteren galdetegiak eta 46 gazteren arteko elkarrizketak (9 elkarrizketa talde erdi gidatu).⁴

Lekukotutako ikastetxeei dagokienez, bi itunpekoak dira eta besteak publikoak. Euren artean espainiar estatutik kanpo jaiotakoen (garaiz kanpo nahiz garaian egindako) matrikulazio tasa nahiko ezberdina da: itunpeko ikastetxe batek eta bi publikok dituzte tasarik altuenak (nabarmentzekoa da besteek duten tasa baxua). Hizkuntza ereduaren eskaintza dela eta, bik (itunpeko eta publiko banak) A erdua ere eskaintzen dute, besteek B eta D ereduak, edo D erdua bakarrik.



1. irudia. Barakaldoko gazte parte hartzaileak adinaren arabera.

⁴ Ikastetxe batekoek ez zuten galdetegiak bete eta bi elkarrizketa taldetan galdetegiak bete ez zuten bi gela berriko gazteek parte hartu zuten.



2. irudia. Barakaldoko parte hartzaileak hizkuntza ereduaren arabera.

Parte hartzaile gazte gehienak D eredukoak dira, gero B eredukoak eta, azkenik, A eredukoak (2. irudia).

Gazteen jaiolekuari dagokionez, EHTik kanpo jaiotakoak (bereziki espainiar estatutik kanpo jaiotakoak) A eta B ereduatan lekukotu nituen batez ere, bai kopuru absolutuari begira, baita ehuneko erlatiboari begira ere. Gehienak A ereduari daude, B ereduari gero eta, azkenik, D ereduari. Gurasoen jaiolekuari dagokionez ere, joera antzekoa da. Ildo beretik, espainiar estatutik kanpoko etorkinen pilaketa dagoen ikastetxeetako familietan ezagutzen dira hizkuntza gehien. Hizkuntza aniztasunik handieneko gelan 11 hizkuntza lekukotu nituen, hizkuntza aniztasunik eskasenerako gelan 2. Honen batera, komeni da esatea aipatu zituzten hizkuntza gehienak hizkuntza nagusiak direla, eta erabilera aitortua batez ere gaztelaniaren aldekoa zela. Jakitekoa da ingelesa, gaztelania eta euskara kasu guztietan azaldu zirela, eta euskara batez ere emakumeekin (izebekin eta amekin) lotu zutela.

Gazteen euskararen jabeakentzari begira, ikergai izan diren Barakaldoko gazte gehienak euskal hiztun berriak dira, espero bezala; hots, gehienek euskara eskolan ikasi zuten, etxetik edo familiatik kanpo. 13 gaztek baino ez zuten garbi adierazi euskara etxean (ere) ikasi zutela, D ereduari 12k eta B ereduari 1k. Ez zen A ereduari etxetik euskaldunik lekukotu.

Gazteen ikasketak hizkuntzari (edo, hizkuntza ereduari) erreparatuta, joera ikasketak hizkuntza eredu berean egitearen aldekoa da; hala ere, D ereduari B eredurako eta B ereduari A eredurako aldaketa gutxi batzuk jaso ziren

(bestelako aldaketak ezohikoagoak dira). Adibidez, DBHko B eredutik Batxilergoko A eredurako aldaketa egin berria zuten bi ikaslerekin egoteko parada izan nuen. Esan zutenez, bereziki matematika euskaraz egiteari zioten beldurrak eraman zituen aldaketa egitera. Izan ere, Batxilergoan ez dago B eredu eskaintzarik eta, ondorioz, A eta D ereduen artean aukeratu behar dute ikasleek.

Barakaldoko gazteen (norbere) euskara erabilera aitortuari dagokionez, % 97,3ren ustez % 0 eta % 50 artean bizi ziren euskaraz; gainera, % 64,9ren ustez euskaraz % 0 eta % 25 artean bizi ziren. Hau da, Barakaldoko gazte parte hartzaileen erabilera aitortua apal-apala da. A eredukoena izan zen erabilera aitorturik apalena, % 0 eta % 25 arteko euskara erabilera aitortua A eredukoek (% 93,75) B (% 59,2) eta D eredukoek (% 59,8) baino gehiagotan aipatu baitzuten. Maiz, erabilera aitortpen sinboliko edo anekdotiko samarrekin topo egin zen. Askotan adierazi zituzten halakoak: *euskara gutxitan erabiltzen dugu; askotan euskaraz, baina gazteleraren presentzia oso nabarmena da, batzutan frontoian bai, baina ez asko*. Euskarari erabilera ohikoa esleitu ziotenak salbuespena izan ziren.

Hurrengo taula (1. taula) esanguratsua da ikusteko ikastetxe barruko tes-tuinguruan ere euskara gutxi eta gutxik egiten zutela. Hala ere, esan behar da datu hauek ez direla alderagarriak ereduen artean, A ereduan, eskola barruan, euskaraz euskara irakasleekin baino ez egitea espero baita. Hala ere, hizkuntza eredu euskaldunagoetako erabilera aitortua ere nahiko apala da.

1. taula. Barakaldoko gazteen familiaz kanpoko euskararen erabilera aitortua; kopuru absolutuak (gazte kopurua)

Hizkuntza erabilera	D eredua	B eredua	A eredua
Gaztelaniaz, baina irakasleekin euskaraz	48	16	3
Euskaraz (ere), oro har	25	8	-
Euskaraz ez, eta irakasleekin ez beti euskaraz	9	22	2

Gurasoekiko harremanean, euskaraz (ere) gazteen % 8,6k egiten zuten, A ereduko batek ere ez; eta soilik euskaraz gazteen % 2,5ek (D eta B ereduko

gutxi batzuek). Gainontzeko familiako kideren batekin edo batzuekin euskaraz (ere) gazteen % 20,4 mintzatzen zen, A ereduko bat ere ez.

Eskolaz kanpoko jarduera gehienak gaztelaniaz egiten zituzten, % 15,6k baino ez zuen eskolaz kanpoko jardueraren bat euskaraz (ere) egiten, eta horiek bereziki D eredukoak ziren. Aipatzekoa da A ereduko batek ere ez zuela euskaraz (ere) eskolaz kanpoko jarduerarik egiten. Euskaraz (ere) egiten zituztenak hauek dira: akademia, partikularrak, euskal dantzak, arrauna, surfa, futbola, argazkilaritza, taekwondo, musika, gimnasia erritmikoa, eskupilota, irristaketa artistikoa, monitoretza eta Gaztetxeko jarduerak.

Euskararen kontsumo aitortuari erreparatuz gero, kontsumorik askotari-koena eta ohikoena D eredukoena eta ikastetxe jakin batzuetakoena da (2. taula). Pentsa genezake horrek lotura izan dezakeela ikastetxeen profilarekin; izan ere (eta, adibidez), kontsumorik askotarikoena eta ohikoena etxetik euskaldun gehien dituzten eta soilik D eredua eskaintzen duten geletan aitortu zen. A eredukoek B eredukoek baino kontsumo aitortu handiagoa izatearen atzean egon daitekeena da A eredukoei kontsumorik sinbolikoena eta txikiena ere aipagarri egin zitzailela; esan nahi da, beharbada B eta D eredukoei baino aipagarriago (horixe iruditu zitzaidan). Musika da euskaraz gehien kontsumitzen dutena gazteek, hortik kanpo, eta gutxitan, telesailak, egunkari artikuluak edota liburuak.⁵

Barakaldoko gazte parte hartzaileen karakterizazioarekin bukatzeko, euskalduntasunari begiratuko diogu: gazte parte hartzaile askok izendatu zuten beren burua euskaldun, baina, batik bat D (% 88) eta B eredukoek (% 82). A eredukoek % 26k baino ez zuen bere burua euskaldun izendatu. Gazteei ez zitzaien *euskaldunberri* eta *euskaldun zahar* terminorik aipatu (ea euskaldunak diren eta zergatik bai/ez galdetu zitzaien) eta gazte batek ere ez zuen halako kontzepturik atera. Erabakian, jaiolekuari edota bizilekuari eta sentimenduei berebiziko garrantzia eman zieten. B eta D eredukoek artean, euskararen erabilerak edota ezagutzak ere garrantzia dute. D eredukoek artean, arrazoi izanarazleagoak ere azpimarragarriak dira.

⁵ Euskaraz (ez) kontsumitzeko aipatu zituzten arrazoirik esanguratsuenak: gustua (euskararenganakoa, kontsumo bidearenganakoa edo kontsumo aukerenganakoa) eta gaitasun erlatiboa. Gustuarena hiru ereduetan aipatu zen, gaitasun erlatiboarena, ordea, B eta D ereduetan. A ereduan, oro har, ez zen arrazoirik aipatu.

2. taula. Gutxi edo asko, euskaraz kontsumitzen duten gazteak, hizkuntza ereduaren arabera

Hizkuntza eredu	Euskaraz kontsumitzen zutenak
D eredu	54 (% 53,5)
B eredu	18 (% 35,3)
A eredu	11 (% 40,7)


4 Emaitzak

Atal hau osatzeko, alde batetik, emaitzak kuantitatiboak azalduko ditut eta, bestetik, kualitatiboak.

4.1 Emaitza kuantitatiboak

4.1.1 Pozik euren euskara mailarekin?

Ea beren euskara mailarekin pozik zeuden galdetuta, gazte guztien % 45,1ek ezetz adierazi zuen (3. irudia). Gusturen zeudenak D eredukoak izan ziren, gero B eredukoak eta, azkenik, A eredukoak. Edozein kasutan, ereduaren arteko desberdintasunak ez dirudi esanguratsua.




3. irudia. Beren euskara mailarekin (ez-)pozik dauden gazteak.

4.1.2 Euskaraz gehiago bizi nahi?


Orokorrean, euskaraz gehiago bizitzeko prest zeuden gazteak (ik. 4. irudia); % 43, 6k % 50 eta % 100 artean bizi nahiko zuen; gainera, % 24,2k % 75 eta % 100 artean bizi nahia adierazi zuen. Euskaraz gehien (% 50 eta % 100 artean) bizi nahiko zutenak D ereduan zeuden (% 49,4), gero B ereduan (% 40,8) eta, azkenik, A ereduan (% 15,4).

3. taula. Barakaldoko gazteen euskaraz bizitzeko nahia (gazte kopurua)

Euskaraz bizi nahi	% 0-50	% 50-100
D eredua	44	43
B eredua	29	20
A eredua	11	2
Guztira	84	65



4. irudia. Orduan bizi zirena baino gehiago bizi nahi zuten gazte barakaldarrak.



5. irudia. Ordutik aurrera ikasketak euskaraz (ere) egin nahi zituztenak.

4.1.3 Ordutik aurrera zein hizkuntzatan ikasteko asmoa adierazi zuten

Oro har, euskara ez zuten askok aipatu, salbu eta D ereduan (ik. 5. irudia).

4.1.4 Zein hizkuntzatan hasi elkarrizketa ezezagunei?

Zein hizkuntzatan hasiko liokete elkarrizketa ezezagun bati? Bada, erantzunen artean, % 7,4k baino ez zuten euskara (ere) aipatu. Bestalde, D ereduko en % 6,7k erantzun mota hau eman zuen: *normalean/gehienetan gaztelaniaz hasiko nuke elkarrizketa*. Pentsa daiteke erantzun horrek ere, zeharka, euskara barnebiltzen duela. Gainontzeko erantzunek ez zuten euskara aintzat hartu.

4.1.5 Galdetegiko baieztapenen gaineko balorazioa

Galdetegian baieztapen batzuk baloratu behar izan zituzten gazteek, 1etik (guztiz desados) 5era (guztiz ados). Ondoan (4 eta 5 artean) eta okerren (1 eta 3 artean) baloratu zituzten baieztapenak 4. taulan daude irakurgai. Hizkuntza ereduen artean alde handirik ez dagoela badirudi ere, ondoan baloratuak 3. baieztapenean (ik. 4. taula), A eta D ereduen arteko aldea azpimarragarria izan daiteke: baieztapen hori D ereduko % 62,8k baloratu zuten 4 edo 5ekin; ordea, A ereduko % 15,8k baloratu zuten esaldi bera 4 edo 5ekin.

4. taula. Okerren eta ondoen baloratutako inkesta baieztapenak

Ondoen baloratutako baieztapenak	Okerren baloratutako baieztapenak
Euskal Herria –euskararen eremua, euskararen herria– da nire herria, egun bi estatutan zatituta dagoena; frantziar estatua eta espainiar estatua. (% 44,4)	Ni ez naiz euskal herritar sentitzen, ez naiz bi estatutan zatituta sentitzen... (% 82,7)
Hezkuntza sisteman Euskal Herriko / euskararen historia erakutsi beharko ligitu-kete. (% 44,2)	Euskara batua euskara errobotikoa da, nahiago nuke bizkaieraz-edo hitz egiten jakin. (% 73,5)
Euskal Herrian zeozer eraginkor egin behar da euskararen ezagutza eta batez ere erabilera indartzeko. Hizkuntza politika eta plangintza sendoak behar ditu euskarak berandu baino lehen... baldin eta hizkuntza honen normalizazioa eta etorkizuna bermatu eta ziurtatu nahi baditugu... (% 50,6)	Euskal Herriko hezkuntza sisteman soberan daude D ereduak ez diren beste eredu guztiak (A, B, G eta X). Euskararen normalizaziorako oztopo dira eta. (% 79,1)
Gaztelera edo frantsesa eskatzeaz gain beste hizkuntzaren bat eskatzekotan ingelesa eskatzea da logikoena. Izan ere ingelesa jakitea gero eta garrantzitsuagoa da. (% 58,8)	Euskal Herria? Ez dut ondo ulertzen zer esan nahi duen... beraz, niri Barakaldoren inguruan hitz egin, ez Euskal Herri horren inguruan! (% 86,2)

4.2 Emaitza kualitatiboak

4.2.1 Pozik euren euskara mailarekin?

Barakaldoko gazte gehienei gaztelaniaren aldeko gaitasun aitortua ondo-rioztatu zitzaion. Edozein kasutan, norbere euskara gaitasunarekiko autopertzepzio negatiboak eta lotsak, batez ere, euskararekiko lotura handirik ez zutenengan sumatu ziren.

Gazte askok euskaraz hitz egiteko eta, neurri txikiagoan, ulertzeko (nagusiki A eredukoek) zailtasunak aipatu zituzten (11-13 adibideak). Gazte asko ez zeuden beren euskara mailarekin pozik, eta, halaber, pozik zeudela adierazi zuten hainbatek *bai*, *baina* moduan erantzun zuten. (Zeharo) pozik ez zeudenek hiztegia, jariotasuna, ahozkoa edota aditzak zituzten ahulgune-

tzat. Eskolan, ahozko komunikazioa (Zabala, 2018) eta motibazioa lantzea (Oroujlou & Vahedi, 2011) interesgarri izan daiteke, besteak beste.

- (11) *ulertzeko zailagoa egiten zaidalako* (euskara)
- (12) *erdera askoz errazagoa delako niretzat*
- (13) *ez dudalako ondo kontrolatzen euskera, ez naiz ziur sentitzen, lotza ematen dit*

4.2.2 Euskaraz gehiago bizi nahi?

Gazte batzuen ustez, euskara gutxiegi erabiltzen zuten. Horien artean euskararekiko atxikimendua, identitatea, euskararen egoerarekiko kezka eta koherentziarik eza (euren sinesmenen eta praktiken artekoa) agertzen dira (14-16). Aldi berean, horientzat euskara gehiago ez erabiltzearen arrazoi edo oztopo nagusiak gaztelaniaren aldeko gaitasun erlatibo aitortua, gaztelanian ardaztutako hizkuntza ohiturak/harremanak edota gaztelaniaren eta euskararen arteko prestigio desoreka sentsazioa dira. Batzuek euskara gehiago erabili nahi zutela adierazi zuten arrazoi instrumentalagoak ere tarteko (adibidez, euskararekiko harremana mantentzearen edota euskara gaitasuna hobetzeko). Gazteen motibazioa garatzea eta hizkuntza ohiturak lantzea baliagarria izan daiteke, batez ere euskararen aldeko nahia edo desira dutenekin (Igartzabal, 2015, 131.-133. or.).

- (14) *pila bat gustoko dut euskara*
- (15) *saiatu behar gara euskera hizkuntza ez desagertzea*
- (16) *badakigulako eta ez dugulako erabiltzen*

Beste gazte batzuk konforme zeuden beren euskararen erabilerarekin. Horiek besterik gabe interesik eza adierazten dute, konformismoa edota euskararen egoerarekiko kontzientziarik eza. Horien artean euskararen baliio mugatuaren sentsazioa ere egon daiteke:

- (17) *euskera ospetsua ez delako*
- (18) *ez zait euskara gustatzen eta urte batzuen barru kanpora joan nahi dut*
- (19) *ni ustez, gaztelera, ingelera, alemaniera, etab. garrantzitsuagoak dira*

Amaitzeko, gazte zenbaitek euskara gehiegi erabiltzen zutela uste zuten. Horiek euskararekiko lotura modu negatiboan bizi dute:

- (20) *nire komunikazioak eta erlazioak asko murrizten dituelako (euskarak)*
- (21) *No me parece un idioma que vaya a cambiar el mundo... / porque me parece más importante saber inglés...*
- (22) *No me gusta el euskera, me aburre y nunca aprendería euskera*

Euskararekiko atxikimendua edota gustua, maitasuna edota kezka eta jarrera izanarazlea batez ere D eredukoek adierazi zuten. Modu berean, EHre-kiko identitatea euskarekiko jarrerarik eta motibaziorik aldekoenak azaldu zituztenei antzeman zitzaien:

- (23) *Euskara nire/gure hizkuntza delako*
- (24) *Barakaldo Euskal Herria delako, Euskal Herrian euskaraz; pila bat gustoko dut euskara*
- (25) *Ez badugu erabiltzen azkenean galdu egingo da*

A eta B eredukoak gustu-maitasun-kezka kontuetan nabarmendu ziren gehiago.

Aipu instrumentalik gehien B ereduko gazteengandik jaso ziren, gero D eredukoengandik eta, azkenik, A eredukoengandik. Nahiz eta gazteek euskarari eman zioten balio instrumentala agian ez den, adibidez, Alvarezen lanekoa (2018, 69. or.) bezain aipagarria, modu batean edo bestean, gazte askok onartu zioten balio instrumentalaren bat euskarari:

- (26) *Gero oposizioak egiteko, EGA maila ematen dizutelako, eta eskatzen dutelako maila hura*
- (27) *Politikariek pues jakin behar dute euskara nire ustez hemengoek... Hemengo hizkuntza da (...) batzuetan lana izateko (...)*

Kontua da jarrera edo motibazio instrumental oso positiborik ez zitzaizela nabaritu eta askorentzat euskararen balio instrumentala mugatua edo erlatibo delako: *lan egiteko bai; baliagarria zenbait arlotarako; solo para ser funcionario, para el resto nada*. Orokorrean, A ereduan, euskararen balio instrumentala B eta D ereduetan baino gatazkatsuagoa izan zen eta D ereduan ondorioztatu ziren euskararekiko aipu instrumentalik positiboak. Askotan, aipu instrumentalak barnekoagoekin edota integratzaileekin nahastu ziren: *hemen lan egitekotan beharrezkoa ikusten dut*.

4.2.3 Orduetik aurrera zein hizkuntzatan ikasteko asmoa adierazi zuten

Euskaraz (ere) ikasteko edo ez ikasteko arrazoi gehien D ereduakoei jaso zitzaizkien. A ereduaren artean, salbuespenekoa izan zen orduetik aurrera euskaraz (ere) ikasteko asmoa; gainera, horiengandik ez zen sailkatzeko moduko azalpenik jaso. Hiru ereduakoko gazteak kontuan hartuta, hauek izan ziren euskaraz (ere) ikasteko edo ez ikasteko arrazoirik eta faktore eragilerik aipagarrienak: ikasteko gaitasun erlatiboa, ohitura, helburu instrumentalak (adibidez, euskaraz ikasi nahi izatea norbere maila hobetzeko helburuarekin edo hemen lan egiteko / bizitzeko), euskararekiko atxikimendua eta ikasketa mota.

4.2.4 Zein hizkuntzatan hasi elkarrizketa ezezagunei?

Barakaldoren gaineko irudi oso erdalduna azaldu zuten gazteek. Bellosoren esanetan (2011, 183. or.), Barakaldon gaztelaniak «atxikimendu komunitate eta komunitate diskurtsibo sendoak ditu». Halere, errealitatea benetan dena baino are oztopatzaileagoa sentitzen zutela iruditu zitzaidan. Orokorrean, elkarrizketatutako gazteek euskararen aldeko hautua egin dezaten, baldintzek lagundu behar dute; proaktibotasunik eza ondorioztatu zaie, nahiz eta, aurretik esan bezala, askok euskaraz gehiago bizi nahiko zuten:

- (28) *gaztelera hasten ditut elkarrizketak «normalena» delako bizi garen tokian*
- (29) *Haiek hitz egiten badidate euskaraz ba nik... / Hitz egiten dudanean pertsona horrekin ba euskaraz hitz egiten dut...*
- (30) *Adibidez klasea amaitzen denean ya guretzat aldatzen dugu txipa ta egiten dugu ya gaztelera zeren eta oso ohituta gaude orduan...*

Kontuan hartzekoa da, baina, adin tarte honetan inguruaren eragina (Pérez, 2021) eta euskararen alde aktibatzeak aukera(k) (Amorrortu *et al.*, 2016, 104. or.). Dena den, euskararen erabileraren alde lerratzea korrontearen aurka joatearen pareko izan daitekeela jakinik (Igartzabal, 2015), euskararen alde egiteko proaktibotasuna garatzea ezinbesteko bihur daiteke, are gehiago Barakaldo bezalako testuinguru batean (Amorrortu *et al.*, 2016, 222. or.). Horrexegatik, gazteekin hizkuntza ohiturez hausnartzea-eta baliagarri izan daiteke; horrela, behintzat euskararen aldeko jarrera duten batzuek, aldeko jarrera izatetik aldeko jokaera batzuk izatera (hau da, hiztun proaktiboak izatera) igaro litezke.

4.2.5 Galdetegiko baieztapenen gaineko balorazioa

Okerren baloratutako bigarren baieztapenak (ik. 4. taula) 60 gazteren baino gehiagoren balorazio ona, oso ona edo bikaina jaso zuen (batez ere D ereduko en partetik; A eredukoek eztabaida hau urrun samar eta ezezagun ikusi zuten). Halako joeren aurrean, interesgarria izan daiteke Amonarrizen (2019) diskurtsoa gogoratzea: «Oiongo euskara Tolosako euskara bezain euskara da; Sestaoko euskara Lizartzako euskara bezain euskara da; Atharratzeko euskarak, Baionakoak, Gasteizkoak eta Abantokoak balio bera dute»; «autoestimua linguistikoa zabaldu behar dugu, bai maila desberdinetako hiztunen artean, bai eremu geografiko desberdinetako hiztunen artean. Horregatik, gaindi dezagun euskalki kontzeptua, eta jo dezagun hizkeretara».

Bestetik, ondoen baloratutako 4. baieztapenak adierazi bezala, Barakaldoko gazte askorentzat ingelesak balio berezia du, lan egiteko, bidaiatzeko eta *kanpokoekin* hitz egiteko. Batzuek halako lilura berezia ere badiote, nahiz eta gehienek ez zuten ingelesarekiko atxikimendurik adierazi. Ingelesarekin musika, ikasketak, ikus-entzunezkoak eta hizkuntza tituluak lotu zituzten.

Azkenik, ondoen baloratutako 3. baieztapenak adieraz diezaguke maila teorikoan behintzat gazteen erdiek euskararen aldeko jarrera izan dezaketela edo ez aurkakoa behinik behin. Hala ere, askotan aldeketasun honek talka egiten du proaktibotasun faltarekin.

4.2.6 Bestelakoak, azken emaitzak eta azken hitzak

Oro har, euskararekiko jarrerarik eta motibaziorik aldekoenak eta positiboenak D eta neurri txikiagoan B ereduetan ondorioztatu dira, eta, gehien jaso edo ondorioztatu den profila nolabait «babesa behar duena» da (Amorrortu *et al.*, 2016, 241. or.). Zentzu honetan, Barakaldoko gazteen euskararen erabilerarekiko berriak ez diren eta nolabait espero izatekoak ziren faktore eragile subjektibo hauek ondorioztatu dira (ik. 2.2. atalaren bukaeran eta ikerketa honetarako aurreikuspenetan esandakoa): hizkuntza ohitura, gaitasun erlatiboa, proaktibotasuna, euskararen/gaztelaniaren prestigioa, euskararen egoerari buruzko kontzientzia, lotsa, ingurunearen presioa edota testuinguru soziolinguistikoa, euskararekiko atxikimendua, hizkuntza eredu eta euskararen komunitatearen (edota kultur sorkuntzaren) inguruko ezagutza. Era berean, horrelako testuinguru soziolinguistikoa batean euskararen aldeko harreman sareak edota euskararekiko loturak izatea zeinen ga-

rrantzitsua den berretsi da, bai euskararen erabilerari begira, baita, oro har, euskararekiko jarrerei eta motibazioei begira ere.

Euskararekiko aurreiritziak ez ziren berariaz aztertu, baina batzuk azaleratu ziren, hala nola, euskarak errietetarako ez duela gaztelaniak besteko in-darririk, euskara batua euskara errobotikoa, ez hain naturala dela, euskarak ez duela zerikusirik gainontzeko hizkuntzekin, euskara ez duela inork ere erabiltzen eta hizkuntza bat ez ulertzeak hizkuntza bazterketa dakarrela. Halakoak identifikatzen eta kontraeragiten ahalegindu beharko litzateke.

5 Ondorioak

Artikulu honetan Barakaldoko gazteek euskarekin dauzkaten jarrerak eta motibazioak eta beren euskara erabileran eragiten duten faktore batez ere subjektiboak jorratu ditut. Testuinguru soziolinguistiko bereko, hau da, Barakaldoko askotariko gazteak lekukotu ditut (udalerrri horren gainean foku osoa eta bakarra gutxitan jarri da, gainera): A, B eta D eredukoak, euskal hiztun berriak nahiz etxetik euskaldunak, euskara gaitasun aurreratua dutenak zein gaitasun oso mugatua dutenak, euskararekiko interesatuago daudenak nahiz interesik ez dutenak, eta abar. Hori ekarpentzat har genezake. Oro har, marko teorikoan aipatutakoak azaleratu eta metodologiaren atalean aurreikusitako emaitzak berretsi dira, bereziki Alvarezen (2018) eta Goirigolzarriren eta besteren lanen (2018) bidetik.

Hasteko, ikergai izan ditudan Barakaldoko gazte parte hartzaileen karakterizazioa egin dut. Barakaldoko 14-18 urte bitarteko ikasle etorkinak bereziki A ereduan eta ikastetxe jakin batzuetan pilatzen direla ikusi da, eta, era berean, familiako hizkuntza gehien ikastetxe horietan aipatu zirela. Ondoren, gazteen euskararen jabekuntza dela eta, gehienak euskal hiztun berriak dira, hots, euskara eskolan ikasiak eta ikasketa ibilbidean zehar hizkuntza eredu bera mantentzearen aldeko joera dutenak; lekukotutako aldaketa gehienak (gutxi) B eredutik A eredurakoak eta D eredutik B eredurakoak izan ziren. Azkenik, gazteen euskararen erabilera aitortua apal-apala da, nagusiki A eredukoaren artean. Hain da apala, ezen euskararen agertzea, askotan, zeharo sinbolikoa eta anekdotikoa izan baitzen. Horretan gehien eragiten duten faktoreak ohitura, lotsa, ingurune soziolinguistikoa, hizkuntza prestigioa, hizkuntza kontzientzia, hizkuntza eredu, gaitasun erlatiboa, proaktibotasuna, euskararekiko atxikimendua eta euskararen komunitatearen (edota kultur sorkuntzaren) inguruko ezagutza dira.

Azkenik, gazteen honako jarrerak, motibazioak, bizipenak eta iritziak nabarmendu nahi nituzke:

- i. Gazte gutxi dute euskararekiko harreman ohiko eta sendorik; hala ere, euskararekiko harreman estuagoa edota ohikoagoa dutenek euskararekiko jarrera eta motibazio aldekoagoak eta positiboagoak dituzte. Denetik dago, baina jarrera eta motibazio aldekoenak eta positiboenak batez ere D ereduok, gero B ereduok eta, azkenik, A ereduok agertu zituzten.
- ii. Jarrera eta motibazio positiboenak barneko arrazoen, integratzaileen eta izanarazleen gainean eraikitakoak dira. Hauen parean, euskararen aldeko aipu eta arrazoi instrumentalek ez ziruditen horren motibazionalak; hala ere, arrazoi instrumentalak ere egon badaude.
- iii. Gazte askok euskaraz hitz egiteko zailtasunak adierazi eta azaldu zituzten, beren euskara mailarekin pozik egon zein ez, eta batzuek (batik bat A ereduok) euskaraz ulertzeko zailtasunak ere bai. Ikastetxean ahozko komunikazioa (Zabala, 2018) eta motibazioak lantzea (Igartzabal, 2015; Oroujlou & Vahedi, 2011) garrantzitsua izan daiteke.
- iv. Ingelesak garrantzi berezia du gazteentzat: lan egiteko, nazioarteko harremanetarako, bidaiatzeko... ikusten dute baliagarri. Halaber, gazte askok hizkuntzei esleitzen dieten balioa nazioarteko hitzun kopuruaren, egoeraren arabera ere bada. Hizkuntza nagusiak oso presente egon ziren.
- v. Barakaldoren inguruko irudi oso erdalduna dute gazteek. Oro har, Barakaldoko gazteei euskararen aldeko proaktibotasun handirik eta sendorik ez zaie ondorioztatu. Gazteen (edo, gazte jakin batzuen) proaktibotasuna edota hizkuntza ohiturak lantzea interesgarria izan daiteke (Igartzabal, 2015).
- vi. Euskarari kalte egin diezaioketen aurreiritziak eta diskurtsoak azalerratu ziren, hala nola euskarak iraintzeko indar falta duela, euskara mota naturalagoak eta ez hain naturalak daudela, eta abar. Horiek identifikatu, kontuan hartu eta kontraeragiten saiatu beharko litzateke.

6 Erreferentziak

- Abdelaziz, K. (2018). *Language attitudes in sociolinguistic research: A methodological perspective*. Bouhout.
- Ajzen, I. (1987). Attitudes, traits, and actions: Dispositional prediction of behavior in personality and social psychology. *Advances in Experimental Social Psychology*, 20, 1-63. [https://doi.org/10.1016/S0065-2601\(08\)60411-6](https://doi.org/10.1016/S0065-2601(08)60411-6)
- Ajzen, I. (2005). *Attitudes, personality and behaviour*. McGraw-Hill Education.
- Altuna, J. & Hernández, J. M. (2020). Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak. *Euskera*, 65(2), 445-479.
- Alvarez, L. (2018). *Euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan* [Master Amaierako Lana, UPV/EHU]. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/LibeAlvarez-MAL_%20Euskararen-erabilera-motibazioak-gazteengan_180607.pdf
- Amonarriz, K. (2019/12/7). «Ez genuke euskalkiez hitz egin behar, tokian tokiko hizkerez baizik». [Itzea Urkizu Arsuagak Kike Amonarrizi egindako elkarrizketa]. *Tolosaldeko Ataria*. <https://ataria.eus/tolosa/1575651731970-kike-amonarriz-elkarrizketa-ez-genuke-euskalkiez-hitz-egin-behar-tokian-tokiko-hizkerez-baizik>
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. & Agirrebeitia, A. B. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.ehu.es/documents/3120344/3130328/Euskarari+buruzko+jarrerak_2009.pdf
- Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea. https://www.ivap.euskadi.eus/r61-2347/es/contenidos/informacion/bibl_digital/es_documento/adjuntos/Euskal%20hiztun%20berriak.pdf
- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2020). Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketaren baten behin-behineko emaitzak. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (47.-61. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.3>
- Baker, C. (1992). *Attitudes and language*. Multilingual Matters.
- Barakaldoko Udala. (2016). *Hezkuntza alorreko zerbitzu teknikoak. Informe de matriculación curso 2015-2016*. Barakaldoko Udala.

- Barakaldoko Udala. (2017). *Población total desglosada por provincia de nacimiento. Barakaldoko Udala.*
- Barakaldoko Udala. (2020). *Euskara sustatzeko ekintza plana. Barakaldoko Udala.* <http://euskara.barakaldo.eus/wp-content/uploads/2020/08/ESEP-plana-2020-2024.pdf>
- Belloso, E. (2011). Ahozko hizkuntzaren erabileraren garrantzia hizkuntzaren normalizazioan, Barakaldon. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 82, 175-194. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Enara%20Belloso.pdf>
- Briñol, P., Petty, R. E. & Stavrakı, M. (2019). Structure and function of attitudes. *Oxford research encyclopedia of psychology*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acrefore/9780190236557.013.320>
- Cherry, K. (2021). Attitudes and behavior in psychology. *Verywell Mind*. https://www.verywellmind.com/attitudes-how-they-form-change-shape-behavior-2795897?utm_source=pocket_mylist
- Erize, X. (2016). Euskal Herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboan bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 99(2), 113-177. http://www.soziolinguistika.eus/files/xabier_erize_bat99.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (d.g.). *Euskararen etorkizuna. Gizarte erronkak eta politiken definizio eta aplikazioaren eragina izango ditugu aztergai euskararen etorkizuna aztertzeko.* <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/eremu-tematikoak/euskararen-etorkizuna/en-4/>
- Eusko Jaurlaritza. (2016). *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eustat. (2016). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa per lurralde eremua, euskara-maila eta aldia.* Eusko Jaurlaritza. https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010152_cepv3_ne06.px
- Eustat. (2020). *Euskal AEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak eta irakaskuntzataldeak, udalerrri, zentroaren titulartasun, irakaskuntza-maila, hizkuntza eredu eta ezauzgarrien arabera.* Eusko Jaurlaritza. https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_040601_ceens_mun01.px
- Foro-Ciudad. (d.g.). *Demografía de Barakaldo.* <https://www.foro-ciudad.com/vizcaya/barakaldo/habitantes.html#EvolucionGrafico>
- Goikoetxea, G. (2016). *Euskara irabazteko bidean.* Aleka bilduma.

- Goirigolzarri, J., Carramiñana, I., Ortega, A. & Etxaniz, J. (2018). *Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez? Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon*. Eusko Ikaskuntza. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/GEEB_EmaitzenTxostena_180212.pdf
- Gorrotxategi, M. (2017). El euskera en Barakaldo, el testimonio de Bonaparte. *Revista K-Barakaldo Aldizkaria*, 3, 55-70. https://issuu.com/cihmaluischoyaalmaraz/docs/kaldizkaria_03_web
- Hernández, J. M., Altuna, O., Iñarra, M., Beitia, I., Santamaria, A. & Ozaita, J. (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/gazteak-euskararen-eszenatokian-erabileraren-auzia/>
- Holdershaw, J. & Gendall, P. (2008). Understanding and predicting human behaviour. ANZCA08 Conference. <https://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.579.3527&rep=rep1&type=pdf>
- Igartzabal, I. (2015). Jarreretatik portaerak ulertu nahian. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 97, 121-138. https://soziolinguistika.eus/files/inigo_igartzabal_bat97.pdf
- Juvrianto, C. (2016). *People's language attitude in sociolinguistics*. https://www.academia.edu/29335111/People_s_Language_Attitude_in_Sociolinguistics
- Larrañaga, N. (1995). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean* [Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatea]. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane_Larranaga_TESI.pdf
- Martinez de Luna, I. (2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 3, 121-137. <http://www.sociolinguistika.eus/files/I%C3%B1aki%20Mart%C3%ADnez%20de%20Luna.pdf>
- Ochoa de Aspuru, O. & Fernández, I. (2020). *Panorámica de inmigración en Barakaldo*. Barakaldoko Udala. https://www.inguralde.eus/images/observatorio/sectoriales/PanInmigracionBarakaldo2020.pdf?utm_source=20EstudioMunicipal&utm_medium=web&utm_campaign=EstudioMunicipal
- Oroujlou, N., & Vahedi, M. (2011). Motivation, attitude, and language learning. *Procedia-Social and Behavioral Sciences*, 29, 994-1000. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2011.11.333>

- Pérez, M. (2020). 15-17 urte bitarteko Barakaldoko gazteen euskararekiko jarrerak eta motibazioak [HIZNET Hizkuntza Plangintza berezko tituluan aurkeztutako lan argitaragabea]. UPV/EHU.
- Pérez, J. I. (2021). *Responsabilizar a los jóvenes es errar el tiro. Conjeturas*. <https://blogs.deia.eus/conjeturas/2021/07/05/responsabilizar-a-los-jovenes-es-errar-el-tiro/>
- Soziolinguistika Klusterra. (d.g.). *Soziolinguistika Klusterra*. <https://soziolinguistika.eus/eu/>
- Uranga, B. (2021). Hizkuntza-jarrerak. In *Auñamendi Entziklopedia*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-jarrerak/ar-152174/>
- Zabala, J. (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea: norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra. <https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aDetallePublicacion.jsp?id=052257&tipo=L&id2=0001&impr=0001>
- Zarraga, A., Coyos, J.-B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L. V., Uranga, B. & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/-argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

Auzibidea Burundakoa da, eta euskara? XVII. mendeko euskara apurtxo batzuk eta Burundako euskara garaikidea alderatzen

Actually Burunda Basque? Comparing the Basque fragments from a 17th century trial proceedings and the current Burunda Basque

Iñigo Urrestarazu
UPV/EHU, UPPA, IKER UMR 5478
inigo.urrestarazu@ehu.eus

LABURPENA

Lan honetan 1648 inguruan Burundan egindako epaiketa baten dokumentazioan jasotzen diren euskara apurrak benetan Burundakoak izan daitezkeen aztertu dit. Testuak bi edizio izan baditu ere, testuan ageri diren euskara zatiak eta ezagutu dugun Burundako euskara garaikidea alderatzeko zeuden. Hamar ezaugarri aztertu ditut eta iradoki dut auzibidean ageri den euskara beharbada ez dela azken mendean ezagutu dugun Burundako euskararen forma aitzindaria. Azkenik, bateraezintasun hori konpontzeko aukerak planteatu ditut: auzibideko euskarak idatzi zuenaren edo administrazio nafarrak erabil zezakeen euskara islatzen du, edo Burundako euskara azken 200 urteotan guztiz mendebaldu da.

Gako hitzak: dialektologia; euskara zaharra; auzibidea; Nafarroa.

ABSTRACT

In this paper, I investigated whether the little pieces of Basque language that appear in the proceedings of a trial from c. 1648 can actually be from the place where the trial was held: Burunda. Even though the text has had two editions, the Basque language that appears there has never been compared to the modern Basque from Burunda. I analyse ten features and I show that the Basque from the proceedings may not be the antecedent of the Basque from Burunda that we have known for the last century. Finally, I suggest that the Basque from the proceedings could reflect the Basque of the scribe or the Basque that could be used in the administration from Navarre, or that the Basque from Burunda might have westernised in the last 200 years.

Keywords: dialectology; Old Basque; trial; Navarre.

Lan hau ikerketa proiektu hauen finantzazioari esker egin da: MADPAB (Frantziako errepublikako Ikerketa Agentzia Nazionala, ANR-20-CE27-0007) eta *Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en la cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (Espainiako erresumako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, PID2020-118 445GB-I00).

1 Sarrera

Euskal testu corpusaren izaera lau adjektibok laburbildu ohi dute, betiere inguruko tradizio oparo(ago)en aldean: euskal testu corpora berankorra, urria, asimetrikoa eta homogenea da (Mounole & Lakarra, 2018, 358. or.). Nahiz eta egoerak apurtxo bat hobera egin duen azken, demagun, 20 urteotan —adibidez, Lazarraga eskuizkribuaren aurkikuntzak, erlijiozkoa ez den lekukotasun luze bat izanik, homogeneotasuna eta urritasuna hausten lagundu du neurri handi batean; ikusi orain Bilbao *et al.* (2020)—, ez dirudi euskal hizkuntzalaritza historikoak eskura duen corpusaren izaera —hots, berankorra, urria, asimetrikoa eta homogenea izatea— gehiegi aldatuko denik etorkizunean eta, beraz, gabeziei erreparatu baino gehiago, eskura dagoenari heltzea komeni zaie hizkuntzalari historiko eta filologoei: lanabesak findu eta lekukotasunei duten zuku osoa ateratzea. Lan horren parte da lekukotasunak geografian eta garaian ahalik eta hobekiena kokatzea eta, horri loturik, zeinen fidel erakusten duten leku eta garai bateko hizkera argitzea. Horretan lagundu nahiko luke lan honek, 1648 inguruan Burundako auzibide baten agirietan jasotako euskara zatitxoak aztertuz eta apur horiek —baita, zeharka, Bonaparterendako itzulitako Urdiaingo dotrina ere— Burundako euskara garaikidearen iragana islatzen ote duten eztabaidatuz.

Lanak egitura hau dauka: 2. atalean Burunda Euskal Herrian kokatuko dut lehenik eta, ondoren, hango hizkeraz esandakoak laburbildu eta hango ezaugarrietatik zenbait nabarmenduko ditut. 3. atalean azterketari helduko diot eta auzibideko euskara, Urdiaingo dotrinakoa eta Burundako euskara garaikidea alderatuko ditut. Ondoren, 4. atalean, 1648ko auzibideko euskara benetan Burundakoa izan daitekeen eztabaidatuko dut, eta lekukotasunen arteko dibergentziak azaltzeko zenbait aukera mahai gainean jarriko ditut.

2 Burunda eta Burundako euskara



1. irudia. Burunda eta inguruak. Iturria: Zuazo (2015).

Burunda Nafarroako mendebaldeko eskualde bat da (1. irudia), Sakana haraneko mendebaldeko muturra zehazki. Mendebaldean Arabarekin egiten du muga, iparraldean Gipuzkoarekin eta, hegoaldean Urbasak ixten du. Ekialdera Sakanako gainerakoa dago eta, beraz, Nafarroa Garaia. Sei udalerri hartzen ditu barnean; mendebaletik ekialdera: Ziordia, Olatzagutia, Altsasu —herririk handiena—, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku.

Euskararen egoerari dagokionez, Urdiain da hango herri euskaldun (ia) bakarra (Zuazo, 2010), behintzat, bertako hizkera historikoari eutsi dion —gainerakoetan XX. mendean (ia guztiz) galdu baitzen— eta Soziolinguistika Klusterreko kale neurketetan % 40tik gorako erabilerari eusten dion bakarra (Soziolinguistika Klusterra, 2016). Azken neurketan hauek izan dira Burun-

dako udalerrietako datuak —ohar bedi ez dagoela Bakaiku eta Ziordiko daturik—: mendebaldetik ekialdera, Olatzagutian % 3,7, Altsasun % 13,9, Urdiainen % 44,4 eta Iturmendin % 27,7 —Iturmendiko ehunekoa horren txikia ez bada ere, bilakabideari erreparaturik aldakortasun handia ikusten da eta, beraz, beharbada datua ez da horren fidagarria: 2001ean % 6,3, 2006an % 23,6, 2011n % 7,1 eta 2016an % 27,7—.

Hala ere, badugu hizkera galduen berriren bat edo beste, XX. mendean (azken hitzuneekin) egin ziren grabazioei esker. Erdoziak Sakana osoko euskarari (2001) eta Altsasukoari (2006) begiratu zien, eta Zuazok (1995, 2010) Burunda osokoari heldu zion, neurri batean, baina gainerako herrietan (ia guztiz) desagertu izanak Urdiaingoan gehiago zentratzera eraman zuen. Horien aurretik Izagirrek (1967) ere eman zuen hango euskararen berri.

Itxuraz, Burundako hizkerak oso antzekoak ziren eta, funtsean, desberdintasun txiki gutxitara mugatzen zen haien arteko aldea; herriz herri dauden aldeen berri izateko, ikus Zuazo (2010, 195.-199. or.).¹ Adibidez, i) Altsasun izenei artikulua —eta, oro har, erakusleak— gaineratzean erdiko bokalak ixten ziren eta, ondoren, bokal itxiak *a* itxi zuen: *e + a* (eta *a + a*) > *ea* > *ia* > *ie* > *ii* > *i* (*etxie* ‘etxea’; *gauzie* ‘gauza’); *o + a* > *oa* > *ua* > *ue* (*otsue* ‘otsoa’) (Erdozia, 2006, 21.-24. or.); Urdiainen goranzko diptongoak daude hor, baina ez da bokal irekia ixten, atzetik beste kontsonante bat ez badu: *etx[ja]* ‘etxea’, *gauz[ja]* ‘gauza’ eta *ots[wa]* ‘otsoa’, baina *etx[je]k* ‘etxeak, etxeek’, *gauz[je]k* ‘gauzak’ eta *ots[we]k* ‘otsoak, otsoek’ (Zuazo, 2010, 37.-39. or.). Edo ii) ablatiboak hartzen duen forma: Altsasun *-tik(an)* (Izagirre, 1967) eta Urdiainen *-ti* (Zuazo, 2010, 81. or.).

Aldiz, hizkeren arteko batasuna oso handia da: fonetika-fonologia bera da, *berezitasunak* barne; esaterako, ez dago asimilazio bidezko bustidurarik, eta maileguetakoa ere desegiten da: *bai[n]do* ‘baino’, *gai[n]ien* ‘gainean’; *ai[l]atu* ‘ailegatu, iritsi’, *i[l]un*, eta ez *ba(i)[n]o*, *ga(i)[n]ean*, *a(i)[Λ]atu* eta *i[Λ]un*.² Fonetika-fonologiako arkaismo partekatuak ere badituzte, hala nola diptongoetako jatorrizko zenbait (*)*eu-*: *autzi* < *eutzi* ‘utzi’.³ Ikuskatzaileetako batek ohartarazi moduan, arkaismoek, beren horretan, ez dituzte hizkerak lotzen, baina kontuan hartzekoak dira arkaismoa gorde duen hizkera berean inguruan ez dauden berrikuntzak daudenean (*cf.* Camino, 2008, 237. or.; Zuloaga, 2020, 65.-67. or.). *Eutzi* modukoak gipuzkera zaharrean

¹ Sakanako gainerako hizkerekin alderaturik ere aldea ez da, beharbada, horren handia, baina hori ikertzea lan honen mugetatik harago doa. Ikusi Erdozia (2001) konparazio zenbaitetarako.

agertzen dira, baina egun Burundan baizik ez zaie eusten (OEH, s. v. *utzi*) eta horrek, berritu duen inguru batean, batasuna ematen die Burundako hizkerei.

Nafarroako gipuzkera izena eman zion Bonapartek (1863) Burundako euskarari. Askoz berrikiago, Zuazok (2010, 195. or.) tarteko hizkera bezala sailkatu du, mendebaleko euskararen, giputzaren eta nafarreraren arteko hizkeratzat, alegia.

Burundako euskara garaikidea, funtsean, Arabako euskara da —edo Araban sortutako zenbait berrikuntza oinarri harturik garatutako gipuzkera; cfr. Urgell (2020) eta Zuloaga (2020) Arabako euskararen eraginez—. Esaterako, $a + a > ea$ egiten da eta, gainera, Lazarragaren eskuizkribuan bezala egiten da: *-az* bukatzen diren izenei artikulua gaineratzean egiteaz gain, erakusleekin ere egiten da (Zuloaga, 2020, § 4.4.4.2.2); adibidez, *gela + hau > geliau*.

Izen morfologiarekin jarraituz, hurbiltze adlatiboak gutxienez lau forma edo horien eratorriak daude euskaraz: *-rat*, *-ra buruz*, *-rantz/-rontz/-runtz* eta eratorriak (**-raontz*, Gómez-López, 2005; edo **-ra dontz*, Lakarra, 2008) eta *-ra aldera*. Burundan azken biak aurkitzen ditugu: *-ra aldera* eta **-raontzetik* —zenbait pauso tartean— eratorritako *-utza*. Bigarrena, aldiz, erakusleetan baizik ez da lekukotzen (*honutza*, *horrutza*, *hautza*); beraz, pentsatzea da erakusleetan fosildurik ikusten dugun hori zela hurbiltze adlatiboa egiteko forma zaharra Burundan. Formen banaketari dagokionez, Azkueren (1925) arabera, *-rantz* bizkaiera eta goi-nafarrerakoa da, *-runtz* bizkaierakoa eta *-rontz* gipuzkerakoa. *-ra aldera* oso hedaturik dago Gipuzkoan, baina Burundako forma zaharrak mendebaldeko formekin egiten du bat, eta ez Nafarroakoekin.

Aditz morfologia ere mendebalekoa da, mendebal zabalekoa: besteak beste, **edunen* formak Arabako ekialdekoak edo Gipuzkoakoak dira (*dot*, *dok*, *dau* < (***)*deu*, *dezu*, *du*, *dai* < *dei*); *-te* erdialdeko berrikuntzat jotzen badu-

² Ez du ematen guztiz horrela denik, txistukari apikarien sabaikaritzeak izan daitezkeenak aurki daitezkeelako: *aixkide*, *bixta*, *fixti* ‘pizti’, *fixtu* ‘ziztu’, *kixa* ‘gisa’, *irrixtatu*, *ixila*, *kixkali*, *txixa*, *itxaso*, *jaitxi* (Zuazo, 2010, 62.-63. or.). Bustidura adierazkorraren adibideak izan daitezkeen arren —eta batzuk izango dira—, ia bakarrik apikariak besterik ez bustitzeak prozesu fonetiko bat iradokitzen du, beharbada apikaria aho sabaitik gertuago ahoskatzearen ondorioz. Azterketa fonetikoa behar du auzi horrek, hasteko pertzeptualki deskribatutakoa akustikoki hala dela frogatzeko.

³ Izartxoak berreraikitako eta lekukotu gabeko formentzat erabili ditut. Izartxoa parentesi artean dagoenean esan nahi du forma Burundan ez, baina bai beste nonbaiten jaso dela.

gu (Trask, 1995; Lakarra, 2011/2014), Burundara ez da iritsi, *-(d)eren* ondorengoa baitago (*dai < dei < (*)debee < (*)deuee*). Indikatiboz kanpoko perifrasietan NORK-NOR sailean laguntzailea **ezan* da, eta NORK-NORI-NOREn, *egin*. Zuloagaren (2020, § 5.1.4.3) arabera, Mendebaldeko Euskara Zaharraren azkeneko berrikuntzetako bat izan liteke, XIII.-XIV. mendeetan sortua.

Ezin ahaztukoak dira, halaber, Mitxelenak (1958/2011, 229. or.) Landucciaren hiztegiko lexikoaren, eta Burundako eta Sakanako lexikoaren artean ikusi zituen bat-etortzeak: hiztegiko *achitamachia* ‘tximeleta’ *atxitamatxi* da Arbizun, *atxitamutxia* Bakaiku eta Iturmendin, *atxitemutxitari* Urdiainen, *atxitimitxi* Arruazun, *matxita* Etxarri Aranatzen; *isçego* ‘zaldian ibili’ *itzoo* da Etxarri Aranatzen eta *itzo* Arruazun, Lizarrabengoan eta Arbizun; eta *eon* (< **edun*) ‘eduki’ Dorraon. Lexikoa ez da fidagarria dialektoen historia aztertzeko, baina esanguratsua ematen du Arabakotako dugun lekukotasun zahar bateko forma asko Arabarekin muga egiten duen Nafarroako eskualdean baizik ez lekukotzea.

Nafarroako eta ekialdeko ezaugarriak ere badira, baina kuantitatiboki guxtiago dira; 8 vs 21 Zuazorenak (2010, 205.-213. or.) zenbatuz gero, eta Burundako eta Sakanaren izaera nabarmentzekoen artean sartzen dituenetatik zenbaitek ere Nafarroatik urruntzen dute (Zuazo, 2010, 201.-205. or.), hala nola **edunen* 3. pertsonako pluraleko marka *-e* izatea, eta ez *-te*. Gainera, Nafarroa eta ekialderako proposatzen dituenetatik batzuk ere zalantzaszkoak edo kontuz hartzekoak dira. Batzuk lexikoari dagozkio edo lexikoari oso loturik daude. Esaterako, erdal *-(i)on(e)* bukaerak bere horretan mantentzen dira (Zuazo, 2010, 214. or.), edo *heldu* ‘etorri’ bezala erabiltzen da (Zuazo, 2010, 214. or.). Aldiz, lexikoa ezin da dialektologia egitean alderdi zentraletako bat izan (*cf.* Camino, 2009; Petit, 2007, 24. or.; Urrestarazu, 2021; Zuloaga, 2020). Gogora bitez Mitxelenaren (1964/2011, § 3.1) hitzok: «[la] parte [del lenguaje] más postiza y menos estructurada: el vocabulario».

Tartekotasun egoera horren aurrean, galdera hau izan beharko litzateke: nola iritsi da Burundako euskara den bezalakoa izatera? *Tartekotasun* hori noizkoa da? Betidanik izan da tartekoa edo bilakabide (konparatiboki) moderno bati zor zaio? Galdera horiei erantzuteak luze joko luke, luzeegi lan honetarako, baina, hasteko, zer lekukotasun dugun eta horiek zer zantzu eman dezaketen aztertzetik hasi beharra dago. Lan honetan, Burundakoa izan daitekeen lekukotasun bat benetan hangoa den eztabaidatuko dut. Kronologiaren aldetik ez dut begiratuko, horretarako testua geografian kokatu behar delako, eta hori da hain zuzen lan honetan eztabaidatu nahi dena.

1648an Burundan jaso auzibide baten agirietan ageri diren euskara apurrak dira.

Nahiko bestelakoak dira Burundako gaur egungo edo jasotako azken euskara eta 1648ko auzibidekoa —Erdoziak (2005), erabat esplizituki ez bada ere, markatu bezala—. Azterketarako ardatz nagusia Burundako euskara garaikidearen eta auzibidekoaren artekoa izango da, baina ezagun dudan beste lekukotasun luzexka, Bonaparterendako egindako itzulpena, aurrerantzean *Urdiaingo dotrina* (Pagola, 1993), makulu erabiliko dut. Dotrina erabiltzeak baditu bere arriskuak eta horregatik erabiliko dut makulu, eta ez konparazioaren ardatz nagusietako bat bezala. Itzulpena da eta testu generoaren eta egon zitezkeen eredu en mende egon daiteke neurri batean. Bestalde, asmo dialektologikoarekin itzulitako lana da, Bonaparteren irizpideetara bertakoa ez zen Bruno Echeniquek kopiatu, osatu eta moldatuko zukeen arren (Pagola, 1993), eta, nahiz eta alderdi guztietan fidagarria ez izan eta batzuetan auzibideko euskarekin eta beste batzuetan euskara garaikidearekin joan, desberdintasunak interpretatzen lagun dezake.

3 Azterketa dialektologikoa

Hizkuntzak etengabe aldatzen dira eta, beraz, arrunta da leku bereko bi garaitako lekukotasunak alderatu eta bestelakoak izatea. Alde horretatik, kasu hau ez da berezia: XVII. mendeko auzibideko euskara, Bonaparteren aginduz egindako XIX. mende amaierako Urdiaingo dotrina eta XX. mendeko Burundako euskara desberdinak dira. Izan ere, 200 urtetik gora doaz eta garai linguistikoetan euskara zahar eta klasikotik lehen euskara modernoaren amaierara eta garaikidera igarotzen da (Lakarra, 1997, 516. or.) auzibideko euskara zatitxoan eta bestean artean, eta horrek, berez, zenbait aldaketa ikusarazten ditu. Berdin, dotrina eta XX. mendeko euskara denboran gertuago daude eta antzekoagoak dira, baina badaude zenbait desberdintasun baten eta besteren artean.

Hala ere, lan honen helburua 1648ko auzibideko euskara apurrak Burundakoak diren edo izan daitezkeen ikertzea da. Bestela esanda, 1648ko auzibideko euskaratik Burundako euskara garaikidera, tartean Bonaparterendako egin Urdiaingo dotrinatik igaroz, hel daitezkeen aztertzea da helburua. Horrela egitea erabaki dut zenbait arrazoiengatik:

- i. Badira azken 450 urteetan agiriak Burundan koka ditzaketen beste testu, esaldi eta hitz batzuk; adibidez, Santaziliak (2018) aztertutakoa.

Gehienak —baldin eta denak ez badira— oso urriak dira, hitz eta esaldi solteak dira, eta zeinek bere egilea dauka. Alde horretatik, testu bakoitza independentea da eta hala landu behar dela uste dut. Hau da, era independentean alderatu behar dira testu bakoitza eta Burundako euskara garaikidea —duela ia lau mendetako testuak eta egungo hizkera alderatzeak jada dakartzan zailtasunekin—, eta ordukotik garaikidera iristeko zer oztopo dauden ikusi behar da. Litekeena da auzibide askotako euskara apurrekin Burundako euskararen iraganaren inguruko inongo ondoriorik ezin ateratzea. Gainera, gehienak Maiorak (2018) eman ditu argitara eta haren lan eskerhari baliorik kentzeko inongo asmorik gabe, testuek irizpide filologikoak betetzen dituzten edizioak behar dituzte, ahal beste bermerekin lan egin dezagun. 1648ko auzibidearen kasuan, bi edizio izan ditu —ikus lan hone-tan § 3.1—, luzexeagoa da eta konparagai gehiago eskaintzen du.

- ii. Testuak independenteak dira, baina guztiak Nafarroako auzibideetatik jasoak dira. Hau da, elkarren artean beregainak izan arren, oso loturik daude, garaia oro har, generoa eta testuinguruaren zati handi bat partekatzen dutelako, eta, horregatik, elkarren artean alderatu behar dira. Baina elkarren artean alderatu behar dira, eta ez batera Burundako euskara garaikidearekin. Horren bidez, (mende horietako) Nafarroako auzibideetako euskara hobekiago ezagutuko dugu. Edozein kasutan, nekez balio dezake auzibideek Burundan kokatzen dituzten testuetako euskar(ar)en konparazioak euskara hori(ek) Burundan kokatzeko.
- iii. Azkenik, baliteke —frogatu behar da eta horren aurretik lana dago— auzibideetako euskara apurrak elkarren artean homogeneousak izatea eta azalpen sakonagoak behar dituzten aldeak egotea Burundako euskara garaikidearekin. Orduan, auzibideetako beste testuekin alderatu ahalko ditugu. Aldiz, testu horietako euskara zuzenean batera hartu eta Burundako euskara garaikidearekin alderatzeari arrisku-tsua deritzot, aurreko lana egin gabe, ondorio okerretara eraman gaitzakeelako, hala nola benetan Burundako orduko euskara islatzen dutela pentsatzera.

Beste alde batetik, *Burundako euskara garaikide* erabiliko dut oro har, ezagutzen ditugun forma moderno(en)ei erreferentzia egiteko. Deitura horren atzean ez dago muga kronologiko edo hizkuntzazkorik; dokumentazioak ezarria da. Izagirrek (1967), Erdoziak (2006) eta Zuazok (1995, 2010)

hiztunen baitatik jasotzen dituzten datuetan oinarritzen da, XX. mendeaz geroztikoak beraz, eta horiei esker dakigu, ongi-gaizki, Burundako herri gehienetako hizkera tradizionalak desagertu aurretik nolakoak ziren.

Nafarroako orduko auzibideetan ohikoa zen bezala (Monteano, 2017), salatu, salatzaile eta kaltetuak euskaldunak ziren —askotan euskaldun elebakarrak— eta euskaraz ematen zuten gertatutakoaren berri. Nafar administrazioak, idatziz behintzat, erdaraz jarduten zuen (*cfr.* Monteano, 2019), eta auzibideak ere erdaraz jasotzen ziren. Eskribauek alderdiek esanak fidel-fidel jaso behar zituzten, ezer aldatu gabe, baina askotan itzuli eta hor paratzen zuena berri emaileak euskaraz esan zuela gaineratzen zuten (Monteano, 2017). Batzuetan, ordea, euskaraz esanak euskaraz jaso zituzten —zegokien itzulpenarekin, jakina—. Horrela jasotako hitz batzuk aztertuko ditut lan honetan. Gainera, eskribauek esanak fideltasun osoz jasotzeko agindua zuteenez, galdera dialektologikoa biziki interesgarria da.

Auzibidekoa eta Burundako euskara garaikidea alderatu ditut, eta ikusitako desberdintasunak sailkatu edo iragazi ditut, eta auzibideko euskaratik Burundako euskara garaikidera iristeko arazoak izan zitzaketenak baizik ez ditut hartu analisirako. Hau da, auzibidean ageri diren baina Burundako euskara garaikidean gertatu ez diren berrikuntzei erreparatu diet, horiek eta horiek baino ez ezin dutelako frogatu ezin dela duela lau mende jasotako euskaratik egungora zuzenean joan. Izan ere, kontrakoak, hots, XVII. mendeko testuan ageri ez, baina egun Burundan badiren berrikuntzek askoz ahalmen mugatuagoa dute lan honetan ikertu nahi den galderari erantzuteko eta, beraz, ez dute zertan esanguratsuak izan lan honetarako, oro har euskararen historian gertatu diren aldaketa ezagunak direlako edo denboraren joan hutsari egotz dakizkiolako.

Adibidez, alderdi fonetikoan, XVII. mendeko auzibidean ez da eufoniarik ageri (*semea*, 18v), baina sistematikoak dira bai Urdiaingo dotrinan (*esperantzia*, *esatia*, etab.), bai Burundako euskara garaikidean. Are gehiago, gorago aipatu bezala, XX. mendean Altsasun bokal itxiek irekia ixten zuten (a > e / i, u_); Urdiainen berrikuntza kontsonante aurreko testuingurura mugatzen da (a > e / i, u_C); Altsasun *otsue* (eta ondoren *otsu*) eta Urdiainen *otsua*, baina *otsuek*. Azken berrikuntza hori ez da Urdiaingo dotrinan ageri: *Jangoicuac*, *promesiac*. Gauza bera esan liteke bokal arteko ttap galeraz (r > Ø / V_V); Burundako euskara garaikidean oro har ez dira ahoskatzen eta auzibidean guztiak ageri dira.

Izanen çara (230r, 250r, 256r) adizkia ageri da, eta forma garaikidea *za* (Zuazo, 2010, 132. or.) da, baina desberdintasun horrek ez du oztoporik paratzen batetik bestera joateko. Berdin, auzibidean *dagola* (224) forma ageri da —baita Urdiaingo dotrinan ere, *dago(la)*— eta egun *egonen* 3. pertsona singularreko forma *do* da (Zuazo, 2010, 147. or.), baina arazo handirik gabe joan gaitzke testuan ageri den formatik forma garaikidera: *dago* > *dao* (> **doo*) > *do*. Fonetikatik harago ere, gaur egun *nor* galdetzailearekin batera, *zein* ere erabiltzen da Burundan (Zuazo, 2010, 108. or.), eta auzibidean *nor* besterik ez dago: *norq* (54r 259r), *noren* (245v, 250r, 256r), *nor* (282v).

Horrelako aldeak, egun badauden arren, ez ditut hemen landuko, ezagunak direlako edo, besterik gabe, ez direlako lanaren helbururako esanguratsuak; hau da, ez direlako 1648ko auzibideko testuan ageri diren euskara apurrak benetan Burundakoak ote diren ondorioztatzeko esanguratsuak.

Azkenik, auzibideko lekukotasunak eskaintzen digun informazioa nahiko urria da: esaldi gutxi batzuk baizik ez dira eta, gainera, hitz asko errepikatzen dira; Erdoziaren (2005) zenbaketaren arabera 55 hitz baizik ez dira. Hori dela eta, dibergentzia zenbaiten adibide bakarra baizik ez da ageri auzibideko agirietan. Adibide bakarrera mugatzea ez da inondik inora optimoa, baina hautatutako desberdintasunak hots aldaketen ondorioz sortutako dibergentziak dira —soziatiboarena izan ezik, morfologikoa baita—, printzipioz testuinguru berean sistematikoki gertatu direnak, eta ez lexema desberdinak erabiltzearen ondorio eta, beraz, helduleku sendoa eskaintzen dute.

3.1 Testuaren edizioez eta testua kokatzeko beharraz

Dakidalarik, testua birritan argitaratu da: Erdoziak (2005) lehenik eta Reguero-Ugartek (2019, § 2.2.8.6.1.c) tesian ondoren. Hala ere, Erdoziarenak ez ditu edizio kritiko baten oinarritzko irizpideak betetzen; izan ere, erdal testuingurua asko mugatzen du eta honela dago antolaturik:⁴ lehenik euskarazko testua ematen du eta ondoren erdal testuingurua; atzetik euskara batuaz nola litzatekeen jasotzen du eta, horren azpian, Burundako gaur egungo euskaran nola litzatekeen adierazten du. Azkenik, *iruzkin* bat egiten du, bazuetan filologikoa, beste bazuetan hizkuntzaren formaren ingurukoa, eta ez beti zuzen, beharbada.

⁴ Ikuskatzaileetako batek nabarmendu bezala, edizio kritikoak ez ditu zertan erdal pasarte guztiak osorik jaso. Kasu honetan, ordea, euskal pasartearen inguruko erdal testuinguruak oso urriak dira maiz.

Adibidez, *mersede* hitzaz hau esaten du: «*Merced* hitza *-ea* morfemarekin mugatu du dokumentuaren egileak eta, egun ere, *-a* bokalaz bukatutako hitzak mugatzerakoan horrelako bilakaera suertatzen da Burundan» (Erdozia, 2005, 315. or.). Ez dakit zein den egileak aipatzen duen *-ea* morfema hori, ezta zergatik gehitu behar zaion Erdoziaren esanetan *-d* batez amaitzen den hitz bati ere. Errazagoa ematen du *merçede* + *-a* dela pentsatzea, euskaraz orokorra den *mesede* kognatua parean paratuz gero. Reguero-Ugartek (2019, § 2.2.8.6.1.c), bestalde, euskarazko pasarteak erdal testuan txertaturik jasotzen ditu eta testuinguru zabalagoak ematen ditu. Euskara Batuko eta Burundako XX(I). mendeko ordainik ez du ematen. Azkenik, jasotzen dituen Euskara Zahar eta Klasikoko Sakanako beste lekukotasunekin batera bere tesi lanerako interesekoak zaizkion zenbait alderdi iruzkintzen ditu.

Nolanahi ere den, testua benetan Burundakoa izan daitekeen ez da bera-riaz landu —Santaziliak (2018, 428.-429. or.) zeharka ukitzen du aztertzen duen Urdiaingo 1597ko testuko *dute* forma benetan Urdiaingoak izan daitekeen eztabaidatzean—. Eta testua espazioan (eta denboran) kokatzea funtsezkoa da. Intereseko lana da berez, testuaz —testuez— dugun ezagutzan aurrera egitea dakarrelako, baina, bereziki, lekukotasunak noizkoak eta non-goak diren ahalik eta hobekien ezagutzea euskararen bilakabide diatopiko-diakronikoa (hobekiago) aztertzeke oinarritzko baldintza delako. Kokatze lan hori are garrantzitsuagoa da kasu honetan, Zuazok (2010) Burundakoa (XXI. mendean) hainbat dialektoren arteko tarteko hizkeratzat sailkatu baitu eta hangoa izan daitekeen lekukotasun batez ari baikara.⁵

3.2 Egun edo lekukotasun modernoetan aurkitzen ez ditugun auzibideko berrikuntzak

Atal honetan, 1648ko auzibideko testuan ageri diren eta Burundako euskara garaikidean ez diren berrikuntzetako batzuk aztertuko ditut, Burundako euskara garaikidean ez ezik, Urdiaingo dotrinan ere ageri ez direnak, ale-

⁵ *Tarteko hizkera* etiketaren inguruan gogoeta egitea ere beharrezkotzat dut; hau da, leku jakin bateko hizkera tartekoa dela esateak esan nahi du zenbait lekutako eraginak jaso(tzen) dituela, baina hori ez doa errealitatea deskribatzetik harago. Aldiz, ikertzai-leen helburuak errealitatea azaltzea izan beharko luke, nola iritsi den errealitatea den modukoa izatera ezagutzea eta lan hori deskribapen hutsetik askoz harago doa, besteak beste kronologia erlatiboak eskatzen dituelako (cf: Camino, 2008). Ikusi Urrestarazu (2021, § 2.1.1 eta § 3.3.1.1) Bonapartek (1863) eta Zuazok (2015) darabilten sailkapen ajeez.

gia. Bost dira guztira: txistukariak herskari aurrean neutraltzea (§ 3.2.1), *utzik* forma monoptongatua izatea (§ 3.2.2), sinkopak (§ 3.2.3), **edunen* adizkien formak (§ 3.2.4) eta soziatiboaren markaren forma (§ 3.2.5).

3.2.1 Txistukariak herskari aurrean neutraltzea (z > s / _T):

1648ko auzibidean herskari aurrean <s> eta <z> daude; agertzen diren ordenan: *guztioc* (73v 228r), *gaistoa* (103r), *usdaçu* (225r, *cfr.* *uzi* ‘utzi’ 225r, 228r), *gayztoa* (262r) eta *ori esta Arramendia* (275r).⁶ Nola interpretatu behar dira datuok: kontu grafiko *hutsa* da, benetan gertatzen ari zen neutralizazio bat islatzen du, orduko hizkera jasoaren eragina da?

Alderdi grafikotik begiraturik, hitz hasieran eta barruan sistematikoki be-reizten ditu apikaria <s> eta lepokaria <ç, z>. Hitz hasieran: *sarçen* (54r, 259r), *semea* (18v, 93v, 299b, 301r, 302r), *çatoz* (237v), *ceurq* (237v), *zatoz* (240v), *zu* (240v). Barruan: *processio* (225r, 228r), *Alsasuco* (225r), *çara* (230r), *naçazu* (237v), *auzo* (250r), *vecino* (250r). Bukaeran, aldiz, beste testuinguruetan apikariaren ordezkari erabiltzen duen <z> besterik ez dago euskal hitzetan, baina agertzen den kasu guztietan apikaria dagokio: *Çatoz* (46r), *nayz* (225r, 230r, 250r), *Zatoz* (234v), *naiz* (250r). Erdal hitzetan <s> besterik ez du erabiltzen: *más* (18v), *vos* (46r), *vecinos* (73v), *offendidos* (221v). Datu horiekin, batez ere erdaraz konbinazio bakarra <st> denez, ezin da baztertu fenomeno grafiko *hutsa* edo orduko eredu jasoaren eragina denik.

Neutralizazio bezala ikusten badugu, ordea, Nafarroako euskara zahar eta klasikoan aurkitzen dugu dagoeneko, nahiz eta, testuan bezala, sistematikoa ez izan (Reguero-Ugarte, 2019, § 3.1.2.3), baina ez da Burundako euskara garaikidean lekukotzen, ez bada hitz bakan batzuetan (*biliskorrian* ‘biluzik’, *inbuluskan* ‘iraulka, ihalozka’, *moskortu(r)ik* eta *ustaia* ‘uztaia’) (Zuazo, 2010, 61.-63. or.); gainera, lau adibide horietatik hirutan adierazkortasunak eragindako sabaikaritzeak egon litezke tartean (*moskortu* < *moxkortu* < *mozkortu*). Egungo Burundako euskaraz bezala (Zuazo, 2010, 61.-63. or.), XIX. mendeko dotrinan ere ez da holako neutralizaziorik lekukotzen eta, adibidez, *gaiztoa* hamar aldiz baino gehiagotan agertzen da, beti lepokaria ordezkatzeko duen <z> grafemarekin.

Herskari aurrean apikariak lepokaria ordezkatzeko ematen du neutralizazioaren lehen pausoa (Zuloaga, 2020, 496.-497. or.). Are gehiago, horrelako

⁶ Badago testuingururik gabeko neutralizaziotzat har daitekeen adibide bat (*çatoz eta suatera naçaçu*, 127), baina *çuc* hori adibide bakarra da eta idazketa *huts* bezala interpreta liteke.

neutralizazioak Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan aurki daitezke, garai arkaikoan (Zuloaga, 2020, 497. or.), baita Erdi Aroko Nafarroako zenbait lekukotasunetan ere (Salaberri, 2018, 329. or.).

Ikusi bezala, ezin da ahaztu fenomeno grafiko hutsa izan daitekeela, erdal ereduak edo eredu jasoak baldintzatua, baina gertatzen ari den neutralizazio bezala ere interpreta liteke. Horrela ikusirik, ez da ezinezkoa herskari aurrean gertatzen ari zen neutralizazio bat eten eta herskari aurreko oposaketara itzuli izana, halako neutralizaziorik egin ez duten hizkerekin ukipenean bereziki (adibidez, Goierrikoarekin), baina forma zaharra beharko lukeenetik ez da garai berriagoetan lekukotutakoa zuzenean erartortzen.

3.2.2 *utzi*: diptongoa edo monoptongazioa

Burundako euskara gordetzailea da *utzi* aditzaren formari dagokionez, hasieran diptongoa gordetzen baitu: *autzi* (cfr. OEH, s. v. *utzi*). Ekialdeko aldaeretan ere diptongoari eutsi diote; zaraitzueraz diptongo zaharra lekukotzen da (*eutzi*) eta zuberera-erronkarieraz *eitzi*.⁷ Gipuzkoan ere lekukotua da, baina desagertzen joan da (OEH, s. v. *utzi*). Burundako euskaraz dugun ezagutzarekin ez dugu arazo handirik *eu-* berreskuratzeke *eu-* > *au-* bilakabidearen adibide gehiago ezagutzen ditugulako: *autsi* < *eutsi*, *aurri* < *neurri*. Are gehiago, *eutzi* ageri da Bonaparterendako egindako dotrinan.

XVII. mendeko auzibideko testuan, aldiz, forma monoptongatuak baino ez dira ageri: *usdaçu* (225r), *uzi* (225r, 228r). Gauzak horrela, pentsatu beharko genuke lekukotasunik zaharrenak formarik modernoena duela eta 200 urte beranduago gertatu ez den berrikuntza bat jada gertaturik zegoela. Horrek nahiko sinesgaitza ematen du eta auzibideko testuan ageri den euskara Burundakoa ez dela pentsatzeko ebidentzia nahiko indartsua da.

3.2.3 Sinkopa

Nafarroa Garaiko hizkeretan sinkopak oso arruntak dira: *abrats* ‘aberats’, *abre* ‘abere’, *batre* ‘batere’, *atra* ‘atera’ eta abar. Reguero-Ugarteren (2020, 628. or.) arabera, sinkopak XIII.-XV. mende bitarteko berrikuntza dira, eta jada XV. mendeko *Pater noster* txikian lekukotzen da: *apostru* < **apostoru*

⁷ Ikuskatzaileetako batek nabarmendu bezala, *utzi* / *ützi* ere bada Zuberetan (OEH, s. v. *utzi*). Bestalde, eta diptongoaren izatera gordetzailearekin loturarik ez duen arren, Mitxelenak (FHV, 373. or.) nabarmendu bezala testu zaharretan *eitzi* besterik ez da lekukotzen. Eta zubereraz ezagun ditugun prozesu fonikoen bidez ez dago *utzira* iristerik, mailegu bidez ez bada.

(Reguero-Ugarte, 2020, 623. or.). Auzibideko testuan azken horren adibideak aurki daitezke, sinkoparik gabeko formekin batera: *atra* (234v, 237v, 237v, 240v, 270r, 270r), *atera* (40v, 46r, 74v, 246v).⁸

Dotrinan, ordea, sinkoparik gabeko formak baizik ez daude (*ateratzen, ateratzian, ateratzen, ateratzeco, ateratzeco, ateratzia, Ateraco*) eta forma garaikidea *ata* da. Erdoziaren (2005, 214. or.) ustez, hau dateke *ateratik atarako* bidea: *atera* > (**atea*) > **ataa* > *ata*. Erdoziak ez du beste adibiderik ematen; beraz, zaila edo ezinezkoa da bilakabidea benetan hori izan den egiaztatzea. Nire ustez, dotrinan ageri diren formak gorabehera, *ata* garaikidea (**ataratik* erator liteke, dardarkaria galdurik. Izan ere, *atara* mendebal zabal batean dago jasorik, Araban barne, baita, besteak beste, Burundatik batere urruti ez dagoen Oñatin ere (*cf.* OEH, s. v. *atera*). Dena den, nahiz eta sinkoparik gabeko formak ere agertu, auzibidean ageri diren forma sinkopatuak arazo-tsua dira eta ez dira, beste azalpenik gabe, geroago lekukotutako formekin bateragarriak.⁹

3.2.4 **edunen* adizkietako diptongoaren ondorengoak

Gauza jakina da **edunen* adizkien bidez hizkerak geografian gutxi gorabehera koka ditzakegula, jatorrizko *-*au*- diptongoa nola soildu den eta adizkiek erroan zer bokal duten arabera. Auzibidearen testuan, **edunen* laguntzaile bakarra agertzen da, hirutan: *duçu* (66v, 224) eta *duçula* (262r). Forma horiek, garai historikoan bederen, eskusiboak dira erdialdean —ez horkoak eskusiboki—, hots, Nafarroa Garai eta Behere gehiengan, Lapurdin eta Gipuzkoako ekialdeko muturrean —baita, garai batean, ekialde muturrekoak ere: *dü* < *du*; atzeko bokal itxiaren biribiltzearen inguruan gehiago jakiteko, ikusi Egurtzegi (2017); **dadu* > *du* monoptongazioak edo monoptongaziorik ezak euskal dialektoen eraketan izan dezakeen garrantziaz, ikusi Urgell (2020) eta Urrestarazu (2021), ikuspegi osagarri batean.

⁸ *atra* Iruñeko esaldi batean lekukotzen da lehenengoz, 1596an (Reguero-Ugarte, 2020, 623. or.).

⁹ *onlaco* (225r hiru aldiz, 274bisv) ‘honelako’ ere ageri da. Burundan egun *olako* ahoskatzen da (Zuazo, 2010, 183. eta 212. or.), eta izan liteke forma garaikidea *onlako* moduko batetik etortzea —baita **haulako* moduko zerbaitetik ere—. *Onla* goi-nafarreraz, gipuzkeraz eta Gipuzkoako bizkaieraz lekukotzen da (OEH, s. v. *honela*) eta, azken bi eremu horietan ere ez denez sinkoparik, auzibideko *onlaco* eta *atra* bereiz tratatu beharko lirakeela uste dut.

Urdiaingo dotrinak *dezu* erakusten du, eta hala dokumentatu da XX(I). mendean (Zuazo, 2010, 134. or.).¹⁰ Hala da gaur egun eta hala ageri da XIX. mendeko dotrinan. Kasu honetan ere ezin dugu bilakabide foniko ezagunen bidez zaharra beharko lukeen formatik –*u* duenetik– garai berriagoetan lekukotutako forma eratorri –*e* duena– eta, beraz, beste azalpen batzuetan pentsatu behar dugu: auzibidean islatutakoa ez da orduko Burundako hizkera edo auzibidearen eta dotrina idatzi bitartean paradigma Arabakora (edo Goierrikora) hurbildu zen. Arabako lekukotasun luzeetan ere agertzen dira –*u*– duten formak eta, ikuskatzaileetako batek planteatu bezala, polimorfismoa beste aukera bat da.

3.2.5 Soziatiboa

Soziatiboa lau aldiz lekukotzen da auzibidean: *çurequi* (9r, 14, 228v) eta *orrequi* (228v). Dotrinan soziatiboaren 50 adibidetik gora daude eta guztietan –*kin* da forma, bakarrean izan ezik: *ceinequi*. Gainera, *ceinequi* horrekin batera, bi *ceinequin* agertzen dira eta, beraz, –*ki* duenari zer garrantzi eman behar zaion zalantzaragarria iruditzen zait. Burundako euskara garaikidean –*kin* besterik ez dago (Zuazo, 2010, 79. or.), eta auzibidekoaren eta datu modernoaren arteko aldea azaltzeko zenbait aukera planteatu litezke.

Batetik, –*n* duen eta –*nrik* ez duenaren artean arkaisismoa eta berrikuntza zein den ebatzi behar da, baita kronologia ere.¹¹ Zaharra sudurkaririk gabea eta berrikuntza sudurkariduna bada (ik. Lakarra, 2018, § 4.4.6.9), –*kinen* hedatzean uler liteke auzibidean –*ki* eta iturri modernoetan –*kin* izatea. Horren alde joan daiteke Arabako zenbait lekukotasunetan ere –*ki* agertzea, hala nola Gamizenean (*zurequi*, *ralarequi*; Goikoetxea-Maiza, 1974, 204.-205. or.). Gainera, –*kin*/–*ki* arteko isoglosa egun ere mugan dago; Burundan –*kin*, baina Sakanako Etxarritik hasita Nafarroako erdialdera aldera –*ki*, –*kinen* lehian (Erdozia, 2001, § 3.3.6.6). Beraz, izan liteke –*n* auzibidea eta gero sartu

¹⁰ Paradigma guztiz ekialdeko arabarra edo gipuzkoarra da, batez ere pluraleko formei dagokienez: *dot*, *dok*, *dau*, *d(eg)u*, *dezu*, (*dezai*), *dai* < *dei* (Zuazo, 2010, 134. or.). Gainera, pentsatzekoa da 3. pertsona singularrekoa ere noizbait (*)*deu* izan zela, menderagailua hartzen duenean, *den* ‘duen’ eta *dela* (< (*)*deben/debela* < (*)*deu-en/-ela*) ‘duela’ direlako (Zuazo, 2010, 134. or.). Urdiaingo dotrinan ez dira forma guztiak lekukotzen, baina agertzen direnak horrekin bat datoz: *dot*, *dau* / *dén* ‘duen’, *degu*, *dezu*, *dai*; iraganean *cén* < (*)*zeben* < (*)*zeuen* ‘zuen’.

¹¹ Lanaren lehen idazketan bataren eta bestearen arteko hierarkiari ez nion garrantzirik eman, baina ikuskatzaileek nabarmendu bezala interpretazioak ondorioak aldatzen ditu.

izana Burundan, Arabako lautadatik edo Goierritik, *-kitik -kinerako* hedatzean. Jakina, beste aukera (bat) da pentsatzea ordurako *-kin* zegoela Burundan eta auzibidekoak ez duela hangoa jasotzen. Bigarren aukera horren aldeko ebidentziarik ez dugu ordea.

3.3 Egun Burundan ezagunak ez diren auzibideko eta dotrinako ezaugarriak

Atal honetan landuko ditudan ezaugarrietan auzibideko testuak eta Urdiaingo dotrinak bat egiten dute. Ez dira, ordea, Burundako euskara garaikidean ageri.

3.3.1 Asimilazio bustidura

Kontsonante sabaikari(tu)en grafemak aurki daitezke auzibidean (*baño* 18v, 93v, 301v; *engañatu* 66v, 73v, 228r, 249v, 250r, 274bisv; *bellaco* 228r, 228v), baita sabaikaritzat har daitezkeen digrafoak ere: *bayno* (250r), *bezayn* (302r). Bonaparterendako dotrinan ere hots sabaikariak islatzen dituzten grafemak aurki daitezke: *baño*, *señaliagatic*, *bularretaraño*. Ikuskatzaileetako batek iradoki bezala, dotrinaren egilearen eta dotrinen izaeragatik baliteke dotrinan Urdiaingo formak ez agertzea.

Burundako euskara garaikidearen ezaugarri nabarmenenetako bat omen da ez duela bokal sabaikariak eragindako palatalizaziorik, eta maileguetan ere kontsonante palatalak desagiten dituela (*cfr.* Zuazo, 2010, 61.-63. or.); adibidez, *gai[n]ean* eta *tai[l]er*. Zuazorendako (2010, 201. or.) asimilazio bustidurarik eza ezaugarri gordetzailerik da —Zuazok ez du beste zehaztapenik egiten eta uler liteke aitzin-euskaratik jarauntsitako ezaugarria ere izan litekeela—, deigarria inguruan asimilazio bustidura oso indartsua delako, eta Burunda inguruko dinamiketarik aske ibili dela erakusten du. Nire ustez, Burundan zenbait lekutako eraginak egoteak, hain zuzen, kontrakoa erakusten du eta, asimilazio bustidurak inguruko hizkeretan duen indarra ikusirik, Zuazok (2010) dioenaren aurka, azalpen errazagoa irizten diot Burundan

kontsonante sabaikariak berriki desabaikaritu izanari.¹² Hipotesi hori zuzena bada, garrantzia galtzen du 1648ko auzibidean —baita Urdiaingo dotrinan ere— kontsonante sabaikariak aurkitzeak edo, bestela esanda, auzibideko euskaratik Burundako euskara garaikiderako bidean ez du oztoporik jartzen. Zuazoren (2010) hipotesiari jarraituz gero, arazotsuagoa da bi testu horietan hots sabaikarien ordezkioak ematen duten grafemak aurkitzea.

3.3.2 Ablatiboa eta motibatiboa

Ablatiboak eta motibatiboak ere espero ez dugun zerbait erakusten digu. Ablatiboaren forma garaikidea *-ti* da, ia salbuespenik gabe, eta motibatiboa, *-gaiti/-geiti* (Zuazo, 2010). Hau da, zahartzat dugun *-k* gabekoak dira biak eta motibatiboaren kasuan diptongoa ere gordetzen du. Lekukotasun zaharrragoak bat datoz, ordea, eta sistematikoki *-(ga)tik* dute. Auzibidean adibide bana baizik ez dago (*elitatiq* 240v, *amoreagatic* 225r), baina dotrinan adibi-deak ugari eta salbuespen gabeak dira.

Sabaikarien kasuan bezala, ablatibo eta motibatiboan lekukotasun zaharrrak bat datoz, baina, aurrekoan ez bezala, ez dira forma garaikidearekin bateragarriak. Batetik, *-k* galdu beharko litzateke eta hori euskararen aurkitzen dugun joeraren aurkakoa da (*cf.* FHV, 194.-195. or.; Mounole & Gómez-López, 2018, § 3.3.3.2; Mounole & Lakarra, 2018, § 3.3.3.2). Bestalde, lekukotasun zaharrek diptongoa galdu dute eta, beraz, azaltzen zaila da diptongorik gabeko formatatik diptongo zaharra dutenetara itzultzea.

Orain arte iradoki bezala, auzibidean ageri den euskararen eta Burundako euskara garaikidearen arteko desberdintasuna azaltzea *erraza* izan daiteke: auzibidekoak ez du Burundako orduko euskara islatzen. Dotrinako euskara eta garaikidea bat ez etortzea azaltzen zailagoa izan daiteke eta balizko azalpena badaezpadakoagoa da. Gerta liteke Bonaparterendako egindako itzulpenak zenbait ezaugarri dagokionez horren fidagarriak ez izatea, ez zirelako printzearendako garrantzitsuak, eskribauak ez zituelako garrantzi-

¹² Ikuskatzaile batek nabarmendu bezala, $\eta > nd$ ez da *despalatalizazio hutsa*, eta ez da, behintzat, sudurkari sabaikaria beste ahoskune batetako sudurkari batekin zuzenean ordezkatzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, despalatalizazio baten markoan azal ezin litekeenik. Segmentu palatalek iraupen luzeagoa izan ohi dute eta sabaikariaren iraupen luzeagoa, desabaikaritzean, bi segmentuk ordezkatu izana pentsa liteke. Ander Egurtzegik, aurrez aurreko komunikazio batean jakinarazi didanez, artikulatzaileak deskoordinatzearen ondorio izan liteke; antzeko zerbaitetan pentsa liteke Urdiain eta Iturmendiko *donbeka* < *domeka* azaltzeko (Zuazo, 2010, 66. or.).

tsutako jo edo ihesi egin ziotelako, adibidez.¹³ Beharbada horrela azal liteke Burundakoa ez zen forma bat agertzea Burundako euskararen isla zuzena beharko lukeen itzulpen batean eta horren ordez itzulpenaren egileak berea zuen forma edo forma *jasoago* bat agertzea.

3.3.3 *Bezala, bekela* edo *bezela*

Konparazio hitzean ere bat datoz auzibideko testua eta Urdiaingo dotrina. Biek ere *bezala* dakarte; auzibideko testuan 249v orrian, eta dotrinan 28 aldiz ageri da. Burundako euskara garaikidean, ordea, forma hori arrotza da eta horren ordez *bekela* darabilte zaharrek eta *bezela* gazteagoek (Zuazo, 2010, 74. or.). Duela gutxi arte, *bekela* forma Burundan eta Sakanako Ergoienan baizik ez zen ezaguna (*cf.* OEH, s. v. *bezala*). Orain, ordea, 1515 urte inguruko lekukotasun aurkitu berri batean topatu da, eta lekukotasuna Gipuzkoa mendebaldekotzat jo du Ariztimuñok (2021, § 5).¹⁴

Dena den, lan honetarako garrantzitsua da auzibidea baino mende bat lehenago *bekela* forma izan bazela, eta, beraz, Burundan erabiltzen bazen eta testuak bertako hizkera islatuko balu, lekukotzea esperoko genuke —egia da, ordea, auzibideko testuan adibidea bakarra dela eta hizkeran bi forma baleude hori islatzeko aukerarik ere ez genukeela izango—. Jakina, gerta liteke *bekela* Burundan geroago sartu izana, baina auzibideko euskararen eta Burundako euskara garaikidearen arteko dibergentzia hori azaldu beharretan gaudu, forma batetik ez delako bestea zuzenean eratortzen.

3.3.4 *Gabe* edo *bage*

Azkenik, *gabe* postposizioaren formak bat datoz auzibidean zein dotrinan eta bietan *gabe* da forma bakarra. Burundako euskara garaikidean, aldiz, *bageren* ondorengoak erabiltzen dira: *be* eta *baiko* (< *bageko*) (Zuazo, 2010, 73. or.).

¹³ Horrek, ordea, ez du dotrinaren fidagarritasuna, bere osotasunean, zalantzapean paratzen. Datu garaikideen kasuan ez da zalantzarik nongoak eta noizkoak diren —itzuli eta datuak berriz bil litezke—. Horrekin bat egiten duten edo jauzirik gabe bateragarriak diren ezaugarriak ere ez dute arazorik paratzen, eta horrekin bat egiten ez dutenak baizik ez dira beste azalpenik behar dutenak.

¹⁴ Ariztimuñok berak ohartarazten duen moduan *bekela* agertzea arazotsua da, *k* duten formak Nafarroatik kanpo ezezagunak direlako eta Goierri ingurukoa edo Gipuzkoatik gertuko Nafarroako ingururen batekoa izan daitekeen mahaigaineratzen du. Niri ere ez zait azken hipotesi hori batere baztergarria irizten, lekukotasun berriko ezaugarri guztiak ez, baina gehien-gehienak Burundako euskararekin bateragarriak baitira.

Desberdintasun horiek azaltzeko bi aukera daude: a) auzibidekoak eta dotrinakoak orduko Burundako euskara islatzen dute eta *bage* eta *baiko* beranduago sartu ziren Burundan; antzeko aukera bat da auzibidekoak edo dotrinak baino ez islatzea orduko hizkera eta besteak, nahiz eta forman bat egin, testuaren egilearen hizkera islatzea, eta forma garaikideak beranduago sartu izana. b) auzibidekoak eta dotrinak ez islatzea Burundako orduko hizkerak, auzibidekoak egileak ez zuelako bertakoa idatzi eta dotrinaren egileak, lehenago esan bezala, ez ziolako horri garrantzirik eman.

3.4 Dibergentzien laburpena

Ikusi bezala, desberdintasunak egoteaz harago, bilakabide foniko ezagun eta itxarongarrien bidez ez dira 1648ko auzibideko euskaratik Burundako euskara garaikidea eta, zenbait ezaugarritan, XIX. mendearen amaierako Urdiaingo dotrinan ageri dena eratortzen, nahiz eta ezaugarri desberdintasun horiek azaltzeko bideak aurki litezkeen. 1. taulak ezaugarriak laburbiltzen ditu.

1. taula. Aztertutako ezaugarriak

	1648ko auzibidea	Urdiaingo dotrina	Burunda garaikidea
<i>z > s / _T</i>	✓	✗	✗
Sinkopa	✓	✗	✗
<i>utzi < eutzi</i>	✓	✗	✗
<i>*edunen du- < deu-</i>	✓	✗	✗
Soziatiboa <i>-ki</i>	✓	✗	✗
Asimilazio bustidura	✓	✓	✗
Ablatibo/Motibatiboa <i>-(ga)tik</i>	✓	✓	✗
<i>bezala</i>	✓	✓	✗
<i>gabe</i>	✓	✓	✗

4 Auzibideko euskara Burundakoa da?

Erakutsi dudan moduan, dibergentzia daude —testuaren urrian— 1648ko auzibideko euskararen eta Burundako euskara garaikidearen artean. Dibergentzia horiek, ordea, ez zaizkio, besterik gabe, denboraren iraganari zor, XVII. mendeko testuan gertaturik dauden zenbait berrikuntzak ezinezko egiten dutelako auzibidekotik XX. mendeko Burundako euskarara iristea. Bateriaezintasun horrek bere azalpena eskatzen du eta behintzat bi aukera uzten ditu: a) auzibidekoa ez da XVII. mendeko euskara, baizik eta testua idatzi zuen pertsonaren herrikoa edo orduko administrazio nafarrak zerabilen *estandar* moduko baten isla —Erdoziak (2005) horrelako zerbait egon litekeela iradokitzen du zenbait iruzkinetan, eta berrikiago ere planteatu izan da, besteak beste Monteanok (2017, 2019), Santaziliak (2018) eta Salaberrik (2021)— edo b) testuak benetan islatzen du XVII. mendeko Burundako euskara, baina ordutik XIX. mendeko amaierara aski mendebaldu da—testuaren urriak ez du beharbada egon zitezkeen mendebaldeko euskararen ezaugarriak ikusten uzten—. Nire ustez, lehen aukera da egiantzekoena.

XVII. mendean Burundakoa —testuak ikusten uzten dizkigun apurretan— euskara nafarra izateak esan nahiko luke bi menderen buruan burundarrek beren hizkera ia goitik behera aldatu eta mendebaldu zutela, baina han-hemen (hego-goi-)nafarrerako berrikuntza batzuei eutsiz edo, kronologiaren arabera, berrikuntzak bere eginez. Are gehiago, ingurutik desagertzen joan diren arkaismoak ere —adibidez *autzi/eutziko* diptongoa— bere egin zituela. Beste aukera bat da eragina Goierri ingurutik jaso eta hortik mendebaldu izana, nahiz eta Burundan egun diren mendebaldeko ezaugarri zenbait (egun) Goierri ez izan. Egia da mendebaltze prozesu hori Nafarroa Garaiko erresumaren konkistaren ondotik gertatu zela eta Gaztelaren agindupean euskararen presentziak behera egin zuela, Nafarroako administrazioan berderen (Monteano, 2017). Baina, aldi berean, mendebaltze prozesua Arabako euskara ahultzen ari zen garaian gertatuko litzateke —*cfr.* Gasteizko euskararen egoeraz ditugun XVI. mendeko berriak edo Bonapartek Araban Bizkaiarekin edo Gipuzkoarekin mugan baizik ez aurkitu izana—. Goierriren eraginaren kasuan beste galdera bat planteatu liteke: indarra izan lezake hizkera nafar bat oso denbora gutxian mendebaltzeko? Horiek guztiak kanpo historiaren argitan epaitu beharko dira.

Bestalde, badakigu auzibideko testua idatzi zuena, Martin de Uribarri, ez zela Burundakoa. 1641-1646 bitarteko epaiketa batean ageri den pertsona

bera bada (ES/NA/AGNF146/134 937), Iruñean bizi zen, baina Lizarraldekoa ere izan liteke, Lizarrakoak ziren Juan de Bausillonon jaraunslea eta (ES/NA/AGN/F017/042 679) eta Juan de Uribarriren tutorea baitzen (ES/NA/AGN/F146/290 854). Jaso zituen euskara apurrak bere jatorrizko hizkeraz edo Iruñean egiten zen euskaraz idatzi zituela suposatu baino ez dugu testuko euskararen eta ezagutzen dugun Burundako euskara garaikidearen arteko jauzia azaltzeko.

Uste berekoa da Santazilia (2018, 428.-429. or.) XVI. mendeko Urdiaingo testutxo batez. Testua, berriz, auzibide batekoa da eta «ay! gora, gora, gen-deac! yl dute hene senarra!» esaldia dakar (Santazilia, 2018, 428. or.). Leku-kotasuna ezin laburragoa da eta, halere, *dute* laguntzailea nekez izan daiteke Burundakoa, Santaziliak argudiatzen duen bezala. Egun, *dei/dai* erabiltzen da (Erdozia, 2001, 230. or.; Zuazo, 2010, 134. or.) eta horra iristeko **dauee* batetik abiatu beharra dago. Bilakabide hau proposatzen du: *dauee* > *deuee* > *debee* > *debei* > *deei* > *dei*. Sakanan bertan *-ee* pleonastikoaren adibideak aurki daitezke: Etxarrin *debie* < **debee*/**deuee*; Arbizu, Lakuntza, Arruatzu, Uharten *dubie* < **dubee* (eta *dube*) (Erdozia, 2001, 311. or.).

Laburbilduz, ez du ematen 1648ko auzibideko testuan ageri diren euskara apurrak eta Burundako euskara garaikidea (guztiz) bateragarriak direnik. Hala ere, lan handia dago oraindik eta hau ikerketa asko eskatzen duen egitasmo baten hasiera besterik ez da.

Batetik, testu honi dagokionez, planteatu diren hipotesiak egiaztatzeko bideak bilatu behar dira. Eskribauak beste euskal hondarrik utzi duen begiratu eta, baiezkoa bada, nola jokatu duen ikusteko dago. Beharbada, beste leku batzuetan ere bertakoari baino bereari eutsi ziola ikus genezake eta, ondorioz, lan honetatik ateratako hipotesi nagusia —ageri den euskara ez da Burundakoa— indar genezake. Hala ere, hori ikustea are zailagoa izan liteke, Burundakoa Nafarroan (hego-)goi-nafarreratik gehien aldentzen den aldaeretakoa bat delako eta, lekukotasuna Nafarroako beste lekuren batekoa balitz, dibergentzia esanguratsua aurkitzea zaila izan litekeelako. Lan horren parte da era berean Arabako ekialdeko, Goierriko eta Burunda-Sakanako kanpo historiaz zer dakigun eta zer jakin dezakegun ikusi eta ditugun datuekin nola bateratu ikustea. Horrekin batera, Burunda eta inguruko lekukotasunak Burundako euskara garaikidearekin eta elkarren artean alderatzeko daude. Izan ere, *corpusa*, bere urrian, handitzen doa; adibidez, Maiorak (2018) Burundako (eta Sakana eta Nafarroa osoko) beste lekukotasun txiki batzuk aurkitu ditu eta haietan ageri den euskara aztertu eta konparatzeko

dago. Azkenik, Burundako euskararen historia ikertu eta berreraikitzeke dago. Banan-banan ikusi behar dira ezaugarriak, zer berreraiketa eskatzen duten eta (ezagutzen ditugun) kronologia eta geografiarekin nola uztartu ikusi behar da.

5 Erreferentziak

- Ariztimuño, B. (2021). Ohar filologikoak Azkoitiko testu aurkitu berriaz: irakurketa proposamena. *ASJU*, 54(1-2). <https://doi.org/10.1387/asju.23317>
- Azkue, R. M. (1925). *Morfología vasca*. Euskaltzaindia.
- Bilbao, G., Gómez-López, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2020). *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. UPV/EHU.
- Bonaparte, L.-L. (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Standford's Geographical Establishment.
- Camino, I. (2008). Dialektologiaren alderdi kronologikoaz. *Fontes Linguae Vasconum*, 108, 209-247.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar.
- Egurtzegi, A. (2017). Phonetically conditioned sound change. Contact induced /u/-fronting in Zuberoan Basque. *Diachronica*, 34(3), 331-367. <https://doi.org/10.1075/dia.34.3.02egu>
- Erdozia, J. L. (2001). *Sakana erdialdeko euskara*. UPV/EHU.
- Erdozia, J. L. (2005). Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean. *Fontes Linguae Vasconum*, 99, 307-334.
- Erdozia, J. L. (2006). *Altsasuko euskara*. Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatea.
- Gómez-López, R. (2005). De re etymologica: vasc. -(r)antz 'hacia'. In P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia* (273.-280. or.). Euskaltzaindia.
- Goikoetxea-Maiza, J. (1974) Joan Baptista Gamiz Ruiz de Otero. XVIII. mendeko arabar euskal olerkaria (1696-1773). *Euskera*, 19, 167-217.
- Izagirre, K. (1967). Altsasuko euskeraren gai batzuk. *ASJU*, 1, 45-97.
- Lakarra, J. A. (1997). Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 447-535.
- Lakarra, J. A. (2008). Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar). In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren gehigarriak, 51) (451.-490. or.). UPV/EHU.

- Lakarra, J. A. (2011/2014). Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (ASJUren gehiagarriak, 69) (151.-241. or.). UPV/EHU.
- Lakarra, J. A. (2018). Euskararen historiaurrea. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (23.-230. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Maiora, F. (2018). *Reino de Navarra. Euskera, lengua inteligible. Causas del retroceso. Injurias, coplas...* Egilearen argitalpena.
- Mitxelena, K. (1958/2011). N. Landuchio, Introducción al *Dictionarium Linguae Cantabrigae*. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas* (XII. liburukia) (123.-152. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1964/2011). Sobre el pasado de la lengua vasca. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas* (V. liburukia) (1.-116. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1977/2011). *Fonética histórica vasca*. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas* (VI. liburukia). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU. [= FHV].
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia. [= OEH].
- Monteano, P. (2017). *El iceberg navarro: euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Pamiela.
- Monteano, P. (2019). *La lengua invisible: el euskera en la Corte y en la Ribera Navarra en el siglo XV*. Mintzoa.
- Mounole, C. & Gómez-López, R. (2018). Euskara Zahar eta Klasikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (469.-541. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Mounole, C. & Lakarra, J. A. (2018). Euskara Arkaikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (345.-468. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Pagola, R. M. (arg.). (1993). *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: gipuzkera*. (2925.-2955. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- Petit, D. (2007). Archaisme et innovation dans les langues indo-européennes. In A. Lémarchand & J. François (arg.), *Tradition et rupture dans les grammaires comparées de différentes familles de langues* (13.-55. or.). Mémoires de la Société de Linguistique de Paris.

- Reguero-Ugarte, U. (2019). *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)*. UPV/EHU.
- Reguero-Ugarte, U. (2020). Euskara nafarrari diakroniatik begira. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre (617.-630. or.)*. UPV/EHU.
- Salaberri, P. (2018). Euskara Erdi Aroan. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia (287.-344. or.)*. Eusko Jaurlaritzia.
- Salaberri, P. (2021). *Tratado de como se ha de oir misa – Tratätzen da nola entzun behar den meza. Beriain (1621)*. Euskaltzaindia.
- Santazilia, E. (2018). *Gora, gora, jendeac!* Euskal testu berriak XVI. eta XVII. mendeetako justizia auzibide nafarretan. *Euskara*, 2(1), 419-460.
- Sozilinguistika klusterra (2016). *Sakana. Hizkuntza erabileraren kale neurketa*. https://soziolinguistika.eus/files/sakana_aurkezpena.pdf.
- Trask, R. L. (1995). On the history of the non-finite verb forms in Basque. In J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language (207.-234. or.)*. John Benjamins.
- Urgell, B. (2020). Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenez. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre (921.-948. or.)*. UPV/EHU.
- Urrestarazu, I. (2021). *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz* [Master amaierako lan argitaragabea]. UPV/EHU.
- Zuazo, K. (1995). Burundako hizkera. In R. Gómez-López & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (297.-364. or.)*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zuazo, K. (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2015). *Euskalkiak. Hizkeraz hizkera*. http://euskalkiak.eus/hizkeraz_hizkera.php
- Zuloaga, E. (2020). *Mendebaldeko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/49846>

Araua eta gaur egungo erabilera: *Espero genuen(a) baino aldakortasun handiagoa* egitura konparatiboetan

Rule vs current usage: *Greater variability than we expected in comparative structures*

Laura Vela-Plo
UPV/EHU
laura.vela@ehu.eus

LABURPENA

Lan honetan *Espero genuen(a) baino gehiago* bezalako konparazioak ditugu aztergai, hiztunen juzguen eta gramatika deskribatzaile eta arauemaileen ikuspuntuetatik. Oinarrian aditz jokatua duten konparazioek derrigorrez *-en* menderagailua eraman behar dute eta, batzuetan, *-a* determinatzailea gehitzen zaie. Aldakortasun puntu hori lehenengo aldiz aztertuz, *-ena baino* konparazioek eta *-a* gabeko konparazioek erabilera eta banaketa ezberdinak dituztela, eta *bainok* osagarritzat erlatiboazko perpausa hartzen duela erakusten dut, batetik. Bestetik, euskarazko konparazio egiturak aldatzen ari direla ere azaltzen dut: determinatzailea duen *-ena baino* konparazio mota *-a* gabeko *-en baino* aukera progresiboki ordezkutzen ari da. Hizkuntza aldaketa hori aztertu eta abian jarri duen egoera ikertuko dut lan honetan.

Gako hitzak: konparazio egiturak; erlatiboazko perpausak; *-en* menderagailua; aldakortasuna; hizkuntza aldaketa.

ABSTRACT

This paper analyses inequality comparatives such as *Espero genuen(a) baino gehiago* ‘More than we expected’ from the point of view of descriptive and normative grammars and from that of Basque speakers’ judgments. Comparatives which have an inflected verb in the standard of comparison must necessarily carry the complementiser *-en* and sometimes the determiner *-a* is added after it. I examine this locus of variation. On the one hand, I show that *-en* and *-ena baino* comparatives have different acceptability rates and syntactic distribution, and that *baino* ‘than’ appears to take a relative clause as its complement. On the other hand, I show that *-ena baino* comparatives are progressively replacing determinerless *-en baino* structures and investigate this issue.

Keywords: comparative structures; relative clauses; *-en* complementiser; variability; language change.

Ikerketa lan hau honako instituzio eta ikerketa proiektuei esker garatu ahal izan da: *Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea* (HiTT; Eusko Jaurlaritza, IT769-13 & IT1396-19); *2016-2020 Doktoratu Aurreko Programako laguntza* (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila); Espainiako Ikerketa Agentzia (AEI)/Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa (MiCIU) (*VASTRUD* proiektua: PGC2018-096870-B-100 eta *VALAL* proiektua: FFI2014-53675-P); eta Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (UFI11/14). Nire esker ona eman nahiko nieke bereziki Myriam Uribe-Etxebarriari eta Elena Castroviejori, haien iruzkin zuhur eta laguntzagatik, *HiT*teko eta *Hizkimilikiliklik* Hizki Elkarteko kideei haien iruzkinengatik. Lan honetan azaldutakoa Vela-Plo (2020b) doktorego tesian eta Vela-Plo (2021) ikerlanean sakon eztabaidatzen den atal batzuetan oinarrituta dago. Akats guztiak nireak baino ez dira, noski.

1 Sarrera

Itxuraz, euskarazko konparazioen azpitalde batek menpeko perpausa dauka oinarri, (1) bezalakoek, hain zuzen ere:

- (1) [*Irabazten duen / duena*] baino gehiago behar izaten du horrek.
- (2) [*Espero genuen / genuena*] baino aldakortasun handiagoa agertzen dute konparazio egiturek.

Oinarrian aditz jokatua agertzen duten euskarazko konparazioek nahitaez *-en* menderagailua eraman behar dute eta, gainera, menderagailuaren ostean *-a* determinatzailea ere gehitzen da batzuetan. Horregatik, *-en / -ena baino* konparazioak esango diegu bi konparazio mota horiei. Nahiz eta determinatzaileak aukera erabiltzea oso ohikoa den gaur egun, kontuan hartu beharrekoa da Euskaltzaindia (1999, 281. or.), Petirena (2011) edo Euskara Institutua (2019) bezalako gramatika arauemaileek *-ena baino* konparazioak euskara batuan desegokiak direla adierazi dutela beti.

Hala, euskarazko konparazioen aldakortasun puntu hori aztertzeke asmoz, lan honetan *espero genuen baino gehiago* edo *espero genuena baino gehiago* bezalako konparazio egiturak hartuko ditugu aztergai, gramatika deskribatzaile eta arauemaileen ikuspuntua zein egungo hiztunen juzguak kontuan izanik.

Horretarako, 2. atalean gramatiketan agertzen diren euskarazko konparazio egituren propietateak azalduko ditugu, eta Goenaga (2008, 2012) eta Vela-Plo (2020a) azterlan formaletan proposatzen diren barne egiturak arakatuko ditugu. Horren ostean, 3. atalean ikuspuntu experimentalari jarraitu lortutako euskal hiztunen juzguak aurkeztuko ditut. Galdetegiaren emaitzek bi datu ezezagunen berri emango digute. Batetik, euskal hiztunen juzguen azterketak euskarazko konparazio egiturak aldatzen ari direla erakutsiko digu: determinatzailea duen *-ena baino* konparazio mota *-a* gabeko *-en baino* aukera progresiboki ordezkatzeko ari da. 4. atalean aldaketa prozesu hori aztertu, *-en / -ena baino* konparazioen analisia birpentsatu eta proposamen berri bat defendatuko dut. Bestetik, euskal hiztunentzat determinatzailea duten *-ena baino* konparazioak guztiz naturalak direla ikusiko dugu, eta konparazio horiek eta *-a* gabeko konparazioek erabilera eta banaketa ezberdinak dituztela ere erakutsiko dut. Bi konparazio mota horien banaketa kontuan izanda, *-en / -ena baino* konparazioetan *bainok* osagarritzat erlatibo

perpau bat hartzen duela erakutsiko dut. Beraz, euskarazko erlatiboen barne egituren oinarrituta dagoen proposamena defendatuko dugu 5. atalean, *-en / -ena baino* konparazioen propietate bereizgarriak azaltze aldera. Amaitzeko, 6. atalean ikerlan honetako ekarpen nagusiak laburbilduko ditut.

2 Konparazio egiturak: aurrekariak

2.1 Gramatika deskribatzaile eta arauemaileen ikuspuntua

Euskara Institutuaren (2019) erreferentzia gramatikaren arabera, konparazio egituretan oinarriaren markatzaileak, hau da, *bainok*, mendeko perpau bat hautatzen du beti. Oinarrian dagoen perpau jokatu horrek *-en* menderagailua azaleratu beharko du nahitaez azken posizioan, aditz mugatuari morfologikoki lotuta (Artiagoitia, 2003; Artiagoitia & Elordieta, 2016; Goenaga, 1985; Ortiz de Urbina, 1999):

(3) Aldamenekoek uste {**dute/duten*} baino hobeto bizi gara.

Horrez gain, (3) perpauaren esanahia adierazteko beste aukera bat ere badago: *-en* menderagailuari determinatzailea lotzea.

(4) Aldamenekoek uste *dutena* baino hobeto bizi gara.

Ez daukate, ordea, estatus berbera (3) eta (4) adibideetako konparazio egiturek. Euskaltzaindia (1999, 281. or.), Petrirena (2011) edo Euskara Institutua (2019) bezalako gramatika normatiboek [*-en* menderagailua + *-a(k)* determinatzailea] aukera desegokitzat jotzen dute konparazioa adierazteko. Determinatzailedun forma, haatik, gaur egun ahozko hizkeretan zein idatzizko testuetan oso ohikoa dela aitortzen da gramatika deskribatzaile eta arauemaile gehienetan. Hualde eta Ortiz de Urbinak (2003) azaltzen dutenez, konparazio batzuetan hitzun askok determinatzailea gehitzen diote oinarriari. Egile horien eta Euskaltzaindiaren arabera (1999, 301. or.), *-ena baino* kasuetan ((5a-b) bezalakoetan) konparazioaren oinarrian azaleratzen dena erlati-

bozko perpaus erdi-askea¹ da. (5)-(6) adibideekin erakusten dudan moduan, (5a-b) konparazio egituretan agertzen diren [... -ena] osagaiek erlatibo erdi-aske arrunten funtzioa izan dezakete (6a-b) bezalako testuinguruetan:

- (5) a. *Esan duzun(a)* baino korapilatsuagoa da.
- b. *Irabazten duen(a)* baino gehiago behar izaten du horrek.
- (6) a. *Esan duzuna* ez dut gogoratzen.
- b. *Irabazten duena* nahikoa da Mikelentzat.

Barne arkitekturari dagokionez, Euskaltzaindiak (1999, 300.-301. or.) proposatzen du oinarriek azpiegitura desberdina dutela -en eta -ena baino konparazioetan. Proposamen horren arabera, -en baino konparazioetan oinarriaren markatzaileak -en menderagailua buru duen mendeko perpaus bat hartzen du zuzenean:

- (7) [*X Irabazten du*]-en baino gehiago behar izaten du horrek.

Aitzitik, -ena baino konparazioetan -en menderagailua buru duen mendeko perpausa erlatibozko esaldi erdi-aske batean txertatuta omen dago (Euskaltzaindia, 1999, 300-301. or.):

- (8) [[*Irabazten duena*] ~~X da~~]-en baino gehiago behar izaten du horrek.

Horrez gain, -ena baino forma ez-estandarri dagokionez, gaztelaniaren eraginarengatik euskaraz gehiegi erabiltzen dela diote Hualde eta Ortiz de Urbinak (2003), gaztelaniaz *lo que* katea (determinatzaile neutroa + menderagailua) buru duten erlatibozko perpausak konparatiboen oinarrian azaleratzen direla eta. Adibidez: *La película era más divertida de lo que esperaba* 'Filma espero nuen(a) baino entretenigarriagoa izan zen'. Oraingoz -ena baino konparatiboen erabilera hain hedatuta egotearen arrazoia alde batera utzi eta 4. atalean bueltatuko gara gai horretara, konparazio horien gaur egungo erabilera deskribatu ostean.

¹ *Erlatibo erdi-aske* etiketari buruzko arazo terminologiko garrantzitsu bat argitu nahiko nuke. Rebuschik (2003) erlatiboetaz buruz egindako lanean oinarrituta, erlatibo eta konparatiboetan agertzen diren [... -ena] forma erlatibo erdi-aske gisa aipatzen dut, nahiz eta erlatiboak aztertu dituzten beste egile batzuek erlatibo libre edo askeak esaten dieten forma horiei, hala nola de Rijk (1972, 1999/1972). Erabaki hau determinatzaile-dun erlatibo erdi-askeak («*Irabazten duena* nahikoa da Mikelentzat» bezalakoak) benetan askeak diren erlatiboetatik (hau da, pibot lanetan buru nominalik edo determinatzaile-rik ez daukaten erlatiboetatik) ezberdintzeko hartu dut.

Hualde eta Ortiz de Urbinaren (2003) antzeko ildotik, Euskara Institutuaren (2019) gramatika arauemailean *-ena baino* aukera desegokitzat jotzen da, testuinguru batean izan ezik: oinarrian pertsona edo objektu bati erreferentzia egiten dion erlatibozko perpaus absolutua denean, (9) adibidean, esaterako:

- (9) *Nahi nuen(*a)* baino garestiagoa da ardo botila hori. (*Norbanako esanahia*: nahi nuen ardo botila baino garestiagoa.)

Dena den, (9) adibideak beste esanahi bat ere izan dezake, *gradu esanahia* alegia. Kasu horretan honako zentzua izango genuke: ardo botila horrengatik gehienezko kantitate bat ordaintzea espero nuen eta, azkenean, ardo botila kantitate hori baino garestiagoa izan da. *-en/-ena* aldakortasuna gradu esanahia duten konparazioetan bakarrik omen da onargarria. Ikerlan honetan norbanako esanahia alde batera utziko dugu,² eta gradu esanahia eta aldakortasuna agertzen duten *-en / -ena baino* konparazioak izango dira aztertuko ditugunak. Azterketa horrekin hasi baino lehen, euskarazko konparazioak aztertu dituzten bi lan formalen ekarpen nagusiak aurkeztuko ditugu.

2.2 Goenaga (2008, 2012): baino postposizioa buru duten mendeko perpausak konparazioetan

Mendeko perpausaren analisiari jarraituz, Goenagak (2008, 2012) desberdintasuneko konparazioetan *bainoren* osagarria Komplementatzaile Sintagma (KonpS) dela proposatzen du (ik. (10)). Aipagarria da *baino* eta bere osagarriaren jatorrizko sorgunea *-ago* partikularen ezkerrean dagoela onartzen duela Goenagak eta, (10a-b) bezalako pare minimoak hartuz gero, oinarriaren multzoak mugitzeko askatasun handia duela erakusten du (Goenaga, 2008, 232. or. (59)):

² Konparazio egituraren oinarrian pertsona edo objektu bati erreferentzia egiten dion erlatibozko perpausa agertzen denean (hau da, erlatiboak norbanako esanahia denean), oinarrian agertzen dena perpaus murriztu bat dela dirudi. (9) adibideko esaldian, esaterako, oinarria objektu bati erreferentzia egiten diola hartzen badugu, honako esaldia bihur dezakegu:

(i) Nahi nuena zen(a) baino garestiagoa da ardo botila hori.

Oinarrian norbanako bati erreferentzia egiten dion erlatiboak duten konparazioak luzatu eta oinarrian(?) gradu bati erreferentzia egin ahal diola onartzen badugu, konparazio horien atzean lan honetan aztergai diren *-en / -ena baino* konparazioak egongo lirakeke. Ikerketa lan honen helburua argi egon dadin, oinarrian gradu esanahia eta *-en/-ena* aldakortasuna agertzen duten konparazioak izango dira aztertuko direnak.

(10) [PostS [KonpS ... -(e)n] baino] ...-ago (Goenaga, 2008, 229. or. (51a))

a. Harri hau [[*beste guztiak baino*] astunagoa] da.

b. Harri hau [__ astunagoa] da [*beste guztiak baino*].

Konparazioaren oinarria perpaus nagusian zehar kokaleku ezberdinetan agertzeko gaitasuna dela eta, Goenagak oinarriaren markagailua postposiziotzat hartzen du. (10) adibidean adierazi bezala, *bainok* eta *KonpSk* Postposizio Sintagma (PostS) bat osatzen dutela argudiatzen du Goenagak. Analisi horren arabera, beraz, konparazioaren oinarria PostS bat izango litzateke euskaraz.

2.3 Vela-Plo (2020a): perpausik gabeko oinarriak eta koordinazio egitura duten konparazioak

Goenagak (2008, 2012) proposatu bezala, konparazio egituretako oinarria mendeko perpaus batetik eratorria dela nabarmena da aztertzen ditugun *-en / -ena baino* bezalako konparazioetan. Analisi bera konparazio guztietan aplikatu beharra, ordea, ez dago hain garbi. Zer gertatzen da oinarrian ageriko menderagailurik (hots, mendeko perpausik) ez dagoen konparazioetan? Konparazio mota guztiek dute barne egitura bera euskaraz?

Galdera horiei erantzun emateko, Vela-Plo (2020a) lanean itxuraz sintagma mailako oinarria duten konparazio mota bat aztertzen da, *azpi-konparazio sintagmatikoak* hain zuzen, (11)-(12) bezalakoak:

(11) [*Diru*] baino amets gehiago zuen agureak.

(12) [*Aurkari*] baino jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.

Vela-Plok (2020a) egitura jakin horiek koordinazio sintagmatiko arruntek duten jokaera sintaktiko bereizgarria dutela erakusten du eta analisi sintaktiko eta semantikoa eskaintzen du, ondoko bi ideiak kontuan hartuta: perpaus batetik eratorrita ez dagoen oinarri bat dutela eta koordinazio barne egitura dutela. Bigarren proposamen horren aldeko argudio bat honakoa da: bai (14a) bezalako koordinazio sintagmatikoei, bai (14b) bezalako konparazioei, osagarri partekatuek onartzen dituzte. Bi esaldi horietan, osagarriak hartzen dituzten bi izen agertzen dira: *aurkari* eta *jarraitzaile*. (14a-b) adibideetan *Mumbrúren* Postposizio Sintagma bakarra bi izenen osagarri bezala funtzionatzeak erakusten du kortexte artean agertzen den barne egitura

koordinazio sintagmatikoarena dela, koordinazio sintagmatikoek baino ez dutelako horrelako osagarri partekaturik baimentzen eta:³

(13) a. [*Mumbrúren* aurkari eta jarraitzaile asko] etorri dira.

b. [*Mumbrúren* aurkari baino jarraitzaile gehiago] etorri dira.

Konparazioen deskribapen tradizionalak konparazioaren oinarria beti perpaus (murriztu edo ez murriztu) batetik eratorria dela onartu izan dute; horregatik da garrantzitsua ikerlan horretan defendatzen den konparazio egitura batzuen analisi sintagmatikoa, perpaus batetik eratorrita ez dagoena alegia. Vela-Ploren (2020a) lanak, halaber, euskarazko *azpi-konparazio sintagmatikoek* mendeko egituren ezaugarriak izan beharrean, koordinazio egituren berezitasunak dituztela erakusten du.

Vela-Plok (2020a) euskarazko *azpi-konparazio sintagmatiko*etarako (14)-(15) adibideetan erakusten den barne egitura sinplifikatuta defendatzen du: *bainok* aurkaritzako koordinazio juntagailuarekin lotura estua dauka, kategoria bereko bi (gradu) sintagma konektatu eta erkatzen baititu.

(14) [[[Diru d_{GradS2}] baino &S] [[[amets gehiago GradS1] GradS1] ...

(15) [[[Aurkari d_{GradS2}] baino &S] [[[jarraitzaile gehiagori GradS1] GradS1] ...

Euskarazko konparazioen analisiari dagokionez, Vela-Ploren (2020a) emaitzek kolokan jartzen dituzte euskal gramatiketan agertzen ziren konparazio egituren deskribapen eta sailkapen bateragarri tradizionalak. Batetik, euskarazko konparazio egitura batzuek barnean koordinazio egitura dutela eta horietako oinarriak lekualdaketa murrizketak dituztela (Goenagak, 2008, 2012 aztertutako konparazio azpitaldea ez bezala, ik. (10a-b)) erakusten dutelako lan horrek eta, bestetik, euskaraz sintagma mailako oinarria duten konparazioak ere badaudela azaltzen duelako.

Badirudi konparazioen gainean tradizionalki onartu izan diren ideiak ez direla konparazio mota guztiak deskribatzeko egokiak. Euskarazko konparazio egituren analisia berrikusi eta birpentsatu beharra dago; beraz, euskaraz daukagun konparazio mota bakoitza sakonean aztertuz, baita oinarrian perpaus jokatua duten eta lan honetan aztergai diren konparazioak ere.

³ Azpi-konparazio sintagmatikoen propietate bereizgarriak ezagutu eta horien analisi sintaktiko eta semantiko osoa aztertzeke, ik. Vela-Plo (2020b).

2.4 Aztergaia: menderagailua agerian daukaten konparazio egiturak

Hemendik aurrera konparazioaren oinarrian gradu esanahia duten *-en baino* eta *-ena baino* konparazio egiturak aztertuko ditut. Euskaltzaindiak (1999) hau adierazi zuen aldakortasun puntu honi buruz:

Gaur egun zenbaitek *-EN* atzizkia ez ezik *-ENA* eransten diote perpaus horri [oinarrian agertzen den perpausari]. Horrelakoak zenbait autorerengan aurki badaitezke ere, badirudi aski bazterrekoa dela jokabide hori eta, gainera, nekez justifikatzen dela gramatikaren ikuspegitik. Hortaz, *-EN* atzizkia izango da gomendatuko duguna era honetako perpausetan (Euskaltzaindia, 1999, 281. or.).

Goiko aipuan, Euskaltzaindiak (1999) esaten du ez dagoela motibazio gramatikalik edo sintaktikorik arauetan hobesten den *-en* formaren ordez *-ena* forma erabiltzeko. Bai Euskaltzaindiak (1999) eta beste gramatika deskribatzaile eta arauemaileen proposamenak egiaztatzeko, bai euskal hiztunen artean *-en baino* zein *-ena baino* konparazioen gaur egungo onargarritasunaren berri izateko, aldagai horren inguruko galdetegi bat diseinatu eta euskal hiztunen artean zabaltzea erabaki nuen. Hurrengo atalean ikerlan horretan egindako galdetegiaren metodologia, materialak eta emaitzak aurkeztuko ditut.

3 Arauaren eta gaur egungo erabileraren arteko talka

3.1 Inkestaren metodologia eta materialak

Egitura baten eta bestearen onargarritasuna ezagutzeko galdetegi honetan, euskaldunek *-en baino* eta *-ena baino* konparazioak onartzen dituzten ikustea nuen helburu. Horrez gain, konparazio mota bien onarpenari dago-kionez, inkesta egiterakoan desberdintasun dialektalik bazen egiaztatzea ere erabaki dut.

Oinarrian aditz jokatua duten konparazio egituren deskribapenaren hari-
ra (nik *-en baino* motakoak deitu ditudanak), Goenaga (2007, 101. or.) kontu-
ratu zen konparazioaren oinarria lekuz aldatzeko aukera ez dela guztiz as-
kea testuinguru batzuetan. Goenagaren juzgu indibidualen arabera, oina-
rrian aditz jokatua duten konparazioak oinarrian aditzik ez duten konpara-
zio paraleloak baino *okerragoak* dira oinarria perpausaren amaieran ager-

tzen den testuinguruetan. Balizko kontraste hau (16a-b) eta (17a-b) (2007, 101. or., (269')) adibideetako pare minimoen bidez erakusten du:

- (16) a. Okela hau samurragoa da [atzokoa baino].
b. ?Okela hau samurragoa da [atzokoa *zen* baino].
- (17) a. Tonu ilunek bero gehiago hartzen dute [argiek baino].
b. ?Tonu ilunek bero gehiago hartzen dute [argiek *hartzen duten* baino].

Goenagak *-en baino* konparazioei egotzen dien ? sinboloak zer esan nahi duen ez du gehiago zehazten, eta ez du eztabaidatzen oinarriaren lekualdatzeak *-ena baino* konparazioei eragin diezaiokeen. Intuizio horiek kontuan izanda, *-en* eta *-ena baino* konparazioen onargarritasuna argitzeko, inkestan bi oinarri motak (determinatzaileduna eta determinatzaile gabea) *in situ* posizioan (hau da, *-ago* edo *gehiagoren* aurrean) eta esaldi amaieran koka daitezkeen ala ez ere aztertu nuen. Horrela, bi konparazio mota horien oinarriek banaketa bera duten ala ez zehaztu nuen.

Metodologiari dagokionez, *Google Forms* bitartez 50 euskaldunek (guztiak UPV/EHU Euskal Ikasketak graduko ikasleak, 18-28 urtekoak) galdetegia bete zuten. Bertan, 10 *-en baino* konparazio eta beste 10 *-ena baino* konparazio puntuatu zituzten esaldien naturaltasuna kontuan hartuta, beste 20 esaldi betegarrirekin tartekatuta. Galdetegia bete zutenek honako galderei ere erantzun zieten euren hizkuntza profila zehaztu ahal izateko: (i) Euskal Herrian jaio eta bizi izan diren; (ii) gurasoekin euskaraz hitz egiten duten; (iii) jatorria (herria eta probintzia); eta (iv) euskalkia. Emaitzak aztertzerakoan, bi azpimultzo desberdinu nituen partaideen ama hizkuntzaren arabera: euskara ama hizkuntza euskara duten partaideak (39 lagun: 18 bizkaieradun, 14 gipuzkeradun, 6 batudun eta nafar-lapurteradun bat) eta euskara bigarren hizkuntza zuten partaideak (11 lagun).⁴

Materialei dagokienez, lau baldintza (eta, beraz, lau esaldi mota) ezarri ziren: A baldintza (*-en baino ... x-ago*, ik. (18a)); B baldintza (*-ena baino ... x-*

⁴ Leku murriztapenak direla eta, ez ditut euskara bigarren hizkuntza duten partaideen emaitzak lan honetan aztertzen, ik. Vela-Plo (2020b) eta Vela-Plo (2021) datu horien eztabaidaz gehiago jakiteko. Laburbilduz, honakoak izan ziren azpitalde horren emaitzak:

(i) A. *-en baino ... x-ago*: 3,9/5 C. *x-ago ... -ena baino*: 3,6/5
B. *-ena baino ... x-ago*: 3,8/5 D. *x-ago ... -en baino*: 2,1/5

ago, (18b)); C baldintza (x-ago ... -ena baino, (18c)); eta D baldintza (x-ago ... -en baino, (18d)).

- (18) a. *Espero nuen baino* zapore atseginagoa dauka pastelak.
b. *Espero nuena baino* zapore atseginagoa daukate baserriko toma-teek.
c. Etxera igo behar zuten kutxa astunagoa zen *espero zutena* baino.
d. Bi ordu beranduago hasiko da *esan ziguten baino*.

3.2 Inkestaren emaitzak eta eztabaida

Euskara ama hizkuntza zuten 39 parte hartzaileetatik 38 Hego Euskal Herrikoak ziren eta bakarra zen Ipar Euskal Herrikoa, Nafarroa Beherekoa, hain zuzen ere. Hori dela eta, inkesta honen emaitzek hegoaldeko euskalkien hiztun gazteen juzguak erakutsiko dizkigu, batez ere. Ipar Euskal Herrian aztertzen ari garen -en / -ena baino konparazioen erabilera aurrerago aztertuko dugu, 4. atalean.

Inkesta horren garapena bultzatu zuten intuizioak honakoak izan ziren: (i) -en / -ena baino konparazioek ez dutela banaketa sintaktiko bera eta (ii) konparazioetan -ena forma erabiltzea ez dela batere marjinala, Euskaltzaindiak (1999) esaten duenaren kontra. Eta halaxe berretsi dituzte intuizio horiek inkestaren emaitzek. 1. taulak erakusten ditu galdetegiaren emaitzak.

Azterketa estatistikoaren arabera, A baldintzaren onargarritasun maila baxuagoa (hau da, determinatzaile gabeko -en baino ... x-agorena) estatistikoki esanguratsua izan zen B eta C baldintzen emaitzen aldean (determinatzailedun -ena baino ... x-ago eta x-ago ... -ena baino baldintzena). Gainera, A baldintza (-en baino ... x-ago) D baldintza (x-ago ... -en baino) baino onargarriagoa izan zen, eta desberdintasun hori ere estatistikoki esanguratsua agertu zen.

1. taula. *-en / -ena baino* konparazioen gaineko galdetegiaren emaitzak (esaldi bakoitza 1etik 5erako Likert eskalan puntuatuta)

Baldintzak	Esaldiak	Emaitzak	
		Batez bestekoa	Baldintzaren batez bestekoa
<i>-en baino ... x-ago</i>	1. % Espero nuen baino zapore atseginagoa dauka pastelak.	2,6/5	
	2. %Azkenean oparia esan ziguten baino bost euro merkeagoa izan da.	2,3/5	
	3. % Hasieran espero genuen baino lagun gehiago etorri dira afarira.	3,2/5	2,6/5
	4. % Esan zizuten baino bi egun gehiago ditugu eskaera bidaltzeko.	2,3/5	
	5. % Txikitan uste genuen baino zailagoa da lan duina aurkitzea.	2,6/5	
<i>-ena baino ... x-ago</i>	6. Espero genuena baino zapore atseginagoa daukate baserriko tomateek.	4,6/5	
	7. Zinemako sarrera atzo esan zigutena baino euro bat garestiagoa da.	4,3/5	
	8. Espero nuena baino hiru lankide gehiago etorri dira bulegora.	4,2/5	4,3/5
	9. Goizean esan dutena baino langile gehiago joan dira manifestaziora.	4,1/5	
<i>x-ago ... -ena baino</i>	10. Uste genuena baino neurri zorrotzagoak hartu ditu alkateak.	4,2/5	
	11. Etxera igo behar zuten kutxa astunagoa zen espero zutena baino .	3,9/5	3,9/5
	12. Hamabi zentimetro luzeagoa da esan zigutena baino .	4,2/5	
	13. Aurten bigarren hezkuntzako irakasle gehiago behar dituzte espero zutena baino .	3,5/5	
	14. Askoz langile gehiago joan ziren grebara kazetariak esan zutena	4,2/5	

Baldintzak	Esaldiak	Emaitzak	
		Batez bestekoa	Baldintzaren batez bestekoa
	baino.		
	15. Jende gehiago ari da hondartza garbitzen uste genuena baino.	3,8/5	
	16. Ekarri ziguten kutxa astunagoa zen espero genuen baino.	2,2/5	
	17. Bi ordu beranduago hasiko da esan ziguten baino.	1,8/5	
x-ago ... -en baino	18. Hamar ikasle gehiago etorri dira azterketara espero nituen baino.	1,5/5	1,9/5
	19. 50 entzule gehiago joan ziren kontzertura antolatzaileek esan zuten baino.	2,4/5	
	20. Anek mendi altuagoa igo zuen uste nuen baino.	1,5/5	

Horrez gain, euskalkiei dagokienez, gipuzkerako hiztunek A baldintzako egitura (hau da, *-en baino ... -ago* konparazio mota) onartezintzat hartu zuten, beste euskalkietako hiztunek ez bezala. Gipuzkeradunentzat bakarrik izan ziren onartezinak A baldintzako konparazioak (5etik 2,04ko batez besteko puntuazioa eman zieten). Beste talde dialektal guztietako hiztunek (batua, bizkaiera eta nafar-lapurtera), ostera, onargarritasunaren mugako balorazioa eman zioten (5etik 3ko puntuazioaren bueltakoa). Análisi estatistikoaren arabera, beraz, aipatzekoa da aldakortasun handia dagoela A baldintzako *-en baino ... -ago* konparazioen onargarritasunean batuko, bizkaierako eta nafar-lapurterako hiztunen artean; gipuzkera hiztunek, ordea, argi utzi zuten *-en baino ... -ago* konparazioak onartezinak direla eurentzat.

Hala, inkestaren emaitzen arabera, badago konparazio motaren (determinatzaileduna ala determinatzailegabea) eta oinarriaren posizioaren (*in situ* edo esaldi amaieran) arteko interakzioa. Emaitza hori lan honek erakutsi du lehen aldiz, aurreko ikerlanek ez baitute oinarriaren mugimenduari buruzko murrizketa zehatzik aurkitu. Areago, Euskaltzaindiak (1999) *-ena baino* kon-

parazioen erabilera «nekez motibatu daiteke[ela] gramatikaren ikuspegitik» dio, baina gure datuek aurkakoa erakusten dute. Haatik, inkestaren emaitzak ez datoz bat baieztapen horrekin. C motako konparazioak (x-ago ... -ena baino) guztiz onargarriak badira ere (5etik 3,9ko batez besteko puntuazioa lortu dute), testuinguru berean agertu baina determinatzailearik ez duten D motako konparazioak (x-ago ... -en baino) guztiz onartezinak dira gaur egungo euskal hiztun gazteen iritzien arabera (5 puntutik 1,8ko batez besteko puntuazioa).

Horrez gain, parte hartzaileen % 58,4k A motako konparazioak (-en baino ... -ago) onartezinak direla uste zuen eta % 41,8k konparazio horiek onargarriak edo zerbait onargarriak zirela uste zuen. Espero baino aldakortasun handiagoa dago; beraz, gramatika arauemaileek hobesten dituzten -en baino ... -ago konparazioen gainean, gaur egungo erabilerari dagokionez. Are gehiago, determinatzailearik gabeko oinarriak esaldi amaieran agertzen direnean (hau da, D motako -ago ... -en baino konparazioak) onartezintzat jo ziren argi eta garbi. Datu berri horien gaineko azalpena 5. atalean ematen saiatuko naiz, -ena eta -en baino konparazioen barne egitura aztertzean. Zehatzago, oinarria *in situ* agertzen duten -en baino konparazioak onargarritzat hartu arren, oinarria esaldi amaieran agertzen denean hiztunentzat onartezinak zergatik diren esateko azalpena proposatuko dut.

Inkestaren emaitzek erakusten dute, -ena baino konparazioak guztiz naturaltzat hartzen badira ere, -en baino formak beti ez direla onargarriak (soilik oinarria *in situ* agertzen denean). Kontraste hori ikusita, aldaketa prozesu baten aurrean egon gaitezkeela proposatzen dut: determinatzaileadun konparazioak jatorriz determinatzailearik gabeko -en baino konparazioek betetzen zuten lana progresiboki betetzen ari direla dirudi.⁵ Ildo horri jarraituta, hu-

⁵ Izan ere, *Ereduzko Prosa Gaur* euskal corpusean (bi hitzetako bilaketak ahalbidetzen dituen corpusa da bera) bilaketa azkar batek erakusten du determinatzaileadun -ena baino formak -en baino formak baino agerraldi gehiago dituztela gaur egungo euskal testuetan:

- | | | |
|-------|--------------------------------|---------------------------------|
| (i) | a. ...zen baino: 41 agerraldi | b. ...zena baino: 61 agerraldi |
| (ii) | a. ...nuen baino: 32 agerraldi | b. ...nuena baino: 39 agerraldi |
| (iii) | a. ...zuen baino: 58 agerraldi | b. ...zuen baino: 96 agerraldi |

Berrikusle batean gomendioari jarraituta, *Eskal Klasikoen Corpusan* bilaketa azkar bat ere egin nuen. Corpus honek XVI. mendean hasi eta 1975. urtera arteko ia 500 liburu jasotzen ditu, eta, euskal testu horietan, determinatzailearik gabeko -en baino formak dira agerraldi gehien dituztenak, *Ereduzko Prosa Gaur* euskal corpusean ez bezala:

- | | | |
|------|--------------------------------|--------------------------------|
| (i) | a. ...zen baino: 98 agerraldi | b. ...zena baino: 14 agerraldi |
| (ii) | a. ...nuen baino: 12 agerraldi | b. ...nuena baino: 8 agerraldi |

rrengo atala hizkuntza aldaketa prozesu horren hipotesia argudioz janzteko erabiliko dut.

4 Mikro-aldakortasuna eta hizkuntza ukipenak eragindako aldaketa prozesua

Lehenago, 2.4. azpi-atalean, azaldu bezala, zenbait testuingurutan oinarrian *-ena* forma duten konparazioak anbiguoak dira: (i) gradu edo neurri esanahia izan dezakete (ik. (19a)); edo, bestela, (ii) norbanako bati erreferentzia egiten dion buru nominalik gabeko perpaus erlatibo bat izan dezakete oinarrian (ik. (19b)).

(19) *Esan zenidana* baino altuagoa da.

a. *Gradu esanahia*: Esan zenidan altuera hori gainditzen du.

b. *Norbanako esanahia*: Esan zenidan pertsona hori baino altuagoa da.

Hizkuntza aldaketa prozesuak normalean horrelako egitura anbiguoetan hiztunek egiten duten berranalitik abiatzen dira. Zehazki, Timberlakek (1977; ik. Langacker, 1977, 58. or.) azaldu bezala, aldaketa sintaktikoak hiru pausotan gertatzen dira: (A) *berranalisisa*, gramatika batean harreman eta arau berriak sorturik; (B) berranalisiaren ondorioen *gaurkotzea* (gramatika berrira mapeatzea); eta, azkenik, (C) analisi berriaren *hedapena*, hiztun talde batzuetara edo guztietara. Formulazio horren arabera, hizkuntza aldaketaren prozesuari hasiera ematen dion berranalisiaren fasea (19) adibidea bezalako gainazaleko datu anbiguoetan oinarri daiteke eta hortik egitura berri bat sor daiteke gero (ik. Madariaga, 2017 eta bertako erreferentziak berranalisiari buruzko eztabaida zabalago baterako).

Aldaketa sintaktikoaren formulazio hori oinarri, egungo egoerarekin paralelismoa eraiki dezakegu. Aldaketa prozesuaren bideari jarraituz, *-en / -ena baino* konparazioen onargarritasuna eta erabilera azal genezake. Ildo horretatik, aldaketaren lehen urratsa *-ena baino* konparazioen datu anbiguoak izango lirатеke, (19) adibidean azaldu bezala. Aitzitik, (20) bezalako konparazioetan ez da horrelako anbiguotasunik sortzen:

(iii) a. ...*zuen baino*: 62 agerraldi b. ...*zuen baino*: 34 agerraldi

4. atalean proposatuko dut gaur egungo [... *-ena*] formen agerpen ugariagoa dela bai idatzizko egunkari eta liburuetan, bai eskal hiztunek erakutsitako erabilera datuetan, *-en / -ena baino* konparazioak arian-arian *-en baino* formak ordezkatzeko ari direlako.

(20) *Esan zenidan baino altuagoa da. (Gradu esanahia soilik)*

Esan bezala, aldaketaren berranalisi prozesuaren jatorrian (19) adibidean bezalako [... -ena] forma anbiguoak egongo ziren (1. urratsa). Berranalisi horren eragilea, agian, gaztelaniazko erlatibozko konparazioak izan daitezke, hizkuntza horretan konparazioaren oinarrian determinatzaile bat buru duten erlatibozko esaldiak agertzen direlako (Bolinger, 1950; Brucart, 2003; Mendia, 2019; Plann, 1984; Sáez, 1992; Sáez & Sánchez López, 2013; Vela-Plo, 2020b):

(21) *Es más alta de lo que me dijiste.*

da gehiago altua baino DET.N COMP niri esan.zenidan

‘Esan zenidan(a) baino altuagoa da.’

Bigarren urratsean, [... -ena] formen erabilera konparazioen oinarri guztietara hedatuko zen, hau da, (22) bezalako konparazioetan ere azalduko zen, non printzipioz ez zen egongo balizko anbiguotasun iturririk. Bigarren urrats horretan berranalisiaren ondorioak gaurkotuko ziren, beraz.

(22) *Irabazten dudana baino gehiago gastatzen dut.*

Azkenean, [... -ena] forma berriaren erabilera konparazioetan euskal hiztun talde ezberdinetan hedatuko zen, jatorrizko [... -en] forma guztiz ordezkatu arte. Aurkeztu berri dudana inkestaren emaitzek egoera horren berri ematen digute. Dagoeneko inkestako gipuzkeradun hiztunek ez dute -en baino konparaziorik onartzen. Beraz, badirudi euskaldun talde hori berri-tzaileagoa dela, aldaketa sintaktikoaren prozesua eurentzat aurreratuago baitago. Aitzitik, inkestan parte hartu duten beste euskaldun taldeek oraindik aldakortasun handia erakusten dute *in situ* determinatzaile gabeko -en baino konparazioak onartzean. Hori dela eta, badirudi -ena baino konparazioek ez dituztela oraindik -en baino konparazioak erabat ordezkatu talde horientzat.

Kontuan hartuta 2. atalean aurkeztutako inkesta nagusiki gaztelaniarekin harremanetan dauden hegoaldeko euskalkietako hiztunen iritzietan oinarrituta dagoela, interesgarria litzateke iparraldeko euskal lurraldeetako egoera ere aztertzea. Kasu horretan euskara frantsesarekin dago ukipenean. Frantseseko konparazioek, gaztelaniazkoek ez bezala, ez dute erlatibozko perpausik agerian erakusten konparazioaren oinarrian. Alde hori (23)-(24) adibideek darakusate:

- (23) *Gasto más de lo que gano.*
gastatzen.dut gehiago baino DET.N COMP irabazten.dut
'Irabazten dudana baino gehiago gastatzen dut.'
- (24) *Je dépense plus que je ne gagne.*
nik gastatzen.dut gehiago baino nik ez irabazten.dut
'Irabazten dudana baino gehiago gastatzen dut.'

Iparraldeko euskalkietan *-en / -ena baino* konparazioak aztertu ahal izateko, *Norantz* proiektuko (www.norantz.org; Oyharçabal *et al.*, 2012) datu basean bilaketan jardun dut. Datu base horretan, frantsesezko esaldiak iparraldeko hiztunek itzulita daude. (25) adibidean *Norantz* proiektuan agertzen den 'Je dépense plus que je ne gagne' esaldiaren euskarazko itzulpenak bildu eta sailkatu ditut (gogoratu gazteleraz erlatiboazko esaldia erabiliko litzatekeela esanahi hori adierazteko, (23) adibidean ikusi dugun bezala):

- (25) *Norantz* proiektuan 'Je dépense plus que je ne gagne' esaldiaren itzulpenak:
- (A) *-en baino ... x-ago*: 19 itzulpen (erantzunen % 70,4)
 - (B) *-ena baino... x-ago*: 4 itzulpen (erantzunen % 14,8)
 - (C) *x-ago... -ena baino*: itzulpen 1 (erantzunen % 3,7)
 - (D) *x-ago... -en baino*: 3 itzulpen (erantzunen % 11,1)

Bilaketa mugatu honek iradokitzen du determinatzailearen *-ena baino* konparazioek oraindik ez dutela determinatzailearik gabeko *-en baino* konparazioak ordezkatu iparraldeko euskalkietako hiztunentzat. Gainera, interesgarria da aipatzea corpusean [...*-ena*] formadun konparazioak eraiki zituztenak iparraldeko gazteak (30 urte baino gazteagoak) zirela.

Emaitza horiek kontuan hartu behar badira ere, oraindik beharrezkoa da Ipar Euskal Herrian oinarrian aditz jokatu duten konparazioen onargarritasuna eta erabileraren azterketa zehatz eta sakonago bat egitea. Beraz, momentuz, hegoaldeko euskalkietako hiztunen egungo erabilera eta onargarritasunaren datuetan oinarrituta, hurrengo atalean deskribatu ditugun *-en / -ena baino* konparazioen analisi sintaktikoa eskainiko dut.

5 Erlatibozko perpausak *-en baino* eta *-ena baino* konparazioetako oinarrietan

Gramatika arauemailetan *-ena baino* formak hobesten ez badira ere, 2. atalean ikusi dugun bezala, gaur egungo erabileran *-ena baino* konparazioak *-en baino* konparazioak ordezkatzan ari dira, batez ere hegoaldeko euskal hiztunen artean. Hizkuntza aldaketa prozesu horren eragile posibleari dago-kionez, lotura argi bat dago euskarazko konparazioetako *-ena* formen hedapenaren eta gaztelaniazko konparazioetan agertzen diren erlatibozko perpausen presentziaren artean. Bi eraikuntza horien arteko antzekotasunak ez dirudi kasualitatea.

Lehenago, 2.1. eta 2.2 azpiataletan, ikusi dugunez, euskarazko konparazioei buruz gramatikak eta aurreko lanek diotenaren arabera, *-en baino* konparazioetan *bainok* osagarritzat *-en* menderagailua buru duen mendeko perpausa hartzen du zuzenean. Proposamen horietatik aldentuta, atal honetan beste proposamen hau defendatuko dut: bai *-ena baino* konparazioek (aurreko lanetan dagoeneko onartzen zenez, ik. 2.1 azpi-atala) bai *-en baino* formek (eta argudiorako garrantzitsua da hau ondoren ikusiko dugunez) oinarrian erlatibozko perpausak agertzen dituzte. Zehazki, gradu bati erreferentzia egiten dioten erlatiboak dituzte bi konparazio mota horiek oinarrian. Beraz, 2.1 azpi-atalean *-en baino* konparazioei buruz ikusi ditugun proposamenetatik aldentu, eta *-en / -ena baino* konparazioetarako beste ikuspegi bat eskainiko dut jarraian.

5.1 Erlatiboen berezitasunak konparazioetan

Lehenik eta behin, euskarak *-ela, bait-* edo *-enik* bezalako beste menderagailu batzuk baditu ere (ik. Artiagoitia & Elordieta, 2016, adibidez), oinarrian aditz jokatua agertzen duten konparazioek *-en* menderagailua hautatzen dute; hots, beste egitura batzuen artean⁶ erlatibozko perpausak eraikitzeke ere erabiltzen den menderagailuaz baliatzen dira.

Bigarrenik, erlatibozko perpausen murrizketa bereizgarrietako bat honakoa da: *-en* menderagailua lotuta duen aditza (eta aditz laguntzailea barne agertzen denean, hori ere bai) derrigorrez perpausaren amaieran agertu

⁶ *-en* menderagailua *nz*-galdera eta harridurazko perpausetan, *bai/ez* galderetan, mendeko perpaus subjuntiboetan, konparazioetan eta erlatiboetan ager daiteke (ik. Artiagoitia & Elordieta, 2016).

behar da, azken posizioan (Oyharçabal, 2003; de Rijk, 1972; Vicente, 2002). Ondorengo adibideetan erakusten dudan moduan, mendeko adierazpen eta galdera perpausok, ordea, ez dute baldintza hori bete behar:

(26) [Munduan arazo gutxi zeudela *uste nuela txikitan*] gogorarazi dit amak.

(27) Maitanek galdetu dit [munduan arazo gutxi zeudela *uste nuen txikitan*].

(28) [Zer *uste nuen txikitan*] galdetu dit Maitanek.

Aitzitik, aditz sintetikoa edo perifrastikoa ez den beste elementurik ezin da esaldi amaierako posizioan agertu perpaus erlatiboetan:

(29) a. *[*Izan nituen txikitan*] arazoak ez ditut gogoratzen.

b. [**Txikitan** *izan nituen*] arazoak ez ditut gogoratzen.

Aditzaren nahitaezko perpaus amaierako kokapena euskarazko erlatiboek aplikatzen zaien murriztapen bereizgarria da, eta euskaraz *-en* menderagai-lua duten beste mendeko perpaus klaseek ez daukate horrelako baldintzarik bete beharrik; *-en* konparazioek izan ezik. Hurrengo konparazio perpausok frogatzen duten moduan, erlatibozko perpausen kasuan bezala, *-en baino* konparazioek baldintza bera bete behar dute:

(30) a. *[*Uste nuen txikitan*] baino arazo gehiago daude munduan.

b. [**Txikitan** *uste nuen*] baino arazo gehiago daude munduan.

Hualde eta Ortiz de Urbinak (2003) *-en baino* konparazioen propietateen deskribapenean derrigorrezko aditz amaierako berezitasuna adierazi zuten arren, nabarmentzekoa da konparazioek eta erlatibozko perpausok erakusten duten hitz ordenaren paralelismoa ez dela aurretik argudio bezala erabili aztertzen ari garen konparazioek oinarrian erlatibozko perpaus bat agertzen dutela defendatzeko.

Hirugarrenik, jarraian azalduko dut nola gai garen 3. atalean azalarazi dugun *-en baino* konparazioen oinarriaren mugikortasunaren murriztapena azaltzeko, *-en / -ena baino* konparazioen oinarriak erlatibozko perpaus batez osatuta daudela onartzen badugu.

Lehenago 3. atalean ikusi dugu gaur egun euskal hiztunek desegokitzat hartzen dituztela *-en baino* konparazioak oinarria esaldi amaieran agertzen denean, baina batzuek *-en baino* konparazioak onartzen dituztela oinarria *in situ* agertzen bada:

- (31) Azkenean kotxea garestiagoa izan da [*hasieran nahi nuen*(-a) baino*].

-en / -ena baino konparazioen kontraste horren antzera, *-en/-ena* erlatibozko perpausek pareko murriztapena erakusten dutela azalduko dut jarraian. Izenaren ondoan agertzen diren erlatiboek ez dute determinatzailerik erabiltzen *-en* menderagailuaren ostean, (29b)) adibidean erakusten den moduan. Ostera, erlatibozko perpausa esaldiaren amaierara lekualdatzen bada, determinatzailea izan behar du derrigorrez (Oyharçabal, 2003, 806.-807. or.):

- (32) Jada ez ditut arazo horiek gogoratzen, [*txikitan hainbeste kezkatzen ninduten*(ak)*].

Azpiatal honetan jarraitu dugun arrazoiketa kontuan hartuta, *-en / -ena baino* konparazio eta *-en/-ena* erlatibozko perpausen antzekotasuna ere ebidentzia gisa har daiteke bai *-ena baino* bai *-en baino* konparazioen kasuan oinarrian erlatibozko perpausa agertzen dela defendatzeko.

Konparazioen oinarrian erlatibozko perpaus egitura batera jotzea ez da ustekabekoa ikuspuntu semantikotik. Izan ere, konparazioaren oinarrian perpaus bat duten esaldiek nolabaiteko gradu abstrakzioa lortu behar dute maila edo zenbatasun esanahi egokia behar bezala erartortzeko.

Euskararen azterketara bueltatuta, gainera, gramatika deskribatzaileetan azaldu den bezala, ohikoa da erlatibo ez-jokatuak agertzea euskarazko konparazioen oinarrian (ik. Euskaltzaindia, 2011, 385.-388. or.; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003):

- (33) Eskertuko nioke *orain arte erakutsitakoa* baino errespetu gehiago izatea.⁷

⁷ Ikerlan honek oinarrian aditz jokatuak duten konparatiboak aztertzea izan du helburu. Oraingoz, (34)-(35) edo (i)-(ii) bezalako konparazio ez-jokatuen inguruko eztabaida sakona etorkizuneko ikerketetarako uzten dut.

(i) [*Irabazi* baino] gehiago gastatzen dut nik.

(ii) [*Nahi* baino] galdera gehiago ditut.

Hala ere, laburrean, lan honetan defendatutako proposamenari jarraituz (i)-(ii) adibide-tako oinarri konparatiboan agertzen den partizipio hutsa erlatibo jokatu gabeen funtzioa egiten duela proposa daiteke («Gauaz *egin* lanak ez dira onak izaten» bezalako erlatibo jokatu gabeak, alegia; ik. Euskaltzaindia, 2011, 385.-388. or.). 5.2. atalean defendatzen den konparazioen erlatibo analisisa (i)-(ii) edo (34)-(35) bezalako konparazioetara erraz moldatu liteke oinarrian erlatibo jokatu gabeak dituzten konparazioen konposaketa azaltzeko.

(34) *Aurreikusitakoa* baino beranduago gertatu da hori.

Kontuak honela, aurreko proposamenetik aldenduta, atal honetan defendatu dut *-ena baino* konparazioek nahiz *-en baino* formak sakonean erlatibozko perpausak dituztela, gradu edo neurri bati erreferentzia egiten dioten erlatiboak, hain zuzen ere. Beraz, jarraian *-en* eta *-ena baino* konparazioen barne egituraren proposamen berria aurkeztuko dut.

5.2 *-en* eta *-ena baino* konparazioen barne egituraren proposamen berria

Aurreko azpiataleko arrazoiketa kontuan hartuta, batetik, *-en baino* konparazioen oinarrian erlatibozko perpaus askea dugula defendatzen dut, non erlatiboaren ageriko bururik ez daukagun. Bestetik, *-ena baino* konparazioen oinarrian erlatibozko perpaus erdi-askea daukagu, 2.1 azpi-atalean azaldu den moduan.

(35) *Balio duen(a)* baino merkeago erosten saiatuko da.

Euskarazko erlatibo erdi-askeen Rebuschiren (2003, 2006) proposamenari jarraituz,⁸ (37) adibidean irudikatuta dagoen barne egitura sintaktikoa da (36) bezalako *-en* eta *-ena baino* konparazioen oinarrietarako proposatzen dudana:

(36) a. Filma *espero nuen(a)* baino luzeagoa izan zen.

b. Filma luzeagoa izan zen *espero nuena baino*.

(37) a. ...espero nuena baino...

b. [_{PostS} [_{GraduS} / _{DetS} [_{KompS} *Op_i* filma *t_i* izatea espero nuen] (∅ / -a)]
baino]

⁸ Rebuschiren (2006) proposamenaren arabera, euskarazko erlatibo erdi-askeek honako barne egitura dute:

(i) a. erori de-n-a

b. [_{DetS} [_{KompS} *Op* [_{Komp'} [_{InfS} *erori de*] -n] -a]

Nabarmentzeko da Rebuschik aztertzen dituen erlatiboek norbanako esanahia dutela. Beraz, (i-b) adibidean agertzen den operatzaileak izaki edo objektu bati egingo dio erreferentzia. (36) bezalako konparazioetan, ostera, oinarrian agertzen den erlatiboaren operatzailean gradu (maila edo neurri) bati egingo dio erreferentzia. Ideia hau nabarmentzeko, (37b) adibidean erlatibozko perpausari *DetS* kategoria jarri ordez, *GraduS* / *DetS* etiketa ezarri diot.

-en eta *-ena baino* konparazioetan *bainok* osagarri gisa erlatibo askea edo erdi-askea hartzen du, hurrenez hurren. Oinarria bere jatorrizko kokapenean mantentzen denean, *bainoren* osagarria den erlatiboazko perpausa erdi-askea (hots, determinatzaileduna) edo askea (determinatzailearik gabea, gaur egun geroz eta gutxiago aukeratzen den forma) izan daiteke. Aitzitik, konparazioaren oinarria esaldiaren amaierara lekualdatuta agertzen denean, gaur egungo hiztunek *bainoren* osagarri gisa erlatibo erdi-askea hautatuko dute derrigorrez, 3. atalean aurkeztutako inkestaren emaitzek erakutsi digutenez. Zentzu horretan, *-en/-ena* erlatiboazko perpausen banaketa imitatzen dute, beraz, *-en / -ena baino* konparazioek, 5.1 azpiatalean azaldu bezala.

6 Ondorioak

Lan honetan euskarazko konparazioen azpitalde bat aztertu dugu, oinarrian itxuraz menpeko perpausa daukana: «*[Irabazten duen/duena] baino gehiago* behar izaten du horrek» bezalakoak, hain zuzen ere. Oinarrian aditz jokatua agertzen duten euskarazko konparazioek derrigorrez *-en* menderagailua izan behar dute. Gramatika arauemaileek hiztun gutxik egiten dutela esan eta desegokitzat hartzen badute ere, batzuetan, hiztun batzuk menderagailuaren ostean *-a* determinatzailea gehitzen dute horrelako konparazioak adierazteko.

Aldakortasun puntu hori lehenengoz aztertzeke asmoz, ikerlan honetan *-en / -ena baino* konparazioen gainean gramatika deskribatzaile eta arauemaileen aurreko analisiak eta gaur egungo erabilera aztertu ditugu. Aipatzekoa da Vela-Ploren (2020a) konparazio mota baten gaineko lanak erakutsi zigula konparazioen gainean tradizionalki onartu izan diren ideia batzuk ez direla konparazio mota guztiak deskribatzeko egokiak. Gainera, gramatika deskribatzaile eta arauemailetan konparazioek erakusten duten murrizketa batzuei buruzko intuizioak deskribatuta zeuden, baina ideia edo intuizio horiek ez zeuden espermentalki aztertuta. Horregatik, euskarazko konparazio egituren analisia berrikusi eta birpentsatu beharra zegoen, euskaraz daukagun konparazio mota bakoitza sakon aztertuz, baita oinarrian perpaus jokatua duten eta lan honetan aztergai diren konparazioen kasuan ere.

Horretarako, aurreko proposamenak eta corpusak arakatu eta egitura horiei buruz euskal hiztunen juzguak galdetegi batean jaso dira. Galdetegiaren emaitzek bi datu ezezagunen berri eman digute. Batetik, determinatzailea duten *-ena baino* konparazioek eta *-a* gabeko *-en baino* konparazio egiturek

erabilera eta banaketa ezberdinak dituztela. Bestetik, euskal hiztunen juzguen azterketak erakutsi digu euskarazko konparazio egiturak aldatzen ari direla: determinatzailea duen *-ena baino* konparazio mota *-a* gabeko *-en baino* aukera progresiboki ordezkutzen ari da. Hortaz, aldaketa prozesu hori arakatu eta abian jarri duen egoera ikertu dut, euskarak Hego Euskal Herrian duen hizkuntza ukipena egoera kontuan hartuz.

Azkenik, *-en / -ena baino* konparazioen propietate bereizgarriak eta gaur egungo egitura horien erabilera aintzat hartu ditut proposamen berria gartzeko. Aurreko proposamenetatik aldentuta, *-ena baino* konparazioek eta, erabakigarria dena, baita *-en baino* formak ere, oinarrian erlatibozko perpausak agertzen dituztela defendatu dut. Zehazki, batetik, *-en baino* konparazioen oinarrian erlatibozko perpaus askea dugula erakutsi dut, erlatiboaren ageriko bururik gabea. Bestetik, *-ena baino* konparazioen oinarrian erlatibozko perpaus erdi-askea daukagu. Beraz, gramatiketako deskribapenak eta euskal hiztunen juzguak kontuan izanda, *-en / -ena baino* konparazioetan *bainok* osagarritzat erlatibozko perpaus bat hartzen duela erakutsi dut. Hain zuzen ere, gradu edo neurri bati erreferentzia egiten dion erlatibozko perpaus askea edo erdi-askea da *-en* eta *-ena baino* konparazioen oinarrian dagoena, gaztelerazko konparazio batzuetan gertatzen den bezala.

7 Erreferentziak

- Artiagoitia, X. & Elordieta, A. (2016). On the semantic function eta selection of Basque finite complementisers. In K. Boye & P. Kehayov (arg.), *Complementiser semantics in European languages* (379.-411. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110416619-013>
- Artiagoitia, X. (2003). Complementation. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (634.-710. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.426>
- Bolinger, D. L. (1950). The comparison of inequality in Spanish. *Language*, 26(1), 28-62. <https://doi.org/10.2307/410407>
- Brucart, J. M. (2003). Adición, sustracción y comparación: un análisis composicional de las construcciones aditivo-sustractivas del español. In F. Sánchez-Miret (arg.), *Actas del XXIII Congreso Internacional de Lingüística y Filología Románica* (11.-60. or.). Max Niemeyer. <https://doi.org/10.1515/9783110946277-004>
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal gramatika. Lehen urratsak V*. Euskaltzaindia.

- Euskaltzaindia. (2011). *Euskal gramatika. Lehen urratsak VII*. Euskaltzaindia. Euskara Institutua, UPV/EHU. (2019). Konparazio perpausak. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. www.ehu.eus/seg
- Goenaga, P. (1985). Complementación y nominalización en euskara. *ASJU*, 19(2), 495-570.
- Goenaga, P. (2007). *Euskara II. Perpaus elkartuen sintaxia. Apunteak*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Goenaga, P. (2008). Euskal neurri sintagmen azterketa baterako: zenbat x, zenbat x-ago, zenbat x gehiago. In Euskaltzaindia (arg.), *Jean Haritschelhar-i Omenaldia/IKER* (211.-240. or.). Euskaltzaindia.
- Goenaga, P. (2012). An overview of Basque measure phrases. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases eta nominalization in Basque* (111.-148. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.187.06goe>
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A grammar of Basque*. Mouton de Gruyter.
- Langacker, R. W. (1977). Syntactic reanalysis. In C. N. Li (arg.), *Mechanisms of syntactic change* (57.-139. or.). University of Texas Press.
- Madariaga, N. (2017). Reanalysis. In A. Ledgeway & I. Roberts (arg.), *The Cambridge handbook of historical syntax* (Cambridge Handbooks in Language eta Linguistic) (70.-91. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781107279070.005>
- Mendia, J. A. (2019). One more comparative. *Natural Language and Linguist Theory*, 38, 581-626. <https://doi.org/10.1007/s11049-019-09454-x>
- Ortiz de Urbina, J. (1999). Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque. In J. Franco & A. Landa (arg.), *Grammatical analysis of Romance and Basque* (179.-194. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.187.11urb>
- Oyharçabal, B. (2003). Relatives. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (762.-822. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.426>
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. & Epelde, I. (2012). La base de données Norantz: vers un observatoire des parlers basques d'Aquitaine. *Lapurдум*, 16, 27-67.
- Petirena, P. (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Plann, S. (1984). The syntax and semantics of *más/menos ... que* versus *más/menos ... de ...* in comparatives of inequality. *Hispanic Linguistics*, 1(2), 191-213.
- Rebuschi, G. (2003). Basque semi-free relative clauses and the structure of DPs. *Lapurdum*, 8, 457-477.
- Rebuschi, G. (2006). *A new look at Northern Basque wh-free relative clauses*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- de Rijk, R. P. G. (1972). *Studies in Basque syntax: relative clauses* [Doktore-tesia, Massachusetts Institute of Technology]. Dspace@MIT. <https://dspace.mit.edu/handle/1721.1/12980>
- de Rijk, R. P. G. (1999/1972). Relative clauses in Basque: A guided tour. In *De lingua vasconum: Selected writings* (ASJUren gehigarriak, 43) (55.-69. or.). UPV/EHU.
- Sáez, L. & Sánchez López, C. (2013). *Las construcciones comparativas*. Visor.
- Sáez, L. (1992). Comparison and coordination. In J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic theory and Basque syntax* (ASJUren gehigarriak, 27) (387.-416. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Timberlake, A. (1977). Reanalysis and actualization in syntactic change. In C. N. Li (arg.), *Mechanisms of syntactic change* (141.-177. or.). University of Texas Press.
- Vela-Plo, L. (2020a). Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (579.-594. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/fontes50urte.37>
- Vela-Plo, L. (2020b). *Drawing comparisons: A syntactic and semantic approach to Basque, Spanish eta English comparative structures* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/46292>
- Vela-Plo, L. (2021). *Contact induced change in comparatives*. Argitaratzeko aurkeztutako eskuizkribua.
- Vicente, L. (2002). *Prenominal relatives in Basque eta antisymmetry* [Argitaratu gabeko maisutza tesia]. Deustuko Unibertsitatea.

Zabalduz

Jardunaldi, kongresu, sinposio, hitzaldi
eta omenaldien argitalpenak

Publicaciones de jornadas, congresos,
simposiums, conferencias y homenajes

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus

1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea